

**ACTAS  
AKTAK**





Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren V. Biltzarra  
*Ziurgabetasunaren aurrean, hezkuntza askatzailea*

Vitoria-Gasteiz • 2021eko azaroaren 18, 19 eta 20an



[www.congresoed.org/eu](http://www.congresoed.org/eu)





bell hooksen oroimenez.

Finantzaileak:



Laguntzaileak:



Argitalpen hau Eusko Jaurlaritzako Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziaren (AECID) eta Vitoria-Gasteizko Udalaren laguntzarekin egin da. Argitalpen honetako edukiaren erantzukizuna Hegoarena baizik ez da, eta ez du nahitaz lehen aipatutako erakundeen iritzia adierazten.

Biltzaileak: Amaia del Rio eta Iris Murillo.

Batzorde antolatzailea: Alejandra Boni, Begoña Zabala, Clara Ruiz, Gloria Sosa, Inmaculada Cabello, Iraide Fernández, Jone Martínez-Palacios, Jordi Menéndez, José A. Antón, José Luis Villena, Joseba Sainz de Murieta eta Hegoako Hezkuntza Taldea: Juan José Celorio, Gema Celorio, Amaia del Río eta Iris Murillo.

Edizioa:



Diseinua eta maketazioa: Marra S.L.

ISBN: 978-84-16257-85-0

Lege-gordailua: BI 01014-2022

2021eko abendua.



Dokumentu hau Creative Commons lizentziapean dago. Baimenduta dago obra hau libreki kopiatzea, banatzea eta jendaurrean hedatzea, betiere, baldin eta haren egiletza aitortzen bada eta xede komertzialetarako erabiltzen ez bada. Ez dago obra hau aldatzerik, eraldatzerik edo hartatik eratorritako beste obra bat sortzerik. Lizentzia osoa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0>

# Aurkibidea

GEH V. Biltzarra. Lortu dugu!	5
Laguntzaileak	8
Nola egin genuen?	10
Egitaraua	13
Ildo Estrategikoen aurkezpena	15
Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren etorkizun teoriko/praktiko baterantz. <a href="#">Juan José Celorio Díaz</a>	17
Hitz egindakoak	27
Bizitza berreskuratzea. Utopiak (berr)eraikitzeke garrantzitsuak diren ezagutzak. <a href="#">Maria Paula Meneses</a>	29
Gizarte-mugimendu emantzipatzaileak, hezkuntza kritikoa eta hezkuntza-politika praxia: teoria eta ikaskuntzak historiako borroka-testuinguruetan. <a href="#">Lia Pinheiro Barbosa</a>	45
Imajina ditzakegu etorkizuneko Hezkuntza Gizarte Zentroak. <a href="#">Marta Pascual Rodríguez</a>	59
Ziurgabetasunaren aurrean, hezkuntza askatzaileko proposamenak. Gogoeta gurutzatuak eta feminismo deskolonialek mugituz. <a href="#">Rosalba Icaza Garza</a>	65
Sorkuntza Kolektiboko Taldeen Kontalaritzak	83
1. Ildo Estrategikoa. Gorputzak eta lurraldeak	85
2. Ildo Estrategikoa. Komunitate-eraikuntza	117
3. Ildo Estrategikoa. Aurrea hartzen duen ikaskuntza	137
4. Ildo Estrategikoa. Sareak, aliantzak eta <i>bestelako</i> komunikazioak	151
Eta orain, zer?	167
Eta orain, zer? <a href="#">Amaia del Río Martínez</a> eta <a href="#">Iris Murillo Hidalgo</a>	





## Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren V. Biltzarra. Lortu dugu!

Pandemia-egoera bete-betean, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren V. Biltzarra antolatzea berebiziko erronka izan zen, eta, gainera, azken unera arte ere kezka beterik eduki gintuen. Zailtasunak zailtasun, aurrez aurreko biltzarraren alde egitea erabaki genuen, azken biltzarra<sup>1</sup> egin zenetik 7 urte pasa baitziren, eta elkartzeko beharra inoiz baino gehiago nabaritu baikenuen une hartan, bereziki elkarren artean hitz egin eta gure hezkuntza-jarduerari buruz berriz hausnartzeko.

Egungo testuingurua inoiz ez bezalakoa da. COVID-19ak eragindako pandemia historiako une garrantzitsuenetako bat bilakatu da: gure bizitzak goitik behera zeharkatu eta aztoratu ditu, eta, ondorioz, are nabarmenago utzi du zenbateraino bilakatzen gaituen zaugarri gure sistema kapitalista, estraktibista, biozida, patriarkal eta kolonial honek.

Lehen ere hainbat krisiri buruz aritzen ginen arren (ekologikoa, zaintza-arlokoa, politikoa eta kulturala, besteak beste), gaur egun egoera larriagotu egin da osasun-krisiaren eraginez, eta hori ondorio larriak eragiten ari da, osasungintza bezalako zerbitzu publikoak ahuldu eta merkantilizatu egin direlako.

Pandemiaren unerik kritikoenetan, gure lurraldean, inoiz ez bezalako mobilizazio sozial eta solidarioak ikusi izan ditugu, eta, haiei esker, agerian geratu da gizarte-antolaketaren indarra ezinbestekoa dela estatuaren beraren logika merkantilistek bete ezin dituzten oinarrizko beharrei erantzuteko; batik bat, zaintzari dagozkien beharrei. Esan beharra dago, halaber, gizarte-antolaketa hura apurka-apurka hozten joan zela “normaltasun berriaren” kolpez.

Testuinguru ziurgabe hartan, V. Biltzarrerako “ziurgabetasunaren aurrean, hezkuntza askatzailea” leloa aukeratu genuen. Esaldi horrek gure egungo sentimenari erantzuten dio, baita “aurea hartzearen” beharri ere; hain zuzen ere, “aurea hartze” hori, jakina den bezala, egungo eta etorkizuneko krisialdien ziurgabetasunei aurre egiteko funtsezko ezaugarri gisa ezarri zen duela zenbait urte. Aurea hartzen duen ikaskuntza<sup>2</sup> helburua da, egin-eginean ere, aurea hartzeko beharra pedagogiaren eremura ekartzea, gure egungo jardunari buruz hausnartzean, gizarte-eredu desiragarriak eraikitzeke estrategia gisa baliatzeko. Alegia, aniztasuna aintzat hartuz, justizia sozial eta ekologikoan oinarritutako gizarteak eraikitzen lagunduko diguten gizarte-ereduak, ingurunearekin orekan bizitzea ahalbidetzen dutenak, hain justu ere.

---

1 Garapenerako Hezkuntzaren IV. Biltzarra: Hezkuntza aldatzea mundua aldatzeko... Hezkuntza-ekintza emantzipatzaile baten alde! izeneko IV. Biltzarrari buruzko informazio gehiago, esteka honetan eskuragarri: [www.congresoed.org/eu/dokumentazioa/iv-biltzarra](http://www.congresoed.org/eu/dokumentazioa/iv-biltzarra).

2 Biltzarreko ildo estrategikoetako bat, hain zuzen ere, aurea hartzen duen ikaskuntza izan zen (IE3).

Lurraren suntsipena ezerk ezin eragotz dezakeela esanez edo konponbideren bat “aurrerapen zientifikoek” baino ezin dezaketela aurkitu argudiatuz, sistema hegemonikoak ikuspegi ezgaitzaile eta etorkizun-suntsitzaileak inposatu nahi dizkigu. Eta ikuspegi horien aurrean, taldean zer antolatu nahi dugun aurreratzea funtsezko estrategia izan daiteke, zaharkitua dagoen sistema bati aurre egiteko. Hala ere, lan kolektibo horretan aurrera egiteko, ezinbestekoa da justizia kognitiboa eta *jakintzen ekologia*<sup>3</sup> oinarri hartzea.

Biltzarrean egindako hausnarketetan mintzalagun izan genituen hizlariek<sup>4</sup> adierazi bezala, mundua aldatzeko beharrezkoa da hura ikusteko eta interpretatzeko eta, era berean, hartan eragiteko beste modu batzuk aintzat hartzea. Horretarako, ezinbestekoa da onartzea desberdintasun handiak daudela ezagutzaren ekoizpenari eta hedapenari dagokienez, desberdintasun horrek jakintzen hierarkia dakarrela (non eta ezagutza onargarriak –zientifikoak, modernoak– ezagutza ez-onargarriei –tradizionalak, antzinakoak, etab.– nagusitzen baitzaizkie) eta, gainera, hierarkia hori oso barneratuta eta berezko dugula. Egoera horren aurrean, jakintzen ekologiak planeta honetan dauden hainbat mundu-ikuskeren eta haien jakintzen arteko elkarriketa horizontala bideratzeko abiapuntua proposatu nahi du, etorkizun utopiko desiragarriak erdiesteko bideak elkarrekin trazatze aldera.

Gai horien guztien eta beste hainbat konturen inguruan hitz egin eta eztabaidatu genuen Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren V. Biltzarrean, zeina, azkenean, COVID-19aren aurkako prebentziorako hainbat neurri<sup>5</sup> ezarrita, 2021eko azaroaren 18, 19 eta 20an egin baikenuen, Vitoria-Gasteizko Europa Biltzar Jauregian.

Hasierako itxaropenak oso ezkorrek baziren ere, ekitaldiaren edukiera osatzea lortu genuen: 360 lagunek izena eman genuen eta, azkenean, 276k presentzialki parte hartu genuen<sup>6</sup>. Aurtengo biltzarrera inoiz baino jende gazte gehiago gerturatu zen, eta, gainera, askorentzat lehen aldian zen hezkuntza kritikoari buruzko biltzar batean. Halaber, aipatu beharra dago profil, ibilbide eta interes desberdinetako pertsona ugari elkartzea lortu genuela. Biltzarrera, besteak beste, oinarrizko hezkuntzan eta unibertsitatean diharduten irakasleak etorri ziren, baita unibertsitateko ikasleak eta hainbat ekintzaile ere, hala nola gizarte-mugimenduetako, gobernu kanpoko erakundeetako, kolektiboetako, elkarteetako, sindikatu etako eta erakundeetako ekintzaileak. Gainera, pertsona askok norberaren izenean ere parte hartu zuen.

---

3 Boaventura de Sousa garatutako kontzeptua, esteka honetan eskuragarri: [www.boaventuradesousasantos.pt/media/Descolonizar%20el%20saber\\_final%20-%20C%C3%B3pia.pdf](http://www.boaventuradesousasantos.pt/media/Descolonizar%20el%20saber_final%20-%20C%C3%B3pia.pdf).

4 Sakondu nahi izanez gero, jo argitalpen honetako “Hitz egindakoak” atalera.

5 COVID-19aren aurkako prebentziorako osasun-protokoloa, esteka honetan eskuragarri: [www.congresoed.org/wp-content/uploads/2021/09/Protocolo-sanitario\\_BEHIN-BETIKOA.pdf](http://www.congresoed.org/wp-content/uploads/2021/09/Protocolo-sanitario_BEHIN-BETIKOA.pdf).

6 Biltzarreko bideoek 800 ikustaldi baino gehiago dituzte liburu hau argitaratu den egunean bertan.



Oro har, esan daiteke V. Biltzarra arlo askotako eta, batik bat, hezkuntzaren eta kulturaren arloetako pentsamoldeak eta jardunbideak giltzatzeko lekua izan zela, eta, hain zuzen ere, arlo horiek guretzat ikaskuntzarako esparru nagusiak dira. Gaur egun hainbeste pertsona elkartzek agerian uzten du oso gogotsu jarraitzen dugula sozializazio kritikoaren prozesuak elkarrekin (bir)pentsatzeko, motibazio eta lurralde desberdinetatik antolatuz eta munduan izateko-egoteko-ekiteko beste modu batzuk ikasiz. Biltzarrean parte hartu zutenen kopuru eta aniztasun handiak argi erakusten du proposamen kritiko, anitz eta diziplinartekoak gehitzeak, batetik, subjektu kritikoak areagotzen eta indartzen dituela, eta bestetik, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren prozesuak sustatzen dituela.

Aurtengo biltzarrean, honako bi alderdi hauek nabarmendu nahi izan genituen: batetik, gizarte-mugimendu kontrahegemonikoak hezkuntzan uzten ari diren lorratza, eta bestetik, *bestelako* hezkuntza eraikitzeke planteamendu deskolonizatzaileen garrantzia. Gonbidatu genituen hizlariak gai horiek sakonago jorratzen lagundu ziguten, eta, hala, hausnarketa kritikorako, eztabaidarako eta are gehiago sakontzeko gogoak piztu zuten gudan.

Akten liburu hau oroimen-lan bat da, eta biltzarrean adierazitako ideiak, iritziak eta proposamenak jasotzen ditu. Hurrengo orrialdeetan, abentura hartan lagun izan genituen pertsonen, erakundeen eta kolektiboen adierazitako esker ona irakurri ahal izango duzu. Jarraian, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren V. Biltzarraren testuinguruan garatutako proiektuaren deskribapen labur bat egingo dugu, eta, testuingurua zehaztu ondoren, biltzarreko parte-hartzaileei protagonismoa emateko zer metodologia baliatu genituen azalduko dugu. “Hitz egindakoak” atalean, Maria Paula Meneses, Lia Pinheiro, Marta Pascual eta Rosalba Icazen hitzaldiak jasoko ditugu, eta, ondoren, sorkuntza kolektiboko taldeen kontalaritzak aurkeztuko ditugu. Kontalaritza horietan, Ildo Estrategikoen inguruko lanari buruz talde bakoitzak egindako ekarpen nagusiak jasotzen dira. Azkenik, argitalpen honi amaiera emateko, “Eta orain, zer?” galderari erantzungo diogu.

Ekitaldiari buruzko informazio osoa eta biltzarraren eraikuntza-prozesuan zehar garatutako material guztiak [www.congresoed.org/eu/](http://www.congresoed.org/eu/) webgunean argitaratu dira. Horretaz gain, eskuragarri daude, besteak beste, osoko bilerako bideo-grabazioak eta V. Biltzarraren esparruan argitaratutako komunikazioak.

## Laguntzaileak

Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren V. Biltzarra, aurreko urteetan bezala, taldean egindako lanaren eta ahaleginaren emaitza izan da. Arabako hiriburuan egindako ekitaldiaren antolaketa eta, era berean, ekitaldiari zentzua ematen dion alde zuzenaren eta ondorengo prozesu osoa ere, jarraian aipatuko ditugun pertsonen laguntzari eta elkarlanari esker egin dira.

Biltzarraren funtsezko euskarrietako bat Batzorde Antolatzailea da (aurrerantzean, BA). Esparru akademikotik zein sozialetik etorritako eta ibilbide anitz bezain sendoak dituzten hainbat pertsonak osatzen dute BA: Alejandra Boni, Begoña Zabala, Clara Ruiz, Gloria Sosa, Inmaculada Cabello, Iraide Fernández, Jone Martínez-Palacios, Jordi Menéndez, A. Antón, José Luis Villena, Joseba Sainz de Murieta eta HEGOAKo Hezkuntza Taldea (Juan José Celorio, Gema Celorio, Amaia del Río eta Iris Murillo).

2021ean zehar, BAK hainbat bilera egin zituen, V. Biltzarra egituratzeko; besteak beste, helburuak xedatu zituen, baita metodologia ere, Ildo Estrategikoak eta ikuspuntuak zehaztu zituen, eta hizlariak eta dinamizatzaileak proposatu zituen.

HEGOA institutuko lan-taldearen laguntza ezinbestekoa izan zen ekitaldia egiteko eta, laguntzen jardun zutenen zerrenda bat egingo ez badugu ere, aipamen hau egin nahi diogu taldeari, haren laguntza preziatua eskertzeko.

Bosgarren biltzar honetan, HEGOA institutuko masterretako ikasleek osatutako boluntarioen talde bat izan genuen gurekin. Taldea honako hauek osatu zuten: Alba Pastor, Andrea Barrones, Andrea Francés, Claudia Riaño, Cristina Castro, Cristina Mota, Dariana Valencia, Diego Ortiz, María Aneiros eta Patricia Franco. Taldearen koordinatzailea gure lankide Tasia Domínguez maitea izan zen.

Gurekin jardun zuten erakundeen artean, honako hauek nabarmendu nahi ditugu: Euskadiko GGKEen Koordinakundea, Lafede.cat, Coordinadora Galega de ONG para o Desenvolvimento, Coordinadora Andaluza de ONGD, Coordinadora de ONG para el Desarrollo - España eta Red de ONGD de Madrid. Halaber, funtsezkoa izan zen zenbait erakunderen partetik proiektuak jasotako finantzaketa: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentzia (AECID) eta Vitoria-Gasteizko Udala.

Prestatze-prozesuetan parte hartu zuten pertsonak, kolektiboak eta erakundeak inspirazio-iturri nabarmenak izan ziren, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzari buruz hausnartzeko ikuspegiak eta esparruak zehaztean. Haiek emandako denbora eta laguntza preziatua ezinbestekoak izan ziren topaketa hezuramitzeko prozesuan.

Hizlariak eta dinamizatzailleak funtsezko euskarri izan ziren V. Biltzarra garatu zen hiru egunetan zehar. Aipamen berezia egin nahi diegu haiei guztiei, erakutsitako konpromisoagatik.

Eskerrak eman nahi dizkiegu, orobat, Europa Biltzar Jauregiari eta, bereziki, Eurne Reyri, haren laguntzari esker, ekitaldia oso eroso eta eraginkor egin izan baikenuen. Eskerrak baita Curruscuko kideei, Lur Visual-ekoei, Marrakoei (bihotz-bihotzez, Anari), Komunika Digital-ekoei (bereziki, Kikeri, pazientziagatik), Ania Sáenz de Buruagari ilustrazio ederrengatik, Catering Peñascal-eko talde osoari eta Arabako Gorrakeko interpreteei.

Ekitaldiko programako jardueretako bat Asociación 3 de Marzo / Martxoak 3 Elkarteak eskainitako bisitaldia izan zen. Justiziaren eta memoria historikoaren alde egiten duten lan pedagogikoa eskertu nahi diegu. Uste baino interes handiagoa piztu eta parte-hartze handiagoa izan zuen bisitaldiak, eta bihotzez eskertu nahi diogu Ainhoa Bilbaori, gidari-lanak egiteagatik.

Ezin ditugu ahaztu komunikazioak eginez lagundu digutenak. Ezta ekitaldia sare sozialetan zabaltzen lagundu ziguten pertsonak eta kolektiboak ere. Eta gure berri eman duten komunikabideak ere ez ditugu ahaztu nahi (haiek idatzitako testuak argitalpen honekin batera kaleratutako txostenean jaso ditugu).

Vitoria-Gasteizko Hiri Margotua mural-ibilbidea proiektuko margolari, muralgile eta zuzendari den Veronica Werckmeister bidelagun izan genuen, biltzarraren zentzu eta mamia sormen artistiko bilakatzeko asmoan. Zenbait oztopo bide, ezin izan genuen buruan geneukan murala egin eta, adierazpen artistikoek halako espazioetan eta, oro har, gure jardunean duten presentzia areagotzeko lanean jarraitu behar dugula onartuz, eskerrak eman nahi dizkiogu Veronicari, pazientzia amaigabea izateagatik eta azken unera arte eman zigun laguntzagatik.

Jakin badakigu agian pertsona, kolektibo eta erakunde asko aipatu ere ez ditugula egin. Horrengatik, atal hau amaitzeko, oro har, eskerrak eman nahi dizkizuegu V. Biltzarra osatzeko prozesuan parte hartu eta mundua aldatzeko hezkuntza emantzipatzailearen ahalmenean sinesten duzuen guztioi.

Elkarrekin eraikitzen jarraituko dugu.

Eskerrik asko!

## Nola egin genuen?

Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren V. Biltzarra duela urtebete baino gehiago ekin genion ibilbideko mugarrietako bat izan da. Ibilbide hartan, lau Lurralde Topaketa (aurrerantzean, LT) egin genituen, eta, topaketa haien bitartez, eraikuntza-prozesu kolektibo bat jarri genuen martxan. Prozesu hari esker, aurtengo ekitaldia egituratu genuen, oinarritzat honako bi hauek hartuta: batetik, elkartasunari eta garapenerako lankidetzari lotutako eragileen ezagutzak eta esperientziak, eta bestetik, hezkuntzan lorratzat uzten duten eta hezkuntza eraldatzailearen mugimendurako oso garrantzitsuak diren kolektiboak eta gizarte-mugimenduak.

Lehenbiziko topaketa aurrez aurre egin ahal izan genuen, Bilbon. Topaketa hartan, mugimendu feministen eta lankidetzaren mugimendu eraldatzaileen esperientziak jaso genituen. Geroago, pandemiaren egoera zela medio, aurrez aurreko topaketak eremu birtualera eraman behar izan genituen (lurraldeetako ekarpenei uko egin gabe). Hala, Galizian, ikuspegi ekosoziala eta landa-eremuak bizi-lurralde gisa jorratu genituen. Madrilen, auzo-elkarteei eta autogestio-esperientziei buruz mintzatu ginen, bizimodu bizigarriak eraikitzeke proposamen gisa. Azkenik, Melillan, Hegoaldeko Muga eta migratzaileen eta errefuxiatuen eskubideak izan genituen mintzagai<sup>7</sup>.

Topaketa bakoitzean jorrotutako gaiak estrategikoki adostu ziren, kontuan hartuta bai lurraldeak, bai prozesuarekin bat egin zuten gizarte-erakundeen eta -kolektiboen potentzial kritikoa ere. Lanerako eta artikulaziorako gune horien bitartez, haien esperientziatik ikasi nahi izan genuen, esperientzia haiek hezkuntza kritikoa prozesuekin uztartzeko eta, halaber, V. Biltzarra zehazte aldera, elementu estrategikoetan aurrera egiteko. Zentzu horretan, ekitaldia ez zen borroka zehatz horien (edo beste batzuen) inguruan egituratu; baizik eta borroka horiek eta haien ikuspegiak hartu ziren oinarri, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren prozesuetarako emantzipazio-aukerak ahalik eta sendoen eta kritikoen planteatzeko.

Lurralde Topaketetatik ateratako planteamenduetan oinarrituta, lau Ildo Estrategiko zehaztu genituen, ekitaldian elkarriketa kolektiboa eta parte-hartzea bideratzeko: 1. Gorputzak eta lurraldeak; 2. Komunitate-eraikuntza; 3. Aurrea hartzen duen ikaskuntza; eta 4. Sareak, aliantzak eta *bestelako* komunikazioak (begiratu deskribapenak, Ildo Estrategikoen Aurkezpena atalean).

Ekitaldiari hasiera emateko, biltzarra egituratu zuen (eta aurrerago aipatu dugun) prozesuaren aurkezpena egin genuen. Ondoren, hitzaldi bat izan genuen, zibilizazio-krisiari eta pandemiaren ondorioei aurre egiteko proposamen gisa,

---

7 Topaketei buruzko informazio gehiago, esteka honetan eskuragarri: [www.congresoed.org/eu/vbiltzarra/bideak](http://www.congresoed.org/eu/vbiltzarra/bideak).

Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren alderdi sendoak ikuspegi feminista eta deskolonizatzailetik zein ziren argituz.

Ostiralean, hizketaldi bat izan genuen, eta haren helburua zen gizarte-mugimenduek (aurrerantzean, GM) Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren prozesuei egiten dizkieten ekarpenen garrantzia nabarmentzea. GMen praxi politikoak jorratzea proposatu genuen, batetik, eta bestetik, baita GMen aliantza-dinamikak ere; hain justu ere, egungo erronken aurrean, kolektiboki pentsatzeko eta ekiteko bidea ematen duten dinamikak. Haien ekintzek hezkuntza-lorraz bat uzten dute proposamen kontrahegemonikoen garapenarekin konprometitua, ahaldunduak eta aktiboak diren banakoak eta gizarteak sustatzean.

Hizketaldiaren ostean, V. Biltzarreko Ildo Estrategikoak (aurrerantzean, IE) aurkeztu ziren. Eta, ondoren, taldean lan egiteko espazioak ireki genituen (alegia, Sorkuntza Kolektiboko Taldeak, aurrerantzean, SKT). Talde bakoitzean dinamizatzaile bat eta bost pertsonak osatutako lan-talde bat egon zen, hainbat zeregin egiten laguntzeko, euskarara itzultzeko, hizketaldia idazteko eta generoari behatzeko. Beheko taula honetan, taldeak eta talde bakoitzean laguntzen jardun zutenak jaso ditugu:

Sorkuntza Kolektiboko Taldea	Aretoa	Dinamizatzaileak	Hizketaldia	Boluntarioak	Generoaren behaketa	Euskarazko itzulpena
1.1 IE	La Hechicera	Rosario González	Amaia del Río	Andrea Francés	Rakel Oion	Rakel Oion
1.2 IE	Sorginetxe	Estrella Ramil	Inma Cabello	Cristina Castro	Sheida Besozzi Iratxe Amiano	Sheida Besozzi
2.1 IE	Florida	Beatriz Plaza Mikel Arévalo Lucía Ixchú Carlos Ernesto Cano	Izaskun Rodríguez	Alba Pastor	Yuliya Serkezyuk	Izaskun Rodríguez
2.2 IE	Prado	Marisa Pérez	Gema Celorio	Cristina Mota	Irantzu Mendia	Irantzu Mendia Gema Celorio
3.1 IE	Gasteiz	Marta Malo	Joseba Sainz de Murieta Gloria Sosa	Patricia Franco	Gloria Guzmán	Pilar Oronoz
3.2 IE	Zabalgana	Jose Luis Fernández	Begoña Zabala Juan José Celorio	Diego Ortiz	Zuriñe Gaintza	Unai Villalva
4.1 IE	Armentia	Mariano Flores	José Luis Villena	Andrea Barrones	Izaskun Bengoechea	Izaskun Bengoechea
4.2 IE	Avenida	Lidia Ruiz María Viadero	José A. Antón Clara Ruiz	Claudia Riaño	Andrés Herrera	María Viadero

SKTak hausnarketa parte-hartzailerako V. Biltzarreko gune nagusiak izan ziren. Guztira, zortzi talde osatu ziren, IE bakoitzeko bi, eta ildo bakoitzari buruz eta

GEHren prozesuetarako zeinen garrantzitsuak diren hausnartu eta eztabaidatu zen haietan.

SKTetan, 35-40 kide inguruk parte hartu zuten, denak esparru eta ibilbide desberdinetakoak (irakasleak, GKEak, gizarte-mugimenduak, sindikatuak, elkarteak, etab.). Taldeek sei orduz jardun zuten aldi berean lanean, hiru denbora-tartetan banatuta, eta lan hori zuzen-zuzenean zegoen lotuta ekitaldiari zentzua ematen zion prozesu osoarekin. Hala, SKTek beste guneetan sortutako ekarpenak jaso, eta biltzar osoari zentzua eta harmonia eman zioten.

Dinamizatzaileak taldea eztabaidan zehar bideratu zuen, eta saiatu zen eztabaida hark bilakaera bat izan zezan, IE-en planteamenduko oinarrizko gaietatik abiatuta, ekarpen konplexu eta iradokitzaileak egin zitezten. Asmoa zen dinamizatzaileak hausnarketa-prozesua bideratzea, planteamenduak lotuz eta, emate-proposamena garatu bitartean, aurrera eginez. Nabarmendu beharra dago talde bakoitzak dinamizatzaile bat (edo dinamizatzaile-talde bat), planteamendu bat, metodologia bat eta denbora-antolaketa bat izan zituela. Edonola ere, helburua berbera zen beti: eztabaida argudiatu eta kritikoa bideratzea, eta, aztertuz, galdetuz eta proposamenak eginez, errespetuz eta konfiantzaz eztabaidatzea.

Sorkuntza Kolektiboko Taldeen laneko azken unean, erloju kontrako ariketa gisa, talde bakoitzeko hizketaldiaren arduradunek ekarpenak labur-labur adierazi, eta ekarpen horiek guztiak bateratu zituzten, larunbat arratsaldeko osoko bilkuran aurkezteko.

Ondoren, SKTetako hausnarketak elkarri esateko tarte bat izan genuen. Hausnarketa gurutzatu hura estrategia *sentipentsatu* eta begirada deskolonizatzailetik egin zen, helburua Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren hainbat erronka adieraztea baitzen, gure hezkuntza-jarduera zentzu eraldatzaile eta kritikoa izatera eramateko.

Aldi berean, bi monografiko egin genituen. Haietako batean, Espainiako Estatuko Hezkuntza Legeari buruz eztabaidatu genuen, María Ángeles Llorenteren eskutik eta, dinamizatzaile-lanetan, Pedagogiaren Berrikuntzarako Mugimenduko aktibista den José A. Antónek. Bigarren monografikoan, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren proposamena jorratu genuen, Euskadiko eta Espainiako Estatuko lankidetzarako lege-proiektuen esparruan. Pablo J. M. Osés eta Maite Fernández-Villa izan ziren hizlariak, eta EHUko Juan Carlos Pérez de Mendiguren irakaslea izan zen moderatzaile.

Ekitaldiaren amaieran, omenaldi berezi bat egin genion Juan José Celorio Díaz irakasle eta borrokalari nekaezinaren ibilbideari, eta Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren V. Biltzarrean parte hartu zuten guztiei esker ona adierazi genien.

Amaia del Río eta Iris Murillo  
Abendua, 2021



## Egitaraua

Osteguna 18  
Ostirala 19  
Larunbata 20

Osteguna 18  
Ostirala 19  
Larunbata 20

Osteguna 18  
Ostirala 19  
Larunbata 20

15:00 **Akreditazio eta materialen entrega.** Lekua: Iparraldeko halla.

16:00 **Ongi etorria.** Lekua: Francisco de Vitoria Auditoriuma.

16:30 **Erakunde-mahaia.** Lekua: Francisco de Vitoria Auditoriuma.

17:00 **Aurkezpen kolektiboa.** Lekua: Francisco de Vitoria Auditoriuma.

17:30 **V. Biltzararen eraikuntza kolektiboaren prozesuari buruzko sarrera.**  
Lekua: Francisco de Vitoria Auditoriuma.

18:00 **Etenaldia.** Lekua: Estibaliz aretoa.

18:30 **Esparru-txostena.** Lekua: Francisco de Vitoria Auditoriuma.  
Utopiak ekintzan erakitzen: Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren erronkak  
**María Paula Meneses**en hitzaldia, **Laura Nuño de la Rosaren** dinamizazioarekin.

09:30 **Hizketaldia.** Lugar: Lekua: María de Maeztu entzunaretoa.  
Hezkuntza kritikoa: teoria eta praktika mugimendu sozial emantzipatzaileetatik  
**Lia Pinheiro Barbosa** eta **Marta Pascual Rodríguez.**

11:00 **Ildo Estrategikoen aurkezpena.** Lekua: María de Maeztu entzunaretoa.

11:30 **Etenaldia.** Lekua: Estibaliz aretoa.

12:00 **Sorkuntza kolektiboko taldeak. Lehen zatia.** 

SKT	Dinamizatzaileak	Aretoa
LE1.1	Rosario González Arias	La Hechicera
LE1.2	Estrella Ramil Paz	Sorginetxe
LE2.1	Beatriz Plaza Escriva	Florida
LE2.2	Marisa Pérez Colina	Prado
LE3.1	Marta Malo de Molina	Gasteiz
LE3.2	Jose Luis Fdz. Casadevante, Kois	Zabalgana
LE4.1	Edualter	Armentia
LE4.2	María Viadero Acha eta Lidia Ruiz Gómez	Avenida

\* Talde-lana areto berean egingo da kongresu osoan zehar.

14:00 **Bazkaria.** Lekua: Estibaliz aretoa.

16:00 **Sorkuntza kolektiboko taldeak. Bigarren zatia.**  

18:00 **Vitoria-Gasteizetik ibilaldi historiko eta kulturala.** Martxoak 3 Elkartarekin Gasteizko.

10:00 **Aldi bereko monografikoak.** Lekua: zehazteke dago edukieraren arabera.  
● LHezkuntza Legea eztabaidagai. **María Ángeles Lorente.**  
● Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren ikuspegia lankidetzarako lege-proiektuetan (Euskadi eta Espainiako Estatuan).  
**Maite Fernández-Villa** eta **Pablo José Martínez Osés.**

11:30 **Etenaldia.** Lekua: Estibaliz aretoa.

16:00 **Sorkuntza kolektiboko taldeak. Hirugarren zatia.**   

14:00 **Bazkaria.** Lekua: Estibaliz aretoa.

16:00 **Lantaldeetan bildutako funtsezko proposamen eta ideien aurkezpena.**  
Lekua: María de Maeztu entzunaretoa.

17:00 **Ziurgabetasun askatzailean hezteko proposamenak.** Lekua: María de Maeztu entzunaretoa.  
Hausnarketa gurutzatuak eta mugimenduan. **Rosalba Icaza Garza,**  
**Margaret Bullenen** dinamizazioarekin.

19:00 **Mural sorkuntza.** Artibismo pedagogiko.





**Ildo Estrategikoen aurkezpena**



## Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren etorkizun teoriko/praktiko baterantz

Juan José Celorio<sup>1</sup>

### Sarrera gisa

Idatzi hau aurtengo Biltzarreko bigarren eguneko (azaroak 19, ostirala) osoko bilkuran<sup>2</sup>, Lia Pinheiroren eta Marta Pascualen arteko hizketaldi pedagogiko eta interesgarriaren ondoren, neronek aurkeztu nuen Ildo Estrategikoei buruzko sarreraren birmoldaketa da.

Sarrera haren helburua zen Sorkuntza Kolektiboko Taldeak (aurrerantzean, SKT) aurkeztea, lau ildoak –hausnarketa, lana, eztabaida eta proposamena– zergatik aukeratu ziren azalduz.


V. Biltzarra abian zen. Gorputzez lurralde *gasteiztarrean*, euskalduneari geunden; alegia, azken 30 urteotan biltzarrak egin izan ditugun lekuan bertan. Aurreko urteetako biltzarrak “Garapenerako Hezkuntza” kontzeptuaren esparruan egin izan baditugu ere, azken biltzar honetan, aurreko biltzarretako alderdi positiboak jaso, eta alderdi horiek are zabalago berrinterpretatzeko apustua egin dugu. Hala, bada, aurtengo biltzarrerako Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren proposamena hartu dugu oinarritzat. Zalantzarik gabe, gure ikuspegiak zabaltzearen eta erronka berrietara hobeto moldatzearen aldeko apustua.

Ikuspegi “berri” horrek pertsona gehiago interpelatzen duela uste dugu. Nabarmen geratu zen hori ekitaldiaren hasieran aurkeztutako “izakien eta ezagutzen mapan”; izan ere, mapa horretan gure lurralde fisikoa kokatzeaz gain, gugan eragina duten eta gu osatzen gaituzten beste lurraldeak ere kokatzeko aukera izan genuen.

---

1 Juan José Celoriok (Kantabria, 1951) Deustuko Unibertsitatean Historia Modernoko eta Garaikideko ikasketak amaitzea lortu zuen (1976), “jarduera asanblearioak” izateagatik espedientea egin bazioten ere. Ikasketak egin bitartean, Durangaldeko lantegietan egin zuen lan, eta garai hartan sortu berri zen Ezkerreko Langile Komisioak (CECO) batzordean parte hartu zuen. 1977an, ibilbide akademikoari ekin zion historia-irakasle gisa, Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskolan. Ondoren, Gizarte Zientzien Didaktikako irakasle izan zen ia 40 urtez Euskal Herriko Unibertsitatean. Unibertsitatean zegoela, “Movimiento de PNNs” (Irakasle Ez Numerarioen Mugimendua) eta “Oposición Crítica” mugimenduetan parte hartu zuen. 1989az geroztik, HEGOAKo Hezkuntza Taldeko kidea da, eta hezkuntza kritikoaren ikuspegiak birbideratu dituzten planteamendu teorikoetan ekarpen nabarmenak egin ditu (besteak beste, Garapenerako Hezkuntza eta Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza).

2 Osoko bilkurako bideoa, webgune honetan ikusgai:  
[www.youtube.com/watch?v=NXojvcikkU0&feature=youtu.be](http://www.youtube.com/watch?v=NXojvcikkU0&feature=youtu.be).



Iturria: Joseba Sainz de Murietak eta Inma Cabellok Biltzarraren hasiera-ekitaldian aurkeztutako diagrama.

Aurtengo Biltzarra –eta aurrekoak ere– elkarrekin egindako ahalegin handiaren eta antolaketaren emaitza eta ondorio dira. Bosgarren biltzar hau egituratzeko, ibilbide luzea egin dugu (urtebete baino gehiago luzatu da), eta, era berean, metodologia praktikoak, parte-hartzaileak, sortzaileak eta, batez ere, aurrez aurrekoak baliatzearen alde egin dugu. Horrek argi erakusten du taldean sortzeko konpromiso tinkoa izaten jarraitzen dugula.

Hain zuzen ere, aldez aurreko prozesu oparoa –irekitasunari, aniztasunari eta lankidetzari dagokionez– posible izan zen pertsona, erakunde eta kolektibo ugariaren ahaleginari, buru-argitasun kritikoari eta proposamenei esker. Prozesu horrek, sare eta aliantzen bidez Estatuaren luze-zabalean *glokalki*<sup>3</sup> aktibatu zenak, ekitaldian zehar hezkuntza-ikuspegiari eta -estrategiei buruzko eztabaidan parte hartzeko konpromisoa bermatzen lagundu zuen. Biltzarrerako egindako lehenengo deialditik, guztiok bat egin genuen asmo jakin batekin; alegia, ezagutzak, asmoak, emozioak eta estrategia etikoak eta aurrea hartzeko politikak (ziurgabetasun askatzaileetan trabatu eta nahasitakoak) indartzeko hezkuntza sustatzeko asmoarekin.

Ildo Estrategikoen (aurrerantzean, IE) proposatutako ikuspegiari oinarritutako hausnarketa egiten hasteko, batetik, V. Biltzarraren eraikitze-prozesu kolektiboari buruzko sarrera egin genuen (zeinetan ildoen nondik norakoak aurreratzen baitziren), eta bestetik, webgunean<sup>11</sup> eta SKT-tan ere aurkeztu genituen IEak

3 Global eta lokal hitzekin osatuta akronimoa, elkarrekiko lotura definitzeko.

4 Biltzarreko webgunean [www.congresoed.org/eu](http://www.congresoed.org/eu), ildoen nondik norakoak azaltzen dira, bai idatziz, bai bideoetan. Eskuragarri hemen: [www.congresoed.org/eu/vbiltzarra/adimena](http://www.congresoed.org/eu/vbiltzarra/adimena).



(dinamizatzaileen laguntzarekin). Beraz, esan dezakegu IE-en aurkezpenaren asmoa are gehiago sakontzea zela; nabarmen uztea zer zentzu eta koherentzia duten IEk biltzarraren ikuspegi orokorrarekin, eta, era berean, lehenago egindako hitzaldietan azaldutako proposamen eta aurrerapenekin.

Erresistentzia- eta eraldaketa-eragileak beste mundu posible baten alde jadanik egiten ari direna bereganatzeko eta jasotzeko beharra –kontzienteki– jarri genuen mahaiaren gainean. Gure asmo nagusia zen argi uztea ez geniola gure bideari *ex nihilo* ekin, baizik eta dagoeneko abian ziren borrokekin eta prozesuekin bat egin genuela. Hain zuzen, prozesu horien inguruan hausnartzeko aukera eman nahi genuen, eta horrekin “bide onetik” doazen aurrerapen-ildo berriak pentsatu eta finkatzea.

Zentzu horretan, ildoen aurkezpenak galdera hauek izan zituen hizpide:

- Zergatik Ildo Estrategiko hauek? Eta zer kezka dituzte abiapuntuan?
- Zer galdera –orokor eta ildo bakoitzeko espezifiko– erantzun ditzakegu taldeko une parte-hartzaile honetan?

Galdera horien erantzunak zein ziren asmatu nahian, biltzarreko lau IE aukeratzeko arrazoiak azaldu zitzaizkigun. Horretarako, abiapuntuan zeuden logikak azaldu, eta ildo bakoitzaren zentzua zein zen deskribatu genuen. Ondoren, ildo bakoitzaren ezaugarriak zehaztu genituen, eta amaitzeko, zeharkako hainbat galdera proposatu genituen, parte-hartzaileei gure hezkuntza-jarduerari buruz (bir)pentsatzeko aukera emanez.

## Zergatik ardatz tematiko horiek?

### 1. Hiru logika abiapuntuan

Biltzarrari bere osotasunean zentzua eman eta, orobat, lau Ildo Estrategikoen edukiak ezagutarazten lagunduko zizkiguten oinarritzko ardatzak zehaztea oso zaila bazen ere, hiru logika handitan ardaztea erabaki genuen, zeinak partekatuak baitziren eta, gainera, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren logiken euskarri bikainak baitziren.

Honako hiru alderdi hauek ezinbestekotzat hartu genituen: ekintza eraldatzailea, etorkizuneko ziurgabetasunen alderdi askatzailea; eta edozein une eta lekutan egin daitezkeen ikaskuntzak sustatzea.

#### 1.1. Hezkuntza, ekintza eraldatzaile gisa

Esan ohi da hezkuntzak ez duela mundua aldatzen, baina bai, ordea, mundua aldatuko luketen pertsonengan ikaskuntzak sustatzen dituela. Edonola ere

–biltzar honetan zehar defendatu izan den moduan–, hezkuntza-ekintzak, anitz bezain askotarikoak, etengabe eraldatzen ditu gizarteak, prozesu soziokulturalen elementu (bir)konfiguratzailerik gisa eragiten duelako.

Horretaz baliatzen dira bai botere hegemonikoak, bai kontrabotereak eta erresistentziak ere. Kontserbadurismoaren eta gizarte-aldaketa eraldatzailearen arteko tentsioan, borroka ugari izaten dira mundu-ikuskeran, ulertzeko modu eta botere-dinamika jakinek ezarritako logikak finkatzeko eta erreproduzitzeko. Eta borroka horiei esker, gizartean gu geu izateko, egoteko eta ekiteko moduak moldatzen dituzten ikaskuntza ugari sortzen dira.

Esan genezake aldaketa etengabea dela beti. Beraz, gure estrategiaren helburua da eragileak ahalduntzea; alegia, proposamenak bereganatzen dituzten eragileak, eta, era berean, –bakoitzak bere eremutik– agenda propioa prestatzen duten eragileak, gizarteak justiziaren, eskubideen eta jasangarritasunaren aldetik aldatzen laguntzeko. Horrenbestez, batetik, eredu menderatzaileak iragartzen dizkiguten orainaldi eta etorkizun distopikoei aurre egiten ikasteko hezkuntzari buruz ari gara, eta bestetik, gaur egungo eta etorkizuneko saiakera alternatiboak eta utopikoak sortzen ikasteko hezkuntzari buruz.

## 1.2. Ziurgabetasun askatzaileetan oinarrituta heztea

Eraldaketa zeregin bat du orain: etorkizunari buruzko “ziurtasun kontserbatzaile eta atzerakoa” duten kulturen jokabideen aurka borrokatzea; jokabide horiek, egin-eginean ere, etorkizunean ez eragiteko aldarria egiten dute, etorkizuna bera ez aldatzeko asmoz.

Diskurtso menderatzailea, modu esplizituan edota inplizituan, etengabe ari da guri erakutsi nahian egungo edota etorkizuneko krisiak faltsuak direla edo hazkunde positiboaren berezko korapiloak direla (eta ez dutela zergatik garrantzitsuak izan behar, garapenak berak eboluzio-dinamiken bidez konponduko dituelako edo ereduak berak konponbide teknikoak eta egokiak bilatuko dituelako). Edozein kasutan, kontu horiek garrantzitsuak ez diren ideia zabaltzen da gizartean. Ez direla egoera kezagarriak. Etorkizuna “mundu zorionsua” izango dela, Huxleyren edo Orwellen beraren ikuspegietara gerturatzen den edozein begirada kritiko gainerik berriz margotuz eta ezkutatuz. Gizarteek “etengabeko aurrerapenaren ziurtasunak” bizi behar dituztela.

Ekintza kontrahegemonikoak ere etorkizunaren irakurketa horiei aurre egiten die; alegia, ziurgabetasun geldiarazleak (etsipenean oinarritutakoak) eta esklabizatzaileak (ezintasunak markatutakoak) ekartzen dituzten irakurketei. Horretarako, ezinbestekoa da hezkuntzaren esparrutik “ezer ez da aldatuko” diotenen aurka borrokatzen ikastea, “mundu zorionsua amestea arriskutsua dela” diotenen aurka, edo “posible denari eutsiko diogu hausturarik eragin gabe edo ausartegiak, zehatzezinak eta ondorioz gizakiaren biziraupenerako arriskutsuak diren saiakerarik egin gabe” diotenen aurka.

### 1.3. Edozein unetan eta edozein lekutan heztea

Etengabe ari gara milaka kanal eta espazioren bitartez ikasten. Hezkuntza gizarte-ekintzaren parte da, eta hainbat eta hainbat ikaskuntza ematen dizkigu, diseinatzen, gauzatzen, ebaluatzen, interpretatzen eta zentzua hartzen duen heinean.

Zentzu horretan, hezkuntza-ekintza ezin da adin jakin batera mugatu (eskola-adinera edota unibertsitate-adinera). Ezta leku edo hezkuntza-eredu/sistema jakin batera ere. Ikasteko beharra dugu denok –bai hezkuntzaren eragileek, bai hezkuntzaren hartzaileek–, elkarrekin sor ditzagun ereduak gizarteak eraikitzeko ezinbestekoak diren ikaskuntzak. Ikaskuntza horiek orainaldi ezberdinetan eraikitzen joan behar dira, etorkizuneko iraganen<sup>5</sup> interpretazioek lagunduta eta amesten eta desiratzen dugun horretan oinarrituta, orain arte onartu ez duguna eta onargarria ez denari aurre eginez.

Logika horietatik abiatuz, eraikitze-prozesu kolektiboaren<sup>6</sup> bidez eta Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren inguruan eztabaidatzeko testuinguru jakin bat proposatzeko asmoz, gure hezkuntza-jarduera (bir)pentsatzeko baliatuko genituen lau Ildo Estrategikoak zehaztu genituen: 1) Gorputzak eta lurraldeak; 2) Komunitate-eraikuntza; 3) Aurrea hartzen duen ikaskuntza; eta 4) Sareak, aliantzak eta *bestelako* komunikazioak. Jarraian, ildo bakoitzaren nondik norakoak laburbilduko ditugu.

## 2. Ildo Estrategikoen zentzua

*Heziketarik gabe, kulturarekin izan dezakegun harremana turistikoa baino ezin da izan, estetikoa baino ezin da izan. Kontsumitzaile hipermodernoak kulturarekin harreman estetikoa izatea besterik ez du nahi. Horren aurrean, bi gauza baino ezin ditugu egin: batetik, eskolan heziketa edo hezkuntza artistikoa ematea, norberaren zibilizazioarekin eta historiarekin lotuta dagoen kultura zer den ulertzen laguntzeko, eta bestetik, bada kulturaren esparrura beste bide batzuetatik iristen ari den baliabide itxaropentsu bat ere: teknologia berriak; hau da, kontsumitzailearengan parte-hartzeko, eragile izateko, norberaren kulturako subjektu aktibo izateko gogoa pizten duten teknologiak. Eta kontsumitzaile horiek eragiletzat edo arte-sortzailatzat (zinemagileak, argazkilariak...) hartzen dituen kultura ez da estetikoa izango, are zabalagoa izango da, eta kontsumitzaileek ezinbestez pentsatu eta hausnartu beharko dute zer egin nahi duten. Itxaropen txiki bat izan daiteke hori, kultura ez dadin huts-hutsean pasiboa izan. Kultura hipermodernoaren parte hartzeko modu gero eta sendoagoa da, indibidualismoagatik ez ezik, baita teknologia berriengatik ere. Horri dagokionez, bi alderdi garrantzitsu daude: hiperindibidualismoa ez da kontsumoa bakarrik, baita onarpena izateko eta parte hartzeko gogoaren ere<sup>7</sup>.*

5 María Paula Menesesen proposamena aipatuz, zeinak denboraren ko-berrikusketa egitea iradokitzen baitigu, egungo kronos deterministaren garapenetik haratago.

6 Prozesu hori Nola egin genuen? atalean azaltzen da zehatz-mehatz.

7 Lipovetsky, G. (2011) Cejudo, R.; Montero, M.M.; Ruiz, J.C. "Sobre la Cultura Hipermoderna: Entrevista a Gilles Lipovetsky" *Ámbitos*, 26, 13-17. or.

## Gorputzen eta lurraldeen karakterizazioa (1. IE)

Gorputzak eta lurraldeak esparru gisa ulertzen ditugu, zeinetatik eraikitzen eta kokatzen baititugu geure buruak, eta zeinetan hezkuntza-ekintza gertatzen deneko gizarte-eragile eta eszenatoki baikara.

Gorputz hau, lurralde hau, hortik nator ni, hortik gatoz gu. Hortik bilakatu naiz/gara eragile eta hortik bihurtu gara subjektu sozial.

*Gure gorputzak, gure lurraldeak,  
ezin dira ukitu  
ezin dira bortxatu  
ezin dira esplotatu  
ezin dira hil*

Nire gorputzak/lurraldeak errespetua merezi du eta eskubidea du eskakizunak eraikitzeko eta haietatik bizi, exijitu eta partekatzeko. Agentziarako, erresistentziarako, kritikarako eta alternatibarako espazioa da. Iragana eta etorkizuna gurutzatzen diren espazioa, bai nire barneko munduan, bai gizartearen munduan.

Nire gorputzean/lurraldean, botere hegemonikoak eraikitza, moldatza eta kokatza eramaten nau. Handik ari naiz borrokan neurek diren hainbat alderdi babesteko eta eraikitzeko, hala nola neure proiektua; une eta leku jakin batean izateko eta egoteko modua; neure burua eraikitzeko modua; eta nire izatea eta espazioa eraikitzeko modua (ni neu naizen espazio hori, gizabanako, pertsona, gizarte-eragile eta abar izan naitekeen espazio hori). Hortaz, nire gorputza/lurraldea borrokan ari den espazioa da, eta etengabeko borrokarako espazioa da.

Nire gorputza/lurraldea etengabe ari da elkarreragiten eta eraldatzen, zeinetan mundura irtetean, aldatu egiten baitut, eta zeinetan munduarekin elkarreragitean, aldatu egiten bainau. Espazio horretan, denborari atxikitzen eta modelatzen nauen prozesu gisa adierazten dira sozializazioa eta hezkuntza, nire ekintzaren aurretikoa delako, hura erregistratzen, interpretatzen eta kokatzen dituelako.

Askotariko gorputzak gara, gorputz bilakatzeko prozesuaren menpe dauden gorputzak. Era askotako indarkeriak jasaten dituzten gorputzak, baina baita zehazteko eta zehaztuak izateko indarra eta aukera duten gorputzak ere. Genetika/fisiologia, emozioak, analisiak eta kultura, desirak eta itxaropenak, baita beldurrak eta gorrotoak ere giltzadura konplexu eta aldakorretan nahasten diren gorputzak.

Eraikitako lurraldeen parte gara, bizia duten lurraldeak, sentituak direnak eta igarobide diren lurraldeak. Inposatu dizkiguten lurraldeak eta gorroto ditugunak *versus* lurralde desiratuak, amestuek eta irrikatuak. Gizabanakoak eta komunitateak lurralde horietan eraikitzen eta proiektatzen gara, zeinetan gizabanakoa eta gizataldea ezinbesteko elkarreragile baitira.

Hezkuntzaren alde egin eta aurea hartzen duten borrokek gure lurraldeak koloreztatzen dituzte, zeinetan kultura ezberdinak gurutzatzen eta nahasten baitira, oxigeno eta elikagai bilakatuz, eta eraldaketa labur edo luzeen zikloetan zehar zabaltzen, hedatzen eta eraldatzen baitiren. Lurralteratutako borrokek jardunbide kontrahegemonikoak eragiten dituzte, eta jardunbide horiek aldaketak eragiten dituzte lurraldean. Aldaketa horiek, halaber, borrokak eta borroka horien eragileak (bir)konfiguratu dituzte.

### **Komunitate-ikuspegiaren karakterizazioa (2. IE)**

Komunitatean eraikitzea proiektu pertsonal zein sozialen ahalduntzea eta sendotzea eraikitzen ikasteko espazioa da, eraikuntza eta sozializazio hegemonikoaren aurkako borrokarekiko konpromisoan oinarrituta.

Komunitate eta estratu ugarritan komunitate-identitatea ezabatzen saiatzen ari direla ikusten ari gara; identitatea deuseztatu eta, haren ordean, lehian diharduten indibidualismoen autokontzientziak, nahiak eta estrategiak jartzen dira.

Egitura dinamikoen eta merkatu aldetik estratifikatuen bortizkeriaren bidez ezarritako eredu sozial eta kulturala “artifizialki naturalizatutako” oximoron gisa aurkezten eta justifikatzen da. Sozialki eta masiboki ezarritako kontraesana da hori, zeinak gizabanako bakoitzean kolektiboarekin edo komunitatearekin lehia inperfektuan diharduen indibidualismoa txertatzeko xedea baitu.

Ikuspegi hegemoniko horren helburua da elkarri lotutako sozializazio kolektiboaren gakoak ahaztaraztea (klasea, etnia, generoa eta adina), bai eta gako horiek sostengatzen eta erreproduzitzen dituzten botere-egiturak ere. Hortaz, haren helburua da botere- eta zentzu-borroken egungo eta historiako jardunbideak despolitizatzea eta naturalizatzea, ekintza soziala eraikitzen eta ekintza sozial horrek subjektuak (indibidualki eta kolektiboki) eraikitzen dituen esparru eta espazio guztietan.

Subjektuen eta komunitateen agentzia berreskuratzeko ikuspegi alternatibo eta kritikoak ezinbestean behar du guztion dena berrezartzea, eskubide pertsonalak eta kolektiboak babesteko eta bermatzeko espazio gisa.

### **Aurea hartzen duen ikaskuntzaren karakterizazioa (3. IE)**

Aurea hartzen duen ikaskuntza ziurgabetasunei ikuspegi askatzailetik aurre egiten laguntzen digun prozesua da; ziurtasun eta ziurgabetasun kontserbatzaile eta esklabizatzaileen eraikuntza hegemonikoaren kontra egiten duen prozesua.

Globalizazio kapitalistak ziurtasun faltsutuak eta ziurgabetasun beldurgarriak nahasten diren kultura bultzatzen du, ezinbestekoak diren egiturazko eraldaketen gainetik. Hala, etorkizuneko ikuspegi geldiarazleak sozializatu egiten dira, erresistentziaren, kritikaren edo gizarte-eraldaketaren beldur diren bizilagunak lortzeko.

“Ezer ez da aldatuko” adierazpen klasikoa eta “dena da posible” esamoldea nahasi egiten dira, baina biak sistemaren barruan eta bakoitza bere erritmoan, egiturazko aldaketarik gabe. Ulertzeko modu polarizatu eta sektario hori orainari zentzua ematen dion historiaren ondorio da, eta orainaldi horren jarraipen hautemangarrian oinarrituta, etorkizuna interpretatzen da, ziurtasun zentzugabeak ezarriz; esaterako, zakar eta arriskutsutzat hartzen diren eraldaketak eta hausturak blokeatuz gero, gaur egungoa etengabe hobetuko dela esanez.

Modernitatetik eta globalizaziotik eratorritako instantzien konbinazioa modu likidoan finkatzea da estrategia: estatuak (gutxi-asko sozialak eta eskubide-bermatzaileak); merkatu globala (gutxi-asko dinamikoa eta librekoa); botere-agentzia handiek praktikatzen duten demokrazia kontrolatua (gizarte-kudeaketaren alderdi politikoari buruz baino ez bada ere); eta kultura eta teknika (zientziaren eta hezkuntza-sistemen bidez hedatuak).

Horrenbestez, kultura amankomun hegemonizatuaren ikuskera eraikitzen da eta, haren arabera, subjektuek eta komunitateek iragana/oraina/etorkizuna ezagutu eta interpretatu behar duten bizilagunek bezala jokatu behar dute, botereen agentzia handiak kontrolatuz egoerak eta gertaerak “egoki” eta ez-traumatikoki kudeatzean.

#### **Sareak, aliantzak eta *bestelako* komunikazioen karakterizazioa (4. IE)**

Sareak, aliantzak eta *bestelako* komunikazioak gizarte-ekintzaren estrategiak eta tresnak dira, eta, era berean, ekintza kolektiborako espazioak. Ildo honetan, norberaren ekintza eta hausnarketaren eraikuntza-prozesuak nola hezi hausnartzeko aukera ematen zaigu.

Gizarte-sareak eta -aliantzak agertu izanak eredu menderatzailearen arreta piztu du. Eredu menderatzaileak, hain justu ere, hainbat estrategia erabili ditu bere presentzia nabarmentzeko eta, hala, sare eta aliantza horiek modelatu, eta despoltizazioaren eta hiperkontsumismoaren erakusleho bilakatzeko.

Kapitalismoaren dinamikak berak sare sozialen informatizazio- eta komunikazio-teknologiak sustatzen ditu, eta teknologia horiek sare sozialak (eta haiek osatzen dituzten produktu informatiboak, kulturalak eta sinbolikoak) kapitalaren erreproduktzio-espazio berri bilakatzen dituzte. Komunikazio-baliabide berrien gorakada eta hedapen geldiezia mugarik gabeko elkarrekintza eta harremanen mundu berri bat eratzen ari da. Adimen eta memoria global moduko bat sortzen ari dela dirudi, gizarte- eta komunikazio-harremanetan oldarka sartuz.

Espazio berri horiek gizarte- eta hezkuntza-agentzietan sartzen dira, eta elkarri eragiten diote. Agentziak, aldi berean, sare sozialek zer-nolako ahalmena duten ohartzen dira, eta haiek erabiltzen dituzte; ahalduntzeko eta gizarte-eraldaketarako tresna gisa bereganatzen saiatzen dira. Kanpo-ekintzarako ez ezik, bakoitzaren egituretan eta konfigurazioan ere eragina izateko erabiliz.



Horrenbestez, honako bi hauen arteko borroka-esparru berri bilakatu dira: batetik, eredu menderatzaileak horiek eraikitze, erabiltzeko eta birkonfiguratzeko egiten dituen saiakerak, hegemoniak eta botere-egiturak finkatzeko gune gisa, eta bestetik, gizarte- eta hezkuntza-agentzia eraldatzaileen dinamikak, espazio horiek demokraziarako, emantzipaziorako eta gizarte-ahalduntzerako espazio bihurtzeko.

### 3. Ildo estrategiko bakoitzean egin litezkeen zeharkako galderak

**Gorputz eta lurraldeetan eta gorputz eta lurraldeetatik hezteari buruz**

- Nola sozializatzen eta modelatzen dituzte botere menderatzaileek gorputzak eta lurraldeak, haien onurarako baliagarriak eta erabilgarriak izan daitezten?
- Gorputzen eta lurraldeen inguruko zer hezkuntza sustatu behar dugu, haien interes eta nahietan oinarrituta, eskubideak eta erresistentziarako eta eraldaketarako gaitasunak dituzten subjektu gisa eratu dituzten ikaskuntzak sortzeko?
- Zer curriculum esplizituk eta/edo ezkutuk sozializatzen du sistema menderatzailea, hegemoniaren erreproduzioan gakotzat hartzen den eragile gisa?
- Nola sozializatzen du curriculum horrek sistema menderatzailea eta nola modelatzen ditu hezkuntzatik gorputzak eta lurraldeak (estereotipo kulturalak, gorputzaren industria, gorputzak aisia gisa, identitate politiko eta/edo kultural gisa)?
- Zer eraiki beharko luke hezkuntza-erresistentziak, gorputz eta lurralde errealak bestela tratatzeko, eta horri esker, etengabe (berr)eraikitzen ari diren ahalduntzeak eta identitateak eratzeko?
- Zentzu horretan diharduten zer esperientzia ezagutzen ditugu? Posible al da alor horretan erresistentzia- eta errebolta-estrategia alternatiboak antolatzea? Nola? Norekin?

**Komunitatearen hezkuntzan aurrera egiteko**

- Nola eraikitzen da gizabanakoak-komunitatea harremana globalizazio merkantilista, patriarkal, kolonial, estraktibista eta hiperkontsumistaren interesetan oinarrituta?
- Nola era ditzakegu hezkuntza-ekintzarako estrategiak, zeinek kultura demokratikoak, komunitarioak eta jasangarriak eraikiko baitituzte gehiengo sozialetan eta interes komunaren logiketan oinarrituta?
- Zein da gizabanako/komunitate tandemaren eduki menderatzailea, globalizazio merkantilista, patriarkal, kolonial eta hiperkontsumistan?

- Zer-nolako eragina du indibidualismo isolatuen eta aberastasuna, boterea eta gizarte-maila eskuratzeko lehian diharduten indibidualismoen eraikuntza sozial eta kolektibo horrek demokrazia errealean eta eskubideen aldeko borrokan?
- Zeri egin behar diete aurre, eta nola, eraiki nahi ditugun hezkuntza-prozesu ahalduntzaile, demokratiko eta komunitarioek?
- Gizarte-mugimenduek –haien aniztasunean, estrategietan eta jardueraparatutasunean–, hedatzen eta birmoldatzen al dute ezinbestekoa, premiazkoa eta komunitarioa den hezkuntza hori?
- Nola eraiki ditzakegu ikuspegi hori bermatuko dituzten estrategiak eta ikaskuntzak?

### Aurrea hartzen duen ikaskuntzan sakontzeko

- Nola gailentzen da kapitalismo globala jasangarria dela dioen ziurtasun kontserbatzailea, gizarte-mugimenduetatik eta esparru zientifiko, kultural eta artistikoetatik bideraezina eta krisi suntsitzaileen eragilea dela erakutsi arren?
- Nola egin dezake aurrera krisiak egitura eta politika menderatzaileekin lotutako testuinguruetan kokatzen dituen hezkuntza zientifiko-soziala?
- Nola hezi ahalduntze-dinamiketan, bete-betean gauden zibilizazio-kolapso hau eratzten duten era askotako krisialdiei aurre egiteko?
- Alternatibak eratzeko gai den hezkuntza aurreratua lortzeko, zer eduki, estrategia, sare eta esperientzia sustatu behar ditugu?

### Sare, aliantza eta *bestelako* komunikazioen hezkuntzan aurrera egiteko

- Hezkuntzari dagokionez, nola karakteriza dezakegu agentzia hegemonikoek sare eta aliantzak kontrolatzeko eta bideratzeko egiten duten prozesua?
- Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzan oinarrituta, zer estrategia edo elementu bultzatu behar ditugu esparru horretan, eskubideak izateko, ahalduntzeko eta hedapen kritiko eta emantzipatzaileko tresnak izan daitezen?
- Sistemak sare eta aliantzak kontrolatu eta erabili nahi ditu, erreproduktzioarako tresna eta baliabide gisa eta, horretarako, barneratze eta birsozializazio hegemonikoarekin erantzuten saiatzen da. Nola erantzuten diote sare eta aliantzek barneratze eta birsozializazio hegemoniko horri?
- Sareek ba al dute gaitasunik eragile eraldatzaileen arteko eta eragile horien eta bizitza soziala garatzen den espazioen arteko komunikazioa eta aliantzak indartzeko?



## Hitz egindakoak

Jarraian, Maria Paula Meneses, Lia Pinheiro, Marta Pascual eta Rosalba Icazaren hitzaldiak jasoko ditugu. Eskerrak eman nahi dizkiegu egindako ekarpenengatik, zalantzarik gabe, gure hezkuntza-jarduera eraldatzailean egin behar eta egin nahi dugun etengabeko hausnarketa- eta eztabaidatze-prozesua aberasten baitute.



## Bizitza berreskuratzea. Utopiak (berr)eraikitzeke garrantzitsuak diren ezagutzak

Maria Paula Meneses<sup>1</sup>

Eskerrak eman nahi dizkiot Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutioari (HEGOAri), Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren V. Biltzarrean parte hartzeko egindako gonbidapenagatik (2021eko azaroa). Ziurgabetasun-garaietan hezkuntzari buruz elkarrekin pentsatzeko erronka dago lan honen jatorrian. Eskerrak eman nahi dizkiet, orobat, gai horri buruz beren iritziak eta galderak nirekin partekatu eta eztabaidatu dituztenei; batez ere Laura Nuñori eta Hegoako Hezkuntza Taldeari (Amaia del Río, Gema Celorio, Juan José Celorio eta Iris Murillo).

### Sarrera: monolaborantza zientifikotik jakintzen ekologiarara

2020an, COVID-19aren krisialdiaren hasieran, Arundhati Royk krisialdiak gizartearen zer-nolako ondorioak eragingo zituen ohartarazi zigun. Gaur, pandemiak bost milioitik gora hildako eragin dituela jakinda, oso garrantzitsua deritzot pandemiak gure bizitzan zer ondorio eragin eta zer aldaketa ekarri dituen hausnartzeari. Artikulu honetan, saiaturko naiz, lehenik eta behin, arrazionaltasun zientifikoa eta gure mundua markatzen duten krisialdien garrantzia oinarri hartzen dituen monokulturaren iraunkortasuna kritikoki baloratzen. Eta, bigarrenik, jakintzen ekologia (Santos, 2010) -Hegoaldeko epistemologiaren funtsezko alderdia- ardatz hartuko duen azterketa zabala eginez, aldaketarako hainbat proposamen azalduko ditut, testuinguruan kokatuz, elkarrekin zer bide egin pentsatzeko. Munduan gaur egun ditugun ingurumen- eta gizarte-arazoak oso konplexuak eta oso handiak dira, eta ezinbestekoa da munduaren ezagutzasistema guztien arteko benetako elkarriketa, bidegabekeria kognitibozko egoerak gaingintzeko.

1 Jaiotzez mozambiketarra, Maputon egin zituen bigarren hezkuntzako ikasketak. Historian maisutza egin zuen San Petersburgoko Unibertsitatean (Errusia), eta antropologia-doktoretza Rutgerseko Unibertsitatean (EEBB). Mozambikeko Eduardo Mondlane Unibertsitatean ekin zion bere ibilbideari 1989an, eta, 2004an, ikertzaile gisa, Coimbrako Unibertsitateko Gizarte Ikerlanetarako Zentrora (CES) joan zen, non irakaskuntzan jardun baitzuen hainbat doktoretza-programatan. Gaur egun, CESeko ikerketa-koordinatzailea da. Aldi berean, Mozambikeko zenbait unibertsitatetako irakasle da. Ko-ikaskuntzan oinarritutako hainbat prestakuntza-jardueratan aktiboki parte hartzen du, hezitzaileen eta ikasleen arteko ohiko bereizketa gaingintu nahian, elkarrekiko ikaskuntzan eta "ezagutzaren ekologian" oinarrituta. Prestakuntza horiek bere laneko gai nagusiekin uztartzen ditu; besteak beste: kolonia osteko eztabaidak Afrikako testuinguruan, pluralismo juridikoa historia ofizialaren rolean, memoria(k) eta beste pertenezia-narratibak identitate-prozesu garaikideetan.

Iraganean beste pandemiekin gertatu bezala, koronabirusak argi erakutsi digu mikroorganismoak libreki hedatzen direla, pasaportearen beharrik habe. Gure mundua bereizten duen egitura geopolitikoari ez die modu berean erasaten. Edozein gaixotasun gaur egungo mundua markatzen duten gatazka kulturalen, epistemikoen, ekonomikoen eta politikoen ispilu handitzailea da.

Eskuragarri ditugun informazioek erakusten dutenez, herrialde aberatsek baliabide gutxiago dituzten herrialdeek baino lehenago eskuratu ahal izan dituzte herritarrak immunizatze txertoak<sup>2</sup>. SARS-CoV-2 birusaren andui berri bat agertu zela eta, duela gutxi (2021. urtearen amaiera aldera), Iparralde globaleko hainbat herrialdek Afrika australeko herrialdeei mugak ixtea erabaki zuten, eta erabaki hura salatzeko, African Vaccine Acquisition Trust (AVAT) erakundeak, Gaixotasunen Kontrol eta Prebentziorako Afrikako Zentroek eta Covax-ek beren gaitzespena adierazi zuten batera egindako adierazpen batean. Adierazpen hori sinatu zutenek dioten bezala, Afrikara bidalitako COVID-19aren kontrako txertoen dohaintza gehienak *ad hoc* egin ziren, denbora gutxirekin eta epe laburrekin; ondorioz, Afrikako herrialdeentzat oso zaila izan zen txertaketa-kanpainak planifikatzea eta txertoaren onarpena herritarren artean zabaltzea<sup>3</sup>. Kapitalismo koloniala orain txertoekin egiten ari dena azken mendeetan gizakion bizitzarekin eta naturarekin egin duen gauza bera da: salerosteko ondasun, hots, negozio bihurtu ditu.

Egungo garai hauetan, hainbat eta hainbat krisi izaten ari gara, baina garapenari, globalizazio neoliberalari eta jasangarritasunari buruzko diskurtsoek ezin diete erantzun jakinik eman. Errealitate hori zalantzan jartzen dute Hegoalde globalak adierazitako hainbat gaik; hain zuzen, Hegoalde ontologiko, politiko eta epistemologikoki anitz horrek, zeinak eguneroko bizitzako bidegabekeria kognitiboaren alternatiba sinesgarriak finkatzea baitu helburu (Meneses, 2009). COVID-19aren pandemiarekin batera, bizi ditugun hainbat eta hainbat krisialdi planeta honetako biziaren egiturazko hauskortasun gero eta handiagoaren markagailuak dira (Santos, 2021). Txertoen negozioak Iparraldea eta Hegoaldea bereizten dituen marra izugarria itzulgingururik gabe berresten du, *The Guardian* egunkariko artikulu batean nabarmendu bezala<sup>4</sup>.

OXFAMek 2019an egindako ohartarazpen garrantzitsuaren ostean, zer egin daiteke herrialdeen eta eskualdeen artean areagotzen ari den desberdintasun ekonomikoaren aurrean (ingurumen-krisiarekin eta eskubide politiko, ekonomiko

---

2 “Now or never: Most countries will vaccinate against Covid-19 this year, or never”, *Economist Intelligence*, 2021eko azaroak 10. Eskuragarri webgune honetan: [www.eiu.com/n/now-or-never-most-countries-will-vaccinate-against-covid-19-this-year-or-never](http://www.eiu.com/n/now-or-never-most-countries-will-vaccinate-against-covid-19-this-year-or-never).

3 Joint Statement on Dose Donations of COVID-19 Vaccines to African Countries”, 2021eko azaroak 29. Eskuragarri webgune honetan: <https://africacdc.org/news-item/joint-statement-on-dose-donations-of-covid-19-vaccines-to-african-countries>.

4 “The Omicron variant reveals the true global danger of ‘vaccine apartheid’”, *The Guardian*, 2021eko azaroak 28. Eskuragarri webgune honetan: [www.theguardian.com/business/2021/nov/28/the-omicron-variant-reveals-the-true-global-danger-of-vaccine-apartheid](http://www.theguardian.com/business/2021/nov/28/the-omicron-variant-reveals-the-true-global-danger-of-vaccine-apartheid).



eta sozialen murrizketarekin batera gertatzen den prozesu horren aurrean)? Kulturarteko solidaritateak eta elkarrizketak erakuts al diezaguke etorkizun jasangarria hainbat mailatan bermatzen lagunduko liguken ezagutzarik, komunitate eta herrien errealitateetan oinarrituta? Nola jakin dezakegu gizateriari buruzko zer interpretazio desberdin baina bateraturekin gatozen bat?

Arrazionaltasun zientifikoaren hegemonian adierazi bezala, “Iparraldea” ezagutzaren erdigune gisa asmatua izan da, eta horrek periferiak sortzea ekarri du. Testuinguru afrikarrak periferia gisa eraikitzea jardute politiko, epistemiko eta ontologikoa dela ulertu behar dugu; jardute horren helburua, hain zuzen, Iparraldearen eremu geopolitiko eta epistemologikoa erdigunetzat eta hierarkikoki nagusi den eremutzat esplizituki zehaztea izanik. Premisa horretan oinarrituta, egungo pentsaera zientifikoak mundua bitan bereizten duen banaketa izugarria ezartzen jarraitzen du, Iparralde globalaren eta Hegoalde lokalaren artean; hau da, ustez balio lokala eta tradizionala duten ezagutzak dituen Hegoaldea (Santos eta Meneses, 2020). Mundua azaltzeko proposamen horrek argi erakusten du proiektu epistemiko kolonialak gaur egun ere eragina izaten jarraitzen duela. Mundua handi-zabalean eta elkarrizketa demokratikoan oinarrituta pentsatzeko, ezinbestekoa da ongi aztertzea, gero testuinguru partikularretatik eraldatzeko, hainbat geruza –sentsibilitatea, egoera kulturalak eta ezagutzak– eta aukera politiko jakin gogora ekarriz. “Normaltasun berria” itzuliko ote denik ez dago oso argi. Garai konplexu hauetan oso garrantzitsua da *kairos* testuingurura itzultzea, non iragana, oraina eta etorkizuna ez baitaude bereizita, baizik eta elkarrekin. *Kronos* modernoaren bilakaera deterministatik haratago denboraren ko-berrikuspena berrasmatzea aurrean dugun erronka handienetako bat da. Munduaren berreskuratzea diziplinatzeke edozein saiakerak –deskolonizazio sakona, autodeterminazioa, automantentzea, autosufizientzia hitzak, adibidez– baino ez du haren esanahi zabala berreskuratzea lortuko.

## COVID-19aren pandemiaren krisia: zer ezagutza eta lankidetzatza?

Egungo pandemia analisi askoren aztergai nagusia da, bai birus berria izateagatik, bai birusak haren propietate immunologikoak ulertzeko eta tratamendu eraginkorrak –txertoak barne– garatzeko erakutsi dizkigun erronkengatik ere. Tentsio eta ziurgabetasun handian diharduen ikerketa zientifikoaren alorrean, mundu osoko zientzialariek informazioa partekatu dute eta besteek egindako aurkikuntzetan eta ezagutzetan oinarritu dira. Hala ere, lankidetzan jardun dutenen adibide ugari izan arren, orain arte ez da inor benetan saiatu eskuragarri dauden baliabide akademiko guztiak bateratzen, patenteen mugak gaindituz txertoen mundu-mailako ekoizpena bermatzen eta txertoak ekoizteko teknologien banaketa unibertsalago eta horizontalagoa ematen; horiek denak funtsezko elementuak dira hornigaien bidezko banaketa bermatzeko. Esparru horri dagokionez, Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) ekintzaren mundu-mailako bilakaerari buruzko ebaluazioa egin beharra dago: NBEko agentzia horrek osasun publikoari buruzko gaietan ardaztu ditu bere jarduera guztiak, eta, bereziki, biomedikuntzak kontrolatutako testuinguruetan, gizarte-arazoak eta

beste medikuntza-ezagutzekin elkarriketak alde batera utziz. Arrazionaltasun bakarria izanda, zientziaren monolaborantzarekin tematzea, beraz, konponbidea al da? Duela gutxi argitaratutako idatzi batean, Yuval Noah Hararik (2021) dio 2020an ordura arte ez bezalako arrakasta zientifiko eta teknologikoek ez zutela COVID-19aren krisia konpondu. Iraganeko beste krisialdi epidemikoetan bezala, pandemiak zorigaitz naturalak eta aldi berean dilema politikoak dira. Beraz, ba al du zentzurik naturala dena eta soziala dena bereiztea? Eta, nola batera ditzakegu elkarrekintza-eskala desberdinak, etxeko esparrutik hasi mundu-mailakora arte?

Hainbat gaixotasunek (besteak beste, H1N1 edo “txerri-gripea”, SARS, GIB-hiesa, hegazti-gripea (HPAI), sukarrak hemorragiko birikoak –hala nola, ebola eta marburgo–, eta zikaren, dengearen eta malariaren agerraldi epidemikoek) eragindako alertek gaixotasun infekziosoak zeinen arriskutsuak diren erakusten digute. Oro har, azken mendean, gaixotasun berrien kopurua ia laukoiztu egin da (Smil, 2011). Hor nabarmen agertzen da marra mehe abisal bat, alde batetik, zientziak gaixotasunak kontrolatzen dituela baieztatzen duelako, eta bestetik, mundu mailako osasunaren etorkizunari buruzko ezjakintasuna handia delako.

COVID-19aren kasuan bezala, gaixotasun horiek guztiek aspaldikoa baina oso ezaguna den etsai bat erakutsi digute, eta gogorarazi, historian zehar, gizakion hilgarri handienak gaixotasunak eragiten dituzten birusak, bakteriak eta parasitoak direla. Epidemia –edo mundu-mailako pandemia– gisa azaltzean, gaixotasun horien hedapena eta haiek eragindako ondorioak sekulako erronka dira gaur egun ere osasun publikoko politikentzat. Hainbat azterlanek ohartarazi digute zeinen premia den epidemia horiek ikertzea, etorkizunean konpondu edo ekidin beharreko osasun publikoko arazo gisa ez ezik, baita fenomeno sozial eta politiko gisa ere (Leach, Scoones eta Stirling, 2010), potentzialki bidegabekeria kognitiboen eragileak baitira (Anderson eta Beresford, 2016).

Agerraldi epidemiko bat haren ezaugarrietatik (alderdi teknikoak eta berehalakotasuna) haratago ulertzea oso garrantzitsua dela onartzeko, gertakari horietako bakoitza jakintzen ekologiaren (Santos, 2010) ikuspegitik ebaluatu behar da, denbora-eskalak eta espazio-eskalak bateratuz. Horretarako, ezinbestekoa da, batetik, agerraldiaren epe laburreko azterketa, eta bestetik, epe luzea eta, aldi berean, eskala globalean gorputz gaixo indibiduala aurrez bultzatzen dituzten baldintzak eta ondorioak bateratzea, Afrika mendebaldean ebolaren kasuak erakutsi zuen bezala (Leach, 2015). Hitz gutxitan, medikuntza modernoaren ebaluazio kritikoa eta beste medikuntza-ezagutzekin egindako elkarriketatik ateratako analisi kritikoa bateratzea ezinbestekoa da.

COVID-19aren pandemiak ekarritako salbuespen-neurriek ebolak erakutsitako lezioetan pentsatzera behartzen gaituzte. Koronabirus berriaren portaera, infekzio-prozesua eta immunitatea ulertzea, eta arreta klinikoa hobetzeko zein birus horri erantzuteko gai diren tratamendu medikoak eta txertoak garatzeko egiten ari diren ahaleginak oraindik ere garapen bidean dauden gure historiako funtsezko alderdiak dira. Halaber, pertsonok gaixotasunaren aurrean ditugun erantzun sozialak eta gure arteko elkarrekintzak ere historia horren beste alderdi

bat dira. COVID-19ak harreman sozial, kultural eta politiko berriak erakutsi, indartu eta katalizatu ditu; eta desberdintasunak eta antsietateak agerian jarri ditu. Hainbat akademikok nabarmendu duten bezala, munduko osasun-eredua, hein handi batean, laguntza teknikoan eta Iparraldeko herrialdeetako (batik bat, AEB, Erresuma Batua eta EUko beste herrialde batzuetako) gaitasunen garapenean oinarritzen da oraindik ere (Leach, 2015; Jones, 2020). Lehenago adierazi bezala, txertoen ekoizpenaren gehiengoa batez ere Iparralde globaleko herrialdeetan egotearen ondorioz, mundu mailako desberdintasun berri bat sortu da herritarrei txertoa jarri diezaieketen eta ezin diezaieketen herrialdeen artean, azken horiek ezin baitituzte txertoak eskuratu. 2021eko urrian, Afrikako bost herrialdek (54 herrialdetik % 10k) baino ez zuten lortu herritarren % 40 osorik txertatzeko helburua (WHO, 2021). Tamalez, birusak hedatzen jarraitu bitartean, munduko herrialde edo eskualde bat ere ezin izango da benetan seguru sentitu.

50/50 Global Health txostenak nabarmendu bezala, egungo osasun-gobernuaren egituretako legatu kolonialek, bai eta arau eta jardunbide patriarkalek ere, mundu-mailako osasunaren egiturari eragiten dioten botere-asimetriak markatzen dituzte, zeinak harreman kapitalista bidegabe eta desberdinen herentzia luzean errotuak baitaude (Global Health 50/50, 2020: 16). Biomedikuntzaren arloan, epidemiologia-adituek behin eta berriz diote ezinbestekoa dela pandemiaren egiturazko kausak elementu gakotzat hartzea, krisi honi aurre egiteko estrategiak planifikatzeko. Komunitate-interpretazioak eta -esperientziak aintzat hartzeak pandemia- eta ingurumen-krisialdiei hobeto erantzuteko moduak aurkitzen lagunduko digu; hain zuzen ere, krisialdi horiek harreman kolonial-kapitalista eta patriarkalaren ondorio diren desorekek eta indarkeriak eragin dituzte (Santos 2018; Wallace et al., 2020). Intelektual askok aditzera eman izan digute zibilizazio-proiektuan egindako hutsegite eta akats gehienen jatorrian proposamen politiko kapitalista eta kolonialak daudela, eta horiek osasun publikoaren ondasun erkideak pribatizatzea eta monetizatzea dutela helburu. COVID-19aren mundu mailako hedapen epidemiologikoaren modelatze zientifikoa -2020an Erresuma Batuko Imperial Collegek egindakoa- monokultura zientifikoaren adibide bat da; izan ere, biomedikuntzaren eta haren estatistika-proiektzioen baliabideak baino ez ditu kontuan hartzen. Beraz, Iparralde globalaren ezagutzak eta esperientziak erdigune-periferia harremana berresten jarraitzen dute. Erdiguneak arazoak identifikatu, eta konponbideak bilatzen ditu; periferiari dagokio konponbide horiek abian jartzea (Ferguson et al. 2020:16). OMEren politketan eragina izan duen eredu horrek argi eta garbi erakusten du zeinen beharrezkoa den ezagutza hegemonikoa jakintzen ekologia bihurtzea, zientziako hainbat arlo batuz eta beste jakintzekin elkarrizketa multitopikoa izateko eskatuz.

COVID-19a baino lehenagoko azken epidemiek erakutsi dute gizarte-zientziek eta humanitateek asko dutela emateko. Aurreko krisialdietan gertatu izan den bezala, birusaren agerraldian zehar COVID-19a osasun publikoko larrialdi bakar gisa hartzeak kutsadurarekiko zaintza ezkuta dezake. Hainbat azterlanek adierazi bezala, osasun publikoko azpiegituren (azpifinantzatuak) epe luzeko krisiaren ondorio da hori, eta, azpiegitura horiek, era berean, azken hamarkadetako krisi politiko eta finantzarioek hauspeatu dituzte (Legido-Quigley et al. 2020).

Aldi berean, biomedikuntzaren aldetik gaixotasuna kontrolatzeko ikuspegi teknokratikoak osasun-sistemen arteko lankidetzarik eta elkarriketzarik ez izatea ekarri du (bai Estatuak kontrolatzen dituen osasun biomediko publiko eta pribatuen sistemen artean, bai beste osasun-sistemen artean ere).

COVID-19aren pandemiari buruzko ikuspegi sindemikoari esker, elkarrekintza biologikoak, politikoak, ingurumenaren arlokoak eta sozialak ulertuko ditugu, zeinak funtsezkoak baitira osasun-politikak landu eta garatzeko; hain justu ere, osasun-politika horien xedea da jendeak aurre egin behar dien testuinguruaren araberako arazoei konponbideak bilatzea, Iparraldean garatutako eredu globaletatik haratago (Singer eta Bulled, 2013). COVID-19a ulertzeko testuinguru politikoak eta epistemikoak kontuan hartzen badira, mundu osoko agerraldi epidemiko nagusiak non sortzen diren eta zer-nolako ondorioak dituzten azaltzeko gai izango gara. Agerraldi epidemikoak testuinguru geopolitiko espezifikoetan arakatzean, agerraldi horiek izan dituzten munduko hainbat eskualdetako arrazoi epistemologikoak eta politikoak zehatzago aztertzen dira, eta, ondorioz, esplizituki ezagutarazten da testuinguru materialaren eta hitzarmen sozialen arteko denboran zeharreko gurutzatze ko-osagarria. Bestalde, antolaketa-modu desberdinek (erakundeak) epidemiei emandako erantzunak maila desberdinetan (gizabanakoaren mailan, komunitatearen mailan, nazioaren eta are nazioartean mailan ere) aztertzean, aukera ematen du, adibide zehatzetan oinarrituz, epidemiek egoera kritiko desberdinak (agerraldiko esperientzia desberdinen –eta askotan pilaturikoen– bidez adierazitakoak) nola eragiten dituzten eta egoera horiei aurre egiteko zer baliabide dituzten aztertzeko.

COVID-19ari buruz egunero iristen zaigun informazioak zuzenean edo zeharka onartzen du zer-nolako eragina duen erreforma neoliberalak osasunaren arloan, zeina gaur egun kapitalaren (erre)produktzioarako eremu bilakatu baita, bazterkeria abisalen eta ez-abisalen arteko marra izugarria are handiago eginez (Santos, 2018). Kontua ez da jendea gaixo egon edo ez; kontua da ea osasun-segururen bat duen edo osasun-sistema nazional ahuldu baterako irispidea duen (herrialde aberatsen kasuan); Hegoalde globalean, kontua da jakitea ea egoera txarrean dauden zentro eta ospitaleetarako irispidea duen, bertako elite politikoen eta nazioarteko zenbait erakunderen (hala nola Munduko Bankua eta Nazioarteko Diru Funtsa) arteko konbinazio neoliberalaren ondorio. Paul Farmer-en hitzetan (2001), munduko osasun-programen eta -proiektuen arkitektoek eta gauzatzaileek –Iparralde globaleko politikari neoliberalak manipulatuak– diote osasun-laguntza, jasagarria izan dadin, salgai gisa saldu behar dela, baita onuradun potentzial gehienek eros ezin dezaketen leku eta garaietan ere. Gizateriak, gizon-emakumeok, mundu mailako krisi honetan gaixo gaudenean, estatuko osasun-zerbitzuen laguntza bilatzen dugu, baina trukean bezero izatea eskatzen zaigu. Eta hala finkatzen da marra izugarri bat: ordaindu ezin dezaketenek ez dute osasun-laguntzarako irispiderik epidemia-baldintzetan. Achille Mbembe-k dioen bezala (2020), arnasa hartzeko eskubideak oxigenoa eskuratzeko aukera duten herritarrak eta gainerakoak bereizten ditu oraindik ere, eta hori ezin dugu onartu. Arnasa hartzeko eta bizitzeko eskubidea Lurra habitatzeko oinarrizko eskubidea da, gure planetako biztanleok (gizakiak izan edo ez) osatzen dugun komunitate

unibertsalaren eskubide espezifikoa da. Eta COVID-19ak honako galdera handi hau mahaigaineratzen digu: gai izango al gara lurraldearekiko eta biziaren zentzu zabalarekiko lotura hauskaitza berriz ere aurkitzeko? Zer hezkuntza emantzipatzailek, kritikok eta elkarrizketarako irekik mamitu dezake ezagutzaren ekologia, zeina jakintzen pluribertsoan sartzeko atea eta joera horizontala duten elkarrizketen eragilea baita?

## **Ubuntu: ezagutza ugarirentzako proposamen utopikoa**

Mendeetan zehar, lotura kolonial-kapitalistak erabat aldatu du soziala denaren eta naturala denaren arteko harremana. Testuinguru horretan, natura pribatizatu egin da; lurra, basoak, ura, animaliak eta oihanak pribatizatu, eta orain salgai bihurtu dira, merkatuko balioaz haratago inolako garrantzirik gabe. Jarduera horiek legezkoetzeko, sistema kolonial-kapitalista ingurumen-krisiak azaltzen eta haren ondorioak arintzeko neurriak identifikatzen saiatzen da, arrazionaltasun zientifikoan oinarrituz (Adams, 2003). Azken hamarkadetan, elkarrizketa “mundu-mailako kezka” gisa estatu askok egindako ikerketa eta inbertsio garrantzitsu askoren helburu bihurtu da, bai eta, modu berean, ingurumen-mugimenduen uhin gero eta handiago baten helburu ere. Prozesu horretan, tokian tokiko eta komunitateen ezagutzak eta esperientziak periferietara baztertzen edo erabat ahaztuta uzten dira, eta lehentasuna ematen zaie Iparralde globaleko ezagutza zientifikoan oinarritutako ingurumenaren babeserako estrategiei. Ingurumenaren zaintzari eta arriskuei buruzko ikuspegi hori mundu ez seguru bat eratzeko estrategia hegemonikoen eta performatiboen parte da, zeinek, ezagutza gutxi izanda, urruneko beste mundu exotiko eta arriskutsua (erre)produzitzea onartzen baitute; eta arrazionaltasun zientifiko modernoak, egin-eginean ere, mundu hori “bereganatze” betebeharra du.

Ezagutza zientifiko modernoaren itxurazko unibertsaltasuna –natura-gizartea dikotomia esplizituan finkatutako unibertsaltasuna– egungo ingurumen-politika askoren oinarrian dago; hala ere, munduko kultura askok ez dute dikotomia hori onartzen. Naturala denaren eta soziala denaren artean haustura sakona gertatzen da, eredu emantzipatzaile ilustratuak (mugimendu ekologista askoren inspirazio-iturri denak) aurrera egin ahala. Eredu hori estuki lotuta dago gizakiok natura-objektua kontrolatu eta erabiltzearen ideiarekin (Dwivedi, 2001: 12-14). Eta, hain justu ere, proiektu kolonial-kapitalista eredu hori bera hedatzen eta ezartzen saiatu zen, natura-gizartea harremanaren eredu menderatzaile gisa. Kolonialismo modernoarentzat, alteritateak lehenagoko espazio/denbora adierazten zuen eta adierazten du oraindik ere, non kaskarragotzat hartzen diren ezagutzak zabaltzen baitira, eta ez baitira bertako esparrutik haratago hedatzen (Meneses, 2018). Horixe bera izan zen, hain zuzen ere, pentsamendu zientifiko modernoaren botere-jakintza harremanaren oinarrian dagoen egituraketa hierarkikoaren inposizio bortitza legezkoetu zuen kontrapuntua, Boaventura de Sousa Santosek proposatutako pentsamendu abisalean adierazi bezala (2010; 2018). Mundu modernoaren salbuespentasuna funtsatu zuen epistemologia agertzeak

mesede egiten die munduaren ikuskera monokulturala inposatzeak sortutako bazterkeriei. Aukera hori batik bat XVII-XVIII. mendeetatik aurrera ezarri zen, eta mundu zaharraren –zibilizazio modernoaren sorleku gisa kontzeptualizatutako Europaren– eta mundu hezigabearen arteko banaketa sorrarazi zuen, munduaren kolonizazio “zientifikoa” eta arrazionala beharrezkoa zela justifikatuz (Meneses, 2016). Ibilbide horretan, esku-hartze politikoa eta epistemologikoa izan zuten prozedura bortitzek kolonizatutako erakunde eta jakintza endogenoen hazkunde organikoa etetea ekarri zuten. Horrek azaltzen du zergatik aldarrikatzen duten Hegoalde globaleko mugimendu ekologista askok beren ezagutzak eta esperientziak aintzat hartzea, beren lurraldeak babesteko funtsezkoak baitira. Sostengarritasunaren aldeko borrokaren Hegoalde globalaren eta Iparraldearen proposamen horiek bereiztea ezinbestekoa da, batik bat, klima-aldaketari buruzko diskurtso menderatzaileak kapitalismoaren eta kolonialismoaren ekintza bateratuari buruz epe luzera ez hausnartzera bultzatzen gaituen testuinguruan.

Afrikako herrialde askotan, hezkuntza-sistemek (batez ere, formalek) ingurumen-krisiari eta COVID-19ari buruzko erreferentzia exogenoak erreproduzitzen dituzte oraindik ere, ezagutzarako eta autoktonoak izateko moduak baztertuz. Kolonizazioaren ondarearen zati den errealitate hori epistemologia autoktonoak txikiagotzeko etengabeko saiakeretan ere ageri da, eta Iparraldeko zibilizazioa iritsi aurreko espazio-denboran kokatzen ditu (Meneses, 2018). Ondare horren adibide zehatz bat lotuta dago hezkuntza formalean hizkuntza kolonialak erabiltzeko betebeharrarekin, eta, ondorioz, hizkuntza autoktonoak tokian tokiko erabilerara baztertuak geratzen dira, eta haien ordez kolonizatzaileen hizkuntzak erabiltzen dira. Beste adibide batzuk indigenen ezagutzaren zatiak desjabetzean dute jatorria; ezagutza horiek Iparraldeko epistemologiek bereganatzen dituzte, mundu moderno osatzen duten jakintzen oparotasuna eraikitzeko.

Potentzia kolonizatzaile modernoek afrikarrak menderatzeko (eta haien naturarekiko harremana “bertakotik” urruntzen ez den harreman bilakatzeko), arrazionaltasun nabariki antropozentrikoaren bitartez lortu zuten, zeinak gizartea-natura dikotomian baitzuen jatorria. Jokabide epistemiko horretan oinarrituz, gizartea eta natura entitate bereizitzaile hartzen dira, eta, gainera, Afrikako kosmologiak guztiz inpugnatzen dituzte. Egiaz, Afrikako kultura askotan, gizateria, natura eta arbasoen arimek unitate edo batasun bat osatzen dute. Antropozentrisismoaren bitartez, munduaren ordenan gizarteari dagokionak lehentasuna eta nagusitasuna duela adieraziz, natura menderatzen saiatu ziren (Steiner, 2005), beste jakintza eta beste kosmologiak isilaraziz.

*Gizakiaren esanahi indibiduala eta gizartea-natura dikotomia* printzipio filosofikoak afrikar kontinenteko hegoaldean agertu ziren, eredu kolonial-kapitalista moderno iristearekin batera (Ramos, 1999). Jarrera horri aurre egiteko, *ubuntu* delakoa proposatu zuten, eta, harekin batera, subjektuarterkototasun sortzailea eratze eskakizuna, non alteritate pertsona bakoitzaren subjektibotasunaren ispilu (baina ispilu besterik ez) bilakatzen baita, soziala, naturala eta espirituala denaren arteko harreman estuan (Museka eta Madondo, 2012). Beste era batera esanda, pertsonok besteen bitartez existitzen gara, ingurune sozial eta natural zabalago

baten parte den *nia* aitortzen zaigunean haren berezitasun eta ezberdintasun osoan (Eze, 2010: 190-191). *Ubuntu* izeneko filosofia afrikarrak –kulturarteko esanahia hartzeko saiakeran– gizateriaren eta naturaren arteko harremana estua dela eta joera kolektiboa duela baieztatzen du; aldiz, ideologia politiko kolonialak honako argumentu hau hartu zuen oinarri: gizarte kolonizatuak modernizatu eta zibilizatzeko, ezinbestekoa zen gizateriaren eta naturaren arteko elkarrekiko lotura haustea. Haustura horren ondorioz, natura menderatzeko prest zegoen izaki zibilizatuak –herritarra– agertu zen.

Filosofia politiko kolonial-kapitalistari kontra eginez, Hegoaldeko prozesu emantzipatzaileetan parte hartzea erabakigarria izan da erabat, isiltze epistemiko eta ontologikoko egoerak salatzen. Justizia global, sozial, ekonomiko eta epistemikoki berdinzaleagoaren aldeko borroketan garatutako esperientziak zilegi direla onartzen du beste izakien eta beste jakintzen arteko partaidetasunak, non askatasunaren aldeko ekintza kulturala kolektiboa baita. Horretarako ezjakinak garela aitortu beharra dago, gure ezagutzaren mugak non dauden bilatuz eta, bizitako borroketan eta esperientzietan oinarrituz, etengabe (berr)ikastea premia dela onartuz. Aitorpen horrek argi erakusten digu (berr)ikaskuntza testuinguru ugarian gertatzen dela, belaunaldien, taldeen, izakien eta hizkuntzen arteko ezagutzak transmititzea eta iraunaraztea bermatzen duten sare eta egitura sozialen bitartez. Zer itxaropen helaraz diezaiekegu Hegoaldeko herri eta komunitateei, genozidioen, epistemizidioen, hizkuntza-sarraskien, segregazioen eta zapalkuntzen biktima izan direnei? Zer ezagutza behar dira hezkuntza-prozesu emantzipatzailean, Hegoaldeko herri eta komunitate askoren bizitzak arriskuan daudenean

## Hegoaldea, hegoaldeetik: jakintzen ekologiara bidean

Hegoaldeko epistemologiek, hala nola ekintza multilokalek, zapalkuntza-modu modernoek kontrako borroketan sortutako ezagutzak identifikatzea eta baliozkotzea dute helburu; alegia, menderatze horrek eragindako bidegabekeriak gehien jasan dituzten talde eta klase sozialek sortutako eta bizitako ezagutzak (Santos, 2010). Zapalkuntzaren eta menderatzearen kontrako borroketan, kultura desberdinek aldi berean dihardute erresistentziaren bektore eta ezagutzaren sortzaile garrantzitsu gisa. Zientzia modernoak ere Hegoaldeko Epistemologiaren parte da; izan ere, sozialki zilegi diren beste jakintzekin elkarriketa horizontala ezartzea lortzen dute, jakintzen ekologia sustatuz (Santos, Meneses eta Nunez, 2005). Baina, beste ezagutzen moduan, ez da ezagutza onargarri bakarra.

Testuinguru horretan, Tsianina Lomawaimak (2015: 365) esperientzia- eta testuinguru-narratiben garrantzia nabarmentzen du, zeinak hausnarketa epistemiko eta enpirikorako espazioak baitira, eta, haien bitartez, pertsonen arteko harremanak eta pertsonen eta naturaren arteko harremanak ulertzen baitira. Ezagutza horiek –gehienetan hizkuntza ez inperialen bidez transmititzen direnak– funtsezkoak dira autohezkuntza indigenarako edo tokiko hezkuntzarako;

errealitate hori gizarte gehienetan harreman kolonialetik sortutako irakaskuntza-gune pribilegiatuek duten lekuaren aurkakoa da. Ezagutza horiek -bizi-esperientzietan eta herrien eta komunitateen borrokan errotuta daudenak- ez dira estatikoak; eta, aldiz, kontaktuan dauden lekuetan ezagutza horien aniztasuna eta espezifikotasuna dela eta, ezinbestekoa da ezagutzak jardunbide bilakatzea, funtsezko zeregin bat egiteko: bizirautea eta (berr)existitzea, norbere sustraian ere oinarrituz. Horixe da, hain justu ere, Boaventura de Sousa Santos (2007) jakintzen ekologiari buruzko proposamenaren muinean dagoen erronka. Katedradun emerituak zera baieztatzen du: edozein ezagutza mota osagabea da, eta elkarrekiko (osotasunaren orde) osagabetasun horren kontzientzia sortzeko, ezinbestekoa da beste jakintzek zer dioten sakonki entzutea -elkarriketarako eta barne-interpretaziorako ezinbesteko baldintza da-. Laburbilduz, era askotako ontologiak, epistemologiak eta proiektu pedagogikoak onartzea ezinbesteko baldintza da justizia kognitiboa lortzeko gure planetaren defentsan, proiektu emantzipatzaile utopikotzat hartuz gero, Marie Battistek nabarmendu duen moduan:

Mundu osoko herri indigena guztiak haien natura-testuinguruan bizi izan dira. Ingurumenarekin harreman jasangarriak eratu eta garatu dituzte, eta ezagutza hori belaunaldi berriei transmititu diete, hizkuntzaren, kulturaren eta ondarean bitartez. Jasotako ezagutza horrek zientzia, filosofia, ahozko literatura, artea eta abilezia ugari ditu bere baitan, eta oso lagungarria izan zaie herri indigenei eta haien lurraldeei milurteko askotan zehar (Battiste, 2008: 497).

Naturarekiko eta gizateriarekiko harremana sentitzeko eta pentsatzeko beste modu batzuk aldarrikatzea -lurraldea ikuspegi ontologikotik berreraikiz- Hegoaldeko epistemologiaren helburu nagusia da (Santos, 2018). Askotan, tokian tokiko eragileek zein eskualde- eta mundu-mailako eragileek funtsezko lana egiten dute informazioa eta baliabideak emanez, sareak sortuz eta hedatuz, eta haien borroka legezkatuz. Eta intersekzio horiek beste borroka batzuetan ere izaten dira, hala nola emakumeen eta talde minoritarioen eskubideen aldeko borroketan eta etniagatiko eta arrazagatiko bereizkeriaren kontrako borroketan. Horri esker, harreman-sare aktiboa eratzen da talde ekologisten eta gizakien, nekazarien eta komunitate indigenen eskubideekin konprometituak daudenen artean. Harreman horiek finkatuz eta arakatuz, batetik, mugimendu bakoitzaren politiketan eta jardunbideetan maila batean edo bestean gai desberdinak nola artikulatzen diren aztertuko dugu, eta bestetik, epistemologiari, eskubideari eta ingurumenari buruzko diskurtso unibertsalizatzaileek nola talka egiten duten ohartuko gara. Eta, esparru horretan, oso garrantzitsua da (berr)existentziaren aldeko mugimenduen eta borrokan arteko interes desberdinen talkaren ondorioak gainditzeko zer modu dauden jakitea eta onartzea. Beraz, ezinbestekoa da elkar-ezagutza bultzatzea, zeina borroka horietan diharduten mugimenduen jardunbide eta helburuetan finkatutako kulturarteko trukean oinarrituta baitago. Jardunbide sozialetan oinarritutako erreflexibotasunaren ikuspegitik, kulturarteko truke horrek oso kontzientzia sakona piztuko du (berr)existentziaren aldeko borrokaren testuinguru espezifiko desberdinetan (Santos, 2018). Argumentu nagusia



honakoa da: ingurumenaren, biziaren, lurraren, uraren eta basoen aldeko borroken ikuspegi inklusiboagoa izatea premiazkoa da Hegoalde globalean, bai eta ikuspegi horrek era askotako subjektibotasunak, agentziak eta jardunbidek onartzea ere. Antolaketa lokal-globala boterearen eta ezagutzaren arteko antolaketa gisa hartzeko, beharrezkoa da eraberritze demokratiko sakona egitea izatearen eta jakitearen beste zentzuen bilaketaren hainbat mailatan; hau da, erronka ontologiko eta epistemologiko arduratsua.

Hezkuntzaren arloan, ikaskuntzarako guneak handitzea –autobaieztapenerako gune bilakaturik– autodeterminazioaren aldeko borrokan oinarritutako deskolonizazio-prozesu luze baten parte da. Esperimentatutako ezagutza hori funtsezkoa da pedagogia konprometitua garatzeko, pentsaerak deskolonizatutako dituen pedagogia garatzeko. Prozesu horretan, erronka ugari izan genituen eta oraindik ere baditugu; izan ere, borroka sozialek eragiten dituzten ezagutzak oso konplexuak dira, eta ezagutza horiek esparru zabalago batera eramatea, erredukzionismoak eta irudipen zalantzarriak saihestuz, oso zaila da. Esperientzia askok erakusten duten moduan, geografikoki errota eta historikoki kokatua dagoen ezagutza batean oinarrituta, isilarazitako eta ukatutako subjektibotasunak berreskuratzen saiatzen ari dira, ezagutzaren ikuspegi eurozentrikoak hautsiz (Smith, 2004: 87). Aldi berean, mundu-ikuskerak, komunitate, hizkuntza, eta komunikatzeko modu bakoitzaren azpian dauden printzipioak (berr)ikasten, eraberritzen eta (berr)eraikitzen dira. Bestelako proposamen pedagogiko baten helburua da hori, plurala eta elkarriketan oinarritutakoa, giza duintasunaren zentzu sakonagoa sortuz eta komunitatearen zentzua leheneratuz. Ildo horretatik, bell hooksek (2004) hezkuntza askatasuna lortzeko jardunbide gisa defendatzen du, eta ikasgela pentsaera kritiko aktiboa eratzen duten eztabaida sakonen ingurune gisa, zeina zapalkuntza naturalizatzeko baliatzen den eta, beraz, botereari eusteko ezinbesteko baldintza den ezagutzaren aurka baitago erabat.

Lagunartean egiten diren erreskaterako, zaintzarako eta parte-hartze politikorako bide horietan, oso elkarriketa emankorrak izaten dira, eta utopiak eraikitzen dira. Bizitako esperientzietan oinarrituta, komunitatea (berr)eraikitzean, Paulo Freireren pedagogia kritikoa gauzatzeko itxaropena erakusten da, non guztiok erabat presente baikaude, oraina zalantzan jarritz, *kairosen* (Freire, 2015: 215). Bide horretan, pertenezien zentzuak areagotzen dira, sakonki deskolonizatzeko asmoz, historia nahitaezko une gisa konpontzearen alde. Deskolonizatzeko ezinbestekoa da gure sustraiekin berriz ere konektatzea eta mundu globalekoak garelako ohartzea, bizi-pentsatu-izan kontzeptuak zer esan nahi duen ikastea eta besteekin batera ikertzea. Deskolonizatzeko ezinbestekoa da gure harremanetan (berr)irudikatzea, zerk batzengaituen identifikatuz, gure arbasoekiko, lurraldeekiko, gorputzekiko eta gainerakoekiko lotura identifikatuz, atxikia ez den eta bakoitzaren barruan dagoen ezagutza lantzeko. Ezinbestekoak dira entzute epistemologiko sakona eta beste testuinguruetan oinarritutako ko-ikaskuntza, ezagutza-sarea birsortuz; hain zuzen ere, ezagutza-sare horrek bereizten gaitu gizateria gisa. Isilarazitako, erbesteratutako, ezabatutako, ukatutako eta lotsarazitako ezagutza

berreskuratzeko proiektua da. Jakintzen arteko elkarrizketa horietan zientziaren ezagutzak eta jardunbideak ez dira baztertzen; alderantziz, zientziak pandemiei eta ingurumen-hondamendiei aurre egiteko jardunbideei eta ezagutzari egindako ezinbesteko ekarpen garrantzitsuak aztertzen dira elkarrizketa horietan, bai eta zientziaren partzialtasuna ere, zeinak sufrimendua, gaixotasuna, zaintza, tratamendua eta sendabidea jorratzen saiatzen diren esperientzien, jakintzen eta jardunbideen aniztasuna aintzat hartzeko beharra justifikatzen baitu.

Zientzia oso garrantzitsua da gizarte-eraldaketarako; munduaren eta munduko ezagutzaren parte da. Hala ere, gure mundua jakintza potentzialki mugagabez josita dago, zeinek jakintzen ekologia hezurramitzen baitute. Hegoaldeko epistemologiaren egiturazko zati den jakintzen ekologiaren oinarrian honako hau dago: ezagutza oro unibertsala (anbizioaren aldetik) eta partziala da, bai eta kokatua ere (baldintza espezifikoek erantzunez). Ezagutza osoaren partzialtasunaren premisak (Santos, Meneses eta Nunes, 2005) berekin dakar edozein ezagutza motari hainbat ezjakintasun dagokiola onartzea; partzialtasun hori ez ezagutzeak zera dakar: ezagutza mota jakin bat onartzeko gai ez den guztia ez ezagutzea. Eta, ondorioz, ezaguna ez dena existitzen ez denaren eremura baztertzen da, bai testuinguruaren arabera egiazko ezagutzatzat hartzen denari oztopo egingo dion eragozpen gisa, bai tokian tokiko balioa baino ez duen ezagutza gisa. Deskolonizazioak berekin dakar gure erreferentziak zalantzan jartzea. Zientziaren (eta unibertsal gisa inposatzeko asmoa duten jakintza guztien) deskolonizazioaren aldeko deialdia justizia kognitiboaren eta munduko aniztasun unibertsalaren aldeko borroka-proiektu zabalago baten parte da. Ezagutza zientifikoa Hegoalde globala ezagutzeko beharrezkoa bezain urria da. Boaventura de Sousa Santosek (2018) adierazi bezala, ezinbestekoa da pentsamendu kanoniko menderatzailearen irakurketa kritikoa egitea; modernitate ipar-zentristaren egiturazko erreferenteak ezabatuz, boterea eragin eta egituratzen eta zapalkuntza-harremanak berresten jarraitzen duten jarduera neoliberalak, (neo)kolonialak eta (hetero)patriarkalak identifikatzea, aztertzea eta kritikatzeko eragozten da.

¡Hainbat proposamen aurreratuko ditut –dagoeneko zenbait testuingurutan esperimentatu izan direnak–, zeinek Iparralde global, kapitalista, kolonial eta patriarkalaren arrazionaltasunaren mugak erakusteaz gain, gure etxean, Lurrean, bizi diren hainbat talderen, komunitateren eta herrien proposamen inklusiboak eta elkarrizketarako irekiak erakusten baitituzte. Jakintzen ekologia aldarrikatzeak zera esan nahi du: sistema globalak zeharkatzen dituzten hainbat ezagutza, ikuspuntu eta interpretaziorekin bat egitea. Ezagutzen ekoizpena sakonki demokratizatzeke, ezinbestekoa da irakaskuntza, ikaskuntza eta ikerketa deskolonizatzea. Proposamen horien helburua da sormena, hausnarketa, ekitatea eta aniztasunaren onarpen horizontala sustatzea, “normalitate berri” baterako trantsizioan. Zentzu horretan, ezagutzen aniztasuna onartzeko, nahitaezkoa da pentsaerak deskolonizatzea, zientzia eta ezagutza ezagutzeko eta komunikatzeko hainbat modu hartzen dituen sare batean. Eta Wa Thiong’ok (1993) nabarmendu zuen bezala, ezagutza mota horiek hizkuntza ez inperialetan sortzen dira gehienetan, *ubuntu* erlazio-harremanak erakusten duen moduan. Ezagutzeak

berekin dakar kapitalismoak, kolonialismoak eta patriarkatuak sortutako desberdinkeria- eta zapalkuntza-sistemak aitortzea. “Jatorrira”, sustraietara atzera bueltatzea bestelako esperientziak ezagutzeko modu bat da, eta, aldi berean, historia osoa etengabeko eztabaida- eta berreraikitze-prozesuan dagoela onartu beharra dago. Beste erreferente epistemikoetan oinarrituta sakonki entzuteko, ezinbestekoa da pertsoneri errespetuz eta arduraz entzutea, ezagutzaren subjektu diren aldetik, eta hori, hain justu, abian dagoen historiaren konpontze-prozesuen funtsezko zatia da. Gonbidapen hori beharrezkoa da komunitatea elkarrekikotasunean oinarrituz (berr)eraikitze, ezagutza erauzteko eta jabetzeko edozein saiakeraren gainera (Santos, 2018). Elkarrizketa horiei esker, ezagutza espezializatuetan sakondu genezake, dagokien sinesgarritasuna aitortuz, borroka-bizipenetan eta -jardueretan esperimentatuak izan direlako. Francis Nyamnjoh-k dio afrikar (edo beste edozer) izateko edo bilakatzeko erronka ez dela ohituta gauden pertsonekin, lekuekin edo eremuekin identifikatzea, baizik eta, bereziki, kontziente izatea garrantzitsuena oraindik aurkitu ez diren lurraldeak, lekuak eta pertsonak direla. Aldi berean, oso garrantzitsua da diziplinarteko eta kulturarteko elkarrizketak suspertzea, askotariko lan-talde inklusiboak antolatuz, zeinek aurreiritziak aktiboki eraitsiko baitituzte, taldeko kide guztiak parte-hartzaile ahaldunduak izan daitezten ezagutza berrien garapen-prozesuan. Oro har, ekintza horiek ikerketa-gai eta -prozesuak birformulatzen dituzte, testuinguruaren arabera ezagutza baliagarria eraikitze aldera. Proposamen horiek konfiantza dakarte, topaketetan eta presentzian sortutako konfiantza, ezagutzak partekatuz eta borrokak harremanetatik eta elkarrizketatik aztertuz (Nyamnjoh, 2017; Santos, 2018). Ekintza horiek, elkarbizitza hori, komunitate post-abisalaren eta kulturarteko harremanen oinarrian daude.

Beste epistemologiatan eta ontologiatan oinarritutako (berr)existitzeko eskubidea aitortzea oso proiektu handia da, non isilarazitako bizitzen eta bazter utzitako jakintzen onarpena guztien ondasuna baita. Handitasun horretan, deskolonizatzeko munduko ordena aldatu beharra dagoela onartu behar da (Fanon, 1961). Helburua da kapitalismoa, kolonialismoa eta patriarkatua hirukoaren egituratze zorrotza haustea; konpromisoa baino, haustura. Helburua da pentsamolde abisala iraultzea, zeinak alteritatea modu objektiboan hartzeko ahaleginak egiten baititu, izateko era intersubjektibo eta erlazional baterantz. Hegoaldeko epistemologiek zerikusia dute elkarrizketekin, ko-ikaskuntzarekin, bizitako esperientziekin, borroka amankomunetan gure ahotsak elkartzearekin, bizitako solidaritatearekin. Itxaropenaren eta zaintzaren etika bereizgarriko deia da (zeinak naturari eta gizarteari buruzko pertzepzio integratua baitu, kosmologia ugariren artean komunikatuz). Topaketa horietatik honako hauen garrantziaz ohartzea da: *ubuntu* (Ramos, 1999), *sentipentsatzea* (Fals Borda, 2009) eta *bihoztatzea* (Guerrero Arias, 2010), izateko eta mundua bizitzeko beste modu batzuk, beste jakintza batzuen sortzaileak. Hegoaldea metafora beste ezagutza motak eta berrestitzeko beste aukerak ko-eraikitze posibilitatea da, Lur post-abisalean hamaika jakintzez egindako bizi bete-betea eraikitze.

## Erreferentziak

- Adams, William A. (2003): "Nature and the Colonial Mind", in: Adams, W.; Mulligan, M. (org.). *Decolonizing Nature. Strategies for Conservation in a Post-colonial Era*. London: Earthscan, 16-50 or.
- Anderson, Emma-Louise; Beresford, Alexander (2016): "Infectious Injustice: The Political Foundations of the Ebola Crisis in Sierra Leone", *Third World Quarterly*, 37(3), 468-486.
- Battiste, Marie (2008): "Research Ethics for Protecting Indigenous Knowledge and Heritage: institutional and researcher responsibilities", Denzin, N. K. et al. (org.). *Handbook of Critical and Indigenous Methodologies*. Berkeley: Sage, 497-509 or.
- Dwivedi, Ranjit (2001): "Environmental Movements in the Global South: Issues of livelihood and beyond", *International Sociology*, 16(1), 11-31.
- Eze, Michael Onyebuchi (2010): *Intellectual History in Contemporary South Africa*. New York: Palgrave Macmillan.
- Fals Borda, Orlando (2009): *Una sociología sentipensante para América Latina* (Victor Manuel Moncayo konpiladorea). Bogotá: Siglo del Hombre Editores y CLACSO.
- Fanon, Franz (1961): *Les Damnés de la Terre*. Paris: Maspéro.
- Farmer, Paul (2001b): *Infections and Inequalities: the modern plagues*. Berkeley: University of California Press.
- Ferguson, Neil M. et al. (2020): *Impact of non-pharmaceutical interventions (NPIs) to reduce COVID-19 mortality and healthcare demand*, martxoak 16an argitaratua, kontsulta 2021eko martxoak 27an egin, eskuragarri webgune honetan: [www.imperial.ac.uk/media/imperial-college/medicine/sph/ide/gida-fellowships/Imperial-College-COVID19-NPI-modelling-16-03-2020.pdf](http://www.imperial.ac.uk/media/imperial-college/medicine/sph/ide/gida-fellowships/Imperial-College-COVID19-NPI-modelling-16-03-2020.pdf).
- Freire, Paulo (2015): *À sombra desta mangueira*. Rio de Janeiro: Paz & Terra.
- Global Health 50/50 (2020): *The Global Health 50/50 Report 2020: power, privilege and priorities*, 2020ko martxoan argitaratua, kontsulta 2021eko martxoak 26an egin, eskuragarri webgune honetan: <https://globalhealth5050.org/2020report>.
- Guerrero Arias, Patricio (2010): "Corazonar el Sentido de las Epistemologías Dominantes desde las Sabidurías Insurgentes, para Construir Sentidos Otros de la Existencia", *Calle14*, 4(5), 80-94.
- Harari, Yuval Noah (2021): "Lessons from a year of Covid", *Financial Times*, otsailak 26ko argitalpena, kontsulta 2021eko apirilak 12an egin, eskuragarri webgune honetan: [www.ft.com/content/f1b30f2c-84aa-4595-84f2-7816796d6841](http://www.ft.com/content/f1b30f2c-84aa-4595-84f2-7816796d6841).
- hooks, bell (2004): *Teaching Community. A Pedagogy of Hope*. New York: Routledge.

- Jones, David S. (2020): "History in a Crisis - Lessons for Covid-19", *The New England Journal of Medicine*, 2020ko martxoak 12koa
- Leach, Melissa (2015): "The Ebola Crisis and Post-2015 Development", *Journal of International Development*, 27, 816-834.
- Leach, Melissa; Scoones, Ian; Stirling, Andrew (2010): "Governing epidemics in an age of complexity: Narratives, politics and pathways to sustainability", *Global Environmental Change*, 20(3), 369-377.
- Legido-Quigley, Helena et al. (2020): "The resilience of the Spanish health system against the Covid-19 pandemic", *The Lancet*, 2020ko martxoak 18koa.
- Lomawaima, K. Tsianina (2015): "Education", in Warrior, R. (org.), *The World of Indigenous North America*. New York: Routledge, 365-387 or.
- Mbembe, Achille (2020): "Le droit universel à la respiration", AOC, 2020ko apirilak 6ko argitalpena, kontsulta 2021eko ekainak 30ean egin, eskuragarri webgune honetan: <https://aoc.media/opinion/2020/04/05/le-droit-universel-a-la-respiration>.
- Meneses, Maria Paula (2009): "Justiça Cognitiva", in Cattani, A. et al. (org.). *Dicionário Internacional da Outra Economia*. Coimbra: Almedina, 231-236 or.
- Meneses, Maria Paula (2016): "Images Outside the Mirror? Mozambique and Portugal in world history", in Darder, A.; Mayo, P.; Paraskeva, J. (org.). *International Critical Pedagogy Reader*. New York: Routledge, 118-128 or.
- Meneses, Maria Paula (2018): "Colonialismo como Violência: a "missão civilizadora" de Portugal em Moçambique", *Revista Crítica de Ciências Sociais*, ale berezia, 115-139 or., eskuragarri webgune honetan: <https://journals.openedition.org/rccs/7741>.
- Museka, Godfrey; Madondo, Manasa M. (2012): "The Quest for a Relevant Environmental Pedagogy in the African Context: insights from unhu/ubuntu philosophy", *Journal of Ecology and the Natural Environment*, 4(10), 258-265.
- Nyamnjoh, Francis (2017): "Incompleteness: Frontier Africa and the currency of conviviality", *Journal of Asian and African Studies*, 52(3), 253-270.
- OXFAM (2019): *Public Good or Private Wealth? Universal health, education and other public services reduce the gap between rich and poor, and between women and men*. London: OXFAM UK, kontsulta 2020ko otsailak 2an egin, eskuragarri webgune honetan: [www.oxfam.org.nz/sites/default/files/reports/Public%20Good%20or%20Private%20Wealth%20-%20Oxfam%202019%20-%20Full%20Report.pdf](http://www.oxfam.org.nz/sites/default/files/reports/Public%20Good%20or%20Private%20Wealth%20-%20Oxfam%202019%20-%20Full%20Report.pdf).
- Ramose, Mogobe B. (1999): *African Philosophy through Ubuntu*. Harare: Mond Books.
- Roy, Arundathi (2020): "The pandemic is a portal", *Financial Times*, apirilak 3ko argitalpena, kontsulta 2020ko apirilak 4an egin, eskuragarri webgune honetan: [www.ft.com/content/10d8f5e8-74eb-11ea-95fe-fcd274e920ca](http://www.ft.com/content/10d8f5e8-74eb-11ea-95fe-fcd274e920ca).

- Santos, Boaventura de Sousa (2010): "Para além do pensamento abissal: Das linhas globais a uma ecologia de saberes" Santos, B.S.; Meneses, M.P. (org.) *Epistemologias do Sul*. Coimbra: Almedina, 23-72 or.
- Santos, Boaventura de Sousa (2018): *O Fim do Império Cognitivo*. Coimbra: Almedina.
- Santos, Boaventura de Sousa (2021): *El futuro comienza ahora: de la pandemia a la utopía*. Madrid: Akal.
- Santos, Boaventura de Sousa; Meneses, Maria Paula (2020): "Introducción, Las Epistemologías del Sur: dar voz a la diversidad del Sur", Santos, B.S.; Meneses, M.P. (orgs.), *Conocimientos Nacidos en las Luchas: construyendo las Epistemologías del Sur*. Madrid: Akal, 9-47 or.
- Santos, Boaventura de Sousa; Meneses, Maria Paula; Nunes, João Arriscado (2005): "Introdução: para ampliar o cânone da ciência: a diversidade epistémica do mundo", in Santos, B. S. (org.). *Semear outras soluções: os caminhos da biodiversidade e dos conhecimentos rivais*. Rio de Janeiro: Civilização Brasileira, 25-68 or.
- Singer, Merrill; Bulled, Nicola (2013): "Interlocked Infections: The Health Burdens of Syndemics of Neglected Tropical Diseases", *Annals of Anthropological Practice*, 36 (2), 326-344. DOI:10.1111/napa.12007.
- Smil, Vaclav (2011): *Global Catastrophes and Trends: The Next Fifty Years*. Cambridge, MA: MIT Press.
- Smith, Linda Tuhiwai (1999): *Decolonizing Methodologies: Research and indigenous peoples*. London: Zed Books.
- Steiner, Gary (2005): *Anthropocentrism and its Discontents: the moral status of animals in the history of Western Philosophy*. Pittsburgh: University of Pittsburgh Press.
- Thiong'o, Ngugi wa (1993): *Decolonizing the Mind: the struggle for cultural freedoms*. London: James Currey.
- Wallace, Rob et al. (2020): "COVID-19 and Circuits of Capital", *Monthly Review*, 2020ko maiatzeko argitalpena, kontsulta 2021eko maiatzak 15ean egin, webgune honetan eskuragarri: <https://monthlyreview.org/2020/04/01/covid-19-and-circuits-of-capital/>.
- WHO Africa: "Less than 10% of African countries to hit key COVID-19 vaccination goal", *WHO Africa*, 2021eko urriak 28koa, kontsulta 2021eko azaroak 9an egin, webgune honetan eskuragarri: [www.afro.who.int/news/less-10-african-countries-hit-key-covid-19-vaccination-goal](http://www.afro.who.int/news/less-10-african-countries-hit-key-covid-19-vaccination-goal).

# Gizarte-mugimendu emantzipatzaileak, hezkuntza kritikoa eta hezkuntza-politika praxia: teoria eta ikaskuntzak historiako borroka-testuinguruetan

Lia Pinheiro Barbosa<sup>1</sup>

## Hausnarketari ekiteko: hezkuntza kritikoa premiazkoa egiten duten testuinguruak

*Abya Yalako* lurraldeetan –XVI. mendearen hasierako erregimen kolonialek Latinoamerika deitu zioten lurraldeetan–, gizarte-mugimendu emantzipatzaileek<sup>2</sup> hezkuntzari buruzko beren ikuskera eraiki dute. Ikuskera hori bizi- eta borroka-prozesu sozio-historikoetatik azaleratu da, eta prozesu horiek ez dute denboraren kontaketa eta ikuspegi lineala 1492. edo 1500. urteetara murrizten; alegia, ordena koloniala ezarri zen denbora-eremura. Memoria historikoa berreskuratzea funtsekoa bada ere zapalkuntza- eta botere-harremanen jatorri egituratzaileak identifikatzeko, mugimendu horien ikuspegitik, historiako denboraren dialektikak aukera ematen die, batetik, eraiki nahi den hezkuntzaren izaera –filosofia, hezkuntza eta pedagogia printzipioei dagokienez –mugatzeko, eta bestetik, zer aukerari lotzen zaien erabakitzeko, deskolonizazioaren, askapenaren eta emantzipazioaren aldeko nahiari jarraituz, proiektu politiko gisa.

Gizarte-mugimendu emantzipatzaileen ibilbide historiko-politikoaren arloan, hezkuntza kritikoa zapalkuntza askoren sustraiak identifikatzetik sortzen da, bai eta zapalkuntza horrek «eratze-unearekin» eta «jatorrizko formarekin» duen loturatik ere, Zavaletaren hitzetan (2009). «Eratze-unea» «jatorrizko forma» osatuko duten harremanen izaera kristalizatzeko denbora-tarte soziala da; hau da, bizitza sozial eta politikoaren produkzioa eta erreprodukzioa zehaztuko duten egituren, formen eta edukien oinarriak. «Jatorrizko forma» historia nazional bakoitzak egitura eta

---

1 Soziologo eta ikertzaile militantea. Mexikoko UNAM unibertsitateko Latinoamerikako Ikasketetan doktorea. UECE - Universidade Estadual do Ceará-ko irakaslea, FAEC - Faculdade de Educação de Crateús-en, PPGS - Pós-Graduação em Sociologia Programan eta Mestrado Acadêmico Intercampi em Educação e Ensino-n. CLACSoko, APPEAL Sareko eta PECC-MS Rede-ko ikertzailea. PQ2/CNPq-ko bekaduna. Posta elektronikoa: lia.barbosa@uece.br.

2 Idatzi honetan, mugimendu sozial emantzipatzaileak aipatzean, edozein menderatze-, esplotazio- eta zapalkuntza-egitura material, sinboliko-ideologiko eta subjektibo haustearen aldeko borroka historikoak erazten dituzten mugimenduei buruz ari gara; eta mugimendu horiek, izaera organikoa duen subjektu historiko-politikoa osatzetik hasita, hainbat proiektu politiko bideratzen dituzte, helburu jakin batzuekin: emantzipazioa eta kolonialismoaren, kapitalismoaren, arrazakeriaren eta inperialismoaren kontrako borroka. Hegoalde globalean, mugimendu sozial emantzipatzaile horiek herri indigenek, nekazariek, langileek, feminismoek eta beste zenbait herri-erakundek osatzen dituzte.

gobernu mota desberdinen antolaketa-prozesua zehaztu izan duen modua da, bai eta Estatuaren eta gizarte zibilaren arteko harremanen izaera era. Zentzu horretan, «jatorrizko forma» boterearen, zapalkuntzaren eta haien nazio- zein eskualde-mailako adierazpen soziokultural, politiko eta ekonomikoen osaera interpretatzeko gako analitiko da.

Latinoamerikako eta Karibeko gizarteek kasuan, «eratzee-unean» erregimen kolonial eta esklabistak ezarri ziren, zeinek gizarte-erakundeek eta indar politikoen izaera osatu baitzuten, bai eta ekoizpen-harreman sozialen eta subjektibotasunen oinarri material eta ideologikoa ere. Zapalkuntza- eta esplotazio-prozesuen «jatorrizko forma» etnia-arrazan eta klasean oinarritzen da, zeina mundu-mailako kapitalismoan are mendekoago eta azpiratuago integratzen garen neurrian erreproduzitzen eta berregituratzen baita.

Azpimarratu beharra dago «eratzee-unea» eta «jatorrizko forma» *rapport* pedagogiko-politiko gisa ezartzen direla (Gramsci, 2011); hau da, harreman pedagogiko gisa, zeinak, azken batean, izaera unibertsala egotzi nahi baitio unitate kultural-soziala eta munduaren ikuskera amankomuna osatzeari. Harreman pedagogiko hori osotasun sozialean eta haren erakundeetan eta gizabanako bakoitzak besteekin duen harremanean dago errotuta. Hortaz, hegemoniaren oinarri soziokultural eta politikoa da, eta horrek honako ondorio honetara garamatza: naturaz, hegemonia oro harreman pedagogiko-politiko da (Gramsci, 2011). Finkatuko dela iragar daitekeen unitate kultural-sozial hori bat dator Zavaletak (2009) kapitalismoaren -alegia, gizarte-erakundeek eta gizartearen beraren esparruan kapitalaren arrazionaltasunaren ulertze politiko-ideologikoa dakarren prozesu soziohistorikoaren- totalizazio homogeneizatzailearen inguruan egindako analisiarekin.

Baina «eratzee-unea» eta «jatorrizko forma» ordena kolonial eta esklabistaren inposaketan, eta mendekotasunean eta azpiraketan oinarritutako kapitalismoeratzee-prozesu historikoan ezartzen badira, hegemonia -*rapport* pedagogiko-politiko gisa- menderakuntza kolonial, patriarkal, kapitalista, arrazista eta inperialistarekin lotutako gizarte-erakundeetatik eta indar politikoetatik gauzatzen da. Alde horretatik, kapitalismoaren totalizazioak «eratzee-une» hartan sortutako gizarte-harremanen zati handi bat jaso zuen oinordetzan, zeinak gizarte kolonialaren eta barne-kolonialismoaren erreproduzioaren berezko harremanak baitira (González-Casanova, 1969). Hegoalde globalean, harreman horiek erakunde sozialetan eta politikoetan kristalizatu dira, bai eta gizartean bertan ere azken bost mendeetan. Edonola ere, hierarkizazio sozialaren eta ezarritako boterearen eta haren denbora-tarte bateko *continuum*aren berezko desberdintasunek mendeko taldeentzat -alegia, zapalduentzat- onartezinak diren kontraesanak eta antagonismoak azaleratzen dituzte.

Mugimendu sozial emantzipatzaileek gure gizarteek eraketa soziohistoriko hori alderdi kritikorik ulertzen dute, Zapaltzailearen Pedagogiaren berezko *rapport* pedagogiko-politikoaz eta Zapalduaren Pedagogia eratzeko premiaz ohartzen direnean (Freire, 1987); alegia, *praxi* politikoan oinarritutako pedagogia,



deskolonizazioaren eta askapenaren aldeko borrokan kolektiboki eta organikoki eraikitako pedagogia.

*Abya Yalako* gaur egungo borroka sozialek –batez ere, XX. mendearen amaieran indigenen eta nekazarien mugimenduek martxan jarritakoek– zapalkuntza finkatu zuten matrize soziohistoriko horien analisi kritikoa berreskuratu dute, ordena kolonial, kapitalista eta inperialistaren berezko *rapport* pedagogiko-sozial horren jarraipenak identifikatu baitituzte, bai nazio-mailako testuinguruetan, bai erdigune-periferia dialektikan.

## Errebolta politikoak eta intsumisio pedagogikoak

Indigenen, Beltzen eta Herritarren 500 Urteko Erresistentziaren Kanpaina, armada indigenaren errebolta armatua, Askapen Nazionalako Armada Zapatista (EZLN), Vía Campesinak eta Nekazari Erakundeen Latinoamerikako Koordinakundeak (CLOC) osatzen duten taldea, eta XX. mendean zehar Latinoamerikako hainbat herrialdeetako nekazarien eta indigenen mugimenduek antolatutako borroken arragoa, besteak beste, modernitatearen aurkako kritika erradikala egiten duen errebolta historikoaren adierazgarri dira; modernitate horrek, hain zuzen, egiturazko arrazakeriaren sorleku izateaz gain, herriak esklabo bihurtu ditu eta haien existentzia ukatzen du.

Bost mendetik gorako ibilbidea duen Zapaltzailearen Pedagogiaren inguruan egindako balantze politikoan, gizarte-mugimendu emantzipatzaile horiek ohartu dira *rapport* pedagogiko-politiko horrek –plan sinboliko-ideologiko eta materialetan– mendebaldeko paradigma zibilizatzaile kapitalistaren ezarpena eta homogeneousazio soziokulturalaren inposaketa legitimatu zuela, zeina prozesu hauek bereizten baitu:

- Lurraldeak desjabetzea eta bititza soziala, kulturala eta politikoa antolatzeko beste modu batzuk deuseztatzen saiatzea, genozidioen eta epistemizidioen bidez;
- Gorputz ez zuriak basapiztitzat hartzea eta gizagabetzea, ordena kolonialaren ezarpenaren ondoren, gorputz horiek arrazializatuz;
- Esklabotasunaren eta katekizatzearen bitartez, gorputzak otzantzea eta esplotatzea;
- Gorputzak bortxatzea, batez ere emakumeen gorputzak, gizon zuri europarraren nagusitasun menderatzailearen lurralde mugagabea balitz. Bortxaketa hori gaur egun ere egiten da, misoginiaren eta feminizidioen bitartez;
- Sexu-definizio binario eta hetero-zis-normatiboa inposatzea;

- Hizkuntza kolonialak eta haien pentsamendu-matrizeak inposatzea;
- Etnia-arraza, generoa eta klasea hierarkizatzea;
- Lurraldetasuna kentzea eta lurraldearekiko *ethosa* ukatzea;
- Azpiratutako eta menderatutako bestea asmatzea, bai ikuspegi subjektibotik, bai eta haren gaitasun kognitiboak, intelektualak eta ezagutza eratzeko gaitasuna errefusatzetik;
- Mendekotasunean eta subordinazioan oinarritutako kapitalismoratzea, nagusigo eta esplotazio erdialde-periferikoaren dialektikan oinarrituta;
- Arrazakeria eta klasismoa harreman sozialen eta produktiboen esparruan.

Zapaltzailearen Pedagogia horrek eta haren *rapport* pedagogikoak hezkuntza-oinarri bat sortu zuen bereizketa-logiketan oinarrituta; hau da, batetik, kapitala-lana gatazkaren esparruko logiketan, eta bestetik, kapitala-natura gatazkan berezkoa den kultura- eta lurralde-gabetzearen esparruko logiketan, zeina oraindik ere indarrean baitago gure lurraldeetan, esplotazio bidez gaur egun kapitalismoa garatzen ari den etapa honetan. Ezagutzaren eraikitze-prozesuari dagokionez, bereizketa-logikek *Abya Yalaren* milaka urteko filosofien berezko kontzeptu- eta pentsamendu-matrizeen ukapenean eta/edo baliogabetzean oinarrituta dihardute, eta horrek bihotza-adimena-arrazoimena-sentimendua unitate dialektikoa ez onartzea dakar, eraikitze epistemikoaren muina den aldetik; alegia, sentipentsamendua (Barbosa, 2019; 2015b, 2014).

Era berean, XXI. mendean ere, *rapport* pedagogiko-politiko horrek indarrean dauden kolonialismoetan dirau, bai eta kapitalak mundu-mailan periferien integrazio-mekanismo menderatzaile eta azpiratzaileen aurrean erakusten dituen –eta esplotazio-logikei berezkoak zaizkien– kontraesanetan ere. Ez da harrizkoa paradigma zibilizatzaile kapitalista horrek sustatzen duen eredu ekonomikoa erreproduzitzearen ondorioz, eskualdeak –hala nola Latinoamerika-sakrifizio- eta mugarik gabeko desjabetze-eskualde bilakatzea, eta hark naturan eta bizian eragiten dituen ondorio hilgarriak diskurtso neokolonial, kapitalista eta inperialistaren bitartez justifikatzea. Diskurtso hori, orobat, Estatu Batuen ekintza inperialista eta egungo gerra-testuinguruak estaltzen dituen ustezko demokrazia defendatzearen alde agertzen da.

Hemen, Ceceñaren analisiari (2005) erreparatu behar diogu, “Pentagonoaren Mapa Berria” delako aztertuz, zeinak mundua “lehentasunezko arreta-eskualdeetan” banatzen baitu. Eskualde horietan, hain justu ere, Estatu Batuek “governatuezineko” edo “demokrazia-arauak” betetzen ez direneko kasuetan esku har dezakete. Mapa horretan adierazitako eskualdeak Ekialde Ertainekoak, Asiakoak, Afrikakoak eta Latinoamerikakoak dira. Egileak jakinarazi nahi digu lehentasunezko arreta-eskualde horiek munduan baliabide natural estrategiko gehien duten eskualdeak direla, bioaniztasun handikoak eta petrolio- eta gas-hobi ugarikoak, bai eta geruza freatiko eta oinarritzko erabilera duten metal askokoak ere. Halaber, eskualde horiek sustrai kultural handiko eta altxatze politiko ugariko eskualdeak dira.

Egiaz, hegoalde globalean dauden munduko eskualde horietan, orain arte ez da Estatuaren totalizatze homogeneizatzailea lortu (Zavaleta, 2009), eta, beraz, idatzi honetan mintzagai dugun harreman pedagogiko-politikoaren inplementatzeko historiari lotutako hainbat zailtasun dituzte. Oinarri sozialari dagokionez, eskualde horiek gizarte heterogeneoak dira, beren pentsaera soziala eta mundu-ikuskerak dute, eta lurraldeen antolaketa sozial eta politikarako beste modu batzuei eusten die oraindik ere.

«Heriotz-politika» horren izaera biozida (Herrero, 2014) –mugimendu sozial emantzipatzaileek erabilitako hitzetan– kontraesanik handiena da, eta horrek krisi organikora, migrazio- eta osasun-krisira garamatza. Gizarte-mugimendu emantzipatzaileek bestelako gizarte-paradigma eraikitzeke premia salatzen dute, non esplotazio- eta zapalkuntza-logika horiek mundu-mailan gaindi baitaitezke.

Gizarte-mugimendu emantzipatzaileek historia-denboraren kontaketa luze horretan eta hark orainean dituen erreberberazioetan kokatzen dute Hezkuntza Kritikoren proposamena, zeina errebolta politikoetatik eta insumisio pedagogikoetatik sortzen baita (Barbosa, 2015a). Hezkuntza Kritikoa, gainera, kontzientziaren mailan, menderakuntza-esplotazio eta zapalkuntza arteko dialektika egituratzen duten erabaki historikoak ulertzeko modu kritikorekin lotuta dago, eta, prozesu historiko horretan, subjektu zapaldu eta menderatutzat hartzen zaio. Dena den, bere buruaren eta berekiko kontzientzia hori lotuta dago etengabeko borrokan diharduten subjektu kolektiboa direla onartzearekin, –zapatisten ikuspegitik– amorrutako duintetik sortutako subjektu kolektiboa; hau da, historia-denbora luzean ibili diren, eta Estatuaren eta historiako logika horien aurka borrokatzen diren asaldatze eta erresistentzietatik sortutakoak.

## Gizarte-mugimendu emantzipatzaileetan eta borroka-ikaskuntzetan sakontzea

Gizarte-mugimendu emantzipatzaileek hainbat borroka-estrategia garatu dituzte bai politikaren esparruan, bai hezkuntza-pedagogiaren esparruan, eta horri esker, honakoak egin ditzakete: 1. Borroka-estrategiak eramango dituen subjektu historiko-politikoaren osatu; 2. Krisi sistemikoa –pandemiaren testuinguruan areagotu den prozesua– kritikoki eztabaidatu; 3. Izaera emantzipatzailea duten proiektu politikoak eraiki, zeinak programa politikoetan finkatuak baitaude, eta eztabaida hegemonikoaren baitan gidaritza politikoaren ekar baititezakete. Gizarte-mugimendu emantzipatzaile horien hezkuntza-politika *praxiari* esker, historiako hainbat ikaskuntza identifika ditzakegu (Barbosa, 2020; 2019; 2016; 2015; Barbosa eta Rosset, 2017a; 2017b):

a) Hezkuntzaren ikuskeraren teoriko-epistemiko eta politikoa egitea, deskolonizazioa, askapena eta giza emantzipazioa helburu duten historiako erresistentzia-prozesuekin batera elkarlanean. *Abya Yalako* esperientzien artean, honako hauek nabarmendu nahi ditugu, besteak beste: Askapen Nazionalen Hezkuntza Sistema

Errebelde Autonomo Zapatista (SERAZ-LN), Landa Hezkuntza eta Mugimendu Pedagogia (MST), Latinoamerikako Agroekologia Institutuak – IALAS (CLOC/LVC) eta Hezkuntza Propioa (CRIC).

b) Teorizazio propioa Landa Paradigma Onto-Epistemikoa osatzen duen ezagutzaren eraikuntzan; hau da, nekazarien eta indigenen gizarte-mugimenduei buruzko teoria soziala, kontzeptu propioen eta gako analitiko originalen bitartez egituratua.


c) Klaseko intelektual organiko kolektiboa osatzea.

d) Nekazari Pedagogia Agroekologikoa finkatzea.

Hezkuntza- eta politika-proiektu horietan, eskolarajoateko eskubidea aldarrikatzen bada ere, Hezkuntza bera eskolatik haratago ulertzen da, eguneroko borroka-prozesuekiko lotura finkatzen baita –besteak beste, lurraldea defendatzeko borroka, bai eta lurra, komunak, nekazaritza-erreforma, agroekologia eta beste hainbat prozesu defendatzeko ere–, berez, gainera, hezkuntza-politikoak eta pedagogikoak direnak. Hezkuntza horietatik teoria sozial propioa azaleratzen da, zeina gizarte-mugimendu emantzipatzaileek bestelako ikuspegi epistemiko eta ontologikoetatik eginga baita, eta kolonizazio- eta kapitalismo-esparruan ezarritako bereizketa-logikek hautsitako unitatea berreraikitzea baitu helburu. Era berean, ezagutzaren eraikitzaile gisa aldarrikatzen dute beren burua. Beraz, Landako Paradigma Onto-Epistemikoa eraikitzen da.

Komeni da nabarmentzea Paradigma Onto-Epistemikoa hiru ardatz nagusiren gainean eraikitzen dela (Barbosa, 2019): 1. Milaka urteko existentzia; horri esker, mugimendu horiek –beren mundu-ikuskeran oinarrituta– komunitate-bizitzetan, pentsamendu-logiketan eta gizarte-posizionamenduetan berragertutako formak etengabe berreraiki ditzakete, zeinek ordena kolonial eta kapitalistaren homogeneizazio-prozesuetan guztiz lurperatu ez ziren izateko, egoteko, pentsatzeko, sentitzeko eta bizitzeko erreferente propioak esleitzen baitituzte. 2. Hizkuntza-matrizea; zeinak filosofiak eta kontzeptu propioak laburbiltzen baititu; 3. Lurralde-pertenentzia; zeinak lurraldearekiko eta sustraiekiko *ethosa* –lurraldeen eta komunen defentsa-prozesuetan bereganatutako *ethosa*– sendotzen baitu.

Ardatz horien integrazio pedagogikoak zentzu ontologiko eta epistemikoa ematen die –Hezkuntza Kritikoaren filosofia-, hezkuntza-, pedagogia- eta politika-oinarriak sustatzen dituzten gizarte-mugimendu emantzipatzaileek daramaten hezkuntza- eta politika-proiektuei. Halaber, Landako Paradigma Onto-Epistemikoak teoria kritikoaren eta Latinoamerikako pentsamendu pedagogikoaren hainbat ondare hartzen ditu baitan; batik bat, *praxi* politiko iraultzaile eta askatzaileak egindakoak (Barbosa, 2020), altxatze kulturala finkatzeko (Gramsci, 1949) eta *rapport* pedagogiko-politikoa gainditzeko ibilbideetan.



Iturria: geuk egina.

Hezkuntza Kritikoaren baitan aztertu beharreko beste alderdi bat haren bost dimentsioak dira (Barbosa 2015b): 1. Dimentsio Onto-Epistemikoa; 2. Dimentsio identitarioa; 3. Dimentsio antolatzailea; 4. Dimentsio dialogikoa eta 5. Dimentsio politikoa. Dimentsio horiei guztiei esker, gizarte-mugimendu emantzipatzaileek izaera politikoa eman diezaiokete hezkuntza-jarduerari, ikuspegi endogenotik, identitate politikoa eta hezkuntza-proiektuaren ikuskera eratzean, eta ikuspegi exogenotik, politikaren esparruan nahitasun pedagogikoak erakustean. Hezkuntzaren ikuskeraren ardatzak dira, bai proiektu politiko gisa, bai eta ezagutza erai-kitzeko, identitate politikoa sendotzeko eta emantzipazioa helburu duten beste borroka-prozesuekin elkartasunak eratzeko proiektu historikoak diren aldetik ere.

## Krisialdi- eta munduaren kolapso-garaietako ikaskuntzak

Orain arte azaldutakoa kontuan hartuta, *Abya Yalako* gizarte-mugimendu emantzipatzaileek menderatze-, esplotazio- eta zapalkuntza-logiken aurka antolatutako prozesuetako bat nabarmendu nahiko nuke, lehenago aztertutako terminoetan. «Lurraldea-gorputza» deritzon kontzeptu teoriko-epistemiko eta

politikoari buruz ari naiz. Kontzeptu hori emakume indigenek eta haien erakunde politikoetako borroka-prozesuek artikulatutakoa da. Mendebaldeko paradigma kapitalistaren eta haren heriotza-politikaren aztarna erakusten du, zeinak kapitala-natura gatazkak eragindako ondorio suntsitzaileen bidez adierazten baitira, eta logika biozidarekin lotzen baitira.

*Abya Yalan*, Guatemala eta Boliviako Feminismo Komunitarioaren eta emakume indigenen beste mugimenduen esparruan, emakumeak «lurraldea-gorputza» kontzeptuari buruz teorizatzen ari dira (Cruz-Hernández eta Bayón-Jiménez, 2020; Feminismo Comunitario Antipatriarcal, 2019; Cabnal, 2010), eta, aldi berean, kontzeptu hori organikoki prozesu politikoekin lotzen dute lurraldeen eta komunen defentsan.

Idatzi honetan, hausnarketa egitera bultzatzeko, prozesu politiko hori Brasilgo Emakume Indigenen Mugimendutik (MMI) nabarmendu nahiko nuke; batik bat, hurrenez hurren 2019an eta 2021ean egin ziren Emakume Indigenen I. eta II. Martxa Nazionalaren esparruan. «Lurraldea - Gure Gorputza, Gure Arima» kontsigna politikoari jarraituz, Brasilgo 130 herri baino gehiagoko emakume indigenek beren mugimenduen agenda politiko zabalagoan «lurraldea-gorputza» kontzeptuaren inguruko sorkuntza emankorra sartu zuten, bai eta hark Estatua-nazioaren arrastoan, paradigma kapitalistan eta espoliazio bidezko kapitalismoaren politika biozidan utzitako arrastoak ere.

Emakume Indigenen I. Martxaren azken dokumentuan azken dokumentuan, honako hau azpimarratzen dute:

Gure lur saindua emankor bihurtzeko eta zaintzeko ardura dugu. Gure herrien eta Amalurraren existentzia defendatuko dugu beti, gudari nekaezinek bezala. Emakume, buruzagi eta gudariak gara, bizia sortzen eta babesten dugu, eta gure gorputzek, gure arimek eta gure lurraldeek jasaten dituzten arazoaren eta indarkerien aurka agertuko eta borrokatuko gara. [...]. Bizia eta lurraldea gauza bera dira, lurrak jatekoa ematen baitigu, baita sendabide tradizionala, osasuna eta duintasuna ere. Gure lurraldea galduz, gure ama galduko dugu. Lurraldea duenak ama du, amaren altzoa du. (Azken dokumentua - Emakume Indigenen Martxa, 2019).

Eskuin muturra gora egiten ari den egoera politiko honetan, zeinak krisi organiko eta demokratikoa ezagutzera ematen baitu bai Brasilen, bai eta era berean eskuin muturraren itzulera hainbat eskualdetan nabaritzen ari diren beste herrialdeetan ere, mundu osoan era askotako zapalkuntzak areagotzen ari dira. COVID-19aren pandemiaren testuinguruan, agerian eta haragi bizitan jarri dira bai gizarte-desberdinkeria eta -bazterkeria sakona, bai eta egiturazko antagonismoaren zuloak ere, zeinak agerian geratu baitira pobrezia eta miseria areagotu ahala. Txertoen banaketan eta pandemiaren osasun-trataeran izandako ekitate falta *rapport* pedagogiko-politikoaren beste alderdi bat da, eta hegoalde globala sakrifizio-eremua dela berresten du.

Emakume indigenen deiar politikoa –«lurraldea-gorputza» kontzeptutik bizia erdigunean jartzera deitzen gaituena– kapital-natura eta kapital-bizitza gatazkari aurre egiteko deia darra da, gaur egun biziko ditugun krisien erabakigarri historikoak, hain zuzen. Inara Tavaresek (2019, 59. or.) honakoa azpimarratzen du:

Oihu honekin [Lurraldea: gure gorputza, gure arima], sistema-mundu zuri/ arrazista/patriarkal/militar/kapitalistari itaundu nahi diogu: mundu honetan gure existentzia gure gorputz fisiko-kultural eta sinbolikoetatik igarotzen da. Gure gorputzen bitartez eraikitzen dira gure lurraldeak. Gure gorputzak ez dira ezer arimarik gabe. Eta arimei buruz mintza gaitzke, asko gure gorputz eta kultura dira. Gure munduei, esperientziei eta lurraren zaintzan dugun protagonismoari buruz ere mintza gaitzke; lurra, emakumea, gu guztiok bezala.

2021ean, MMik Emakume Indigenen II. Martxa Nazionala egin zuen, «Adimenak basoberritu, lurra sendatzeko» lemapean. II. Martxaren azken dokumentuan, honakoak nabarmentzen dituzte:

Bizitzeko eta berreraikitze bidea elkarrekin eraiki beharra dugu, herrien arteko topaketak, gure Lurraren zaintza eta ezagutzen hartu-eman positiboa dituenak oinarrian. Hori proposatu nahi dugu Adimen basoberritze lemarekin. Arbasoen mundu-ikuskerara kontuan hartuta, posible da beste modu batean, beste episteme batzuekin bizitzea eta elkarrekin bizitzea. Amalurra zaintzea, funtsean, gure gorputzak eta arimak zaintzea da. Gorputza lurra da; basoa, adimena. Gure adimenak basoberritu nahi ditugu, adimen guztiak elkar daitezten eta gure gorputza-lurra zain dezaten (Azken dokumentua – Emakume Indigenen II. Martxa).



Iturria: [www.anmiga.org](http://www.anmiga.org)

MMIren matrize kontzeptuean eta *praxi* politikoan oinarrituta, «lurraldea-gorputza» kontzeptuak –Landako Paradigma Onto-Epistemikoari lotutako kontzeptua den aldetik– indarra hartzen du politikaren eta hezkuntzaren esparruan. Zein izango lirateke kontzeptu horretatik sortutako filosofia-, pedagogia- eta hezkuntza-oinarriak? Zer-nolako indar politikoa du krisi zibilizatzaile eta pandemikoaren testuinguruetan?

«Lurraldea-gorputza» kontzeptuaren berezko oinarri filosofikoetako batek dio koexistentzia izaera duen bizi-ikuskeraren dela. Existentzia jainkotiarra edo antropozentrikoa dela dioen ideiatik haratago dago; alegia, existentziaren erdigunean ez daude Jainkoa edo gizakia bakarrik. «Lurraldea-gorputza» kontzeptuak unitate dialektiko bat osatzen du, fusio existentzial bat, eta lurrarekiko lotura sakon batek sustatzen du, bai eta *Abya Yalaren* milaka urteko filosofien parte diren oreka- eta osagarritasun-kategoria binarioekiko loturak ere [unibertso femeninoa eta unibertso maskulinoa]. Kontzeptu hori, modu berean, honako ziurtasun honek ere sustatzen du: giza bizia ez dago munduko gainerako izaki bizidun eta ez bizidunen gainetik.

Oinarri filosofiko hori hezkuntza-pedagogiaren oinarri batekin egituratzen da «lurraldea-gorputza» kontzeptua gorputz sozial eta komunitario gisa ikasten denean, zeinak maila objektiboetan eta subjektiboetan koexistentzian oinarritutako bizikidetzak ikasten eta ulertzen laguntzen baitigu. Komunitateari buruz ari garenean, zera esan nahi da: existitzeko eta gizartearekin, ingurumenarekin eta politikarekin lotzeko modu historiko bat ematen zaio komunitateari, eta, horri esker, ondarearen bitartez, berragertzen diren komunitate-egiturak bereganatzen ditugu.

Zentzu horretan, «lurraldea-gorputza» kontzeptuak ordena kolonial, patriarkal, kapitalista eta inperialistaren *rapport* pedagogiko-politikoarekiko haustura adierazten du, eta, aldi berean, jatorrizko pilaketaren eta espolioazio bidezko kapitalismoaren bereizketa-logikak interpelatzen ditu, zeinak lurraldetasuna kentzeko eta kapitala-natura / kapitala-bizitza gatazkako lurraldeez materialki eta sinbolikoki gabetzeko saiakera etengabeen esparruan baitaude.

Bizitzaren aldeko defentsaren ikuspegi ekologikotik, «lurraldea-gorputza» kontzeptuak berriz ekiten die lurraldeetako biziaren ugalketa-zikloen unitateari eta osotasunari, eta ez da haren izaera antropozentriko eta androzentrikoan edo garapen harrapatzailean oinarritzen. Alderantziz, haren ikuspegi onto-epistemikoak biziaren jasagarritasunaren izaera pluribertsalera eramaten gaitu, garapen biozidaren eremuan oinarritutako krisiaren jatorri sakonak identifikatzearekin batera eta berregituratzeko eta lurraldean errotzeko beste ibilbide batzuk bilatzearekin batera.



## Amaierako gogoetak

Prozesu historiko-politikoaren kontraesanak interpretatu eta gairatzeko gizarte-mugimendu emantzipatzaileek emandako zentzu kontzeptualek ez dute zertan – mendebaldeko pentsaerari dagokionez – hitzez hitz itzulgarriak izan behar. Prozesu horretako alderdi historiko bat honakoa da: mendebaldeko pentsaerak lotura- eta lurraldearekiko eta komunarekiko lotura-erreferentzia garrantzitsuak galtzen ditu, mendebaldeko paradigma kapitalistaren homogeneizazio totalizatzailearen absortzioa biziki gauzatzen den gizarte bilakatzen denean.

Hezkuntza kritikoak egituratutako prozesu pedagogiko-politikoak eraikitzean, gizarte-mugimendu emantzipatzaileen helburua da era askotako zapalkuntzen sorrera edo genesi historikoaren inguruko kontzientzia kritikoa osatzea; bai eta zapalkuntza horiek hartzen dituzten formen inguruan, haien iraunkortasunaren inguruan eta zapalkuntza eta mendekotasuna indartzen laguntzen dien *rapport* pedagogiko-politikoaren inguruko kontzientzia kritikoa ere. Edonola ere, mugimendu horiek hezkuntza kritikoa estrategia bilakatzen dute, etorkizun emantzipatzaileak eraikitzeko, ikuspegi dialogikotik, beste borrokekiko elkarlanean eta aliantza politikoak eraikiz.

Nola asebate gaitzke hezkuntzaren zentzu horretatik eta nola ikas dezakegu haren *praxi* politiko eta pedagogikotik? Nola eraman ditzakegu gizarte-mugimendu emantzipatzaileen ikaskuntzak hezkuntzaren beste eremuetara, hezkuntza formalari dagokionez? Zer aukera ditugu aurrean, pentsamendu kritikoaren eraikuntzan aurrera egiteko?

Idatzi honetan adierazitakoa oinarri hartuta, gure ikaskuntzan, oso urrats garrantzitsua da *rapport* pedagogiko-politiko hori dinamika geopolitikoetan eta geoeconomikoetan existitzen dela onartzea, bai Iparralde globalaren eta Hegoalde globalaren arteko harremanean, bai kolonialismoen eta barne-kolonialismoaren erreproduzioan ere. Kontzientzi kritiko hori izateak elkarriketarako eta aliantza horizontalak eraikitzeko aukerak irekitzen dizkigu.

«Lurraldea-gorputza» kontzeptuan oinarritutako ikaskuntzetatik honako beste alderdi hau azaleratzen da: zeregin hezigarri-pedagogikoaren eta politikoaren ardura hartu behar dugu, batetik, bizia erdigunean jartzearen esanahiaren inguruan, eta bestetik, komunitate-sarearen eraikuntza- eta sendotze-prozesuekin egituratzearen inguruan. Beste hitzetan, subjektu komunitarioa eratzen lagunduko diguten prozesuak eraikitzea, kolektiboki zein organikoki, gure lurraldeetan hasitako borroketan oinarrituta, gure erakundeekin eta kolektiboekin.

Gizarte-mugimendu emantzipatzaileek erakutsi digute posible dela unitatea eraikitzea landa-ingurunearen eta hiriarren artean, bideragarria dela agroekologia printzipio eta proiektu politiko gisa hartzea baita hirietan ere, adibidez. Gainera, erakutsi digute, era berean, formakuntza hezigarri-politikorako espazioak sortzen Herri Hezkuntzaren eta gogoeta-ekintza-gogoeta prozesuen herentzietan, eta hori, egin-eginean, hezkuntza kritikorako funtsezko printzipio pedagogikoa da.

## Erreferentziak

- Barbosa, Lia Pinheiro (2020): Pedagogías y revolucionarias en la praxis educativo-política de los movimientos sociales de América Latina. *Revista Colombiana de Educación*, bol, 80. zk., 269-290 or.
- Barbosa, Lia Pinheiro (2019): “Paradigma Epistêmico do Campo e a construção do conhecimento na perspectiva dos movimentos indígenas e camponeses na América Latina”, in Ramos, Arlete dos Santos *et. al. Educação e Movimentos Sociais. Análises e desafios*. Jundiaí: Paco Editorial, 279-300 or.
- Barbosa, Lia Pinheiro (2016): Educación, conocimiento y resistencia en América Latina: por una teoría desde los movimientos sociales. *De Raíz Diversa*, 6, 45-79 or.
- Barbosa, Lia Pinheiro (2015a): “Resistencia histórica y memorias colectivas en América Latina: construyendo pedagogías insumisas, insumiéndose desde otras educaciones, en Medina Melgarejo, Patricia (koord.). *Pedagogías Insumisas. Movimientos político-pedagógicos y memorias colectivas de educaciones otras en América Latina*. México: Juan Pablos Editor/ UNICACH/CESMECA, 325-344 or.
- Barbosa, Lia Pinheiro (2015b): *Educación, resistencia y movimientos sociales: la praxis educativo-política de los Sin Tierra y de los Zapatistas*. México: LIBRUNAM.
- Barbosa, Lia Pinheiro (2014): Educación y lucha autonómica en la Voz Zapatista: aportes de la Pedagogía del Sentir-Ser, Sentir-Pensar y Sentir-Saber. *Revista Educación y Cultura*, 105. zk., 21-27 or.
- Barbosa, Lia Pinheiro eta Rosset, Peter (2017a): Movimentos Sociais e Educação do Campo na América Latina: aprendizagens de um percurso histórico. *Revista Práxis Educacional*, 13. b., 26. zk., 22-48 or.
- Barbosa, Lia Pinheiro eta Rosset, Peter (2017b): Educação do Campo e Pedagogia Camponesa Agroecológica na América Latina: aportes da La Via Campesina e da CLOC. *Educação & Sociedade*, 38(140), 705-724.
- Cabnal, Lorena (2010): *Feminismos diversos: el feminismo comunitario*. España: ACSUR – Las Segovias.
- Ceceña, Ana Esther (2005): “Estratégias de construção de uma hegemonia sem limites”, em Ceceña, Ana Esther (org.). *Hegemonias e emancipações no século XXI*. Buenos Aires: CLACSO, 35-55 or.
- Cruz Hernández, Delmy Tania; Bayón Jimenéz, Manuel (org.) (2020): *Cuerpos, territorios y feminismos. Compilación latino-americana, de teorías, metodologías y prácticas políticas*. Ecuador/México: Ediciones Abya Yala/Libertad Bajo Palabra/ Bajo Tierra Ediciones.
- Feminismo Comunitario Antipatriarcal (2019): *¿Por qué? Feministas ¿Por qué Comunitarias? ¿Por qué?* La Paz, Bolivia: Documento de Trabajo.
- Freire, Paulo (1987): *Pedagogia do Oprimido*. Rio de Janeiro: Paz e Terra.

- González Casanova, Pablo (1969): *Sociología de la Explotación*. México: Siglo XXI Editores.
- Gramsci, Antonio (2011): *La alternativa pedagógica*. Caracas: PROA/Editorial Laboratorio Educativo.
- Gramsci, Antonio (1949): *Gli intellettuali e l'organizzazione della cultura*. Turino: Einaudi.
- Herrero, Yayo (2014): "Economía ecológica y economía feminista: un diálogo necesario", en Carrasco Bengoa, Cristina (arg.). *Con voz propia. La Ecología feminista como apuesta teórica y política*. Madrid: La oveja roja, 219–237 or.
- Emakume Indigenen I. Martxa (2019): Amaierako dokumentua. Eskuragarri webgune honetan: <https://cimi.org.br/2019/08/marcha-mulheres-indigenas-documento-final-lutar-pelos-nossos-territorios-lutar-pelo-nosso-direito-vida>.
- Tavares, Inara do Nascimento (2019): "Terra, água e sementes – do corpo território das mulheres indígenas a uma concepção de soberania alimentar", in Lima, Aline Alves et al. (org). *Mulheres e soberania alimentar: sementes de mundos possíveis*. Rio de Janeiro: Instituto Políticas Alternativas para o Cone Sul (PACS), 58-66 or.
- Zavaleta, René (2009). *La autodeterminación de las masas*. Buenos Aires: CLACSO..



# Imajina ditzakegu etorkizuneko Hezkuntza Gizarte Zentroak

Marta Pascual Rodríguez<sup>1</sup>

## Abiapuntuak

Gero eta argiago dago eta gero eta zentzugabeagoa da defendatzea asimetria bidegabeak sortzen dituen (eta pilatze kapitalistan oinarritutako) ordena ekonomiko eta kultural batean bizi garela, eta asimetria bidegabe horiek oso tragikoak direla gizateriaren gehiengoarentzat, eta ez oso itxaropentsuak beharrezkoak ditugun bizi-sistemen jarraitutasunerako.

Kapitalismo neoliberallean bizi eta hazi izan gara, eta sistema horren inposizioak saiatzen dira (eta askotan, gainera, lortzen dute) pilatze-eredu bat, desiragarri eta ezinbesteko gisa erakusten digutena, naturalizatzea. Garapenarekiko adikziozko testuinguruan hazi izan gara.

Iparraldeko herrialdeetan, kapitalarekiko gurtzak eta niaren kulturak kolonizatu dute erabat gure pentsamendua: horixe izan da, hain zuzen, kapitalismoaren arrakasta nagusietako bat.

Enpresek desira mugagabeak dituzten gizon-emakumeak suspertzen dituzte eta haiekin erlazionatzen dira, itxurazko sen ona eraikiz, azken finean toxikoa baitena. Hainbat baieztapen egiazkotzat hartzen ditugu, hala nola “enpresak gure ongizatearen eragileak dira”; “Laguntzak langileentzat eta ez alferrontzietan jaten emateko”; “Zure nahiak eta zure emozioak dira garrantzitsuena”; “Zerga gutxiago eta zerbitzu gehiago nahi ditugu”; “Nahi baduzu, ahal duzu”; “Askatasuna exijitzen dugu kaña pare bat eta ganbak jatera joateko”.

Eskakizun egoistak, baztertzailak edo kontraesankorrak errespetagarri bilakatzen dituen kultura nagusitu da. Guztien onuran pentsatzeari uko egiten dioten eskakizunak. Aurrerapena eta ongizatea, *eskubideak* kontzeptua, lotuta daude zerbitzuak eta kontsumo sofistikuak eskuratzeko aukera izatearekin.

---

1 Zientzien ikasketak egin zituen Madrilgo Complutense Unibertsitatean. Aspalditik dihardu Lanbide Heziketan irakasle lanetan, Esku-hartze Soziokomunitarioa espezialitatean, Madrilgo hainbat herri ikastetxetan. Aldi berean, Oportoko Herri Eskolako kide izan zen; pentsamendu kritikoaren bitartez, hezkuntzaren eta kulturaren eraldaketaren alde lanean diharduen kolektiboa. 2002az geroztik, Ekologistak Martxan taldeko aktibista da, eta, urte askoan zehar, Hezkuntza Saileko koordinatzaile izan zen (gaur egun, oraindik ere sail horrekin oso lotuta jarraitzen du). Hezkuntza eta ekofeminismoa arloak uztartuz, oso esperientzia handia bildu du eta ezagutza horiek guztiak hainbat argitalpenetan utzi ditu. Klimaren aldeko Feministak taldeko kide da, baita Madrilgo M8ko Batzordekoa eta Berrikuntza Pedagogikoen Mugimenduetakoa (MRP) ere.

Kontsumoaren demokrazia bezero bilakatzen da (zure bozarekin ordaintzen dituzu alderdi politiko jakin baten zerbitzu pertsonalak).

Testuinguruko beste elementu bat "hirugarren azal" hori da -enpresa handien eskuetan dauden espazio birtualeko datuen eta komunikazioen sare gero eta handiagoa-, zeinak gero eta protagonismo handiagoa baitu gure bizitzako jardueretan eta gure nahietan. Gure pantailen bitartez, inora bidean ihes egiten dugu. *Errealitate birtuala* kontzeptua oximoron bat da. Ustezko errealitate birtualak pixkanaka okerrera doan errealitate materiala estaltzen du.

Baina, testuinguruko elementurik larriena -oso azkar areagotzen ari delako-naturako ondasunen muga gainditu izanaren egoera da. Kolapsatzen hasia den planeta batean bizi gara. Argi eta garbi ikusten dugu hori hondamenezko fenomeno atmosferikoetan, handituz doazen migrazioetan, gizarte-tentsioetan, baliabideengatiko gatazka geostrategikoetan, hornidura-gabezietan... Kolapso hori dagoeneko Hegoaldeko lurraldeetan oso dramatiko bizi dute, eta ezinbestean erasoezin zela uste zuten Iparraldeko lurraldeetan ere ari da agertzen.

Botere ekonomikoetako dagokienez, halaber, *bizirik ateratzen* saiatzen ari direla ikusten dugu, baina gero eta sinesgaitzagoa da hori herritarrentzat.

Ekologismo soziala, feminismoa, antiarrazakeria eta antifaxismoa XX. mendeko mendebaldeko kulturak lausotu nahi izan duen subjektu kolektibo horrekin batzen dira. Gizarte-mugimenduek historiaren irakurketa jakin bat eraikitzen laguntzen digute, zeinak subjektu indibidualarekin -izatez berekoia eta autozentratua denarekin- hautsi, eta izaki kolektibo, solidario gisa eraikitzen baikaitu, bizirik dagoen komunitatea barne hartzen duen guaren parte.

## **Gizarte-mugimenduen bidez, sartzeko aukera ematen dizkiguten arrakalak**

Indarren korrelazioa oso desberdina den testuinguruan egonagatik ere, gizarte-mugimenduek oso baliabide eraginkorrak ditugu.

Baliabide horietako bat presentzia materialaren defentsa eta praktika dira. Kaleetan ibiltzen gara, lurraldean bizi gara, azkenik jabetzak kentzen ari diren lurraldeetan, espazioak hartzen ditugu topagune bihurtzeko, badakigu gorputzak garena eta gorputz horiek zaintzak behar dituztela eta zaintzeko ardura hartzen dutela. Hedatutako teknolatriaren aurrean, mundu fisikoan elkartzeko bokazioa dugu, mundu hori eraikitzeko, dantzatzeko eta defendatzeko.

Halaber, justizia-irajinariorik marrazteko gaitasuna dugu, buru askotan hilda baitaude. Duintasun unibertsaleko munduak, antiarrazakeriak exijitzen duen erara; bizitza nahigarritz eta lurralde bizidunez betetako munduak, ekologismoak amesten

duen erara; askatasunezko, errespetuzko eta zaintzako munduak, feminismoak erakusten digun erara. Posible dela pentsatzea hasiera besterik ez da.

Gizarte-mugimenduek muskulu komunitarioa eta solidaritatea ekintza zuzenen bidez sendotzeko ahalmena dugu. Horretarako, elkarrekiko laguntza-praktikak garatzen ditugu, auzo-sareak eratzen ditugu, bidezko arrazoiei laguntza ematen diegu. Ondasun erlazionalak handiarazteko gai gara. Baliabide materialak ez bezala –mugatuak eta, kasu askotan, itzulezinak–, ondasun erlazionalak mugagabeak eta itzulgarriak dira. Asanbladek, okupazioek, kale-ekintzek, salaketek eta kanpainak, besteak beste, taldeko jakinduria eraikitzen dute. Taldeko muskulu hori sareen eta aliantzen bidez hazten da.

Gure beste baliabide bat, ahalduntzea, etorkizuna marraztearen eta praktika kolektiboen emaitza da. Leku gutxitan entzungo dugu “mundua aldatuko dugu” esaldia, halaxe, lehen pertsona pluralean. Saiatzeko erabaki hori, posible izango balitz bezala, gizarte-mugimenduen ahalmen bat da. Bai, ahal da. Lañotasunik gabe, baina itxaropentsu.

Eraiki, behar eta behar izango dugun beste baliabide bat gure gatazkak konpontzeko gaitasuna da, justizia leheneratzailea abian jartzeko gaitasuna, komunikazio ez bortitza, erraztea, entzutea eta onarpenaren eta esker onaren kultura gure praktketan eta gurekin jarduten dutenen praktketan sartzeko gaitasuna. Tentsio sozial ugari garaietan, non pertsona bakoitzaren eta komunitate bakoitzaren alde txarrak eta alde onak azaleratzen baitira, Rebeca Solnit-ek erakusten digu infernua paradisuak eraikitzeko gai garela.

## Jakintzen elkarrizketa

Gizarte-mugimendu emantzipatzailea, berez, eskola bat da, edo eskola izan beharko lukeen zerbait. Kulturaren transmisiorako eta gauzak lortzeko abileziak erakusteko tresna da. Horiek dira, egin-eginean ere, haren bi funtzio nagusiak.

Edukiak eta munduari buruzko azalpenak eraikitzen eta transmititzen ditu, irakurketa hegemonikoak zalantzan jartzen ditu. Zapalduaren ikuspegitik ikasten du (mehatxupearan dauden komunitateen hitzetatik, baztertutako pertsonengandik, ikusezin bihurtutako emakumeengandik, ekonomia ekologista eta feministetatik, ukatuetatik edo akademiatik...). Gizarte mugimenduek (GM) gezurrak desegiten dituzte eta erantzule nagusiak zein diren adierazten dute, pentsamenduaren eremu deskolonizatua handiagotzen da. GMek beste paradigma batean oinarritutako diskurtsoa eraikitzen dute, batzuetan historiako olatuak baliatuz; esaterako, olatu klimatikoa. Zentzu ona beharrean, guztiona denaren ezinbesteko zentzua dute.

Baina, era berean, ekintza eraldatzaileak jartzen dituzte martxan. Errealitatean esku hartzeko bokazioa duen eskola dira. GMek salaketak egiten dituzte, *lobby* egiten dute, protesta egiten dute, munduko kontuak ikusgai egiten dituzte, nork

agintzen duen galdetzen dute, botereari eta ordenari aurre egiten diete. Eskolan, batzuetan, itxurak egiten dira, teorian bizi dira, "...balitz bezala" egiten dute. GMetan egin eta gauzatu dugu.

Ekologistak Martxan taldean, hainbat proposamenen inguruan lan egin izan dugu, jasangarritasunaren kultura hezkuntzaren esparrura eramateko asmotan.

"Mundu justu eta jasangarri batean bizitzeko 99 galdera eta 99 bizipen" programan, kultura hegemonikoa, ez solidarioa eta sostengaezina funtsezko galderen bitartez deseraikitzea eramango gaituen hezkuntza proposatu dugu. Hona hemen zenbait adibide: Zenbat dagokigu? Nola bizi dira gizarte jasangarriak? Nola funtzionatzen du diruak? Zer borrokari esker aldatu da herrien etorkizuna? Galdera horien inguruan ikertzeko, hainbat erreferentzia, mapa, datu, grafiko eta istorio prestatu ditugu, hezkuntza orokorrak kontuan hartzen ez dituenak.

"Lurraren Kultura Berria" proiektuaren helburua da zazpi ideia nagusitan jasangarritasunaren kultura osatzen duten proposamenen eta hausnarketen mukurua laburbiltzea:

1. Energiaren eta materialen mugak.
2. Komunitate-bizitzaren beharra.
3. Eguzkia energia-iturri gisa; egungo eguzkia, ez erregai fosilek metatu zuten hura.
4. Zikloen itxiera eta hondakinen eta toxikoen murrizte zorrotza.
5. Bioaniztasuna defendatzea, oraindik geratzen zaiguna eta bizitzeko beharrezkoa dena.
6. Bizia erdigunean jartzeko baldintza utziezina.
7. Eta zazpigarren ideia bat: komunitate, lurralde eta erakunde bakoitzari dagokio azken ideia hau zehaztea.

Kontua da kultura aldatzea eta jardunbideak aldatzea gure Iparralde honetan, zeina gero eta beteago baitago Hegoalde. Ez da erraza izango, baina gero eta nabariagoa da orain duguna ez dela baliagarria.

## **Gure lurralde-gorputzean errotuz gizatiartzen gaituen hezkuntza**

Nolakoa izango litzateke ahitutako planeta batean bizitzekoa emango digun hezkuntza? Hona hemen zenbait adibide.



Dagoena denon artean banatzen erakutsiko digun hezkuntza. Zapaltzaileei aurre egiteko baliabideak erakutsiko dizkigun hezkuntza. Elkarri laguntzen erakutsiko diguna, kalte egiten digunari (oparotasunari, monolaborantzei...) izuti begiratzen erakutsiko diguna. Lehen pertsona pluralean pentsarazten lagunduko diguna. Jakintzen memoria eta justiziaren eta jasangarritasunaren aldeko borrokan memoria gordeko duena.

Baita janzteko, jateko, etxebizitzak zaintzeko, gaixo daudenei laguntzeko balioko digun hezkuntza ere. Askorentzat, eskola besteekin egoteko topagune sozial bakarra da, azoketako topalekuez gain. Guztiok igaro izan gara eskolatik, bakoitza bere egoera pertsonal eta sozialean. Eskolara doana eskasia-egoeran badago, eskolak ezin du ez ikusiarena egin eta haren bizi-baldintzen aurrean begiak itxi. Gizarte Zentro Autogestionatuei buruz mintzatzen garen moduan, imajina genezake etorkizunean Hezkuntza Gizarte Zentroak izango ditugula; erresistentzia-gune izango diren eskolak, besteekin, gizon-emakumeekin eta lurrarekin bizitzea posible den lekuak, babesa eta zaintza lortzea posible den lekuak.

Nola eraiki daiteke pentsamendu kontrahegemonikoa?

Umiltasunez (argia ezagutzaren etsaia da). Beldurrak gaindituz. Inoiz ez bakarrik.



# Ziurgabetasunaren aurrean, hezkuntza askatzailerako proposamenak. Gogoeta gurutzatuak eta feminismo deskolonialetik mugituz<sup>1</sup>

Rosalba Icaza Garza<sup>2</sup>

## Sarrera

Nori esker aurkitu gara denok hitz hauetan, idatzi honetan? Hitz hauek idaztea posible izan zait nire amonei esker, nekazari-familietako kide izanik, lur-sailak eta hizkuntza indigena galtzean, Mexikoko hirira migratu behar izan baitzuten, pasa den mendeko 30eko hamarkadan, jatorri atzerritarreko eta pare bat urte lehenago amaitu zen Iraultza sozialaren oinordekoak ziren elite aberatsen etxeak garbitzeko. Nire amonek, hezkuntza formalik gabe, arrazagatiko indarkeriari eta indarkeria misogino eta klasistari aurre egin behar izan zioten, baina inoiz ez zuten bere burua feministatzat hartu. Eta halaxe amestu zuten amarentzat eta niretzat bizi hobea.

Hortaz, hitz hauen abiapuntuan, munduko gehiengoak mendeetan zehar markatu izan dituzten bizi- eta zentzu-munduen galera aipatu nahi dut. Eta horretan oinarrituta galdetu nahi dizuet: nor askatzen da ziurgabetasunean? Zer ziurgabetasuni buruz ari gara?

Bide honetan, lagun dut, era berean, galeraren ziurgabetasuna gainditzen duen intuizioa, zeinak Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzan, Iparralde globaleko testuinguru epistemiko, politiko eta materialean, azaldu izan diren zenbait erronka egituratzen laguntzen didan.

Europar Nazioarteko Harremanen arloan eta Nazioarteko eta Mundu Mailako Garapen Ikasketen arloan irakasle gisa egindako ibilbide luzeak ezinbestean delinearatu dituzte hemen azalduko hausnarketak, baina baita Europako eta Abya Yalako (Ameriketako) arrazakeriaren, arrazakeria epistemikoaren (Eze, Castro Gomez, Mignolo 2008) eta neofaxismoaren aurkako erresistentzia kolektiboek ere. Jatorri mexikarra duen eta Herbeheretan bizi den emakume mestizo gisa

---

1 Idatzi hau azaroak 18, 19 eta 20an Vitoria-Gasteizen (Euskadi) egin zen *Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren V. Biltzarra: Ziurgabetasunaren aurrean, hezkuntza askatzailea* biltzarrean birtualki aurkeztutako hitzaldiaren bertsio orraztua da. Eskerrik beroena Iris Murillori, Amaia del Riori, Gema Celoriori eta eskerrik onena Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenari Buruzko Ikasketen Institutuko (HEGOA) Hezkuntza Taldeari, horren topaketa arrakastatsua antolatzeagatik.

2 Herbeheretako Rotterdam hiriko Erasmus Unibertsitateko *Institute of Social Studies* institutuko irakaslea Politika Globala, Feminismoak eta Deskolonizazioa arloetan. Email: icaza@iss.nl.

errealizatua naizela jakinik egiten dut gogoeta, baita izugarrizko pribilegioak dituen emakume gisa ere, zeinak hizkuntza kolonialetan komunikatzeko gaitasunean gauzatzen baitira: espainiera edo gaztelania, ingelesa, frantsesa, nederlandera, portugaleria.

Nire helburu nagusia da Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren agenden azpian dauden mugak zehaztea, zeinak progresibo gisa identifikatzen baitira, pentsamendu bakar delakoari eta ziurgabetasunari eusten dietelako. Bereziki, honako hauei buruz hausnartu nahiko nuke: zer-nolakoa da *etorkizuna ziurgabetasun askatzailean* eta nola liteke giza (eta gizatiarrak baino gehiago diren) aniztasunen inklusioa oraindik ere hizkuntza kolonialen eta haren zentzuzko munduen bidez eraikitzen dela, eta, gainera, horietan oinarrituz zehazten direla elkarriketaren beraren terminoak ere (Mignolo 2002, 2007).

Idea horiek guztiak garatzeko, idatzi hau luzera eta estilo desberdinetako hainbat ataletan antolatu dut. Lehenbiziko ataleko bineten bidez, abiapuntuak partekatuko ditut, eta horietatik abiatuta azalduko ditut zein diren hezkuntza eraldatzailerako agenda eurozentratuen eta monokulturalen "*etorkizun*"-aren mugak.

Bigarren atalean, epistemizidioaren materialtasuna jorratuko dugu edo, beste hitzetan esanda, jakintza irudikatuak (Copeland 2010, Crawley 2017) eta Hegoaldeko epistemologiak (Santos, Nuñez, Meneses 2007) ezabatzearen ekonomia politikoa. Nire asmoa da Olivia Rutazibwaren (2019) gonbidapenari erantzutea, materia-ideiak binarioa erreproduzitu ez, eta horren ordez, haren korapilo eta inbrikatze konplexua aipatzeko.

Hirugarren atalean, deskolonizazioa etorkizun kolonizatzaile eta monokulturalari lotutako gizarte-eraldaketatik haratago doan aukera gisa planteatuko dugu, non ziurgabetasuna askatzailea baita, besteak beste, klasea, arraza/etnizitatea, generoa, sexualitatea eta gorputz-gaitasuna pribilegioetatik begiratzen eta onartzen denean. Diferentzia kolonialaren beste aldeko ziurgabetasuna galdu eta zauritu egin zen. Ikuspegi horretatik, deskolonizazioak etorkizuneko eta bizitzako horizonte moderno kolonialak ahaztera eramango gaitu.

Laugarren atalean, hainbat argibide aurkeztuko ditut, (geure buruak) ikastearen deskolonizaziorantz zergatik joan nahi izan dugun azaltzeko, non posizionatzea, berreraikitze epistemikoa eta gorputz<sup>3</sup> ardatz baitira. Amaitzeko, zenbait erronka eta egiteke dauden zeregin aipatuko ditut.

---

3 X erabiliz, gorputz<sup>3</sup> ulertzeko modu ez binarioa adierazi nahi da, eta, horrez gain, baita indibiduala, transzendental eta/edo muntadura konplexuen parte (immanente) gisa ere. Gorputz<sup>3</sup>ren ideia mnemonikoa edo lehentasunezkoa iradokitzen du (ikus Chávez eta Vázquez 2017, Vázquez 2017).

## I. Nondik ari gara hizketan?

Adierazpen-lekuaren galderari erantzuteko ezinbestekoa da entzute deskoloniala praktikatzea. Entzute horretan, isiltasuna ez da isilik egotea edo isiltasun pasiboan egotea (Aguilar eta Icaza 2021). Entzute horretan, ahazkotasunak eta hitzez adierazitako berbak jakitun egiten gaitu; ez da inoren jabetza, baizik eta belaunaldien eta geografien bitartez transmititzen da. Baina, gainera, entzuteko modu horrek nabarmen uzten du ezinezkoa dela hitz egitea, lehenbizi entzun ezean (Vázquez 2020).

Entzuteko modu hori onartzeko eta aipatzeko gai izatea ezinbestekoa da hitz kolektiboaren, kolektiboki azaleratzen den hitzaren biziraupenerako. Gainera, oso ekintza politiko sakona da, eta koalizio-politikak funtsatzen ditu (Aguilar eta Icaza 2021, Vázquez 2020).

### Erreboltatu

“Emakume, haur eta gainerako [otroa] zapatista guztien izenean, aditzera ematen dut, hemendik aurrera, lur honek Slumil K’ajxemk’op edo Lurralde menderakaitz izena izango duela, etsia hartzen ez duen lurra. Eta hala aitortuko dute bertakoek eta arrotzek, hemen bertan amore eman, menderatu edo etsiko ez duen inor dagoen bitartean” (*Marijosek, otroa Zapatistak, Vigon, Espainiako Lurraldean, adierazitako hitzak: Askapen Nazionalako Armada Zapatistaren Bizitzaren aldeko Bira*<sup>4</sup>, EZLN, 2021eko ekainak 22).

### Gorputza Lurra Lurraldea

“Zer gauza nahi dugu herriek eraldatzea, bizitzako bide horietarako, bizitzaren harmonizaziorako? Neoliberalismoaren aurkako borroka gisa, ikus-entzunezkoak besterik ez baditugu egiten, begira zenbat falta zaigun borroka honetan. Lurra lurraldea defendatu nahi duzu? Zergatik ez, baina bakarrik geratzen ari zara zatitxo honetan, begira. Horregatik, emakumeok diogu gorputza lurraldea eta Lurra lurraldea defendatzen ditugula...” (*Lorena Cabnal, Erdialdeko Amerikako eta Mexikoko Hegoaldeko Emakume Indigena, Beltz eta Nekazarietzako Erdialdeko Amerikako Heziketa Eskola*<sup>5</sup>. 2018ko abuztua. *Honduras garifunek narkotrafikoaren eta afrikar palmondoaren plantazioen aurrean berreskuratutako lurraldea*).

### Etorkizunak

“Zergatik imajina dezakegu munduaren amaiera, baina ez kolonialismoaren amaiera? Gurea ez den iraganaren etorkizuna bizi dugu. Fantasia utopikoan

4 Eskuragarri hemen: <https://viajeczapatista.eu/es/lanzamiento-al-faro-zapatista>.

5 Eskuragarri hemen: [www.youtube.com/watch?v=Bk9OAJm9is&t=291s](http://www.youtube.com/watch?v=Bk9OAJm9is&t=291s).

eta idealizazio apokaliptikoei buruzko istorioa da. Genozidioan, esklabotzan, ekozidioan eta abarrean oinarrituta eraikitako imajinarioen mundu-mailako gizarte-ordena patogenoa da. Etorkizuna metafora hutsa da, amesgaiztoetan izaten diren linealtasun horietakoa... Lehenago ere iritsi izan den amaiera da... 1492... 2020. Horixe da kolonizatzailearen, kapitalistaren futurismoa. Gure arbasoek munduaren amaieraren aurka amestu zuten. Munduen suntsipenaren bitartez oreka aurkitzea gure izateko moduen adierazle da. Eliptikoa dena. Jaiotzea. Hiltzea. Berriz ere hemen egotea... Kolonizatzailearen etorkizunaren historiaren ondorio gara” (*Etorkizunaren kontrako Adierazpen Indigena Apokalipsia bir-pentsatuz*<sup>6</sup>).

Zer esan nahiko luke gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren ideientzat etorkizuna ideia kolonizatzailea eta kolonizagarria dela onartzeak, zeinak ziurgabetasuna guztiontzat askatzailea ez dela baitio, eta munduko gehiengoentzat ziurgabetasuna bizitzaren zentzuen galera ziurra dela baitio?

Nori eragiten dio aukera horrek modernitate kolonialaren lurralde epistemikoaren bazterretatik?

## II. Epistemizidioaren materialtasuna<sup>7</sup>

Munduko teknologia-arrakalei buruzko ikerketa baten parte gisa, Oxfordeko Unibertsitateko Internet Institutuak *Ezagutza akademikoaren kokapena* izeneko adierazpen bisual edo kartograma bat argitaratu zuen 2011n (Graham, Hale, and Stephens 2011). Katograman, Thompson Reuters-en ezagutza-sarean agertzen diren aldizkari akademikoen kokapena ikus daiteke. Zerrenda horretan jasotako zenbait aurkikuntzatan, honako hauek aipatzen dira:

- Desberdintasuna ikaragarria da ezagutza akademikoaren ekoizpenaren geografian.
- Estatu Batuek eta Erresuma Batuak munduko gainerako herrialdeek batera baino aldizkari indexatu gehiago argitaratzen dituzte.
- Mendebaldeko Europak ere, batez ere Alemaniak eta Herbehereek, indize on samarra dute.
- Munduaren gainerakoaren zati handiena ez da apenas zerrendetan agertzen.

6 Eskuragarri hemen: [www.indigenousaction.org/rethinking-the-apocalypse-an-indigenous-anti-futurist-manifesto](http://www.indigenousaction.org/rethinking-the-apocalypse-an-indigenous-anti-futurist-manifesto).

7 Atal hau Icaza, Rosalba (2022, prentsan) artikulua itzulpen askea da, ingelesetik gaztelaniara (eta euskarara).

- Kontraste adierazgarrietakoa honakoa da: Suitza Afrikako kontinentearen tamaina baino hiru aldiz handiago adierazten da.
- Ez-mendebaldeko deritzon mundua azpi-adierazita dago sailkapenetan, eta, gainera, batezbesteko aipameneren puntuazio-neurrietan ere marjinatuta agertzen da.
- Estatu Batuetan eta Erresuma Batuan aldizkari ugari eta desberdinak egon arren, herrialde horiek gainerako herrialdeek batera baino batezbesteko eragin-puntuazio altuagoa izatea lortzen dute.

2015eko ikerketa berriago batean (Graham et. al. 2015), ikerketa-taldeak SAGE argitaletxeko aldizkarietara artikuluak bidaltzen dituztenen zenbait datu landu zituen. Besteak beste, datu horiek, batetik, artikuluen egileen jatorria (herrialdea), eta bestetik, artikuluak bidaltzen zituzten aldizkariaren jakintza gai nagusia biltzen zituzten. Egileen arabera, 3 eredu orokor nabarmendu ziren, hala nola:

1. Eduki akademiko gehiago dator Iparralde globaletik Hegoalde globaletik baino. Afrika, bereziki, aipatu ere ez da egiten. Kontinente horretako herrialde gehienek ez dute erregistratu aldizkari-artikulu bakar bat ere.
2. Bi herrialdek bakarrik erregistratu zuten aurkezpen kopuru handia kategoria guztietan: Erresuma Batua eta Estatu Batuak.
3. Aurrekoa hirugarren puntu honekin lotzen da: Asiako herrialde gutxi batzuek (alegia, Txina, India eta Iran) artikulu kopuru handia erregistratu dute, baina STEM<sup>8</sup> gaien inguruan soilik: Zientziak, Teknologiak, Ingeniaritza eta Matematikak. Horrek egileei hausnartzera eramaten die: zer-nolako garrantzia eta zer eragin duen zientziak herrialde kolonizatuetan (India) eta suspertzen ari diren herrialdeetan (Txina).

Datu horiek partekatzearen helburua da honako galdera hau egitea: Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzak etorkizunaren alderdi kolonialetik eta kolonizatzailetik muga handiak dituela onartzen badugu, zer esan nahi du, gainera, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza diziplina-pentsamenduan sartutako egiturazko desberdinkeria-testuinguruan egiten bada, eta unibertsitate eta eskola gisa eratu gaituzten erakunde monokulturaletatik egiten bada?

### III. Eraldaketatik deskolonizaziora?

2020ko uztailean, Liza Ashamuk Britainiako BBC berri-agentziarako *“Pertsona beltzak GMI edo gorputz-masaren indizeari buruzko ikerketan sartu behar dira. GMIa pertsona guztion osasunerako neurri egokia al da?”* izeneko hausnarketa argitaratu

---

8 Ingelesezko hitz hauen akronimoa: Science, Technology, Engineering and Mathematics.

zuen (Ashamu 2020). Hausnarketa horretan, Ashamuk gorputz-masaren indizeari buruzko ikerketa bat aurkeztu zuen. Ikerketa Osasun eta Arreta Bikaintasunerako Institutu Nazionalak egin zuen, zeinak Ingalaterran osasun-laguntzarako orientabidea ematen baitu.

Institutu horren arabera, Ashamuk adierazi bezala, Gorputz Masaren Indizearen (GMIren) ebakipuntuak –norbaitek gehiegizko pisua edo obesitatea duen zehazten duten ebakipuntuak– Europatik etorritako biztanlerien inguruan egindako aurretiko ikerketetatik jasotakoak dira, eta litekeena da ez izatea egokiak beste talde etnikoen kasuan.

Erreportaje horretan, Ashamuk (2020) Tosin Sotubo doktoreari egindako elkarrizketa baten hainbat pasarte jaso zituen. T. Sotubo doktorea medikua eta osasun- eta ongizate-aniztasunaren defendatzailea da, eta zera argudiatu zuen: “Beltzak ikerketetan sartu behar ditugu, etnia guztietako beltzak adierazten dituzten ikerketa lor dezagun... GMIa duela urte asko asmatu zen, eta ez du gure gizartea gaur egun ikusten dugun moduan erakusten”.

## Aniztasun demografikoa, errepresentazioen ekitate falta eta aniztasun epistemikoa

2016an, Amsterdameko Unibertsitatean (UvA) –Europako unibertsitate zaharrenetakoa, 1632an sortua– aniztasun (faltaren) egoera diagnostikatu zuten diziplina anitzeko ikertzaile-talde bateko kide izanik, deskolonizazioaren prozesuaren, praktikaren eta etorkizunaren aurrean aniztasunen inklusiorako zenbait muga identifikatu genituen (Wekker et al 2016).

Lan-talde gisa, ohartu ginen UvAko biologoek eta medikuek zera uste zutela: *aniztasun falta* zientzia bikainarekin *jasanezina* eta *bateraezina* zela. Eta oso interesgarria izan zen hori garai hartan, izan ere, Herbeheretako Goi Hezkuntzan, aniztasuna beti lotu izan zaio bikaintasun akademikoaren faltari eta estandarren murrizketari.

Gaur egun, Holandako Goi Hezkuntzan, –seguruenik babes gehien jasotzen duen– ikuspegia honakoa da: zientzian aniztasun faltaren erronkari aurre egiteko, biztanleria honetan edo ikertzen diren biztanlerietan lanean diharduten subjektuen aniztasuna barne hartu behar da. Behin eta berriz entzuten dugu ezinbestekoa dela gure laginekin inklusiboak izatea, xede-taldeen aniztasuna atzemateko. Horri aniztasun demografikoa deritza (Wekker et. al. 2016).

Aniztasunari buruzko bigarren ikuspegiak honako gai hau jorratzen du: Iparralde globaleko egungo gizarte pluralak unibertsitateko langilerian duen errepresentazio desorekatua, eta, bereziki, gutxiengoa duten gizarte-sektoreek erabakiak hartzen dituzten postuetan duten azpi-errepresentazioa, hala nola emakume migratzaile eta errefuxiatuek. Halaber, enfasi horrek honakoa dokumentatzen du:



emakume horiek berberak laguntze-zerbitzuetan gain-errepresentatuta daude: unibertsitateetan garbitzen eta sukaldean dihardute lanean (Wekker et. al. 2016). Beste hitzetan esanda, errepresentazio demografikoen aniztasuna ezagutzaren politika ekonomikoan.

Holandako Goi Hezkuntzako aniztasunari buruzko hirugarren ikuspegi bat ezagutza-praktiketan aniztasun falta aztertzen ari da orain, finantzaketa eta ikerketa akademikoen erakundeetako gobernantza, ikerketa-metodologiak, ikaskuntza-pedagogiak eta -praktikak, eta, nola ez, ikasketa-planak barne (Wekker et. al. 2016). Beste hitzetan esanda, aniztasun epistemikoaren falta oso bidegabekoa den ezagutzaren ekonomia politikoan.

Azken urteotan, bai Herbehereetan, bai Erresuma Batuan eta Estatu Batuetan ere, aniztasunaren falta zalantzan jartzen duen mobilizazioa nabaritzen ari gara, zeina Goi Hezkuntzako erakundeen bazterretatik eta kanpotik baitator. Ondorioz, aniztasunaren ulerkerak demografikora bideratutako politikak eta esku-hartzeak sustatu izan dira: Nor dago erakunde jakin batean? Nor dago nire ikasketa-planaren barruan? *Why my curriculum is White?*<sup>9</sup>

Edonola ere, Goi Hezkuntzako aniztasunaren inklusioari buruzko ikerketak honakoa erakutsi du: inklusio horrek ez baditu funtsean zalantzan jartzen lehen aipatutako kartograman adierazitako egiturazko desberdinkeriak, orduan, politika horiek arazoaren parte dira, eta ez konponbidea (Wekker et al. 2016; Icaza eta Vazquez 2018; de Jong e Icaza 2019).

Zoritxarrez, kasu askotan, inklusio-politika horiek itxurazko mugimenduak izan dira, eta laukitxoak markatzen joateko jardunak. Aurrekoak ez du esan nahi aniztasun demografikoen adierazpena ez dela garrantzitsua, batez ere, hezkuntza-komunitateetako kideentzat, zeinak goi hezkuntzako lehenbiziko belaunaldia baitira. Edonola ere, hori ez da nahikoa, baldin eta asmoa akademien eta unibertsitateen oinarrian dagoen ekitate material-epistemiko eza desegitea bada.

Baldintza horiek kontuan hartuta, oso garrantzitsua da honako galdera hau egitea gure buruari: goi hezkuntzaren kasuan, aniztasunen inklusioaren aukerak mugatuak direla onartzen badugu, inklusio hori gertatzen deneko baldintzak ez direlako desegiten, zein izango litzateke, orduan, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren zeregina?

9 Gaur egun, baliabide askotan jaso dira ikasleen eta irakasleen arteko eztabaidak, curriculum zurien zergatien inguruan. Ikus, adibidez: [www.subu.org.uk/mycurriculum](http://www.subu.org.uk/mycurriculum); [www.nusconnect.org.uk/articles/why-is-my-curriculum-white-decolonising-the-academy](http://www.nusconnect.org.uk/articles/why-is-my-curriculum-white-decolonising-the-academy); <https://soundcloud.com/4acentre/please-explain-why-is-my-curriculum-white>

## Nondik, norekin eta zertarako?

Azken galdera horri erantzuteko, nire erantzuna testuinguru batean kokatu behar dut; izan ere, erantzun hori 2016an UvAn aniztasun demografikoaren egoerari buruz eta pluraltasun epistemikoari buruz egindako ikerketa batean oinarritzen da.

Jarraian adieraziko ditudan ideien oinarrian dagoen informazioa, besteak beste, Abya Yalan erresistentzian diharduten komunitateekin eta herri indigenekin epe luzera koalizioan egindako lanetik jasotakoa da, bai eta haien borroketatik ere, autonomiaren eta autodeterminazioaren aldeko borroketatik –Lurreko Unibertsitatea eta Mexikoko Hegoaldeko Pluribertsitateak barne, zeinak jatorrizko herri eta komunitateek haientzat sortuak baitira–.

Eta, hain zuzen ere, mundu horietatik ulertuko dugu goi hezkuntzan aniztasunen inklusiorako agendak oso muga handiak dituela, eta, gainera, deskolonizazioak ez duela gauza bera esan nahi batzuentzat eta besteentzat.

## Deskolonizazioa(k)<sup>10</sup>

1950eko eta 1960ko hamarkadetan, deskolonizazioak agindupeko lur kolonialen amaiera ekarri zuen, eta inperialismori aurre egitearekin zegoen lotuta. Gaur egungo Ipar Amerikan, Eve Tuck eta Wayne Yang-ek (2012) ohartarazi digute “deskolonizazio” hitza erabiltzea arriskutsua izan daitekeela, batik bat, zalantzarik gabeko metafora gisa, gizarteetan eta eskoletan hobeto nahi den guztia adierazteko.

Abya Yalako jatorrizko herri eta komunitateentzat, diziplina-arauen deskolonizazioak eta ikerketa-metodologiek honako helburu politiko eta etiko hauek dituzte: lurraldea-gorputza-lurra defendatzea, autodeterminazioa eta autonomia.

Mendebaldeko Europaren testuinguruan, hezkuntzaren deskolonizazioa berriz ere ari da arreta erakartzen ikerketa-metodologiaren joera eurozentriko eta antropozentrikoen inguruan, bai eta diziplina modernoaren eta kultura-erakundearen jatorri kolonialen inguruan ere, unibertsitateak agiritegi nazionalak eta museoak barne.

Europar egindako azken ikerketetan, unibertsitateek deskolonizatzerako egindako deiak ikertu dituzte, eta ohartu dira, tokian tokiko espezifikotasunak izanik ere, badagoela halako jakingura amankomun bat, unibertsitateetako ondare kolonial

---

10 Atal hau honako argitalpen hauen itzulpen askea da, ingelesetik gaztelarrera (eta euskarara): Icaza eta Vázquez 2018; Icaza eta Vázquez 2020; Aguilar eta Icaza 2021.

ikusgaiak eta ikusgaitzagoak jorrazteko, hala nola garai bateko kolonizatzaileen estatuak kentzea (Cecil Rhodes, Hegoafrikan, adibidez) eta ikasketa-planetan emakume eta pertsona beltzen lanik ez egotea.

Herbehereetan, kultura-erakundeak imajinario kolonialak ezabatzeko prozesuan daude; esaterako, Witte de With Rotterdameko arte garaikideko zentroaren izena aldatzeko prozesua (Icaza eta Vázquez 2020).

Europako kultura-erakundeak ardatz hartzen dituen ikerketak ezagutza babesteko eta adierazteko erakunde horien praktikak ikertu ditu, eta nabarmen utzi du pluraltasuna ezabatzeko eta ezeztatze hartu duten konpromisoa (Icaza eta Vázquez 2020). Europako eta Herbeheretako ahalegin kolektibo desberdin horiei dagokienez, iragan kolonialarekiko harremana serio hartzen dituzten ezagutzak sortzeko praktikak berrebaluatzen ari gara (Icaza eta Vázquez 2020).

Horrek, funtsean, zera esan nahi du: lanerako erabiltzen ditugun diziplinen, kategorien eta pedagogien muinean arrazagatiko hierarkiak erreproduzitzean guk geuk zer-nolako konpromisoa dugun hausnartzeko denbora hartzen ari garela (Aguilar eta Icaza 2021). Herbeheretako sareen eta kolektiboen kasuan, feminismoan gertatzen da hori, bai eta genero eta emakume kontzeptuen inguruan ere.

Eta oso ahalegin garrantzitsuak badira ere, ez dira bakarrak, eta, are gutxiago beste testuinguru eta denborazkotasunentzako ibilbide-orriak. Hori baieztatzea, berez, Ipar Atlantikoko lokalismoaren unibertsaltasuna zalantzan jartzen duen mugimendua da (Mignolo 2000, 2002, 2007). Baina, horretaz gain, akademiak eta goi hezkuntzak ematen dizkiguten aukera-parametroak kontuan hartuta, gure ekarpena hezkuntzaren deskolonizazio-mugimendutik kanpo dagoen kanpoaldea aipatzea izango litzateke (Icaza eta Vázquez 2022b, prentsan).

Horrekesan nahi du ikerketa-hezkuntza-curriculumen proiektu deskolonizatzaileak oraindik ere modernitatearen lurralde epistemikoaren barruan daudela, eta boterearen, zapalkuntzaren eta kontrolaren operazio desberdin, bidegabe eta jasanezinen aurkako erantzun edo erresistentzia gisa antolatzen direnean, haien kokapen geopolitiko eta gorputzaren eta denboraren kokapena erakusten digutela.

Esaterako, askotan, Estatuari zuzendutako hezkuntzaren deskolonizazioagatik demandak jasotzen ditugu, zeinek Ongizatearen Estatu, neoliberalismoaren aurkako borroka eta politika ezkertiarrik politikaren eta erresistentziaren aukera bakarrak direla uste baitute. Etorkizun horrek –progresibo eta alternatibo, bai eta erradikal gisa hartzen denak– politikoa denari buruzko ikuspegi eurozentratuaren kanpoan eta bazterrean bizi diren besteen bizimodu eta jakintzen konplexutasuna isilarazten eta ezabatzen du.

## IV. Beraz, zer egin?

### Posizionalitatea<sup>11</sup>

Koalizio plural eta konplexuetako feminista deskolonial gisa, ezagutza guztien posizionalitatea interesatzen zaigu; horrek esan nahi du ezagutzak lekuetan, gorputzxtan eta ekologietan sortzen direla, eta ezagutzak tokian tokikoak direla. Batzuetan, gai gara edo ahalmena dugu haren adierazpenak diseinu globaletan edo kategoria unibertsalizatuetan baino ez ikusteko.

Ezagutzak tokian tokikoak direla pentsatzeak ez du esan nahi ezagutza “hobeak” edo “aratzagoak” direla, edo nazioarteko esferetatik edo mundu-mailako elkarrekintzetatik kanpo daudela (Icaza eta Vázquez 2018). Zera esan nahi du: ezagutza guzti-guztiek jatorri geohistorikoa eta gorputz-politiko espezifikoa dutela; hau da, ezagutza guztiak leku eta ekologia jakinetan sortzen direla, eta gorputz jakinek sortzen dituztela (Icaza 2018). Ezagutzak beti tokian tokikoak direla onartzeak esan nahi du gure ezagutza guztiak partzialak direla. Horrek ez du esan nahi guztiak balio duela, edo esperientziaren edo zientziaren aurka nagoela, zeina egia “faltsuen” garai nahasi hauetako ezaugarri oso zaila baita (Tett 2020).

Ezagutzen ezaugarri partzialak gure ikuspuntu bakoitzaren mugen inguruko kontzientzia nabarmentzen du, eta, era berean, ezagutzaren ikuspegi irekia sustatzen du. Ezagutzari eta esperientziari irekita dagoen ikuspegia geohistorikoki kokatutako esperientzia formei begira dagoen ikuspegia da, eta haren helburua da jakin-mina, elkarrekikotasuna, elkarrizketa eta lankidetzatza sustatzea (Icaza eta Vázquez 2018).

### Berreraikitzea

Hortaz, nondik ari gara etorkizuna, eta, gainera, hezkuntza, eraldaketa eta gizartea pentsatzen?

Galdera horren bidez, kokatutako jakintzen garrantzian zentratuko gara, non gizarte-erlaketak tokian tokiko eta probintziako genealogia baitu, modernitatearen inguruko barne-kritikari dagokionez.

Non berreraikitze ontologiko-epistemiko-politiko-afektiboa ez den muga lineala, ez etorkizuneko, ez aitzinirudizkoa, ez utopikoa; hori guztia modernitatearen inguruko barne-kritikatik dator (Icaza eta Vázquez 2022n prentsan). Jakintzen berreraikuntza borrokaren muga eliptiko eta zirkularra da, non *iragana gure etorkizuna* baita (Estes 2019).

---

11 Atal hau honako argitalpen hauen itzulpen askea da, ingelesetik gaztelarrera (eta euskarara): Icaza eta Vázquez 2018, Icaza 2022 prentsan.

Eta hala izanik, berreraikitzeak ez du esan nahi zerbait berritzailea proposatzea, ezta zerbait berria aurkitzea ere, edo arbasoen ezagutzak hartu eta hizkuntza kolonialetara itzultzea, akademiek –baita kritikoez eta progresiboek ere– kontsumitu ditzaten. Azken horrek gorputzxi begiratzerara narama.

## Zer gorputzxi kontatzen digute eta nork kontatzen dizkigute?<sup>12</sup>

Feminismo kritiko eurozentratuek esan izan digute, mende askotan zehar, gorputz maskulinoa munduaren eta gizartearen ulerkeretatik kanpo egon izan dela, eta gabezia horrek ustez ezagutza zer den dioten ideia arrazionalistak eta kartesiarrak sendotu zituela. Halaber, gorputz femeninoak eta feminizatuak presente zeuden, ezagutza arrazionala sortzeko gaitasuna justifikatzeko beharra zegoenean bakarrik. Horra arte, dena ongi, ezta?

Hala ere, feminismo horiek ez ziguten kontatu, desberdintasun kolonialaren beste aldetik, arrazializatu eta gizatasuna kendu zaien gorputzek funtsezko lekua bete izan dutela Mendebaldeko kultura menderatzailean desberdintasuna eraikitzean.

Teologo feminista afro-diasporikoek –hala nola M. Shawn Copelandek (2010)– gorputzaren bestelako ikuskera bat erakusten digute: ikuskera hori, desberdintasunaren eraikitzea ezegonkortzeaz gain, ez da diskurtso kultural eta performatiboa, baizik eta bitartekaria eta hezurmamitutako eta testuinguruaren arabera esperientzia denborazkotasunen pluraltasunean. Denborazkotasunen pluraltasun hori gorputzak orain denarekin, aurretik gertatutakoarekin, Lurrarekin eta antzinakotasunarekin izandako harremanetan adierazten da (Icaza eta Vázquez 2022a prentsan).

Ikuspegi horretatik, gorputzaren ulerkera performatiboa, zeina modernitatearen barne-kritikaren barruan baitago, ez da nahikoa gorputza aurrekotasun gisa azaltzeko; izan ere, memoriaren denborazkotasuna eta diskurtsoarena ez dira berberak (Vázquez 2017).

Horrenbestez, hezurmamitutako ezagutza bi eratara uler dezakegu: batetik, gorputzaren bitartez egindako diskurtso gisa –Donna Haraway-k ezagutza kokatua deritzona–, eta bestetik, gorputza memoria gisa (Icaza eta Vázquez 2022a prentsan). Hori kontuan hartuta, orain, gure helburua da gure feminismo “ezkertiar progresiboari” buruz ikasitakoa ahazteko aukerak identifikatzea eta aukera horiei eustea. .

---

12 Atal hau honako argitalpen honen parte da: Icaza, 2019.

## (Gu geu) ikastea (eta ahaztea), galeren erdian

Nazioarteko garapenari buruz Rolando Vázquezekin (Icaza eta Vázquez 2022b prentsan) egin dudana azterketa feminista deskolonialean, haren boterearen ondorioak eta mundua eratzeko prozesuak identifikatu ditugu, bai eta haren kolonialtasuna ere, 3 galera nagusi gisa:

- Esanguratsua diren beste munduen galera edo *worldlessness*.
- Lurra-gorputza-lurraldearekiko harremanaren galera edo *earthlessness*.
- Hezurmamitutako eta testuinguruaren araberako pentsamendu-gaitasunen galera (*enfleshlessness*).

Galera horiek ikasgelako eremu potentzialki transgresorean lantzeko, Herbeheretako testuinguruan denbora-bizitza eman diegu pedagogia deskolonial delakoei. Pedagogia deskolonial horien jatorrian, Lurreko bizia kontsumitzeari eta beste gorputzxn sufrimenduari uko egitea eta horiek salatzea dago.

## Pedagogia deskolonialak<sup>13</sup>

Trantsizio-pedagogiak: ikasgela eta gizartea, eta ikasgela eta lurraren arteko muga epistemikoen gainean zubiak eraikitzea dute helburu. Egiaz, zera esan nahi du: ez dugula inguruan duguna alde batera uzten, baizik eta aktiboki sartzen dugula gure jardueretan.

Posizionaltasun-pedagogiak: ezagutza modu kokatuan erakustea dute helburu. Egiaz, zera esan nahi du: gure diziplinen ereduak erakustean ere, ezagutzaren kokapen geopolitikoa agerian uzten dugula, eta eredu hori bera ere funtsezkoa zian dela, bereizkeriaren ebakidura-ardatzak adierazteko.

Harremantasun-pedagogiak: ikasgelan eta unibertsitate guztian eraturako harremanak eraldatzea dute helburua. Hori, ordea, ez da ikuspegi partizipatibo hutsa. Ikasleen aurrekariaren pluraltasuna eta posizionaltasuna ez dira ezabatzen, baizik eta, kontrakoa, guztion ikaskuntza-esperientzia aberasten dute.

---

13 Hemen aurkeztutako pedagogia deskolonialak testu honen parte dira: Icaza eta Vázquez 2018.

## V. Egiteke dauden erronkak eta zereginak

Amaitzeko, akademien eta goi hezkuntzaren barrutik eta bazterretatik borrokan dihardugun pertsonak garen aldetik, Abya Yalan<sup>14</sup> borrokan diharduten feministekin eta emakumeekin hitz egindako eta elkarrekin sortutako egiteke dauden hainbat erronka eta zeregin aipatu nahi ditut.

*Argitasuna* – kolektiboki identifikatu dugun erronka nagusia argitasuna izatea da. Argitasuna izatea modernitate/kolonialtasunaren lurralde material, onto-epistemiko eta subjektibo/afektiboan bizi garela ulertzeko, baita lurralde horretatik bizirik atera garela ulertzeko ere, eta bizirik dirauenak garenez gero, gure ardura da identifikatzea nola ari den lurralde hori gain-zehazten zer ari garen izaten, eta zeinekin.

Beraz, Beste Jakintza Sare Transnazonaletik, ISSko *Nurturing Each Other* taldearekin eta Herbeheretako “María Lugones” Udako Eskola deskolonialarekin batera, biziaren erreproduktzioarako eta, autobaieztapenerako eta sendatzeko afektibotasunen alde, kapitalaren kontrako forma kolektiboak garatzen ari gara, autogestioan argitaratutako liburu-tresnak idatziz; besteak beste: *En Tiempo de Muerte* (Heriotza Garaietan. Gorputzak, Errebeldiak, Resistentsiak) liburu-tresna.

Arrazializatutako pertsona ez binarioekin batera, argitasuna izan dugu helburu, Herbeheretan eta Europan gizarte zuri kolonialaren bazterretan zergatik bizi garen ulertzeko, eta ikuspegi horretatik proposatu dugu espazioen *beste gorputz inbaditzaileen* (Puwar 2004) defentsa; alegia, espazio gisa honakoak ulertzen dira: haiek jasotzeko egiturarik ez zuten erakunde eta arauak, hala nola unibertsitateak eta eskolak, curriculumak eta pedagogiak, ikerketa-metodologiak eta -epistemologiak, eta museoak eta kultura-erakundeak.

Kolektiboki eta politikoki, mugimendu antirrazistaren parte eta Herbehereen eta Europan deskolonizazioaren aldeko mugimenduaren parte finkatu gara. Emakume mexikar naizen aldetik, eta mestizajearen emaitza –non Mónica Moreno Figueroa (2020) “beltzaren edo beltzatasunaren kontrako arrazakeria pieza nagusizat hartzen baitu eragiten ari den arraza-proiektu mexikar gisa, eta, beraz, identitate nazionala egonkortzeko proiektu gisa”; borroka nondik egiten ari garen argi izatea oso garrantzitsua izan da koalizio pluralak eraikitzeko.

Une honetan, berreraikitze onto-epistemiko-politiko-afektiboaren helburua lortzeko, Europan, Afrikan, Ekialde Ertainean eta Abya Yalan, pertsonekin eta kolektiboekin eraikitako koalizio-espazio eta -proiektuei eusten diegu,

14 Ideia horiek Feminismo Deskolonialen Sarearekin egindako Hizketaldietan mahaigaineratu ziren. Errebolta Feministak Pandemia Garaietan izeneko Hirugarren Hizketaldia, irailak 2. Eskuragarri CLACSO TV-n: [www.youtube.com/watch?v=Rza3uxL6oug](https://www.youtube.com/watch?v=Rza3uxL6oug)

arrazakeriaren, arrazakeria epistemikoaren, Europako neofaxismoaren eta kapitalismoaren kontrako erresistentzia modu berriak sortzeko.

Aminata Cairo (2021) herri-hezitzaile antirrazista holandar-surinamdarrak erakutsi ditu posible dela ostatu-gune erradikalak kolektiboki eustea, beren existentzia eta gizatasuna justifikatu beharrik gabe babesa ezinbestean hartu behar dutenentzat. Nahitako ostatu-gune deritze horiei, eta oso garrantzitsuak izan dira Europako eta Hegoalde globaleko mugimendu antirrazisten topagune gisa.

Eta topagune horietan ikasi dugu ostatu-gune erradikal horiek oso gutxitan aurkituko ditugula erakunde moderno/kolonialetan; beraz, denbora eta bizia ematen diegu haien bazterrean eta isilean, baina ez isilarazita.

Era berean, irakasle eta aholkulari gisa, behin eta berriz entzun izan dugu honako galdera hau: nola borroka gaitezke, belaunaldiz belaunaldi lurralde jakin batekiko pertinentziarik ez duten edo sentitzen ez duten hirietako biztanle garen aldetik?

Eta, halaxe, hainbat pertsona eta kolektibo ezagutu ditugu, zeinentzat Itsasoak, Ozeanoak eta Atlantikoaren zeharkaldiak (edo *middle passage* delakoak) pertinentzia arin eta aldakorrek baitira (Sheik 2021, aurki). Hori da, adibidez, Europako komunitate afro-diasporikoen kasua.

Hori dela eta, bizia eta denbora ematen ari gara baldintza ekonomiko, politiko eta afektiboak sortzeko, eta, hala, elkarrizketak eta ekintzak abian jartzeko, besteak beste, Abya Yalan lur-lurralde-gorputzetik borrokan dihardutenekin, erbesteratzea Lurrekiko loturaren galera gisa ulertzen dutenekin, eta, Atlantikoaren zeharkalditik bizirik ateratakoak izanik, indigenizatzearen garrantzia ulertu dutenekin – horrek esan nahi du beren arbasoak iritsi ziren lurrekoak izaten ikasi, eta gaur egun beren istorioak kontatzeko pazientzia dutenekin. Horretan dihardugu.

## Posizionaltasunaren zeregina

Curriculum deskolonizatuek historiaren bertsio menderatzailearen edo unilateralaren posizionaltasunari buruz hitz egiten den erakunde-jardunbideei bide ematen die eta haiek sustatzen dituzte. Elkarrizketa horiek ikasteko eta ikasitakoak ahazteko funtsezko iturri dira.

Praktikan, horrek zera esan nahi du: aukerak identifikatzen jakitea, kultura instituzionala sustatzeko, eta hark, aldi berean, ikaskuntza kolektiboa susta dezan, ohartzeko nola ezabatzen dituzten ikuspegi partikularrek beste ikuspegiak eta historiak, eta nola diren horren konplizeak.

Gainera, ikaskuntza kolektibo horrek arretaz begiratu behar die banaketa kolonialen erreproduzioaren, Lurreko biziaren kontsumoaren eta munduko



gehiengoen sufrimenduaren konplize diren jakintzen dokumentazio- eta zaintze-prozesuei.

Ekarri gogora haziei buruzko informazio genetikoaren pribatizazioa eta Europa osoko museoetan gordetzen diren antzinako herri kolonizatueto giza arrastoak. Zein dira praktika horiei probetxua ateratzen dieten interesak eta beharrak?

## Des-isilarazteko zeregina<sup>15</sup>

Ikasketa-planen deskolonizazioak historiak ez isilarazteko zeregina bete beharko luke. Horrek esan nahi du minorizatu edo marjinalizatueto historiak aintzat hartu behar direla.

Gure gizarte pluralek eta haien erronka konplexuek ulerkera aberatsagoa behar dute, ulerkera konplexuagoa eta gure iragan eta orain inbrikatuez ñabartutako ulerkera. Horrek zera esan nahi du: gure diziplinen narrazioa haien historia korapilatsuei eta ezagutzen ateratze-, jabetze- eta ezabatze-ondareei irekitzea.

Dafina Lazarus Stewart-ek<sup>16</sup> (2017) ezagutzen belaunaldian, adibidez, curriculum deskolonizatuaren bitartez, des-isilarazi behar denari buruzko gogoetan laguntzeko hainbat galdera proposatzen dizkigu:

- Zer ikuspegi daude ezabatzeko etengabeko arriskuan?
- Noren ideiak ez dira seriooki hartu?
- Zer baldintza sortu izan dira, ezabatze horri eusteko?
- Noren segurtasuna sakrifikatu eta minimizatu izan da, besteak eroso senti daitezen, gizatasuna kentzen duten ikuspegiei eutsiz?

---

15 Rutazibwaren (2019) *des-isilarazi* kontzeptua erabili dut; izan ere, "hitza eman" ideia kontserbatzaitetik bereizten gaitu, eta nabarmen uzten du isilarazitakoak ez daudela isilik. Baina, gainera, kontzeptu horrek aukera ematen digu ezagutza eurozentratuen eta monokulturalen azpian dagoen entzute deskolonialerako ezintasuna agerian uzteko.

16 Ikus: [www.hafoundation.org/Portals/0/Uploads/Documents/Equity%20Alliance/Diversity%20Inclusion\\_v\\_EquityJusticeTable\\_updated.pdf](http://www.hafoundation.org/Portals/0/Uploads/Documents/Equity%20Alliance/Diversity%20Inclusion_v_EquityJusticeTable_updated.pdf).

## Erreferentziak

- Aguilar, Valiana eta Rosalba Icaza (2021): "Un feminismo otro. On the (im) possibilities of encountering each other across the colonial divide", *Austrian Journal of Development Studies*, Volume XXXVIII, Issue 1/2, 210-238 or.
- Ashamu, Liz (2020): "Black people need to be included in BMI research. Is BMI an appropriate measure of health for everyone?". *BBC Three*, 2020ko uztailak 31. Eskuragarri hemen: [www.bbc.co.uk/bbcthree/article/49f398eb-5546-4d68-8d07-4b74e35b1df8](http://www.bbc.co.uk/bbcthree/article/49f398eb-5546-4d68-8d07-4b74e35b1df8).
- Cairo, Aminata (2021): *Holding Space: A storytelling approach to trampling diversity and inclusion*. Duivendrecht: Aminata Cairo Consultancy.
- Chavez, Daniel B.; Vazquez, Rolando (2017): "Precedence, Trans\* and the Decolonial". *ANGELAKI journal of the theoretical humanities* 22(2), 39-45.
- Copeland, M. Shawn (2010): "Enfleshing Freedom. Body, Race and Being". *Fortress Press*, Minneapolis.
- Crawley, A.T. (2017): *Blackpentecostal Breath: The Aesthetics of Possibility*. American Literatures Initiative.
- Estes, Nick (2019): *Our History is the Future. Standing Rock Versus the Dakota Access Pipeline, and the Long Tradition of Indigenous Resistance*. London: Verso.
- Eze, Ec, Henry, P., Castro-Gomez, S., & Mignolo, W. (2008): *El color de la razón: racismo epistemológico y razón imperial*. Buenos Aires, Ediciones del Signo.
- Graham, M. et al. (2015): *The Geography of Academic Knowledge Blog*. 2015eko irailak 22an argitaratua. Online bertsioaren kontsulta 2021eko maiatzak 5ean egin: [www.oii.ox.ac.uk/blog/the-geography-of-academic-knowledge](http://www.oii.ox.ac.uk/blog/the-geography-of-academic-knowledge).
- Graham, M. et al. (2015): *The Geography of Academic Knowledge Blog*. 2015eko irailak 22an argitaratua. Online bertsioaren kontsulta 2021eko maiatzak 5ean egin: [www.oii.ox.ac.uk/blog/the-geography-of-academic-knowledge](http://www.oii.ox.ac.uk/blog/the-geography-of-academic-knowledge).
- Icaza, Rosalba (2022 prentsan): "Decoloniality, governance and development", in *Elgar Handbook on Governance and Development*, co-edited by Wil Hout and Jane Hutchinson.
- Icaza, Rosalba (2019): "Sentipensar los cuerpos cruzados por la diferencia colonial", in Rosalba Icaza eta Xochitl Leyva (2019) (arg.) *En Tiempos de Muerte. Cuerpos, Rebeldías, Resistencias*. CLACSO, Argentina; RETOS, Mexico; ISS; the Netherlands, 27-47 or.
- Icaza, Rosalba (2018): "Social Struggles and the Coloniality of Gender", in Robbie Shilliam and Olivia Rutazibwa, arg. *Routledge Handbook on Postcolonial Politics*, London: Routledge, 58-71 or.

- Icaza, Rosalba eta Rolando Vazquez (2022a prentsan): "Vulnerability and the Coloniality of Performativity", special issue edited by Sara C. Motta and Tina Sepala for *Globalizations*.
- Icaza, Rosalba eta Rolando Vazquez (2022b prentsan): "The politics of decolonizing development", in *Elgar Handbook of International Development*, edited by Diana Tussie.
- Icaza, Rosalba eta Rolando Vazquez (2020): "Decolonizing the Archives: a task of epistemic justice and pluralizing history". *Dekolonitateari buruzko mahai ingurua*. Herbereen Hezkuntza, Kultura eta Zientzia Ministerioak antolatuta. 2020ko ekainan eta abenduan.
- Icaza, Rosalba eta Rolando Vazquez (2018): "Diversity or Decolonization? Researching Diversity at the University of Amsterdam". In G.K. Bambrha, D. Gebrial & K. Nişancioğlu (arg.) *Decolonizing the University*, London: Pluto Press, 108-128 or.
- Icaza, Rosalba eta Sara de Jong (2018): "A Radical Space of Possibility: Decolonization and Feminisms in Global Teaching and Learning", in Icaza, Rosalba; Sara de Jong eta Olivia Rutazibwa, arg. *Decolonization and Feminisms in Global Teaching and Learning*. Routledge Series Teaching with Gender. London.
- Lazarus Stewart, Dafina (2017): *Diversity & Inclusion Asks... Equity & Social Justice Responds*. Bowling Green State University, 2017ko martxoa. Eskuragarri hemen: [www.hafoundation.org/Portals/0/Uploads/Documents/Equity%20Alliance/DiversityInclusion\\_v\\_EquityJusticeTable\\_updated.pdf](http://www.hafoundation.org/Portals/0/Uploads/Documents/Equity%20Alliance/DiversityInclusion_v_EquityJusticeTable_updated.pdf).
- Mignolo, Walter (2000): *Local Histories/Global Designs. Coloniality, Subaltern Knowledges and Border Thinking*. Princeton: Princeton U.P.
- Mignolo, Walter (2002): "The Geopolitics of Knowledge and the Colonial Difference", *the South Atlantic Quarterly*, 101:1, Winter, 57-95 or.
- Mignolo, Walter (2007): "Delinking: The Rhetoric of Modernity, the Logic of Coloniality and the Grammar of De-Coloniality". *Cultural Studies* 21(2), 449-514.
- Moreno Figueroa, Monica G. (2020): "El giro hacia el racismo y el anti-racismo, el mestizaje y el racismo anti-negro en Mexico". LASA 2020rako aurkezpena, *Panel Virtual Genealogias, Abordajes y Debates del Racismo*. Eskuragarri hemen: <https://colectivocopera.org/monica-moreno-figueroa>.
- Puwar, N. (Ed.). (2004): *Space invaders: Race, gender and bodies out of place*. New York: Bloomsbury Academic
- Rutazibwa, O.U. (2019): "On babies and bathwater: decolonizing International Development Studies". In de Jong, S., Icaza, R. eta Rutazibwa, O.U. (arg.), *Decolonization and Feminisms in Global Teaching and Learning*. New York: Routledge. 158-180 or.

Tett, Gillian (2020): *The uncomfortable truth about fake news*. Financial Times, 2020ko otsailak 24.

Sheik, Zuleika (forthcoming): *Liminagraphy - an epistemically non-violent approach to research*.


Sousa Santos, Boaventura de, J.A. Nunes, eta M.P. Meneses, M.P (2007): "Opening up the canon of knowledge and recognition of difference". in B. de Sousa Santos (ed), *Another knowledge is possible: Beyond northern epistemologies*, London: Verso.

Tuck, Eve eta K. Wayne Yang (2012): "Decolonization is not a metaphor". *Decolonization: Indigeneity, Education & Society*. Vol.1, No.1, 2012, 1-40 or.

Vázquez, Rolando (2020): "Vistas of Modernity. Decolonial Aesthetics and the End of the contemporary". *Mondriaan Fund Essay 14*. Prinsenbeek: Jap Sam Books.

Vazquez, Rolando (2017): "Precedence, Earth and the Anthropocene: Decolonizing Design". *Design Philosophy Papers*, DOI: 10.1080/14487136.2017.1303130

Wekker, Gloria; M. Slootman, R.A. Icaza Garza, H. Jansen & R. Vazquez (2016): *Let's do Diversity*. Report of the University of Amsterdam Diversity Commission. Amsterdam: University of Amsterdam. Eskuragarri hemen: [www.uva.nl/content/nieuws/nieuwsberichten/2016/10/eindrapport-commissie-diversiteit-%E2%80%98let%E2%80%99s-do-diversity%E2%80%99-gepresenteerd.html](http://www.uva.nl/content/nieuws/nieuwsberichten/2016/10/eindrapport-commissie-diversiteit-%E2%80%98let%E2%80%99s-do-diversity%E2%80%99-gepresenteerd.html).



## Sorkuntza Kolektiboko Taldeen Kontalaritzak

Sorkuntza Kolektiboko Taldeak (SKT) pertsona desberdin askok osatu zituzten, eta haien kezketan, subjektibotasunetan, esperientzietan eta ikuspegi zehatzetan oinarritutako azterketa egiten lagundu zuten. Taldeko lanaren helburua izan zen kutsu kritiko eta eraldatzailea duten hezkuntza-estrategiak eraikitzea, SKT bakoitzari esleitu zitzaion lldo Estrategikoak proposatutako ikuspegi espezifikotik.

Taldearen ekarpenak honako idatzi hauetan jaso ditugu, hizlari bakoitzaren ikuspegiak abiapuntu hartuta.



# 1. Ildo Estrategikoa Gorputzak eta lurraldeak







## 1.1 Sorkuntza Kolektiboko Taldea



**Dinamizatzailea:** Rosario González Arias<sup>1</sup>

**Kontalaria:** Amaia del Río Martínez<sup>2</sup>

**Laguntzailea:** Andrea Francés Domenech<sup>3</sup>



**Sorkuntza Kolektiboko Taldearen (SKT) hiru uneetan landuko diren edukiak.** Dinamizatzaileak lana aurkeztuko du:



**Abiapuntua:** Nor gara? Non gaude kokatuta? Non kokatuta ikasten eta irakasten dugu? Zer pentsatzen dugu? Zer sentitzen dugu? Non kokatuta pentsatzen eta sentitzen dugu? Zer gorputz eta lurraldetan kokatuta? Nola zehazten gaituzte gorputz- eta lurralde-koordinada horiek? Gorputzetan eta lurraldeetan mamitutako ezagutzak, zenbait elkargunetatik aztertuta.



**Jomuga:** Norantz egin nahi dugu? Nola eraman gure hezkuntza-jarduera bide eraldatzaileago eta kritikoago batera, ezagutza aipagarria ekoizteko balioko duena?

### Lehen unea **Geure burua kokatu, eta elkar ezagutu**

Abiapuntua: Nor gara? Non gaude kokatuta? Non kokatuta ikasten eta irakasten dugu? Zer pentsatzen dugu? Zer sentitzen dugu? Non kokatuta pentsatzen eta sentitzen dugu? Zer gorputz eta lurraldetan kokatuta? Nola zehazten gaituzte gorputz- eta lurralde-koordinada horiek?


Honako dinamika hauen bidez, SKTan parte hartzen ari diren guztiek beren burua aurkeztuko dute: “NAsmamena” eta “Hegazkin jakin-nahia”. Guztiek beren datuekin beteko dute alegiazko nortasun-agiria (NA): izena, adina, jaioterria, bizitokia, lanbidea eta “nire klase ideala”. Horren ondoren, paperezko hegazkin bat egingo dute NArekin, eta norberarena airera bota eta beste batena jaso behar da; hala, gero, talde handiari aurkezteko pertsona hori.

1 Oviedoko Unibertsitatea.

2 Hegoako Hezkuntza Taldea.

3 Globalizazioa eta Garapena masterra, Hegoa.


“Introducción a la educación zapatista” (“Hezkuntza zapatista: hasi-masiak”) bideoaren proiektzioa.

 <https://schoolsforchiapas.org/multimedia/video-introduccion-a-la-educacion-zapatista-en-espanol>

Eratutako bikoteetan, gogoeta egingo dugu honako galdera hauei buruz; betiere, gogoan edukiz bizi garen sistema kapitalista, heteropatriarkala eta koloniala (dela zapalkuntzaren eremuan, dela pribilegioenean).

**Gorputzak:** Nola ikasten da gorputz hegemonikoa? Nagusi den hezkuntzak nola eratzen eta finkatzen du (curriculum esplizitu edota ezkutukoaren bidez) gorputz-eredu zehatz bat (arketipikoa, heteronormatiboa, baliagarria, boteretsua, ederra...)? Zer adibide identifikatu ahal ditugu? Zer mekanismo erabiltzen ditu horiek erreproduzitzeko? Gorputz hegemoniko horiek naturalizatzek nola eragiten dute gure identitate eta pentsamenduan?

**Lurraldeak:** Nola eragiten du lurraldeak identitate, interes eta ezagutzak eratzeko orduan? Zer esperientzia ezagutzen ditugu? Lurralde bateko eta horko testuinguruan kokatutako ezagutzaren garrantzia.



Bateratze-lana, taldeka.

## 1. taldea

Gorputzak	Lurraldeak
<p><b>Kapitalismoa</b></p> <p>Kontsumo tradizionala eta bidezko merkataritza (pribilegioa)</p> <p>Baliabide eta bitartekoen falta (zapalkuntza)</p> <p>Inpaktu ekologikoa (zapalkuntza)</p> <p>Esplotazioa (zapalkuntza)</p>	<p><b>Kapitalismoa</b></p> <p>Kontsumoa, indarkeria (pribilegioa)</p> <p>Baliabide naturalak lehengai modura (pribilegioa)</p> <p>Giza mugikortasuna (pribilegioa)</p> <p>Erbesteratzea, migrazio behartua (zapalkuntza)</p>
<p><b>Heteropatriarkatua</b></p> <p>Kosmetikaren eta sexuaren industria (pribilegioa)</p> <p>Norma, ezagutza, desirak zehazten ditu (pribilegioa)</p> <p>Janzkera (zapalkuntza)</p> <p>Heteronormatibitatea (zapalkuntza)</p> <p>Kanonak, rolak (zapalkuntza)</p>	<p><b>Heteropatriarkatua</b></p> <p>Gizonen botere publikoa (pribilegioa)</p> <p>Kale propioa (pribilegioa)</p> <p>Emakumeentzako espazio publikoak (zapalkuntza)</p> <p>Emakumeak kalera ateratzea (zapalkuntza)</p> <p>Borrokako espazio publikoa (zapalkuntza)</p>
<p><b>Kolonialismoa</b></p> <p>Norberaren eta besteen gorputzaz eta baliabideez gozatzea (pribilegioa)</p> <p>Zaintzaileak, emakume migratuak (zapalkuntza)</p> <p>Esklabotza (zapalkuntza)</p>	<p><b>Kolonialismoa</b></p> <p>Energia-kontsumo mugagabea (pribilegioa)</p> <p>Estraktibismoa, lurralde arpilatuak (zapalkuntza)</p>

## 2. taldea

<p><b>Kapitalismoa</b></p> <p>Beharrezkoa da pribilegioak eta ondoezak identifikatzea. "Maila" zein den jakitea, heziketa-prozesua ez blokeatzeko.</p> <p>Hezkuntza formala prestakuntza teknikoan zentratuta dago, lan-merkatura bideratua. Merkatuak eta bere balioek eragina dute Unibertsitatean. Baina beharrezkoa da bizitzan ardaztutako ezagutzak sortzea.</p> <p>Erreferentzia nagusietako bat modernitate teknologikoa da, baina behar da teknologia pertsonen, komunitatearen zerbitzura egotea, eta ez pertsonak teknologiaren zerbitzura.</p>
<p><b>Kolonialismoa/Arrazakeria</b></p> <p>Gorputzen dugun eta gure jardunbide "emantzipatzaileak" bustitzen dituen arrazakeriaz ohartu, eta geure gain hartu.</p> <p>Kultura-errealitate gutxituak (zapalkuntza). Heziketa lurralde kolonial batean eramaten da aurrera, inperioaren ikuspuntua du. Lurraldeen ikuspuntua kontuan hartuta, beharrezkoa da errealitatearekiko kontaktua sendotzea, "lurrean egotea".</p> <p>Modernitateari, aurrerapenari eta globalizazioari erronka egingo dieten eskubideen erreibindikazioa.</p>

### Heteropatriarkatua

Gorputz hegemonikoki hezigarria gizon zisgeneroa dugu. Zuria eta europarra da erreferentzia.

Erreferenteak falta dira (gizonak informatikako, ingeniartzako arloetan espezializatzen dira, eta emakumeak, berriz, zainketarekin lotutako guztian).

Giza kontaktua sendotu normatiboak ez diren gorputzekin.

Hezkuntza-sistemak gorputz-esperientziatik deskonektatzen gaitu. Gorputzaren errealitatearekiko konexioa sendotu beharra, baita lurraldearekiko konexio materiala ere.

## 3. taldea

Gorputz hegemonikoa eskura dauden iruditerien bidez ikasten da. Estereotipoz inguratuta gaude, etengabeak eta inkontzienteak, eta harreman moduak baldintzatzen dituzte.

Eguneroko bizitzan nola bizi dugun geure burua, norekin goazen eskutik helduta... Horrek erantzun bat eragiten du besteengan. Baina egunero ezin dugu mantendu erresistentzia-estrategia hori.

Komunikabideek eta "ahoz ahokoak" erreferente eta gorputz hegemoniko horiek berregiten dituzte.

Familia ere oso toki garrantzitsua da, non diziplina eta zigorrak ezartzen diren. Sareak, berriz, erresistentzia-eremuak dira.



Gorputza diskurtsoa ere bada; etengabe hitz egiten digu.


Beste lurralde batzuetara aldatzen garenean, gorputzak beste pribilegio/zapalkuntza batzuk esan nahi eta irudika ditzake.

## Laburpena. Talde guztietan agertu diren ideiak

Bizi garen garapen-eredu kapitalista, heteropatriarkal, kolonialista eta antropozentrista heziketa-prozesuetan ere sartuta dago. Gorputz eta lurralde hegemonikoa sistemaren arauen eta naturalizazioaren bitartez ikasten dugu. Logika binarioetan oinarrituta bizi ditugu gorputz sexuatuak, eta logika horietatik beretatik abiatuta ikasten dugu lurraldearen berri (Iparra/Hegoa; hiria/landa). Orobat bizi ditugu gorputzak lurralde zehatzetan eta hitz egiten dugu gorputz kokatuz. Hala eta guztiz ere, gorputz eta lurralde horiek aurre egiten duten eta amestutako bide bati forma ematen dioten identitateak sor ditzakete. Beldur diren eta zapalkuntza eta indarkeria pairatzen duten gorputz horien aurrean, heziketa-prozesu eraldatzaileei esker, erresistentzia eta disidentzietan aurrera egin ahal da. Gorputz sozial eta komunitarioa erreibindikatzeko beharra, interdependentek eta ekodependentek baikara.

Dinamizatzaileak pribilegio eta zapalkuntzei buruzko grafiko hauek erakutsi ditu:





Iturria: How privileged are you?, 2010.


## Bigarren unea Gogoeta egin, eraiki



**Landu beharreko edukia:** egoera-diagnostiko bat egin; Gorputz eta lurraldeen inguruan gaur egun dugun hezkuntza-eredua problematizatzea.



**Metodologia:** “Arrain-hezurra”. Talde bakoitzean problematizazioa lantzen dugu, kausa/ondorioa analizatuta. Gero, jendea taldez aldatu da, beste talde horretan “arrain-hezurra” nola landu den jakiteko, hau da, “Arrain-hezurra” egiten parte hartu duen eta taldean geratu den pertsona baten eskutik jakingo dute.



### 1. taldea

#### Ondorioa (Arazoa)

Indarkeriak, beldurrak eta ondoezak gorputz ez-normatiboetan.

- 1. kausa: Edertasun modu eta eredu hegemonikoak
- 2. kausa: Genero-adierazpen, desira eta sexu-orientazio egonkorak eta heteronormatiboak.
- 3. kausa: Kolonialitatea, arrazionalizazioa.
- 4. kausa: Klasismoa.
- 5. kausa: Landatartasuna eta periferia
- 6. kausa: Hizkuntzak, hizketa hegemonikoak, ahozko adierazpena, doinuak.
- 7. kausa: Binarismoetan, heteronormatibitatean oinarritutako hezkuntza.
- 8. kausa: Kultura indibidualista.

\* Kausetan gizartearen epaiek eta norberaren buruarekikoek ere eragina dute.

## 2. taldea

### Ondorioa (Arazoa)

Arrazakeria identitate-zeinuen inguruan (nola epaitzen diren besteen identitate-zeinuak).

- 1. kausa:** Harremana dugun pertsona laguna edo etsaia den identifikatzeko beharra.
- 2. kausa:** Estereotipoak, identitate-zeinuen inguruko aurreiritziak (komunikabideen, filmen, publizitatearen eta halakoen isla).
- 3. kausa:** Benetako dibertsitatea, identitate-keinu libre modura, ez dago baimenduta. Bereziki LGTBI kolektiboek eta arrazalizatuek pairatzen dute. Dibertsitate kognitiborik ere ez dago.
- 4. kausa:** Oso ezaugarri eta kalifikazio sinplistik esleitzen zaizkie identitate-adierazpenei.
- 5. kausa:** Eskoletako integrazio-planek harrera-lurraldeko kultura-tresnak barneratzea baino ez dute kontuan hartzen. Harrera-lurraldeko kultura baino ez da kontuan hartzen, eta beste partearena ahaztu egiten da. Folklorismoa nagusitzen da. Kultura-asimilazioa vs bizikidetzeta.
- 6. kausa:** Kolektibo batzuen eskola-segregazioa.

## 3. taldea

### Ondorioa (Arazoa)

Lurraldearen deskonexioa.

- 1. kausa:** Kultura indibidualista. Galdu egiten dira ehun asoziatiboa eta kidesun-sentimendua.
- 2. kausa:** Bizitzaren merkantilizazioa. Espazio publikoen merkantilizazioa. Ondasunen eta zerbitzuen merkantilizazioa. Denona denaren instituzionalizazioa (bilerak egiteko baimena eskatu beharra...).
- 3. kausa:** Tokien pribatizazioa eta usurpazioa, batez ere ekonomia kapitalistaren probetxurako (turismoa...).
- 4. kausa:** Hezkuntza-sistemaren homogeneizazioa. Hala, badira baloratuak diren lurraldeak eta beste batzuk balioa kentzen zaiena. Gauza bera gertatzen da hizkuntza eta hizkerekin, batzuk baloratu egiten dira, eta beste batzuk, baztertu.



## 4. taldea

### Ondorioa (Arazoa)

Hezkuntza-sisteman sistema matxista, koloniala eta arrazista erreproduzitzen da (bai arlo formalean, bai ez-formalean).


1. **kausa:** Curriculumeam erreferente femeninoak, arrazalizuak, Hegoaldekoak... falta dira. Ahots disidenteak falta dira.
2. **kausa:** Akademikoak eta eurozentrikoak ez diren ezagutza eta balioen gutxiespena, "akademiko" eta Mendebaldekoen aldean.
3. **kausa:** Hezkuntza-eredua, merkatu-ekoizpena eta otzantasunera bideratua.
4. **kausa:** Gabeziak eduki motetan, haur-hezkuntzatik bertatik.
5. **kausa:** Komunikabideek zabaldu egiten dituzte emakumeak, migranteak eta pertsona arrazalizuak, besteak beste, hautemateko ditugun zenbait modu zehatz.
6. **kausa:** Ezagutzaren akreditazio eta gaikuntza modu jakin bat hezkuntza-sisteman.
7. **kausa:** Joera indibidualistak.

### Laburpena. Talde guztietan agertu diren ideiak

Heziketa-prozesuetan gorputz eta lurraldeekin lotuta egoten diren zenbait arazo identifika daitezke: lurraldeekiko deskonexioa; identitate-zeinuen inguruko arrazakeria; in-darkeria, beldur eta ondoezak gorputz ez-normatiboetan... Arazo horiek guztiak, sistema kapitalista, heteropatriarkal eta kolonialista erreproduzioaren ondorio.




**Metodologia:** "Loto-lorea". Taldeetan lortutako emaitzekin, loto-lore bat osatu dugu, erdian jarrita detektatu diren arazo nagusiak, eta alboetan, arazo horiek sortzen dituzten faktoreak. Egokitzen joz gero, zenbait kausa bateratu daitezke.




Taldeka bateratzen dira.


### 1. taldea.




### 2. taldea.



### 3. taldea.



### 4. taldea.



## Hirugarren unea Eztabaidatu, proposamenak egin

Ana Tijoux rap-kantari feministaren Somos Sur kanta entzunez ekiten diogu saioari:



Une honetan dinamizatzailerak hasierako aurkezpenean planteatu duen helmugara iritsiko gara. Norantz egin nahi dugu? Nola eraman gure hezkuntza-jarduera bide eraldatzaileago eta kritikoago batera, ezagutza aipagarria ekoizteko balioko duena?

Nola alda ditzakegu pentsamendua egituratzen duten itxiturak? Nola eraiki daitezke (eta eraikitzen dira) alternatibak hezkuntza kritikoan oinarrituta? Gizarte-mugimenduek beren borroka historiko, gorputz, lurralde eta bestelakoetan oinarritutako ezagutza sortzen dute, zeinak talka egiten duen nagusi den hezkuntza-proiektuaren arrazionalizazio modernoarekin. Nola batu ditzakegu indarrak estrategia hori erreibindikatzeko?



**Landuko den edukia:** landu heziketako 4 estrategia, non gorputzen eta lurraldeen dibertsitatea bilduko den.



**Metodologia:** “Scamper”-a. Aurreko saioan (loto-lorea) identifikatutako arazoen diagnostikoan oinarrituta, lau lan-talde osatu dira, dinamika honen bidez lantzeko heziketa-estrategiak. Scamper-ak lur hartzeko balio behar du, baina hertsatu gabe.

- S** **ubstitute (ordeztu):** tokiak, gauzak, pertsonak, orduak, funtzioak...
- C** **ombine (konbinatu):** gaiak, funtzioak, emozioak, kontzeptuak, ideiak...
- A** **dapt (egokitu):** ideiak, beste toki batzuk, beste denbora batzuk, erabilerak...
- M** **odify (aldatu):** erantsi kontzeptu, ideia, edo produkturen bat edota beste zerbait...
- P** **ropose (proposatu):** beste erabilera batzuetarako, aukerak bilatu...
- E** **liminate (kendu):** kontzeptuak, erabilerak, funtzioak, zatiak, teknologia...
- R** **earrange (birmoldatu):** elementuak alderantzikatu, kontrakoa egin...

## 1. taldea

**Heziketa-proposamena:** Gorputzen autodeterminazioa. Gorputz libreak, seguruak, ongizatean kokatuak

Erreferente desberdinak bildu (kolektibo, sexu, genero eta bestelakoei dagokienez) hezkuntza-eremuetan.

Ikuspegi psikosoziala bildu heziketa-prozesuetan, gorputzekin eta lurraldeekin harreman osasungarriak sendotzeko.

Eremu seguruak bildu, edo, hasteko, seguruak ez diren eremuen kontzientzia hartu interseksionalitatean oinarrituta.

Gogoeta egin testuinguruaren arabera aldatzen diren zapalkuntzei buruz. Gogoeta egin gure pribilegioei buruz, arduraren ikuspuntutik, eta ez kulparenetik.

Gogoeta egin indarkerien egiturazko kausei buruz.

Denak parte hartzera animatu, lurralde guztietan.

## 2. taldea

**Heziketa-proposamena:** Identitate-aniztasuna bizikidetzan

Deuseztatu estereotipoak eta aurreiritziak beste erreferente batzuk gehituta, edukiak egokituta eta kontakizunak aldatuta.

Beste arau batzuk proposatu publizitateari buruz (estereotipoak, aurreiritziak deuseztatu).

Eskola-curriculumala aldatu, aniztasuna eta kulturak sustatzeko. Benetako bizikidetzaz ezarri.

Irakasleen artean aniztasuna bultzatu, pedagogia sistemikoa sustatzeko gai izango dena, ikasleek beste erreferente batzuk izan ditzaten.

Haur parte-hartzaile, protagonista, askatzaile eta sortzaileak sustatu.

Haurren sozializazio-tokiak haien ikuspegiaren arabera aldatu (helduzentrisismoaren ordeztu).

Ikastegi pribatuak eta itunpekoak kendu, eta publikoak sendotu.

Hiri-berrantolaketa, auzo guztiak barneratzaileagoak izan daitezten.

Etxebizitza duinaren eskubidea benetan ezarri, lurralde guztietan eta denentzat.

### 3. taldea

**Heziketa-proposamena:** Parte hartzeko heziketa-jarduerak sustatu, lurraldearekiko konexioa lortzeko (Bitzita elkarrekin bizitzeko hezi)

Parte-hartze soziopolitiko. Gizarte-eraldaketarako tresnak emango dituen hezkuntza.

Erabakiak hartzeko eta antolatzeko beste modu batzuetan hezi. Zainketetan oinarritutako antolaketa-kultura sustatu.

Subjektuari zuzendutako heziketa-eduki partaidetzazkoak bildu. Curriculum akademikoa egunerokotasunarekin lotu.

Heziketa-eragile pluralak bildu. Eztabaidatu hezkuntzako edukiak nork proposatzen dituen, nor dagoen "legitimatuta" ezagutza partekatze... Eragile horien hautaketa ez dadila izan puntuala proiektuen bitartez.

Boterea deszentralizatu, dibertsitateak integratzeko.

Eremu publikoen erabilera desinstituzionalizatu (publikoa denaren eskuragarritasuna, parte hartzea eta eraldaketa).

Inguruko errealitatea ezagutu eta haren kontzientzia hartu, eta komunitate modura harekin zer harreman daukagun aztertu (interdependentzia eta ekodependentzia). Mapaketa edo kartografia komunitario eta feministak, beste metodologia batzuen artean, lagungarriak dira lurraldearekin konektatzeko.

### 4. taldea

**Heziketa-proposamena:** Hezkuntza-proiektu komuna, lurraldea kontuan hartuta. Hezkuntza-ikuspegia eremu formaletan, baina baita ez-formaletan ere

BPGaren % 7 inbertitu hezkuntzan (Unesco).

Hezkuntza-komunitatearen beste kontzeptualizazio bat. Eskola/auzoa lotura, hezkuntza-komunitatea sortzen duten eragileekin. Armiarma-sarea osatu eskola eta komunitatearen artean.

Elkarrizketa gehiago administrazio publikoarekin; autonomia handiagoa erabakiak hartzeko. Elkarrizketa, lurralde-politikan eragiteko.

Eskolaren eta tokien antolaketa aldatu. Eskolako arkitektura.

Lurraldearekiko atxikimendua duten irakasle-taldeak egonkortu ikastegietan.

Ibilbide pedagogiko berriak izango dituen prestakuntza irakasleentzat (boterearen logikak eta egiturak ulertuko dituztena, horietan eragina izateko).

Ikasleen rola berraztertu (eragile pasibo izan ordez, subjektu protagonista izan).

Heziketa afektibo-sexuala bildu, heziketa-prozesuaren eta garapen pertsonalaren parte modura. Curriculumean sartu, gai diren profesionalen bitartez.

Planteamendu homogeneizatzaileak hautsi.

Dinamizatzaileak honako ideia hauekin amaitu du saioa; ideia horiek taldeen eztabaidetan eta aurkezpenetan agertu dira.

- Garrantzitsua da hezkuntza ekintza politikotzat jotzea.
- Garrantzitsua da bazterketa- eta botere-sistemak atzematea heziketa-prozesuetan.
- Garrantzitsua da hezkuntza kontestualizatua, lurraldeari atxikia.
- Zer ulertzen dugu hezkuntza-komunitate diogunean? (Heziketa-jardueren eta gizarte-jardueren arteko lotura; eragile zenbaiten inplikazioa, hala nola auzoa, komunitatea, gizarte-taldeak).
- Hezkuntza-sistamarako behar besteko aurrekontua exijitu.
- Heziketa-prozesuetan dibertsitatea erantsi, elementu estrategiko modura: irakasle- eta ikasle-dibertsitatea, heziketa-erreferenteen dibertsitatea...
- Garrantzitsua da gizarte mugimenduak gizarte-eragile hezitzaile modura ikustea. Hitzarmenak hezkuntza-eragileen eta gizarte-eragileen artean.
- Interdependentziaren eta ekodependentziaren ideiek zeharkatuta egotea hezkuntza, gorputzak eta lurraldeak.





## 1.2 Sorkuntza Kolektiboko Taldea



**Dinamizatzailea:** Estrella Ramil Paz<sup>1</sup>

**Kontalaria:** Inmaculada Cabello Ruiz<sup>2</sup>

**Laguntzailea:** Cristina Castro Robles<sup>3</sup>

### Lehen unea

🕒 **Helburua:** Gorputzak eta lurraldeak gaian barneratzea bizipen-ariketetan oinarrituta, zeinek zapalkuntza-sistemen elkarketak (kapitalista, heteropatriarkala eta koloniala/arrazista) gure gorputz eta bizi-eremuetan dituen eraginekin konektatuko gaituzten (gorputzaren, emozioen eta adimenaren esperientziaren bidez), eta horri aurre egiteko aukera ekintza kolektiboen bidez.

⚙️ **Landuko diren edukiak:** zapalkuntza-sistemak, gorputzetan eta lurraldeetan duten eragina (indarkeriak, indibidualismoa, lotura falta, osasun-arazoak, prekarietatea...). Gogoeta egin honi buruz: “norbaiten gaineko boterea” eta “botere kolektiboa”.

### Aurkezpena

“Estrella deitzen naiz, Lugoko herrixka batetik nator, eta urduri nago, eskuek eta ahotsak dar-dar egiten didate. Ia bi urteko itxialdiaren ondoren, hunkituta nago une eta topaketa hau dela-eta”.

Horrela hasi da Sorkuntza Kolektiboko Talde (SKT) honen dinamizazioa. Halaber, beren burua modu horretan aurkezteko eskatu zaie taldeko logistika-arduradun Cristina Castrori, genero-behatzaile Iratxe Amiano eta Sheida Besozziri eta Inma Cabello kontalariari. Dinamizatzaileak parte-hartzaileei eskatu die bospasei lagunengandik inguruan biltzeko, eta beren izena eta nondik datozen adierazteko, baita nola sentitzen diren, eta ohar daitezela emozio hori, sentipen hori nola eta non ageri den beren gorputzean, eta adieraz dezatela.

1 Generoari eta Garapenari buruzko aholkularia.

2 Mujeres en Zona de Conflicto GGKEa.

3 Globalizazioa eta Garapena masterra, Hegoa.

SKT honetarako edukien proposamena aurkeztu, eta, eraikuntza kolektibo baten mesedetan, edozein unetan iradokizunak eta ekarpenak egin daitezkeela adieraziko da. Parte-hartzaileak talde txikietan bildu, eta beren burua aurkeztuko diote taldeari.

*Gorputzak eta lurraldeak* kontzeptuen elementu batzuk planteatu dira. Marta Pascualek adierazitako ideietako batzuk ekarri ditu hizpidera dinamizatzailerak: «Izugarri gustatzen zaigu gorputzari buruz hitz egitea arrazionalizazioan oinarrituta; SKTan gure gorputzak kongresuko lerro estrategikoekin hizketan jarri nahi ditugu. Kapitalismoaren eta neoliberalismoaren arteko uztarketa da gure oinarria, patriarkatuarekin eta kolonialismoarekin batera. Gure gorputzetan eta lurraldeetan sartzen da». Dinamizatzailerak diapositiben laguntza du.

Parte-hartzaile bakoitzari *post-it bat* ematen zaio. Bakoitzak bere aldetik, parte-hartzaileek beren espektatibak idatziko dituzte; gero, taldean aurkeztu, eta antzekoak direnak bateratu. Sala izango da gure espazio sinbolikoa. Musika entzuten da: “Madre tierra”, Chambaorena.

Bakoitza bere izenarekin eta gorputzarekin aurkeztuko da taldearen aurrean. Formatu asanblearioan, talde bakoitzeko ordezkariak beren espektatibak aurkezten dituzte, garrantzi handienekotik txikieneraino..

Espektatibak:

Talde bakoitzak bere espektatibak antolatuko ditu antzekotasunen arabera. Panel batean jaso dira.

- Prestakuntza handiagoa dutenengandik ikastea, eraldaketarako jendea ezagutzea eta tresnen berri jasotzea.
- Ikastea, entzutea, sentitzeko beste modu batzuk ezagutzea. Begirada berriak eskuratzea.
- Garapen pertsonala eta profesionala.
- Gaiari buruz gehiago zehaztea. Ideiak eta kontzeptuak ekintzara eramatea.
- Begirada berri bat, nire hondar-alea jartzea hezteko modua aldatzeko.
- Gure testuinguruan “gorputza eta lurraldea” lotura zer izan daitekeen ulertzea. Nola eratu lotura hori.
- Nire “gorputzarekin-lurraldearekin” berriz konektatu. Kontzientzia propioaren eta kolektiboaren arteko lotura berreskuratzea.
- Ilusioa eta motibazioa.
- Nire gorputzaren eta lurraldearen arteko lotura, modu praktikoan. Zein den bien arteko lotura gutako bakoitzarentzat.

- Erdigunean “gorputza-lurraldea” ikuspegia duten estrategiak ikastea, gero aplikatu ahal izateko. Beste ikuspuntu, pertsona eta bizipen ezagutzea. Neure buruan eta taldean konfiantza izatea, neure burua irekitzea, berraztertzea.
- Elkar elikatzea, neure burua ezagutzea eta berriro konektatzea. Esperientzia, zalantzak eta ezagutzak partekatzea.
- Elkarrizketaren bidez ikastea, gorputzari bere bidea egiten uztea.
- Etengabeko konpromiso bat erreibindikatzeko.
- Burutik jaitea, gorputza mugitzea.
- Lur hartzea, kontzeptuak eta pentsamenduak sinplifikatzea ikaste-irakaste proposamen praktikoetan, “gorputzetan-lurraldeetan” oinarrituta.

Taldeari galdetzen zaio zer ideia funtsezko partekatu nahi duen Gorputzak eta lurraldeak lerro estrategiko honen kontzeptuen inguruan, zer sentiarazten eta pentsarazten dien. Parte-hartzaileek hartuko dute hitza. Hona hemen ekarpen nagusiak:

- Gogoeta egitea gorputz kolektiboaren eta lurraldearen kontzeptuari buruz modu erlazional batean, harremanak eratzen diren eremu modura.
- Lurralde horiek nola zaindu behar ditugun gorputzak bertan egon ahal daitezen.
- Munduko beste eskualde batzuetan lotura askoz presenteago dago; hemen, ahaztu egin dugu. Ez al gara kontzeptu horietaz jabetzen ari? Erne egon beharra dago ikuspegi horietaz ez jabetzeko eta, hala, zilegitasuna ez kentzeko eta despolitizatzeke.
- Beste mintzaira batzuetan ez dauden kontzeptuak definitzen dituzten hitzek gordetzen duten jakinduriaz *sentipentsatu*. Antzinako hitzak, hemen galduta dagoen jakintza-karga handikoak.
- Gorputza, zerbait ederra ez den ikuspuntutik begiratuta, non eremuen, sabelen inbasioen arazoak sortzen diren, indarkerien arazoak. Lurraldeetan ukitu eta ikusi egin daiteke diruzalekeria, bekaizkeria, gizakiak duen txarrena.
- Barrukoaren eta kanpokoaren arteko continuuma adierazten du; larruazala, airea, janaria, gorputzetan zehar igarotzen dira, eta gorputzak pribilegioz aldatuz joaten dira lurralde bakoitzean. Non daude gorputz horiek, eta non mugitzen dira? Emakume migratuen gorputzen neskametzat. Kontuan hartuta non zauden, gorputz kolonizatu bat izango da edo ez. Gorputza sozialki kokatu. Esanahi eta arketipo desberdinak.
- Gorputzak ikusezin egitea espazio publikoan; ikusten ez diren gorputzak baina hor daudenak.
- Eratzen gaituen tokia ez da berdina emakumeentzat, gizonentzat edota ez-binarioentzat. Patriarkatuaren eta neoliberalismoaren arteko aliantzak

erabakitzen du zer gorputzek izan behar duten maitatuak, desiratuak eta pribilegiatuak.

- Indarkeria sotilak, gorputz hegemonikoak ez direnak, eskertu egin behar dugu maitatzen bagaituzte, indarkeria sinbolikoa eta zuzena eta basatia.

Dinamizatzailleak gure gorputzekin, gure zapalkuntzekin eta baita gure pribilegioekin lan egitea proposatu du. Taldekideei eskatu die aske uzteko beren burua, gorputzari adierazten uzteko. Nola gauden “ukitzera” iritsi behar dugu, lagunduko diguten elementuak eratzeko. Gorputzaren eta lurraldearen arteko lotura sentitu behar da, eta sentitu, halaber, agindu hegemonikoek nola zeharkatzen gaituzten.

Parte-hartzaileei esan die kontuan hartzeko ariketa honetan gorputza lurra dugula, eta adimena, basoa. Taldea salan zehar mugituko da, eta musika mota desberdinak entzungo dira. Esperimentatzera animatuko dira. Saioko lanaren edukia modu indibidualean bizitzeko eskatzen zaie.

Musika entzuten da. Dinamizatzailleak musika-saio bat du prestatua, eta irakurketa honekin laguntzen du:

“Geure buruan zentratuta, arnasa sakon hartuz eta arduratzen gaituzten pentsamenduak kanpora ateratzen utziz, gorputza gehiago sentituko dugu, arreta buru-barrenetik atera, eta hementxe jarriko gara, toki honetan, lurralde honetan. Geure buruarekin gaude, gorputza nola daukagun sentitzen dugu. Oinak nola jarrita dauzkagun ohartzen gara, orpoak edo behatzak ongi bermatuta dauzkagun. Gorputza eta zangoak nola kulunkatzen ditugun sentitzen dugu; uzkia nola dugun: tenkatuta, lasai; sorbaldak, masailezurra... Gorputzeko zer atal daukat presenteago, zer parte sentitzen ditut gutxiago? Belaunak, sabela, bihotza, sexua?”

“Nola bizi dut nire gorputza? Zein parte irendu eta erreprimitu ditu patriarkatuak? Emakumea banaiz, toki gehiegi hartzen dut?, hankak itxi behar ditut? Gizona banaiz, nire gorputzeko zein atal dira inportanteak?, zenbateraino izan behar dut indartsua? Ez gizon ez emakume sentitzen ez banaiz, zer erreferentzia erabili behar dut onartua izateko? Afroa banaiz, inguratzen nautenek nire ileari nola begiratzen diotela sentitzen dut? Patriarkatuak nola modelatu du nire gorputza?”

Musikak erritmo biziagoa hartzen du. Taldea oraindik kontzentratuta dago, salan zehar mugituz. Dinamizatzailleak honako egoera hauek antzezteko eskatzen du:

“Salan zehar takoiekin nola ibiliko ginatekeen antzeztuko dugu, oin-puntetan. Gizona banaiz, nola antzeztuko dut hala naizela? Emakumeok aldakak kulunkatu behar ditugu? Azkar mugitu behar dugu? Nola eraman behar dut ilea? Nola joan behar dut jantzita?”

“Begietara begiratuko diogu elkarri. Begiradari eutsiko diogu. Beste gorputz horiei begiratzen diegu, onartuak eta desiratuak izateko modu zehatz batean eratzuz

joan direnak. Nor gara benetan? Gure indarguneei begiratuko diegu. Poliki-poliki norbaitengana hurbilduko naiz”.

Dinamizatzailleak bikoteka jartzeko eskatu die parte-hartzaileei. Halaber, bietako batek «sistemaren» rola hartzeko jarraibideak eman ditu. Pertsona hori bestea modelatuz joango da, iruditzen zaion bezala mugituz bestearen gorputza. Parte-hartzaileek boterean sentipentsatu behar dute, ikusten den horretan eta hain nabarmena ez den horretan. Botereak nola modelatzen gaituen eta guk nola jokutzen dugun. Rolak aldatzeko eskatzen zaie bikoteei.

Berriz ere salan zehar mugitzeko eskatu zaie: «Menderatzen gaituen sistema honetan pentsatuz ibiliko gara».


Musika bizia eta erritmo azkarrekoa da. «Besteei bultza egingo diegu geure buruari leku egiteko, dinamika hori nitaz jabetzen ari da eta besteen kontra erabiltzen dut. Berotu egiten gara. Sistema biozidek jo egiten gaituzte».

Musika azkarra isildu, eta musika lasaia hasten da. Parte-hartzaileei eskatzen zaie erlaxatzeko eta berriro besteei begiratzeko hasteko, zeharka, pixka bat gaineratik. «Nola sentitzen dugu besteei gaineratik begiratze hori? Errezeloz begiratuko diegu, keinua esajeratuz».

«Orain, burumakur ibiliko gara, eta besteek ere horrela begiratuko digute. Nola sentitzen gara burua makurtuta daukagula? Besteei ere burumakur begiratzeko diegu, gorputza nola daukagun ongi sentituz».

Dinamizatzailleak ohiko jarrerara bueltatzeko eskatu du, orain eta hemen, gu geu izatera.

Taldeari jartzeko eta apur batean deskantsatzeko eskatuko zaio.



Dinamizatzaileak gogoeta bat egin du, ondorengo dinamikaren sarrera modura: Hemen gauden gehienok XX. mendean jaio ginen eta XXI. mendera iritsi gara; gure gorputzak zenbait aginduren bidez modelatuz joan dira. XX. mendean gorputz baztertuak, erreprimituak, kulpaz beteak ziren, garapen-bidean zeuden... Garai postmoderno honetara iritsi gara, XXI. mendera: gure gorputzak ikusgarriago egin dira, gehiegizko esposiziopean daude, loditasuna borrokatzen dute, ez zaie zahartzen uzten, ez lo egiten ere, droga eta alkoholarekin intoxikatuak, haurtzaroan eskolatuak, uniformizatuak, gorputz martiritatuak emakumeek, baztertuak gizonek, dibertsitatea bazter utzitako gorputzak, goizean goiz jaikitzen diren gorputzak beste gorputz batzuk zaintzeko, etenik gabe lan egiten dutenak, garraio publikoan lokartzen direnak, umiliatuak, bortxatuak, zahartzaroan farmakoekin eutsiak, isilduak».

“Non kokatzen naiz ni? Nola iritsi naiz honaino? Kapitalismoak lekua egin du nigan, nire gorputza moldeatu du? Patriarkatuak zeharkatu du? Kolonialismoak nola jokutzen du nigan?”

Dinamika horren ondoren, parte-hartzaileei eskatu zaie bakoitzak bere aldetik orri batean idazteko nola sentitu diren, zerk zeharkatzen dien gorputza, non kokatu dituen. «Nola bizi nau sistema kolonialak, patriarkalak eta kapitalistak?».

Parte-hartzaileei 5 minutu eman zaie orri batean idazteko; amaitu dutenean, orria jarlekuan utzi, eta salan zehar mugitzeko eskatu die dinamizatzaileak.

Musika alaia entzuten da, eta dinamizatzailea honela ari da: “Gure gorputzaren indarra sentitzen dugu, irribarrea jartzen dugu gure ezpainetan. Beste gorputzekin interakzioan, elkarri begiratzen diogu, elkar ukitzen dugu, pauso sendoak eman ditzakegu, gure gorputzak eta eremuak bat egiten dute, lurra sentitzen dugu oinazpian. Beste gorputz batzuen bila segitzen dugu. Beste batekin elkartu, eta bikoteka mugitzen hasiko gara; beste bikote batekin elkartuko gara. Pertsona bakoitzak bere erritmoa du, baina elkarri lagun egiten goaz, beste gorputzei adi gaude”.


Musika aldatuz doa, gero eta alaiagoa eta erritmo handiagokoa. Dinamizatzaileak jarraibideak ematen segitzen du: “Gure erritmoa antolatzen dugu, beste laurekin elkartuko gara. Aliantza subertsiboak, kolektiboak indarra eman diezaguke. Gure gorputzak politikoak dira, eraldatzeko gaitasuna duten kolektiboak. Taldeak gauzak eraikitzeko elkartzen dira. Eroso sentitzen naiz beste baten erritmoarekin edo erritmoa nik neuk ezarriz. Nola dago orain nire gorputza? Beste gorputz batzuekin batera errazago erantzi ahal ditut kultura- aginduak? Gure gorputzak alda ditzakegu?”.


Azkenean, talde osoa batu da, besarkatuta. Bakoitzak bere buruari masajea ematera animatu ditu dinamizatzaileak. Jarraibideekin segitu du, ariketak irauten zuen bitartean: “Gure gorputzek mugak jar diezazkiekete nahi ez dituzten gauzei. Gure gibela ukitzen dugu; hortxe biltzen da sufrimendua. Gibela da bizi-organo handiena, espazioarekin zerikusia du, gure espazioa eta denbora

hartzeko beharrek. Giltzurrunak ferekatzen ditugu, oinarriko energiaren iturri, lurrarekin konektatuak, oinekin, nire taldeko kide naizen sentipenarekin. Zaintzen badituz, energia-baliabide gehiago dituz. Gure bihotza, enpatiaren eta afektibitatearen gorputz-atala”.

Dinamizatzailerak horrela itxi du SKTaren lehen unea. Bigarren saioari ekingo diotela jakinarazi die parte-hartzaileei, non gure “gorputz-lurraldeak” zapaltzen dituzten, baina baita pribilegio-eremuetan ere kokatzen gaituzten, sistemetan sakonduko dugun.

## Bigarren unea

 **Helburua:** goizean bizi izandako “mobilizazio” indibidualaren ondoren, zati honetan pentsamenduaren eraketa kolektiboa landuko dugu, ekarpen teoriko, azalpen eta esperientzien bitartez. Sistema neoliberal, arrazista, kolonial eta heteropatriarkalak gure bizitzan dituen eragin zapaltzaileak aztertzeaz gain, kontzientzia hartuko dugu pribilegioei buruz, eta horiek aldatzeko beharraz ere ohartuko gara.

 **Landuko diren edukiak:** Pentsamenduak eta gorputzak iraunarazten, erreproduzitzen eta naturalizatzen dituzten mekanismoak.

Bigarren saioari ekin zaio parte-hartzaileei beren bizipenak partekatzeko eskatuz:

- Gogoeta egin dut gure gorputzari ematen zaion tratuz. Txiki-txikitatik, belarriak zulatzen dizkigute. Frustrantea da ohartzea sistemak nola zapaltzen dituen gure gorputzak. Kalterik egiten ez duela ematen duen zerbait zure gorputza baldintzatzen hasten da.
- Ohartu gabe, zeure egiten dituzu sistemaren agindu sotilak, eta horiek zu moldeatuz joango dira.
- Nola desikasi ikasitakoa; ohartzen zara ikasitakoa ez datorrela ama lurretik, naturatik.
- Pribilegioez garraibideen erabileran ohar gaitzke. Hemen dauden gorputzak eta ez daudenak. Nor etor daiteke espazio hauetara?
- Zer gorputz ari dira janaria zerbitzatzen? Begirada hezi, bai gure gorputzari dagokionez, bai besteenari.
- Zein erraza den gorputzak pozik mugitzea, eta sistemak hori ere egituratu egin digu.
- Paisaia neoliberal, kolonial, kapitalista, patriarkaleko etsaitasuna. Gorputz hertsatuak. Emozioei eta harremanei gizatasuna kentzen die.

- Garrantzitsua da elkartasuna, errebeldia sustatzeko eta ezetz esateko. Elkartasunak nola zaintzen duen gorputza/taldea, borroka komunak.
- Erresistentzia kudeatzen jakin behar da. Kontzientzia kritiko sakona eduki beharra dago, botere-manipulazioak oso sotilak baitira eta ez baikara horietaz ohartzen.
- Prestatzaileak garen aldetik, erronka handia dugu aurrean. Hezkuntza askatzailea eta emantzipatzailea izan daiteke; beti egongo gara sistema baten barruan. Sistema horren botereak zeharkatu egiten gaitu, eta botere hori besteen kontra erabiltzen dugu.
- Berrinterpretatu egin behar da, gauzak aldatzeko. Zapaldua sentitzen naiz, patriarkatuaren gorputz bat zaintzen dudalako. Norberaren zauriak osatu, guk geuk indarkeria hori ez erabiltzeko beste gorputz batzuen kontra, zeinen gainetik gauden pribilegio-egoera batean.
- Mendebaldean, balio digun ezagutza zatikatu egiten dugu.

Poema baten irakurketa. Parte-hartzaile batek taldera ekarri duen liburu bateko poema bat irakurri nahi du.

#### Leizeak

Eskolan historia bat “saldu” zidaten neureganatu egin nuen.

Ilusioz, Europak egitera abiatu nintzen, “jatorria” ezagutzera.

Berehalakoan, tiro baten gisan, egia osoa agertu zitzaidan, eta eztarrian trabatu: odola, harrapaketa, bortxaketak, lapurretak... denak du erre usaina...

Ez naiz, ez bainaiz existitzen “bestetasuna” gorpuzten dut zintzurrian itotzen nauen korapilo bat dudala bizi naiz aspaldi igarotako denbora baten atzetik nabil.

Eutsi egiten diot, bide “berriei” ekiten diet egonlekuak eraikitzen ditut leize-sarreretan.

Katia Reimberg Castello Branco  
(Poesia dekoloniala “Nosotras, las otras” (Gu, besteak))  
Bidez Bidez, 2021).

Dinamizatzaileak taldeari eskatu dio hiru talde osatzeko, honako sistema hauen zapalkuntza eta pribilegioetan sakontzeko: koloniala, neoliberal eta kapitalista, eta patriarkala. Kontua da diagnostikatzea hezkuntzak nola sortzen dizkigun zapalkuntzak eta pribilegioak, eta zein den sistema horien jardunbide pedagogikoa. Talde bakoitzari folio bat eman zaio, galderekin, lana bideratzeko.

Talde bakoitzak lurrean jarri ditu txartelak, eta, ardatz bakoitzeko, pribilegioen eta zapalkuntzen zirkulu bat osatu da. Bateratze-lana.



## 1. taldea. Sistema neoliberal *biozida*

Nola bereizten dira gorputzak etxeko lanen, zainketa-lanen eta halakoen artean? Nola jartzen ditugu gure gorputzak lanaren zerbitzura, kontsumitzeko, benetakoak ez diren beharrak sortzeko? Zer gorputz mekantilizatzen dira desiratuak izateko? Gure lurraldeetako kutsadurak nola areagotzen du minbizia izateko arriskua? Elikagaien gainekoizpenak nola eragiten die gure gorputzei (bai ekoizten dutenei –maquilak–, bai kontsumitzen dutenei)?

### Zapalkuntzak

- Sistema estraktibistaren zapalkuntza, eta pertsonen ikusezintasuna.
- Gorputz ez-normatiboena / lan-eskakizunak.
- Mugarik gabeko kontsumoa, ardurarik gabea, “askatasunaren” inguruko diskurtsoak pedagogia modura.
- Gorputzaren eta adimenaren zapalkuntza sistema produktibista batean
- Erruduntasun barneratua.
- Ingurumenaren kutsadura.
- Boterea oso aldakorra da: sistema kapitalistak bereganatu egiten ditu gizarte-mugimenduak probetxu bila.

### Klase-pribilegioak

- Osasunekoak, oso lotuak lurraldeari.
- Klasekoak, erabakietan.
- Aisialdia, garraioidea aukeratzeko orduan.
- Zergak, zerga-ihesa fortuna handientzat.

## 2. taldea. Sistema heteropatriarkala

Gure gorputz eta sexualitatearen desjabetzea (gorputzak beste batzuentzat eta beste batzuen irizpideen arabera, bere gorputzaren jabe ez den emakumea, gorputz-izaki gisa). Genero-estereotipoak. Zahartzen uzten ez zaien gorputzak. Genero-binarismoa vs beste identitate batzuk.

### Genero-zapalkuntzak eta -pribilegioak

- Emakumeen gorputzaren instrumentalizazioa eta ikusezintasuna.
- Zainketa-lanen feminizazioa.
- Edertasun-kanonak.
- Patriarkatuaren legitimazioa, faktore askoren bitartez: lana, justizia.
- Bikoitza frogatu beharra.
- Tokietan gure presentzia justifikatu beharra.
- Emakume migratuen bizimodua prekarizatzen dute.
- Sistema hierarkikoa, botere-harremanak.

## 3. taldea. Sistema koloniala/arrazista

Gorputz eta ezagutza batzuek lehentasuna dute beste batzuen aldean. Zer ezagutzak balio dute gehien, zer jakinduria onartzen dira? Zer gorputzek egiten dituzte gaizkien ordaindutako lanak? Zein dira zapalduenak? Nola mugitzen gara onartzen ez gaituzten lurraldeetan?


### Zapalkuntzak


- Ezagutzaren hierarkia.
- Aurreiritziak.
- Nerabeek gaitasunik ez dutela pentsatzea.
- Ezin bidaiatu bisaturik gabe.
- Ikusezintasuna hirian.
- Ezagutzaren sorguneetara iristeko ahalmena.

### Pribilegio zuriak

- Entzuna izatea, larruazalaren kolorea.
- Mugikortasun askea.
- Bidaiatzea.

## Hirugarren unea

 **Helburua:** Zentzu kritiko eta eraldatzaileko 3 edo 4 heziketa-estrategia eratzea taldean. Halaber, funtsezko alderdi batzuk azpimarratzea, taldeak denen aurrera eraman nahi dituen indar-idea batzuk.

 **Landuko diren edukiak:** Hezkuntza kritikoan oinarrituta, erresistentzia eraldatzaileak eratzea. Nola gehitu indarrak gizarte-mugimenduetara hezkuntza eraldatzaile batean. Nola deskolonizatu arrazoia ezagutzaren jatorri bakar gisa, eta ikaste- eta desikaste-teknika berritzaileak sortzea.

Dinamizatzaileak hiru lantalde osatzea proposatu du, baina, taldeak hala erabakita, denek batera egingo dute ariketa. Parte-hartzaile batzuek berriro ere gorputza erabiltzea proposatu dute ariketa honetarako, baina denbora faltagatik baztertu egin da proposamena. Saio guztia biltzar formatuan egingo da, talde osoak parte hartuta.

Hona hemen parte-hartzaileen ekarpen nabarmenenak:

- Badira hezkuntza-metodologia eraldatzaileak (Montessori, Waldorf eskolak), baina, ekonomikoki, ez daude eskura edozeinentzat.
- Irakasleak eguneratu beharra, egitura pedagogikoak.
- “Gorputza-lurraldea” kontzeptuari heltzeko, hezkuntza-esparruen hesiak haustea da erronka handiena.
- Nola iritsi gara honaino: gatozen tokian oinarrituta ikasten dugu. Nola sustatu esperientzian oinarritutako ikaskuntza.
- Lurraldeak/ezagutzak berraztertu behar ditugu, kontuan hartuta zer gorputz dauden eta zein dauden ikusezin bihurturik, beharturik. Ikastegiek irekiak izan behar dute. Transgresioa, ikastegietako barneko eta kanpoko espazioei dagokienez. Elkarrizketa-zubiak eraiki beharra gure gorputzen zapalkuntzen eta lurraldeen kontrako indarkerien artean.
- Toki txikietako jakintzak, komunitatea subjektu modura, “boterea zerbaitetarako” “boterea zerbaitekin”.
- Norberaren bizipenean oinarrituta hitz egiteak fragmentazioa eragozten du; analisi kokatuan oinarrituta hitz egitea; botere “psikologikoa”; enpatiaren alde egiten dudana aukera.
- Neure burua ezagutu, ez kategoria binarioetatik abiatuta, baizik eta interseksionalitatetik/gizarte-kategorietatik, kategoria espitualetatik. Esperientzian oinarrituta lan egin, deseraikitzeke. Garen horren interseksioa birpolitizatu, pluraltasunetik abiatuta.
- Gorputzen unea; baditugu ezagutzak, bizipenak; gorputza erabili, eszenifikatu, egin.

- Gorputzek eta lurraldeek egon beharra daukate; hezkuntza eraldatzaileko plataforma bat sortu. Zer dagoen jakin. Politika publikoan eragina izateko bideratu. Adibidea: hezkuntza eraldatzaileko 4.7 mugimendua.
- Heziketa pertsonala eta kolektiboa zainketaz eta samurtasunez bete, botere-sistema kapitalista/patriarkalaren erresistentzien kontra.
- Etengabeko ikasketa; sareak eratu ingurunearekin/lurraldearekin; eskolaren eta inguruaren arteko kontinuuma; hezkuntza-eremua hedatu eta ozendu. Eskola deskolonizatu: hezkuntza-sisteman ez daude kolonialismoak behartutako gorputz guztiak (lagundu gabeko migrante adingabeak, neskatoak, migranteak...).
- Arreta jarri arrazakeriaren kontrako mugimenduen eskaeretan, jatorrizko herrietan, behinolako mugimendu feministen erreferenteak.
- Migrantearen errepresentazioa/narratiba deskolonizatu. “Hemen hemengoentzat” dioten boterearen ikuspegia da garapena. Hezkuntza desberdintasun handiaren aldekoa da (pro abismal), boterearen oso gertukoa.
- Historia elkarrizketa-prozesu bat da, beste toki eta lurraldeetatik egiten diren ekarpenetara ireki beharrekoa, berdintasunez, eta ekarpen horiek berreskuratu eta bildu behar dituen. Ezagutza-espazioak eraiki. Proposamena: zenbait tokitako literatura klasikoaren adibideak.
- Lurrarekiko konexioa haurtzarotik; haur-hezkuntzan, modu sistemikoan eta egituratuan. Eskola ez da ixten udan (Aurrekontua!!!)
- Sareak sortzea lurraldeetako ekimen eraldatzaileen (tokikoak, arbasoenak) eta heteronormatiboak, hegemonikoak ez diren gorputzen ikaskuntzen artean. Ezagutzen kartografia partekatua; gorputzak/komunitateak/lurraldeak, jarduera eraldatzaile onuragarri gisa.
- “Jakintzaren” zatiketak eta hierarkizazioak bazter uzten du gorputz zapalduen, baztertuen esperientzia. Estrategiak bilatu jakintza horiek biltzeko; «gure lurraldearen ahaztasuna, non dago?».
- Legeak (hezkuntza, immigrazioa, zergak) eta curriculum kolonial, patriarkal eta kapitalista legitimatzen dituzten botereen gaineko eragina landu.

SKTan landutako guztiaren eztabaida honako lau proposamen hauetan biltzea erabaki du taldeak:

## 1. Ezagutzak sortu, berreskuratu

Ikaskuntza, curriculum birlandatu. Lurraldeak/ezagutzak berraztertu, kontuan hartuta zer gorputz dauden eta zer gorputz egin dituzten ikusezin, zein behartu dituzten. Toki txikiak ezagutzak, komunitatea subjektu modura, “boterea zerbaitetarako”, “boterea zerbaitekin” “boterea norbaitekin batera”, sistema hegemonikoa sostengatzen duten indarkeria guztien aurrean. Jakintzaren zatiketak

eta hierarkizazioak bazter uzten ditu gorputz zapalduen, baztertuen esperientzia. Estrategiak bilatu jakintza horiek biltzeko; “gure lurraldearen ahozotasuna, non dago?”. Ezagutzen kartografia partekatua; gorputzak/komunitateak/lurraldeak, jardura eraldatzaile onuragarri gisa.

## 2. Eskola irekia eta sareak

Ikastegiek irekiak izan behar dute. Transgresioa, ikastegietako barneko eta kanpoko espazioei dagokienez. Elkarrizketa-zubiak eraiki beharra gure gorputzen zapalkuntzen eta lurraldeen kontrako indarkerien artean. Etengabeko ikasketa; sareak eratu ingurunearekin/lurraldearekin; eskolaren eta inguruaren arteko kontinuuma; hezkuntza-eremua hedatu eta ozendu.

## 3. Deskolonizatu/geure burua deskolonizatu

Eskola deskolonizatu: hezkuntza-sisteman ez daude kolonialismoak behartutako gorputz guztiak (lagundu gabeko migrante adingabeak, neskatoak, migranteak...). Arreta jarri arrazakeriaren kontrako mugimenduen eskaeretan, jatorrizko herrietan, behinolako mugimendu feministen erreferenteak.

Migrantearen errepresentazioa/narratiba deskolonizatu. “Hemen hemengoentzat” dioen boterearen ikuspegia da garapena. Hezkuntza desberdintasun handiaren aldekoa da (pro abismal), boterearen oso gertukoa.

## 4. Metodologiak: indarkeriarik eza, erresistentziak eta gatazken kudeaketa

Indarkeriarik ezaren metodo pedagogikoak erreibindikatu, ezagutzen arteko elkarrizketa. Indarkeria estruktural eta sinbolikoz gorputz hegemonikoa eta curriculum kolonial, patriarkal eta kapitalista legitimatzen dituzten botereen gaineko eragina landu (hezkuntzaren, immigrazioaren, zergen inguruko legeak).



## 2. Ildo Estrategikoa

# Komunitate-eraikuntza







## 2.1 Sorkuntza Kolektiboko Taldea



**Dinamizatzailea:** Beatriz Plaza Escrivà y Mikel Arévalo Lázaro<sup>1</sup>, Carlos Ernesto Cano Ispache eta Lucía Ixchíu Hernández<sup>2</sup>

**Kontalaria:** Izaskun Rodríguez Elkorro<sup>3</sup>

**Laguntzailea:** Alba Pastor García<sup>4</sup>

Komunitate-eraikuntza Ildo Estrategikoko Sorkuntza Kolektiboko Taldearen (SKT) hiru uneetan parte-hartzaileak “indibidualetik kolektibora igarotzea,, eraikuntza komunitarioari ekarpena egiteko” gaian zentratu ziren. Ildo estrategiko hori honako hauek dinamizatu zuten kongresuaren barruan: Beatriz Plaza Escrivak, Mikel Arévalo Lázarak, Carlos Ernesto Cano Ispachek eta Lucía Ixchíu Hernándezek. Hala, une bakoitzean kontzeptu teoriko bat landu zen, eta kontzeptu horrekin lotutako zenbait galdera planteatu ziren. Konbinazio horri esker, parte-hartzaileek, oinarri komun batetik abiatuta, modu kolektiboan eraiki ahal izan zuten galdera horiekiko hurbilketa bat.

Hala, bada, arian-arian, taldea bera -35 lagunek osatua, jatorri, prestakuntza, lanbide desberdinekoak- joan zen protagonismoa hartzen. Taldeak ekarpen teorikoak egin zituen, sentipen, pentsamendu eta gogoeta indibidualen errekonozimendutik abiatuta, zeinak, bateratze-lanaren ondoren, kolektiboak izatera pasatu ziren.

- 1 Euskadi-Bakea eta Elkartasuna.
- 2 Jaialdi Solidarioen Kolektiboa.
- 3 Hegoa.
- 4 Globalizazioa eta Garapena masterra, Hegoa.

Hona hemen SKTaren hiru uneen bilakaera:

## Lehen unea



**Kontzeptu teorikoa:** Indibidualizazioaren prozesua.



**Indar-galderak:**

- Gure bizitzako zein alderditan sentitzen dugu gaur egungo sistema hegemonikoak eragina duela, indibidualizazioari dagokionez?
- Posible al da indibidualizazio-prozesuari buelta ematea ikuspegi komunitario batetik?



**Helburua:** Modu kolektiboan zenbait gako aurkitzea eta adostea, eraikuntza komunitariorako balioko dutenak gizartean, politikan, hezkuntzan eta lan-arloan.

“Biltzar komunitarioa” dinamikarekin hasi da saioa. Salaren erdian espiral handi bat marraztuko dute, ordulariaren orratzen kontrako noranzkoan: ideia da “dena alderantzikatzea”, ikasitakoa desikasteko.

Espiralean, parte-hartzaile bakoitzak bere izena edo nola deitzea nahi duen eta nola sentitzen den jarriko du. Hala, parte-hartzaileek adierazitakoa kontuan hartuta, azpimarratu behar da taldea jakin-minez eta irrikaz dagoela; deseraikitze gogoz, berriz eraikitze gogoz, aliantzak sortzeko gogoz, gogoeta egiteko, ezagutzen artean elkarrizketa bat sortzeko, komunitatea eraikitze... Bada espazioa ekoikaskuntzarako “inspirazio laborategizat” duenik.

Lehen uneko erronka izango da berriz aurkitzea gure “ni indibiduala”, eta hortik “komunitarioa den horretara” hurbiltzea. Baita aztertzea ere zer interes izan dezakeen pertsonaren identitatea eta autonomia errespetatuko dituen, hau da, pertsona taldean lausoturik geratuko ez den eraikuntza kolektiboko prozesu batek. Horretarako, hiru alderdi hauen analisi bat egingo da: alderdi pertsonala, soziala eta sistema.

Deseraikuntza-ariketa bat proposatzen da, alderdi indibidualenarekin konektatzeko, alderdi horren behar, espektatiba, desira, ikasketa, jakinduria, identitate desberdinekin... Gero, hori dena taldeari jakinaraziko zaio, nahi izanez gero edo horretarako beharrik izanez gero. Gure gaitasunak erabiltzeko eskatzen zaigu, autonomia indartzeko, izaki indibidual modura.

Zeharkatzen gaituen sistema hau gure alderdi indibidualenarekin nola konektatzen den pentsatzeko eskatzen zaigu. Horretarako, Adam Curtisen *El siglo del individualismo* (The Century of the Self) dokumentala jarriko digute. Dokumentala ikusi ondoren, parte-hartzaileek, begiak itxi, eta zorion beteko une hori lortzeko gozatu beharko dituzten bost plazeretan pentsatuko dute (dastamena, usaimena, entzumena, ukimena eta zaporea). Gogoeta egin behar dute eguneroko plazer horietako zenbat betetzen dituzten eta zenbat dauden lotuta publizitatearen ondorio den produktu batekin. Ariketa honekin ohartu gaitzke kontsumogizarteak zenbateko eragina duen eta nola zeharkatzen duen gure pentsatzeko eta jokatzeko modua.

Bakoitzak bere gogoetak azaltzeko orduan, parte-hartzaile gehienek adierazi dute beldurra eta estutasuna eragiten diela beren plazerak kontrolatu ezinak, baita zenbait taldek masak kontrolatzeko eta gorrotozko diskurtsoak sortzeko duten botereak ere. Adierazi dute zein erraz “kontsumitzen” dituzten mezu jakin batzuk, bere eginik, alde aurretik gogoeta kritiko bat egin gabe. Honela adierazi dut batek: «Artaldeak bezala gara. Mantra bat errepikatzen digute, eta egia balitz bezala hartzen dugu, zalantzan jarri gabe, eta, horrela, guztiz mugatuta geratzen zaigu aldaketarako gaitasuna». Hau erantsi du beste batek: «Nola da posible masak gerrarako erraz konbentzitzea, baina ez bakerako?». Halaber, dudan jarri dute askatasun hitza; diote sistema kapitalista neoliberalak berak perbertitu egin duela.

Egoera horren aurrean, «itxaropen arduratsua» aipatu dute, eta horrek esan nahi duela kontzientzia hartzea datorkigun egoerari eta gertatzen ari denari buruz, baita geure barruari entzutea eta elkarrizketa ere, arestian aipatutako bost plazerak betetzeko pertsona indibidualok benetan zer behar dugun identifikatzeko. Halaber, azaldu dute identitate izatera heldu diren tradizioak egon arren badela itxaropena, horrek aldatu egin daitezkeelako.

Horren ondoren, “Sustrai” eta “Beste esanahi bat eman, eraldatzeko” dinamiken bidez, parte-hartzaile bakoitzak –banaka hasieran– indibidualizazio-prozesuak bere bizitzan zer eragin izan duen identifikatuko du, bai alderdi sozialean, politikoa, hezkuntza edo lanekoan, eta galdera honi erantzun dio: Gure bizitzako dimentsio komunitarioko zein alderditan du eragina oraingo sistema hegemonikoak? Gero, taldeetan, eragin horien eraldaketa landu, eta galdera honi erantzun bat ematea lortuko da: Posible al da indibidualizazio-prozesuari buelta ematea ikuspegi komunitario batetik?

Talde-lan hori denen aurrean azaltzeko orduan, azpimarratu dute interesgarria dela indibidualtasunetik eta partikularitasunetik abiatuta kolektiboa den horretan lan egitea, zenbait potentzialtasun eratuz eta prozesuaren eraginari beste esanahi bat emanez. Azaldu dute, halaber, garrantzitsua dela pentsatzea aurkitutako arazoak nola bihur ditzakegun aukera bat komunitarioa den horretarako.

## Bigarren unea



**Kontzeptu teorikoa:** Komunitarismoa.



**Indar-galderak:**

- Zer da guretzat jarduera/ekintza/eraikuntza komunitarioa?
- Zer eremu komunitario identifikatzen ditugu gure ingurunean?



**Helburua:** Oinarri kontzeptualak ezartzea, bide emango digutenak modu kolektiboan definitzeko zer den jarduera, ekintza eta eraikuntza komunitarioa, eta eremu komunitarioen proposamen bat lantzea.

Bigarren unea “Orain eta hemen” dinamikarekin hasi da. Bakoitzari kartulina zati bat ematen zaio, non bide baten zati bat marraztuta dagoen. Helburua da denen artean, modu kolektiboan, bidea osatzea, lurrean piezak jarrita. Parte-hartzaileek kartulina jarri arte ezin diete hura besteei erakutsi, eta ezin diote hitz egin elkarri.

Dinamika horren bidez, ikusi ahal izan zen komunikatzeko zenbat gaitasun ditugun (begirada, ukimena...) baina, batez ere, parte-hartzaileak ohartu ziren ez zutela elkarrekin adostu zer bide eraiki nahi zuten, ezta bideak norantz egitea nahi zuten ere. Beren kartulina jartzea eta amaierara heltzea zen denen lehentasuna.

Dinamikari esker, ohartu ginen askotan helburuarekin itsututa gaudela, prozesua bera kontuan hartu gabe, esaten diguten bidea ibili nahian, eta ez esaten ez diguten horretatik abiatuta. Dinamika honetan ohartzen gara galdu egiten direla beste komunikazio modu batzuk, bidea modu komunitarioan eraikitzen lagunduko zutenak. Aipatu da ez dugula pentsatzen ea hobea den interes komunitarioa iristea, edo nahikoa den bide bakar bat eraikitzea, edo bide bat baino gehiago eraiki daitekeen...

Ariketa honetan pertsona bakoitzak rol bat bereganatu zuen, eta, tartean, liderraren rola zegoen. Eta haren jarraibideak ez ziren eztabaidatu. Parte-hartzaileek azaldu zuten boterea baliatzen zuen lider horrekin gatazka edo egoera deserosoak sor zitezkeela, eta horiek konpontzeko garrantzitsua izango zela kontuan hartzea liderrak zein posiziotatik hitz egiten digun eta gainerakook zein posiziotatik entzuten diogun.

“Mila gau eta bat gehiago” izan zen ondorengo dinamika, eta kontzeptu hauek zehaztu ziren bertan: jarduera komunitarioa, ekintza komunitarioa eta eraikuntza komunitarioa. Taldeak osatu ziren lan egiteko. Parte-hartzaileei gogoratu zitzaizkien gelditu eta elkarri begiratu beharra dagoela, geure burua kolektibizatu behar dugula bizitzako hainbat eremutan eraldaketarantz jotzeko.

Hala, lanaren ondoren, azaldu zuten politika, kultura, gizarte, ekonomia eta hezkuntzaren alderdietatik ere ekarpenak egin daitezkeela eraldaketarako bide

horretan, horrek funtsean hau esan nahi duela: behartzen gaituen sistema hegemoniko bortitz bati amaiera ematea. Hona hemen zer ekarpen egin daitezkeen horietako alderdi bakoitzetik:

#### **Alderdi politikotik**

Metodoak aldatzeko aukerari buruz eztabaidatu zuen taldeak, eta kolektibotasunean indartuko gaituzten metodoak aukeratzeari buruz.

#### **Alderdi kulturaletik**

Kultura, sortzeko eta "ni kulturalaren" beharrak betetzeko pentsaera-aniztasun modura ulertzearen garrantzia azpimarratu zuten. Baita kultura-erreferente hegemonikoetatik aparte dauden beste batzuk sortzearen eta indartzearen garrantzia ere, gure ikuspegia zabalduko dutenak, eta, hala, kulturaren eremura proposamenen eta pertsonen aniztasuna biltzea.

#### **Alderdi sozialetik**

Sistemak gure gizarte-alderdian duen eraginak zerikusia du harremanak norekin eta nola izan behar ditugun. Sistemak gizabanako eredu bakar bat proposatzen digu, estatikoa, segurtasun falta eragiten diguna eta gure artean lehiatzera garamatzana.

Gainerakoekin harremanetan jartzeko barnera begiratzeak eta geure burua ezagutzeak duen garrantzia azpimarratu zuten.

Gizartean zorientasuna agertzen dugu, egoera iraunkor modura, eta hori sozialki eraikia da, ez da erreala. Horrek ez digu uzten beste emozio batzuk (tristura, antsietatea...) dituzten pertsonak aintzatesten eta onartzen.

#### **Alderdi ekonomikotik**

Eraldaketarako erantzun komunitarioa norberaren burua zaintzetik eta ezagutzetik abiatuta egin behar da. Alderdi ekonomikoa hobetzeko beste alderdiak ere hobetzea ezinbestekoa dela azpimarratu zuten.

Ezinbestekoa, halaber, ingurumenarekiko harremana lantzea.

#### **Hezkuntzaren alderditik**

Gaur egun hezkuntza frustrazioz eta hertsaduraz josia sentitzen da, binarismoan oinarritua... Ez da, azken batean, hezkuntza askatzaile modura sentitzen. Horren ordean, bost plazerak bilduko litzuzkeen hezkuntza bati heldu beharko litzaioke (dastamena, usaimena, entzumena, ukimena eta zaporea). Halaber, ezaugarri instituzionalegi hori alde batera utzi, eta irekiagoa izan beharko luke.

Hezkuntza-eremuak behar sozialak bete behar ditu, kapitalaren nahiak ahulduko dituzten aliantzak sortuta.

Bigarren une hau modu kolektiboan beste estrategiak batzuk eraikitzea posible delako ideiarekin amaitu zen, beste mundu eta errealitate batzuetara jotzeko aukera emango dutenak, antolaketa komunitarioari beste esanahi bat eman ahal izateko.

## Hirugarren unea



**Kontzeptu teorikoa:** Subjektu politikoa eta errebeldiarako hezkuntza komunitario baterako trantsizioa.



**Indar-galderak:**

- Gizarte- jakintza, zeinetatik gizarte-eraldaketarako hezkuntza planteatzen den, prozesu kolektibo bat da: bide hori norekin (subjektuak) eraikitzea interesatzen zaigu?
- Nola egin hezkuntza indibidualista eta otzan batetik errebeldiarako hezkuntza komunitario baterako trantsizioa?



**Helburua:** Subjektu politikoa zehaztea, alderdi indibidual, kolektibo eta komunitarioan oinarrituta, eta errebeldiarako hezkuntza komunitario baterako trantsiziorako proposamen bat lantzea.

Subjektu politikoari buruzko azalpen teoriko labur batekin ekin zitzaion saioari, haren alderdi pertsonala, soziala eta sistemakoa kontuan hartuta.

### Ikuspegi pertsonala

Subjektu politikoa bere bidea eginez joango da modu kolektiboan lan egiten dugun neurrian, besteen ekarpenak jasoz eta erantzunak proposatuz joan nahi den tokiari buruz. Garrantzitsua da, lehenik eta behin, jakitea zer behar eta eskakizun indibidual ditugun, gerora jakiteko ekarpenak non egin ditzakegun modu kolektiboan.

Errebeldiazko hezkuntzan oinarritutako eraikuntza komunitarioa norberaren barruko gatazketatik ikasitako gauzetan oinarritzen da; gatazka horiek, halaber, norberarenetik, indibidualetik, kolektiboa den horretarako bidea egitera garamatzate. Gatazka horiek urradura eta mina eragin diezagukete, baita eraikuntza alternatibo propioekin talka egin ere.

Jakiteko zer behar dugun, gure aktibismoan non egon nahi dugun eta ekarpenak zein alderditatik egin ditzakegun, ezinbestekoa da bost plazeretan oinarrituta lan egitea eta sentipentsatzea.

Bidea ez da bakarra, eta helmuga ere ez; horregatik, garrantzitsua da begirada eraikuntza kolektiboaren prozesuan eta hori posible egiten duten elementuetan jartzea. Batzuetan, gure behar eta sentipenen aurretik, kolektiboa den horri, borrokari, ematen diogu lehentasuna. Mugimendu sozial, politiko batean parte hartzeari uzteak ondorio gogorak ditu, bai arlo pertsonalean, bai kolektiboan. Bakarrik zaudela sentitzen duzu..., ez zarela ekarpenik egiten ari... Geure burua berriz eraikitzea prozesuko parte gisa, sentitu gabe amaiera izan dela emantzipazio- prozesuan ekarpena egiteari dagokionez; ohartzen gara pertsonala den horrek ere garrantzia duela kolektiboa denaren eraikuntzan. Ez bagara ongi sentitzen geure buruarekin, gatazka eta eragozpen horiei aurre egin ezin badiegu, zaila izango da ekarpenik egitea borroka kolektibo batean.

Subjektu pertsonala ulertu behar dugu indibidualtasunetik komunitariorako bidea egiten duen subjektu modura, konplizitate zuzen, bidezko eta jasagarrietan oinarrituta, elkar zainduz eta naturarekin bat.

### **Ikuspegi soziala**

Alderdi soziala ereiteko lur emankor bat bezala da. Sortzen zaizkigun ziurgabetasunek, baita inposatutakoek ere, gure lurraren ongarri izan behar dute. Lur horretan berreraikitzen dugu, gizarte-lotura sendotzen lagunduz, elkarbizitza, kide izatearen sentipena, erantzunkidetasuna eta elkartasuna sortuz.

### **Sistema-ikuspegia**

Sistema kapitalista, heteropatriarkal eta kolonialista bati aurre egin behar diogu, eta, horretarako, publikoa dena erdigunean jarri behar dugu, eta zaindu. Merkataritzako logikak trukearena izan behar du, eta dibertsitateak sustatu egin behar dira, ez toleratu bakarrik.

Ezin ahaztu eraikuntza komunitario honek bere bidean mugak aurkituko dituela eta horiei aurre egin beharko diela. Hona hemen batzuk:

- Mugak lotuta daude baldintzekin, testuinguruarekin, tristuraren botere politikoarekin, anomiarekin edota egiten duzuna minoritarioa dela sentitzearekin.
- Zenbait egile emakumezko tristuraren botere politikoaz hitz egiten dute, diote tristurak atomizatu egiten dituela ekimen indibidualak eta alternatibak eraikuntza. Auzi horrek eragina du gure subjektu politikoaren eraikuntzan, ez digulako ikusten uzten inguruan ditugun aukerak. Sormen faltarekin lotuta dago. Sormena sustatzea funtsezkoa da eraikuntza komunitariorako, beste aukera batzuk bizitzera animatu behar dugu.
- Beste mugetako bat denbora faktorea da; jakin behar da ongi banatzen pertsonalaren eta kolektiboaren arteko denborak. Batzuetan, denbora asko eskaintzen diogu eraikuntza komunitarioari, kolektiboa den horri. Ereku horri

geure burua zaintzeari baino balio handiagoa ematen diogu. Funtsezkoa da denbora indibidualaren eta denbora kolektiboaren arteko oreka bilatzea gizarte-erakunde eta mugimenduetan modu kolektiboan eraikitzeko.

- Boterearen erotika dugu beste mugetako bat, eta horrek gizarte-erakundeko edo-mugimenduko pertsonengan duen eragina. Badira lider-izaera handiko pertsonak, beren boterea taldean erabiltzen dutenak, eta, azkenean, erabakiak beren kabuz hartzen dituztenak, eta ez modu kolektiboan. Boterearen dinamika eta erotika horretaz jabetu beharra daukagu, zeinak erakundeen horizontaltasun-logikak hautsen dituen, eta desberdintasunak sortzen, botereari dagokionez.
- Hona komunitarismoaren beste muga bat: helburu baten alde egiteko eta hura lortzeko gutxieneko eta gehieneko hitzarmen komunak ezagutzea. Garrantzitsua da jabetzea modu komunitarioan eraikitzea eskatzen duen organizazioa bera dela kolektiboa sortzeko modu bat.

Errebeldiazko hezkuntza komunitario baterako trantsizio-proposamen bat lantzeko helburuarekin, "Komunitarismoaren hiru aurpegiak" parte hartzeko dinamika aurkeztu zitzairen parte-hartzaileei. Hiru talde osatu ziren, eta talde bakoitzak kasu baten gainean lan egin zuen, non subjektu politikoaren ezaugarriak identifikatzen saiatu ziren, alderdi indibiduala, kolektiboa eta komunitarioa kontuan hartuta.

Sorkuntza Kolektiboko Taldearen une hau amaitzeko, parte-hartzaileek nola sentitu diren eta saioetatik zer jaso duten adierazi dute



## 2.2 Sorkuntza Kolektiboko Taldea



**Dinamizatzailea:** Marisa Pérez Colina<sup>1</sup> eta Álvaro Briaies Canseco<sup>2</sup>

**Kontalaria:** Gema Celorio Díaz<sup>3</sup>

**Laguntzailea:** Cristina Mota Navarro<sup>4</sup>

Laneko hiru uneetarako –ostiralean eta larunbatean egin dira– pentsatuta dagoen eskema aurkeztuz ekingo zaio saioari.

1. Eraikuntza-komunitarioaren erronka orokorren aurkezpena, mapaketa eta definizioa.
2. Afinitate-taldeetan bilduta, eraikuntza komunitarioko estrategiak lantzeko saioa, kasu zehatzetan oinarrituta.
3. Eraikuntza komunitarioko kasu eta erronka kokatuen aurkezpena eta eztabaida.

### Lehen unea Komunitate-eraikuntzaren erronka orokorren aurkezpena, mapaketa eta definizioa

- Los Comunes fundazioa. Gizarte-mugimenduen eta ekoizpen eta ekintza politikoko kolektiboen sare modura definitzen da. Sarearen barnean, bestelako gizarte-espazioak dituzte: liburu-dendak, banaketa-etxeak... (Traficantes de Sueños, Katakarak, La Casa Invisible...). Autoprestakuntzako, jakintza-ekoizpeneko eta ikerketarako tokiak dira, Nocións Comunes proiektuaren esparru kolektiboaren barnean.
- Taldearen aurkezpena. Parte-hartzaileei bikoteka jartzeko eskatu zaie, eta bata besteari izena, herria, zer arlotan diharduen eta zer espektatiba dituen (zergatik dagoen talde honetan) azaldu behar diote.

Banakako lana. Nola definituko zenuke Komunitate-eraikuntza, zure eremu kokatuan oinarrituta?

- 1 Los Comunes fundazioa.
- 2 Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
- 3 Hegoa institutuko Hezkuntza Taldea.
- 4 Globalizazioa eta Garapena masterra, Hegoa.

Taldeakako lana. Komunitate-eraikuntzaren erronkak. Gero, 6 laguneko 5 taldetan banatu gara. Taldean egiten diren ekarpenak gure eremu kokatutik abiatuta egitea proposatzen da, epe laburreko eta luzeko gure erronkak zehazteko.

Bateratze-lana:

## 1. taldea.

Epe laburreko erronkak	Epe luzeko erronkak
<p>Arlo komunitarioan badira jada talde antolatuak, baina jabetu behar dugu badirela pertsona batzuk ez dutela horietan parte hartzen zailtasunak dituztelako (testuingurua dela, egoera partikularrak edo egiturazkoak direla...).</p> <p>Komunitarioa berreskuratu eta erakargarri bihurtu, eta komunikazio-estrategia onak planteatu (lan-eremua, eremu komunitarioen zentzua...).</p> <p>Komunitarioa eta instituzionala artikulatu. Espazio formalak garrantzitsuak dira, jende guztia pasatzen delako horietatik.</p> <p>Toki irisgarriak eta abegikorak sortu (normalean parte hartzen ez duten horien garrantzitasuna).</p> <p>Hezkuntza-sisteman gizarte-hezitzailearen figura errebindikatzeak, bere eginkizuna onartzeak duen garrantzia.</p>	<p>Nola sortu naturaltasuna arlo komunitarioan; arlo komunitarioan parte hartzea ohikoa izan dadila. Haurtzarotik bizi den zerbait.</p> <p>Arlo komunitarioa integratu maila pertsonalean eta kolektiboan.</p>

## 2. taldea.

Epe laburreko erronkak	Epe luzeko erronkak
<p>Komunikazioaren kultura ahalbidetu. Alegia, entzutea eta posizionamendua sustatu; elkarrizketa bultzatu, dibertsitatean oinarrituta.</p> <p>Parte-hartzeari buruz daukagun kultura aldatu; parte-hartze instrumentala alde batera utzi, eta parte-hartze bidezkoa eta barneratzailea izan.</p>	<p>Irekitasun komunikatiboari dagokionez, gure jardueretan nola bihurtu dezakegun ohiko irekitasun hori. Eta, gainera, eremu komunak sortu, dibertsitateak abiatuta.</p>

### 3. taldea.

Epe laburreko erronkak	Epe luzeko erronkak
<p>Parte-hartze komunitarioa sustatu.</p> <p>Ez dauden ahotsak eta antzinako jakintzak berreskuratu.</p> <p>Bizikidetza -eremuak eratu, ghettoak hausteko. Komunikaziorik ez dagonean, zubiak eraiki. Bizikidetza-eta elkarrizketa-eremu alternatiboak eratu.</p> <p>Botere-harremanen gaia aztertu. Adibidez, kontziente izan behar dugu norbait kanpotik datorrenean ezin izaten duela parte-hartze eremuetan barneratu.</p> <p>Taldean aniztasuna kontuan hartuta, hau dena ez da posible guztion ona lortzera bideratuta ez badago. Beharrezkoa izango da aztertzea bakoitzak nola definitzen duen "guztion ona".</p>	<p>Epe luzeko parte-hartzearen etika bat landu.</p> <p>Eraikuntza komunitarioa gizarte-justizia lortzearekin lotu.</p> <p>Sistema deseroso sentiarazi, aldaketa sakonagoak egin ahal izateko.</p>

### 4. taldea.

Epe laburreko erronkak	Epe luzeko erronkak
<p>Arlo komunitario, elkartasun eta kide izatearen sentipenarekiko konfiantza indartu.</p> <p>Gure aktibismoa berraztertu, batzuetan emaitzen arabera neurtzen baitugu, eta ez prozesuaren beraren arabera.</p> <p>Auzoetako taldeak, interdependentzia, sareko lana indartu; egoak kudeatu.</p>	<p>Lurraldean integratuko den eskola indartu, dinamika komunitarioen bultzatzaile, elkarrekin goazelako ideiarenean sustatzaile, ingurunearekin lotua, komunitatearen bizitzan parte hartzen duena.</p> <p>Elkartzen gaituen horretan oinarritu, hurbilketa bultzatzeko.</p>

### 5. taldea.

Epe laburreko erronkak	Epe luzeko erronkak
<p>Kide izatearen sentipenak duen garrantzia, jakinik batzuetan zaila dela sentipen hori sortzea.</p> <p>Eremu komunitarioetan egoten ez diren beste ahots eta eragile batzuk ikusgai egin.</p> <p>Problematikak agerian jarri, mapaketak.</p> <p>Sareko lana, sistemak konektatu. Elkarren arteko gogoetarako uneak sortu.</p> <p>Erritmoak errespetatu, enpatizatu, zirkulu zentrokideak ireki.</p>	<p>Helburu modura gizartearen eraldaketa eta beste ezagutza, pedagogia batzuen integrazioa izan.</p> <p>Paradigma indibidualista eta meritokratikoa aldatu.</p> <p>Parte-hartzea naturalizatu. Kultura komunitarioa zabaltzeko, politikan eragin.</p>

## Bigarren unea **Taldeetan bilduta, eraikuntza komunitarioko estrategiak lantzeko saioa, kasu zehatzetan oinarrituta**

---

Taldean elkar hobeto ezagutzeko eta beste kontraste batzuekin aberasteko, 4 lantalde osatzea proposatu da, afinitate-irizpide hauen arabera:

- Kolektibo afektatuekin zuzenean lan ordaindua egiten dutenak (4).
- Esku hartzeko programa edo planen diseinuan lan ordaindua egiten dutenak (4).
- Gizarte-mugimenduetan ordaindu gabeko lana egiten dutenak (10).
- Eskola-erakundeen mendeko eremuetako pertsonak (10).

Hala ere, talde handian irizpide horiek eztabaidatu dira, ez direlako ondo ulertzen eta ez zaielako egokia iruditzen lan ordaindua/lan ordaindu gabea kategoriak erabiltzea. Hasierako planteamendua da taldeak beti duela proposamena aldatzeko ahalmena; beraz, ez da bereizketarik egiten lan ordainduaren eta ordaindu gabearen artean. Hala, taldeak honela geratu dira:

- Kolektibo afektatuekin egunero harreman zuzena dutenak (4).
- Esku hartzeko programa edo planen diseinuan parte hartzen dutenak (edo horren inguruko gogoeta interesatzen zaienak) (4).
- Gizarte-mugimenduetan daudenak (10).
- Eskola-erakundeen mendeko eremuetako pertsonak (10).

Lan-proposamena taldeentzat: pertsona bakoitzak partaidetzako esperientzia aipagarri baten berri ematea, eta taldeak horietako bat, interes nabarmeneko, aukeratzea, aztertzea eta eztabaidatzeko.

Asmoa da, kasu zehatz baten berezitasunen testuinguruan, eraikuntza komunitarioko estrategien lanketa ezagutzea edo proposatzea, gero estrategia horiek orain arte landutakoarekin (taldekako lehen lana) lotzeko: Zer tresna, baliabide, prozesu, aliantza, desira behar ditugu erronka haiek betetzeko?

Talde-lanari ekin aurretik, eta denentzako ekarpen modura, ikus-entzunezko pilula bat eskaini digute. Bideoan Raquel Gutiérrezek<sup>5</sup> bere bi libururen aurkezpena egiten du: “Horizontes comunitarios populares” (2017) eta “Producir lo común” (2019), biak Traficantes de Sueños argitaletxearen eskutik argitaratuak.

---

5 Raquel Gutiérrez Aguilar mexikarra da, baina bere bizitza Bolivian emandako ia hogeituro urteko militantziak markatuta dago, non 80ko urteetako gerriletan parte hartu zuen, bai eta mende honen hasieran indartsu piztutako matxinadetan ere. Matematikan lizentziadun, eta Soziologian doktore (Pueblako Unibertsitate Autonomoa); gaur egun Andeetako eta Erdialdeko Amerikako Ikasketa Zentroko (CEAM, AC; Mexiko Hiria) irakasle-ikertzaile da.

*Ondasun komunen defentsa, komuna denaren defentsa, merkatuaren eta baita Estatuaren logikatik harago doan egintza material, sozial, erlazional eta afektibo gisa, erdigunean egon ohi da indigenen borroketan eta zapatismoarenean Latinoamerika osoan. Saio honetan aztertuko dugu nola eraiki daitezkeen aukera komunitario eta popular horiek, estatuen logiken aurrean, zeinak politika guztia ohiko "eskabideak Estatuari" ereduaren arabera moldeatzen saiatzen diren. Azken urteetako zenbait mugimenduk, hala nola indigenen mugimenduek eta errebolta feministak, gai horietan pentsatzen lagundu diezagukete. (Raquel Gutiérrez).*

Garrantzitsua da bereiztea komunitatea eta sare komunitarioa. Nahiago dugu sare komunitario adierazpidea erabili, auzi itxi eta alde zurretik emandako batean ez jartzeko hasieratik. Geure burua gabezia kokatu behar gabe (ez daukagu komunitaterik). Hala, sare komunitario esamoldea erabiltzen dugu erdigunean jartzeko subjektibotasun baten gaitasun hori, zeinak loturak eratze eta lantzeko borondatea eta abilezia duen eta, lotura horien barruan, distantziak kudeatzeko eta bere buruari helburuak proposatzeko eta nola lortuko dituen erabakitze. Sare komunitarioak (indigenak), hurbiltasuna lantzeko eta distantziak kudeatzeko. Helburu komun batek batzen gaitu, nahiz eta ikuspuntuetan bat ez etorri. Erabakiak ekoitzi behar dira (hori politika da). Politikoa iritzietan bat etortzea dela ulertu ohi dugu, eta, hala, uste dugu antzera pentsatu behar dugula, baina ez da hala. Baina posizio ideologikoak eztabaidatzeko eta borrokak erabakitze tokia da. Gainerakoekin elkartu zaitezkeela pentsatzea, konspiratzeko, imajinatze, proposamenak egiteko. Horrela, sentitzen dugu loturak eta gaitasunak sortzen ditugula. Jarrera ideologiko kontrajarrietara garamatzaten asanbleetatik bereizi behar da.

Bideoa ikusi ondoren, taldeetan lan egingo dugu.

## **Hirugarren unea** Eraikuntza komunitarioko kasu eta erronka kokatuen aurkezpena eta eztabaida

Bateratze-lan horiekin eman diogu amaiera saioari.

### **1. Kolektibo afektatuekin egunero harremana dutenen taldea**



#### **Benetako kasua, kokatua**

Irun, Frantziako mugan, mugan bertan egiten diren kanporatzeak. Duela bi urte herritarrek harrera-sare bat sortu zuten, alde batetik, urgentziazko arreta bere gain hartzen duena. Gurutze Gorriak aukera bat ematen zuen, baina hiru gau bakarrik egin zitezkeen bertan. Eta, bestalde, Udaletxe plazan arazoa agerian jarri zuten, kanpaldi baten bidez. Sare hori boluntarioek osatzen dute. Biltegi bat dute, eta hor biltzen dituzte jasotzen dituzten arropak eta mugikorrak, eta

badute talde bat migranteei lagun egiten diena, baina inolako egitura formalik gabe. Etorkinak ez atzera ez aurrera geratzen direnean, eta orain COVIDarekin ohi baino denbora gehiago izaten da, sare horrek ezin ditu behar guztiak bete. Adibidez, hizkuntzarena. Helduen Hezkuntzak (HHE) izena emateko bi une ditu, eta tartean iristen direnak ezin dira inskribatu. Bada laguntza juridikoa ematen duen elkarte bat, baina ez dute Afrikako egoeren berri.



### Benetako kasua, kokatua

Diagnostiko partizipatiboa. Deustuko ikasleekin hitz egin, hizkuntzarekin laguntzeko boluntario-talde bat osatzeko.

Familia-sare bat, harrera-etxeen sare bat osatzeko, baina etorkina etxe batetik bestera ibiliko litzateke (dependentzia ez sortzeko).

Baliabideen gida bat egin zenbait hizkuntzatan.



### Nahia

Abegiz hartuak direla eta sare bateko parte direla sentitzea.



### Elkarrizketa talde handiarekin

Proposamenak ongi daude, baina puntualak dira. Zerbait eraldatzaileagoan pentsatu beharko litzateke. Beren etxea eskaintzeko edo jana, eskolak eta beste emateko prest dauden pertsonak edo familiak bil daitezke baliabideen gidan. Horrela, hartu/eman ideia ere hautsiko litzateke.



## 2. Programen eta planen diseinuko taldea



### Kasu baten azterketa

Udalak ahalduz komunitarioko, herritarrek parte hartzeko espazio bat sustatzen du. Zenbait ekimen daude, baina ez daude elkarren artean konektatuta. Kontua da elkargune bat sortzea.



### Benetako kasua, kokatua

Sareen eta esperientzien mapaketa. Hasierako deialdia, gai komun baten inguruan. Taldeetako pertsona erreferenteak erakarri. Eremu abegikor, barneratzaile eta plurala eratu. Hizkera zaindu. Garbi utzi zertarako den deialdia: sare bat osatzeko.



### Nahia

Eragile guztiak inplikatzeko, iraunkorra izatea, ohiz kanpoko aliantzak sortzea. Giza baliabideak eta herritarren ezaugarri malguak.



### Elkarrizketa talde handiarekin

Parte-hartze aktiboa eskatzen da, protagonistak izan daitezkeen beharrak identifikatu eta proposamenak egiten dituztenak.

Botere-harreman kapitalistak, hain barneratuak ditugunak, berregiten ditugu. Hori kontuan hartu behar da eraikuntza komunitarioa sustatzeko.

Bada halako tentsio bat, baliabide publikoak behar dituztenen esku jartzeko eskatzearen eta horiek kudeatzeko eta erabilera eta zentzua erabakitzeko duten gaitasuna geureganatzearen artean.

Justizia kognitiboa aplikatu behar da.

Hizkuntza deskolonizatu (adibidez, onuradun hitza zalantzan jarri).

## 3. taldea. Gizarte-mugimenduak



### Kasu baten azterketa

Gamonal, Burgosko langile-auzo bat. Udalak lurpeko aparkalekuak eraikitzeke asmoa zuen, auzokoek hiru lerrotan ere aparkatzen zutelako. Hasiera batean auzotarren proiektua geraraztea lortu zuten. Baina handik urte batzuetara Udalak

proiektua berriz martxan jarri zuen; gainera, aparkalekua ordainpekoa izango zen. Obrak gerarazi zituzten, eta asteburu oso bat iraun zuen kontzentrazio bat egin zuten. Lehenagotik erresistentzian ibilitako jendea zen, eta zuten esperientzia une horretara ekarri zuten. Kontsigna argi bat zeukaten: ez erasotzea tokiko komertzioei. Proiektua berriz geraraztea lortu zuten. Etxe autogestionatu bat sortu zen, baina denborarekin ekimena indarra galduz joan da.

Indarguneak. Auzo-identitatea, auzoaren ezagutza.

2005etik 2014ra arteko prozesu bat izan zen. Plataforma bat eratu zen (ezagutzak partekatzeko esperientzia bat). Belaunaldien arteko aliantza, kanpoko babes-taldeak (istiluak izan zirenean).



### Nahia

Ordaindu beharrik ez izatea jada badaukaten zerbitzu baten truke; beharrei erantzutea; auzo guztia inplikatzeko mugimenduan. Elkarrizketa eta bizikidetzaren sustatzea, eta auzoa eraikitzeko diagnosi bat egitea. Proiekturako dirua baldin bazegoen, komunitateak aukera izan behar zuen erabakitzeak aurrekontua nola kudeatu eta zertan gastatu. Gizarte-alderdian, erronka hau planteatu zen: indarkeriarik gabeko estrategiak aurrera nola eramán.

Gamonal auzoko borroka ikasketa bat izan da; garaipen bat izan da, auzo-harrotasuna zegoelako, kide izatearen sentipena, lurraldeko eta komunitateko kide. Halako proiektuak iristen direnean, alde aurretik nolabait prest egon ezean, zanpatu egiten zaituzte. Aurrea hartzen duen ikaskuntzaren adibide bat da.



### Elkarrizketa talde handiarekin

Auzitan jarri gizarte-mugimenduen ekintzak kriminalizatzeko joera; zer aktibismo mota behar dugun modu indibidualean eta kolektiboan inplikatzeko, eta kriminalizazio horri buru egiteko. Ez gara jabetzen komunikabideek zer ahalmen duten kontakizuna eratzeke; badugu hor erronka bat.

Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren ikuspegitik, beste erronka bat da, gatazken bidez geure burua hezteaz gain, konstruktiboak ez diren jardunetatik ere ikastea.

Komunitateak, askotan, ez du garbi uzten zein dagoen barruan eta zein kanpoan, horregatik erabiltzen dugu sare komunitario esamoldea. Komunitateen barnean ere badira gatazkak, beti ez gara harmonian bizi; gatazkaren pedagogia bat sustatu beharko litzateke.



## 4. Hezkuntza formaleko eremuetakoen taldea (1)



### Kasu baten azterketa

Nafarroako Erriberako herri bat, non ekonomia nekazaritzan oinarritua den; biztanle gutxi, eta orain erdiak magrebtarrak dira, eta ez dago loturarik horien eta tokikoen artean. Deskonexio hori eskolan islatu da, non bizikidetzeta-gatazka handiak egon diren.



### Benetako kasua, kokatua

Klaustroa eta hezkuntza-komunitate guztia inplikatzeari. Baita tokiko kultura kontatzeko eta helarazteko interesa duten pertsona nagusiak ere. Topaketarako toki komunak eta kolektibo bakoitzeko bitartekariak. Zentroan heziketa proposatzea herritarrentzat oro har, edo Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza.



### Elkarrizketa talde handiarekin

Etengabeko heziketako ikasgelak sortu. Erakundeei kulturarteko bitartekaritzarako baliabideak eskatu. Harreman horietatik abiatuta, topaguneak bilatu; adibidez, zahar-etxeetan, mendetasunik ez duten egoiliarrekin. Haien jakintza baliatu, bakerako tresna izan baitaiteke. Kontziente izan zein den erakundearen barruko jokaera eta jarrera politikoa.

## 5. taldea. Hezkuntza formaleko espazioak (2)



### Kasu baten azterketa

Ramón Bajo ikastetxe publikoa eta Gasteizko Alde Zaharra. Eskola ghetto bat zen: haur magrebtarrak eta ijitoak bakarrik zeuden. Eskola degradatua, eta gatazka handiekin. Familia-talde txiki baten apustua izan zen, bizitza auzoan egin, eta beren haurrak ikastetxe horretara bidali nahi zituen. Eskola bi zentzutan ireki nahi zuten: alde batetik, komunitatera, kanpora, eta, bestetik, eskola elkargune bihurtu. Orain % 50eko proportzioan daude. Irakasleen eta familien mugikortasunaren ondorioz, bere garaian egon zen konexioa galtzen ari zen. Nola berreskuratu? COVIDarekin, ikastetxea berriz ohartu zen komunitatea behar zuela. Goian proiektuaren (aisialdiko gizarte- eta hezkuntza-proiektu bat, komunitatea, lankidetzeta eta lurraldeekiko lotura sortzeko asmoz) kaleko hezitzaileen eta zahar-etxearen arteko proiektu batekin ekin zaio ikasturteari. Goian proiektua artikulazio-tresna garrantzitsua da, eta komunitateak ikusten du hor inplikatu beharra daukala, badakite-eta eskolarik gabe komunitaterik ere ez dagoela. Auzoko eragileek prestakuntza-saioak eduki zitzaizketen irakasle-

klaustroarekin batera. Lehen, erakunde/kolektibo beste harrera-plan zegoen, eta orain denentzako izango den bakar batean lan egiten da. Lantegi asko egiten dira dauden beharrei buruz. Adibidez, aztertutako gaietako bat izan zen ea eskolak zer gaietan parte har dezakeen komunitatean, eta alderantziz, hau da, komunitateak zertan parte har dezakeen eskolan. Guraso Elkarteko batek, Master Amaierako Lan bat egiten ari baitzen, baliabideen mapaketa bat egin zuen, eta irakasleen esku utzi zuen.



### Nahia

Nola helarazi eraikuntza komunitarioko ideia hori iristen ari direnei.



### Acción política

Prozesu horiek babestuko dituzten gizarteratze-arloko, gizarte-hezkuntzako eta beste hainbat arlotako pertsona ezagunak behar dira kulturarteko bitartekaritza-arlokoak eta erreferenteak, benetan dagoen aniztasunaren ordezkariak falta baita ikastetxeetan.



### Elkarrizketa talde handiarekin

Erakundetik bultzatzen denak baino hobeto funtzionatzen du komunitatetik bultzatzen denak.

Eskola, ate irekiko erakunde modura. Oinarri komunitarioagoetatik abiatuta deseraikitzen eta berreraikitzen den eskola.

Komuna den hori eta identitatea auzitan jarri, etengabe aldatzen ari direlako.

Horizontaltasuna sortzeko eremuak, komunitateak berak, auzoak, dinamizatuko dituen prozesuetarako.


Informazioaren eskuragarritasun demokratikoa (erakundeetako eta bestelako baliabideen gidak).

Kontuan hartu berdin-berdin baliotsuak diren beste eraikuntza komunitarioko modu batzuk; adibidez, festarako eremuak eta uneak antolatuz.

Garrantzitsua da esperientzia bizi izan duenak kontaktzea: memoria helarazten du eta komunitatearekiko lotura duintzen du.

### 3. Ildo Estrategikoa

## Aurrea hartzen duen ikaskuntza





### 3.1 Sorkuntza Kolektiboko Taldea



**Dinamizatzailea:** Marta Malo de Molina<sup>1</sup>

**Kontalaria:** Joseba Sainz de Murieta Mangado<sup>2</sup>  
eta Gloria Sosa Sánchez-Cortés<sup>3</sup>

**Laguntzailea:** Patricia Franco Rodríguez<sup>4</sup>

Aurea hartzen duen ikaskuntzaz ari garenean, etorkizun bizigarriak irudikatzeaz ari gara, iruditeria kolektiboak eta horietara jotzeko bideak eta estrategiak eratzeaz. Modu kolektiboan estrategia esperantzarriagoak irudikatzeaz ari gara, ziurgabetasun askatzailean hezteko.

Bide horiek eraikitzeko, behar da zehaztu nondik abiatzen garen, oraintxe bertan non dauden kokatuak gure gorputzak, gure ezagutzak eta borrokak.

Sorkuntza Kolektiboko Taldea (SKT), zeinaren esperientzia lerro hauetan azaltzen den, elkarrekin lotutako hiru unetan banatzen da, eta horien bidez zuzenean ezagutuko dugu aurea hartzen duen ikaskuntza ulertzen eta erabiltzen lagunduko digun metodologia bat.

#### **Lehen unea** Non gauden, zer egiten dugun, zer harreman dugun etorkizunarekin

Une honetan, non 40 pertsona inguru elkartu garen, talde plural modura ikusten dugu geure burua, eta gutako asko hezkuntza formalean ari gara, baina baita hainbat eremu informalean ere.

Gure borroka-arloei buruz galdetu zaigunean, hor ere askotariko konpromisoak agertu dira: hezkuntza (haur-hezkuntza, lehen eta bigarren hezkuntza, unibertsitatea, eta aisialdia); kontakizunen sorkuntza eta kultura (ikus-entzunezkoak, kazetaritza...); eskubideen alde (emakumeak, migranteak, ugalketakoak, identitatea); gizarteratzea; agroekologia; ingurumen-hezkuntza eta hezkuntza ekosoziala, gizarte-ekonomia eta solidarioa; bidezko merkataritza, eta zainketa, modu nabarmen eta transbertsalean. Borroka eta

1 Ikertzaile independentea.

2 Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea.

3 CALA (Colectivo Alternativo de Aprendizajes).

4 Globalizazioa eta Garapena masterra, Hegoa.



- Tekno-optimismoarekin lotutako irudiak, eta zientziak eta teknologiak zerbait asmatuko duten esperantzarekin, eta horrek arazoa konponduko duela kapitalismotik atera gabe eta gure bizitzeko modua aldatu behar izan gabe. Gizarte-aldaketa salmentaren eta merkantilizazioaren bidez sinetsarazi nahi digute.
- Harrokeria goraiatzeko duten irudiak, eta aberastasunarekin, zarrastelkeriarekin eta pertsona aberastuen aukerekin lotutako arrakastaren idealizazioarenak.

Etorkizun horiekin dugun harremanari buruz, sentipen hauek ageri dira: beldurra, paralisia, autoritarismoa eta teknofaxismoak (esperantza teknologian edo salbatuko gaituzten liderretan jartzea) agertuko diren beldurra eta komunikabideen aldetik oldarkortasuna zabaltzen delako sentipena. Horrek guztiak norberaren burua errunduntzat jotzera bultzatzen du, bizi dugun kontraesanarengatik, arazo hurbilagoei, egunerokoei (“txikiagoei”), arreta ez jartzeagatik, eta norberaren eta familiaren kontsumoa jotzen delako gaur egungo egoeraren eragile.

Etorkizun-alternatiba batzuk ere ageri dira.

Komunitate-espazio baten aipamena egin da, etorkizuna birpentsatzeko, modu hegemonikoan balioesten ez diren ezagutzetan oinarritua, desberdinen arteko maitasun- eta laguntasun-irudi batekin, eta itxaropen arduratsuan oinarritutako heziketa-lan batekin. Eta praktika aktibista kolektiboekin.

Arazoen sustraietara joateko beharra, benetan zalantzan jartzea kapitalismoaren munstroa, patriarkatua, kolonialismoa, arrazakeria... Elkarrekin aritu, eta bakoitza gure burbuilatik ateratzea.

## Bigarren unea Aurrea hartzeko saiakerak

Desio ditugun beste etorkizun batzuetara begiratzea konplexutasun-amildegi baten aurrean egotea da, eta horrek beldurtu eta paralizatu egin gaitzake. Halakorik ez gertatzeko, paralisiaren gainetik utopiak irudikatze modua eskainiko diguten tresnak behar ditugu, Isabelle Stengers pentsalariak «infernuzko alternatibak» deritzen horiek saihesten lagunduko digutenak. Alternatiba horiek sistemak “heriotza-heriotza” aukera aurkezteko estrategiatzat jotzen ditu, hau da, aukera binarioak (edo laguntzak murrizten ditugu edo sistema pikutara doa, edo mugak indartzen ditugu edo inbaditu egingo gaituzte). Pentsarazten digute guk aukeratzen dugula, baina, berez, ez dute aukerarik eskaintzen, aukeratzeak berak arauen onarpena dakar.

Stengersek dioenez, gure pentsamendu kritikoa bera batzuetan oztupo izan daiteke, eta blokeatu egin gaitzake utopiaren konplexutasun, abstrakzio eta


urruntasun horren aurrean. Egile horrek berak «pentsamendu espekulatiboa» deritzon horretara jotzea izan daiteke aukera bat. Ikasi behar da ikusten gaur zer egin daitekeen, baita jada zer egiten ari garen ere, nahiz eta gutxitxo dela eman dezakeen, eta irudikatu zer gertatuko litzatekeen gutxi horrek denborarekin indarra hartu eta aldaketak eragingo balitu. Hasi behar dugu pentsatzen gaur posible ikusten ditugun gaietan, beste bizimodu klase batera bideratuta daudenak.

Hala, bigarren dinamika hasiko da: irudikatuko dugu etorkizuneko gizartea, 2180. urtean, eta nola biziko den gizarte utopiko horretan, orain hautematen ditugun lehen aldaketa horiek indarra hartuz gero.

Galdera hauetatik eta antzekoetatik abiatuta egin daitezke gogoetak: non bizi gara?, aldaketa lokala ala globala da?, zer jaten dugu?, zer harreman dugu diruarekin eta lanarekin?, gizarte nomada ala sendentarioa da?, badugu zientziarik?, zer zientzia mota?..

Taldeek kontakizun batean azalduko dituzte gogoetak: etorkizun irudikatu horretan bizi den pertsona batek gutun bat idazten dio urrutiko lagun bati, eta konbentzitu nahi du horra bizitzera joan dadin. Gutunak izenburua izan behar du.

## 2. irudia. Taldeek egindako kontakizunak



Behin gutunak idatzita, salan jarriko dira denek irakur ditzaten. Gero, parte-hartzaileak, gehien gustatu zaien kontakizunaren inguruan bilduta, taldeak sortzen dira, eta etorkizun horretarantz egiteko estrategia posibleei buruz eztabaidatuko dute.

Etorkizun desiratuen kontakizunetan taldeetan jendeak sentitzen dituen beharrak ageri dira, adibidez:



**Aldaketa kulturala.** Bizitzeko modu askotarikoak. Garrantzitsuena, indibidualaren aldean, kolektiboa da. Bizimodu geldoagoa; denboraren bizipena aldatu.

**Asanblearismoa;** boterea, erabakiak hartzeko orduan. Ordezkatzen gaituztenen gaineko kontrola. Guztien partaidetzaren onarpena. Gatazken erregulazioa eremu komunitarioetan.

**Autogestioan oinarritutako ekonomia.** Boterea norberaren bizi-baldintzen gainean. Tokiko produkzioa, hurbileko produktuak, trukeak beste lurralde batzuekin. Bizitzeko, enpresa handiekiko mendekotasunik ez. Ekonomia komunitarioa.

**Lana, bizitzara bideratua.** Enpleguaren kontzeptua berraztertu, norberaren ahalmenetara, guztion onurara eta garapen pertsonalera bideratzeko. Lan produktiboaren bidezko banaketa, bakoitzaren ahalmenen eta energien arabera. Arlo laboralari eskaintzen zaion denbora gutxitu. Txandakako lanak. Ezagutzak partekatu.

**Zainketak.** Zainketen ikuspegi integrala. Modu bidezkoan banatuak. Denbora gehiago aisialdirako eta benetan zoriontsu egiten gaituen horretarako. Alderdi emozionalaren zainketa.

**Hezkuntza.** Pertsona guztiek irakasteko duten ahalmena. Hazkuntza eta hezkuntza, partekatuak eta erantzukizun kolektiboz onartuak. Ikaskuntza-komunitateak. Ezagutza historikoak, tradizionalak... berreskuratu. Ikaskuntza situazionala.

**Komunitate irekia, beste espazio batzuekin harremanetan.** Beste pertsona batzuen harrera komunitarioa. Gizarte-bazterketa gutxitu. Desparekotasunak drastikoki murriztuak (generoa, sexu-identitatea eta -orientazioa, arraza eta etnia).

**Energia.** Energia berriztagarriak eta ingurumena errespetatzen dutenak.

**Hirigintza.** Bizitzara egokitutako hiri-egitura, belaunaldi arteko komunitateen arabera eta talde txikiagoetan.

Unibertso desiratu horiek guztiak azaldu ondoren, saioa hiru gogoetarekin amaitu dugu:

- Utopiak irudikatzea konplexu samarra da, eta denbora eta gogoeta sakona eskatzen du.
- Denbora guztian kontuan hartu behar da galdera hau: zeri uko egiteko edo bazter uzteko prest gaude?
- Garrantzitsua da irudikatzen ditugun egoera katastrofikoak bestelako baldintza batzuen eragile eta aukera-baliabide modura ikustea.

## Hirugarren unea Etorkizunak erein

Proposatutako metodologiari jarraituz, une honetan irudikatuko dugu gure etorkizun-kontakizunak nola izan daitezkeen oraingo erabaki, zer konpromiso hartzen ditugun eta zer ekintza hasiko ditugun. Nola ekar ditzakegun jarduera zehatzetara, nahi ditugun etorkizun horien zantzu izango direnak. Halaber, pentsatu beharra dago zer hezkuntza mota garatu behar den premiaz (edukiak, estrategiak, aliantzak...), aurrea hartzen duen ikaskuntza lantzen hasteko.

Une honetan, Parable of the Sower / Parábola del sembrador (Ereilearen parabola) Octavia E. Butler idazlearen testua aipatu da. Nobela postapokaliptiko horretan, etorkizun distopiko bat planteatzen da, non protagonistak, hiperenpatia baitu, errealitatek kanpo bizi den komunitate batean aritu behar duen, eta bere ahotsa entzunarazi. Kontakizun horretan, errealitateari aurre eginda beste etorkizun posible bat eraiki daitekeela aipatzen da.

Horretarako, aurre egin behar zaie hiru erronka handiri:


- **Indarrak neurtu beldurrarekin.** Nola begiratu amildegira izutu gabe? Oso erronka interesgarria da. Ultraeskuina horretaz baliatzen ari da: kontakizun sendo bat helarazten du, segurtasuna eskainiz behera datorren mundu batean.
- **Indarrak neurtu mugarekin.** Mugak ukatzen dituen kultura batean bizi gara. Badirudi ingurumenari buruzko muga barneratuago daukagula, baina zer egiten dugu muga sozialarekin?, nola lortu akordioak indibidualtasunaren aurrean? Garelako naiz. Akordioak egiteko prest egon.
- **Indarrak neurtu konplexutasunarekin.** Etorkizunera begiratzen dugunean beti ageri da komunitate txiki bat. Komunitatea handitzen dugunean, konplexutasuna ere areagotu egiten da, eta gatazka agertzen da. Indarrak denborarekin neurtzea ere berdin sentitzen dugu. Liburuan ageri den beste gogoeta bat da borroketako une gorenetan ikusten dugula argien nahi dugun etorkizuna, lortu nahi dugun komunitate-antolaketa.

Aurrea hartzen duen hezkuntzak gai izan behar du alternatibak sortzeko erronka horiei aurre eginda, eta, horretarako, beste behin, gure oinarritik abiatu beharra dago, eta aldaketa nabarmenak eragiteko gauza diren jardunbide horietatik guztietatik.

SKTaren azken parte honetan, proposamena da, gure oinarritik abiatuta, irudikatzea aurrea hartzen duen hezkuntzaren estrategiak. Horretarako, taldeko gehienak dauden borroketako 4 hartuko dira: hezkuntza formala, gizarte-hezkuntza, internazionalismoa eta lankidetzeta, eta gizarte-komunikazioa eta kultura-ekoizpena.

SKTa bideratu duten jarraibideak betez ekingo diogu dinamikari: inguratzen gaituzten interpretazio eta irudiak kontuan hartuta, nola ikusten dugu etorkizuna?, zer harreman daukagu etorkizun horrekin?, eta nola irudikatzen ditugu etorkizun alternatiboak gaur egungo proposamen eta konpromisoetan oinarrituta?

Lau talde egin, eta talde bakoitzak panel bat osatu du.



Panelak amaituta, ikaskuntzak azaldu dituzte, eta gehienek diote oso proposamen interesgarria eta baliagarria dela dinamika hau beste zenbait egoeratarako ere, eta, gainera, fantasia eta irudimenaren tresna eskaintzen digu orainaldi gogorra jasan ahal izateko.

Taldekideei galdetu zaie ea zer ikasi duten saioetan; hona hemen ideia nagusiak:

- Errealitate askorekin lan egiteak duen potentziala: taldearen aberastasunaren garrantzia.
- Amesteko dugun zailtasuna, eta nola heltzen diogun itxuraz posible denari bakarrik. Nola neurtzen ditugun indarrak gure beldurrekin.

- Talde-lanak indartu egiten gaitu, eta pentsamendu kolektiboa sortzen du, zeinak batzuetan gizabanako modura harrapatzen gaituen immobilismotik askatzen gaituen.
- SKTan proposatu diren dinamikak, estrategiak eta metodologiak iradokitzaileak izan dira, eta beste hainbat testuingurutan erabiltzeko modukoak. Metodoa erraza eta beste egoera batzuetan berregiteko modukoa.
- Jada baditugun eta egiten ditugun gauza txiki horien onarpena: onuragarriak dira eta beste etorkizun hori eraikitzeko balio dezakete.
- Ideia honen berrespena: aldaketa modu kolektiboan izango da edo ez da halakorik izango.
- Kontzeptu eta teknika hauen gainean gehiago jakiteko nahia.
- Berriz elkartzearen eta beste topaketa batzuk garrantzia.

Lantegia beste erreferentzia bibliografiko batekin amaitu dugu, zeinak hain beharrezkoa den inspiraziorako, ametserako eta irudimenerako gaitasunean lagundu diezagukeen, baita fikzioa orainaldirako orientazio modura ikusteko ere. Marge Piercyren *Woman on the Edge of Time* / *Mujer al borde del tiempo* (Emakumea denboraren ertzean) adibide interesgarria da ikusteko irudimenak eta fantasiak nola lagundu diezaguketen geure buruari eusten orainaldian eta etorkizun bizigarrietarantz egiten.

## 3.2 Sorkuntza Kolektiboko Taldea



**Dinamizatzailea:** José Luis Fernández Casadevante, *Kois*<sup>1</sup>

**Kontalaria:** Begoña Zabala González<sup>2</sup> eta Juan José Celorio Díaz<sup>3</sup>

**Laguntzailea:** Diego Ortiz Plaza<sup>4</sup>

Taldea gelan bilduko da, eta José Luis Fernández Kois dinamizatzaileak parte hartzeko zenbait dinamikaren bidez doa gaia azaltzen. Dinamikak lau taldetan egiten dira, eta, gero, bateratze-lana egiten da denen artean; dinamizatzaileak aurrera egiten du proposamen eta interpretazioetan.

Laneko hiru uneetarako aurreikusita dagoen eskema:

1. Orainaldi distopikoa eta irudimen politikoaren higadura. Irudi bat eta milaka hitz.
2. Fluxu-kondentsadorea konpondu, eta etorkizun esperantzagarri bat ezagutzera abiatuko gara.
3. Etorkizuneko egoera eta kontakizunak.

### Lehen unea **Orainaldi distopikoa eta irudimen politikoaren higadura**

Lehen unean erreferentzia egin zaio gaur egungo egoeraren bizipen edo pertzepzio distopikoari, edo, hobeto esanda, katastrofikoari. Bidegurutze larri batean gaudela aipatu da: batez ere, mundu osoa mehatxu larrian dago naturarekiko bizikidetzari dagokionez, kapitalismo globalizatzaileko gizarteetako dimentsio askotako krisiez gain. Badakigu ekologiaren arloan mehatxu handiak daudela, hala nola klima-aldaketa eta energia-erreserba tradizionalen amaiera, eta horrek bueltarik gabeko ondorioak izango dituela. Hala ere, eta modu kontziente eta esplizituan ez dugu erori nahi diskurtso katastrofistetan edo munduaren amaiera iragartzen dutenetan. Badago esperantza bat –batzuetan hala aipatu dute– ibilbidea aldatzeko. Gure harremanen, bai gure artekoetan bai naturarekin dugun horretan,

- 1 Garúa kooperatiba, Jakintza eta proiektu ekosozialak.
- 2 Emakume Internazionalistak.
- 3 Hegoa institutuko Hezkuntza Taldea.
- 4 Globalizazioa eta Garapena masterra, Hegoa.

suntsipen-lerroan aldaketa bat sustatu behar dugu. Era horretan, eraldaketarako aukera asko irekitzen dira. Krisi ekosozial bat dago, baina modu onuragarrian eragin dezakegu horretan.

### **Irudi bat eta milaka hitz**

Bigarren unean, beste ikaskuntza batzuen aldean, aurrea hartzeko ikaskuntzaren kontzeptua lantzea da asmoa. Taldeek etorkizuneko bisualizazio bat nolako izango litzatekeen definitzen dute, nahi den etorkizun baten amets-irudi bat, eta dinamizatzaileak emango dituen irudi grafikoz batzuen bidez, batzuk irudi atseginekin eta beste batzuk izugarrikeriekin; irudi horiek aukera modura interpretatzea hautatzen da, pertsonen arteko, gizarte-taldeen arteko eta naturarekiko beste harreman mota batzuk lantzeko. Eraikin handien gainetik, bikoteak ageri dira, elkar besarkatuz eta hegan egin nahian. Maitasuna, amets kolektiboak, nahiak kontuan hartuta pentsatu, alderdi indibiduala aldaketa kolektiboko nahi bihurtu eta halako elementuak eranstean dira. Hori dena estimazio-ikuskerarekin batez, sentimenduak, harremanak lantzeko... Hau da, ikusi behar da bidegurutzek zail honetan aldatzen hasi beharra dagoela, eraikitzen, etorkizunari begiratzen, baina ez hurbileko etorkizunari, baizik eta epe luzeagokoari. Muga batzuk jarrita amestu behar dela aipatu dute, errealitatea oso baldintzatuta dagoelako, eta, hala, etorkizunak denon artean, modu demokratikoan, deskribatu behar dugula.

### **Bigarren unea** Fluxu-kondentsadorea konpondu, eta etorkizun esperantzagarri bat ezagutzera abiatuko gara

---

Taldea etorkizuna irudikatzen jartzen da, modu kreatiboan, irudimentsuan, esperantzagarrian, eta etorkizun ez hurbileko bat baina bai posible bat ikuskatuz.

Etorkizunaren lehen begiradan, kezkatzen gaituenaren inguruan galdetzen dugu: nolakoak izango liratekeen unibertsitateak, ez hain formalak, eta jolasera eta gogobetetasunera bideratuagoak; Estatu autonomia-erkidego txikietan desegingo litzateke; berdintasun handiagoa egongo litzateke, baina, beharbada, gertukoentzat; presondegiek ez lukete aterik edukiko; eskoletan, adibidez, ogia egingo litzateke, beste jolas eta ikasketarekin batera. Etorkizun horretan bizikleta eta garraiobide elektriko asko ikusten da; ekonomiak beharrak betetzen ditu; metaketa-prozesuak mugatzeko gai dira; ospakizunetan bakarrik jaten da haragia; bizikidetzako espazio kolektiboak guztiz irekiak dira...

Horren ondoren, deskribapen indibidual hori alderdi kolektiboa kontuan hartuta interpretatzera jotzen da, eta, taldeka, epe luzean etorkizun horretako auzo bat, herri bat... diseinatuko dugu. Ametsen bateratze-lana eginda, ikusi ahal da jada ezagutu ditugun hirien proiektuak direla: hiri txiki bat, non pertsonen arteko harmonia nagusi den, baita naturarekikoa ere. Gai konplexu eta garrantzitsuei dagokienez, adibidez, klima-aldaketa, desagertu egin dira, baina hori nola lortu

den zehazki esan gabe. Hala, diote kasko polarrak leheneratu egin direla, jakin gabe benetan zientifikoki hori posible den.

Taldean eztabaida bat sortu da dinamika baten inguruan, baina, ezer baino gehiago, alderdi metodologikoari dagokio. Diote arazoak ezin direla modu irrealan edo ez-zientifikoan konpondu, hori norberaren burua engainatzea delako eta gero frustrazioa sortzen duelako. Taldeko batzuek diote gauden egoeran jada ezin dela atzera egin. Beste batzuek diote bueltarik ez duela ematen duen egoera bati buelta ematea dela kontua. Saihetsezina dena desiragarria denarekin uztartzen saiatzea, etorkizunera begira. Taldeko asko, batez ere irakasleak, dinamika hau beren ikasgelan praktikan jartzera animatuko dira. Kontua da amets egitea, ahalik eta modu askeenean, eta hortik abiatuta, sortzea. Hori oso egokia da haurrentzat. Gainera, pentsatzen dute aurrea hartzeko ikaskuntzak transbertsala izan behar duela, eta etorkizunaz modu kolektiboan amets egiteko eta pentsatzeko ahalmena behar duela. Eztabaidan taldeak galdetu du ea badagoen etorkizunerako bide arrazionalik edo muga asko dituen egoera batean gauden, non ez dagoen lekurik gezurrerako eta engainurako.

Norbaitek ohar bat egin du etorkizunaren ikuskizunaren inguruan; ideia ez da askorik garatu, baina kezkarria izan daiteke. Azaldu du ez direla landu bizitza pribatuko gaiak, adibidez, familia, eta berriro ere alderdi publikoan oinarrituta bakarrik hitz egiten dela.

Taldearen ustea da, gizarte globalak kontuan hartuta, zailagoa dela etorkizun positiboetan pentsatzea etorkizun esperantzagarri baten aurrerapenaren eta baldintzatzaileen eta mugen errealismoaren artean oinarrituta.

## Hirugarren unea **Etorkizuneko egoera eta kontakizunak**

Amaitzeko gai modura, narrazioen kontua aipatuko da, batez ere narrazio erakargarriak, sozializatuak izan daitezkeenak eta etorkizuna diseinatzeko eta hori lortzeko proiekturako eragingarriak direnak. Gainera, narrazio zabalak izan behar dute, ulertuak eta onartuak eta, azken batean, emantzipazio-proiektuetarako bultzatzaileak. Narrazio horiek, gainera, sinesgarriak izan, eta besteei aldatzen lagundu behar diete.

Aldaketaren bidea martxan jartzeko elementuak:

- Beste mundu eta gizarte batzuetako proposamenei buruz dokumentatu, eta aztertu eta ikertu.
- Aldaketa erraztu, aldaketa berez txarra ez dela azpimarratuta. Une zehatz batean pertsona guztiek dituzte aldaketa-esperientziak, eta, gerora, aldaketa egin ondoren, hobeto sentitzen dira.

- Gizarte-eraldaketa norbanakoaren esperientzietatik igarota gerta daiteke, norbanakoaren gorputzetik, gutako bakoitzaren errealitatetik igarota.
- Entzutean, elkar entzutean eta entzute aktiboan erreibindikatzeko gai interesgarriak zehaztu daitezke.
- Erreferenteak sortzeak aukeratarako bideak irekitzeko balioko dute. Edozein lurraldetan badira esperientziak eredu modura balio dezaketenak.
- Kontuan eduki behar da pertsona asko eta askotarikoetara iritsi behar dela, denak desberdinak, baina gauza komunak dituztenak. Ibilbidea zehaztu; norengana iritsi nahi den.
- Espazio publikoak askapen-espaziotzat hartu.
- Sare sozialak erabili, gazteen hizkuntza eta ulertzeko bideak erabili haiengana gerturatzeko.


Azken batean, bide katartiko modura erabil daitezkeen kontakizunak erabiltzea da asmoa. Kontakizunek beste errealitate batzuetara hurbiltzen gaituzte, eta analisiarekin eta azalpenekin aktibatzen ez diren alderdi sakonagoak aktibatzen dira. Kontakizunen pedagogia interesgarria da lan honetarako. Aldaketarako pista asko daude, eta aldaketaren gainean gogoeta egiteko helduleku modura balia daitezke.

Zenbait autoreren kontakizunetako -formatu desberdinetakoak- datu asko azaldu dira.

Istorioak kontatzeko beharra, eta zientzia-fikzioaren eta arte-sorkuntzaren aukerari probetxu hezigarri eta kritikoa ateratzeko beharra, horiek dituzten etorkizun eta utopia sozialekin batera.



4. Ildo Estrategikoa  
Sareak, aliantzak  
eta *bestelako* komunikazioak





## 4.1 Sorkuntza Kolektiboko Taldea



**Dinamizatzailea:** Mariano Flores M.<sup>1</sup>

**Kontalaria:** José Luis Villena Higuera<sup>2</sup>

**Laguntzailea:** Andrea Barrones Pazos<sup>3</sup>

Laburpen txiki honetan ezinezkoa da biltzea kongresuko Sareak, aliantzak eta bestelako komunikazioak ildo estrategikoaren Sorkuntza Kolektiboko Taldean (SKT) egindako lan guztietan josten joan ziren begiradak eta ñabardurak. Baieztapen ageriko horrek balio dezala kontakizun hauskor eta osatugabe hau kokatzeko, eta, aldi berean, irakurlea animatzen dut hemen ematen ditugun pistak osatzera bere eremuan eta denboran.

Jarrera hori, interaktiboa, elkarrizketarako aukera ematen duena, galderak sortzen dituena, interpersonala..., baliagarria izan daiteke eraikitzeko (baita geure burua eraikitzeko ere), eta gure SKTko uneetan konstante nagusietako bat izan zen. Hala, garen horretatik abiatzen gara, gure mugetatik, baina gure biririkak eta leihoak zabaldu nahi ditugu. Taldeak, kolektibo guztiek bezala, baina gureak bereziki, saioetan frogatuta geratu zen bezala, aukera eman zigun oso bide desberdinetatik gentozen pertsonak elkartzeko, bizitzako eta militantziako une desberdinetan geundenak, eta landa-lanaren ezagutza sakonekoak eta identitate ireki eta iragazkorren onarpena geure egindakoak. Erakunde, plataforma, irakasle, gizarte-mugimendu eta baita administrazioaren ordezkariak handiagoa edo txikiagoarekin, «ahotsean herri bat» genuela ohartuta sumatzen genuen gure presentzia. Aldi berean, hemen gaudela erakusten dugu (eta pentsatzen eta sentitzen dugula), gure familiek, lurraldeek, kolektiboek, esperientziek, porrotek eta asmatutakoek hala uzten dutelako agerian.

Oso kontuan eduki nahi izan genuen, halaber, nor ez garen, edo nor ez zen etorri, hala nahi izanda edo ezin izan zuelako. Absentziek eta horien kausek ere garrantzi handia dute. Pentsatzen dugulako diskurtsoak eta prozesuak oso zehaztuta daudela horiek sortzen jarduten (eta elkarrekin jarduten) dugunon aldetik eta, horrenbestez, absentziek ere zehazten dituzte horiek: ez daudenak, egon nahi ez dutenak, egon ezin direnak edo egoten uzten ez dietenak. Oinarri horietatik abiatuta, eta kongresuaren beraren ikuspuntuarekin eta ildo estrategikoekin bat, lan kontziente eta gogoetatsu batean sartu nahi izan genuen, asmo proaktiboarekin. Ekarpinak gehitu nahi ditugula adierazi dugu.

1 EduAlter.

2 Granadako Unibertsitatea.

3 Globalizazioa eta Garapena masterra, Hegoa.

Lanean aritu ginen denboran, agerian geratu zen gai garela askotan guztien onerako ekintza-bideak marrazteko eta horretan argi egiteko. Hala ere, eta zintzo esateko, bide hori askotan ibili dugu, eta arrakasta, edo arrakastaren aldaerak, zalantzak izan dira. Autokonplazentzia edo desesperazioa, aurrerabide sendorik edo benetako egiturazko aldaketarik ez dagoelako, agertu ohi dira tartean-tartean. Beti ikuspegi eta elementu berberak erabiltzeak, eta beti pertsona berberak egoteak ia itsu-itsuan eremu komun eta maiz ibilietara eramaten gaitu, baita testuingurua beste bat bada ere, eta horrek, gutxienean, nolabaiteko frustrazioa ekartzen digu, emaitzak eskasak direlako (edo lana gehiegizkoa edota beharrak handiak), hala ere, borroka egitea beti merezi du. Hamsterraren ahalegin adoretsua bezala da, bere gurpilean etsi gabe: apenas duen mugitzen ari delako ametsa, baina inoiz aurrera egin gabe. Taldean, pertsona askok gure bideen berri ematen dugu, eta aurkikuntzak partekatzen, baina baita frustrazioak ere. Horixe bera da prozesuaren ikasketetako bat: elkarguneak izateko beharra, non tartean-tartean gure gauzak partekatzen ditugun eta alderdi emozionalean eta militantean lagun egiten diogun elkarri, elkar zaintzeko.

Beste behin, baina inoiz ez behar beste, prozesuetako zainketak eta giza alderdia presente egon ziren modu transbertsean egun horietan guztietan. Ardatz nagusiak, batez ere, kolektiboen arteko erantzukizunean oinarrituta erabaki ziren, baita mugimenduen oinarriak elikatzeetik abiatuta, askotan gogoratuz zerk eta zergatik jarri gintuen martxan, geure burua ekintzan eratu, desberdintasuna eta desadostasuna errespetatuz, aldi batzuetan lidergoa hartuz eta beste aldi batzuetan besteei utziz eta pribilegioei uko eginez, modu kolektiboan eraiki ahal izateko.

Baina jarrera osasungarri horrek, hau da, norberaren burua zalantzan jartzea baina paralisian erori gabe, ez gaitzala alde batera uztera eraman zapaltzen duela (gaituela) uste dugun sistema sozioekonomikoan arrakalak bilatzeko interesa, zeina hobetu beharko dugun desira dugun toki batera joango bagara. Egiten dugun ahalegin handia berez ez da nahikoa, gure bihotza eta arima mundu hobe baten alde jarri arren, ez badago “zerbait gehiago”, oraindik bila ari garena.

Prozesu horretan laguntzen digu eta gerora ere lagunduko digu geure burua aztertzeak, zalantzan jartzeak; gure jarduerak, lehenetsiak eta hizkuntzak berrikusteak, prozesuak eta lehenago adierazitako zainketak behar den bezala kontuan hartuta, baita izandako absentziak ere, inposatuak edo berezkoak, garrantzitsua urgentearekin bateratu, eta begirada kolektiboa lehenetsita. Gure ibileran, ikusmenak aurretik joan behar du, alboetara ere begiratu, laguntzen digutenak bistatik ez galtzeko. Eta hori dena denbora askorik eman gabe auzi kontzeptual edo semantiko zehatz batzuetan, erretorika intelektualetan, zeinek askotan gauzak atzeratu baino ez duten egiten eta beste batzuetan, gutxiagotan, guztien onarentzat toxikoak diren horien jolasa baino ez diren; adibidez, sare sozialetan “gorrotatzaile” diren horiek probokatu baino ez dute nahi izaten eta. Urgenteak diren kontuei, ahal bada, jaitsi egin behar zaizkie pultsazioak; kontuz ibili berehalako kontuen eta eguneroko dinamiken agendarekin edukiz husten badira. Gure eguneroko kontuei heltzeko zenbait “eztabaidak” denbora kendu eta pazientzia galarazten dute.

Egun horietan gogoetarako lagungarri izan zitzaizkigun ezagutza batzuk gizarte-eraldaketarako ekintzaren beraren parte ere badira. Hegoaldeko epistemologiek edo izandako elkarrizketa benetan emankorrek, ikusezin bihurtutako pertsonak gurera ekarrita, berriz substantiboez jabetzera eraman gintuzten, praktikaren eta teoriaren artean jartzen diren itzalak eta mamuak gutxitzera, erantzunak gutxienez galderen mailara ekartzera eta giza kapitala eta ondasun erlazionalak eraikitzen. Jarrera irekia emankorra izango da prozesuen eta emaitzen artean oreka benetakoa eta desiragarria izan dadin, gure mugak kontuan hartuta, baita ordezkartza- edota irismen-mugak ere, lehen esan dugun bezala.

Hezkuntza formalaren arloan, hezkuntza-sistema halakotzat jotzea ezinbestekoa dela uste dugu. Sistema batek modu optimizatuan, gardenean eta partizipatiboan lortzen badu bere osagai guztiak biltzea, eta hezkuntza-sistema den aldetik, ez du beste deitzailerik behar berezkoak dituen alderdiak izendatzeko. Hezkuntza hezkuntza da, edo beste zerbait da.

Bestalde, bereziki azpimarratu zen hierarkiak gutxitzeko beharra eta hezkuntza-komunitate guztia benetan biltzekoa, oso kontuan hartuta erabakiak hartzeko orduan bertikaltasuna beti aplikatzen dela bere burua “goikotzat” duen horretatik zuzenean “behekotzat” jotzen den horretara: Administrazioak zuzendaritza-taldee, zuzendaritza-taldeek irakasleei, irakasleek administrazioari eta zerbitzu-talderi, eta horiek familia eta ikasleei. Mingarria da ikustea, erabakiak hartzeari dagokionez, nola naturalizatu den hitza lapurtzea gazteei, eta zer esanik ez haurrei, eskola eta institutuetan, Haurren Eskubideen Hitzarmenaren 12. artikulua gorabehera.

Horizontaltasun horrek eramango gaitu benetan aurrera. Horregatik, lehen aipatzen genituen elkarguneak gogora ekarriz, ikastetxeak elkarrizketa-gune modura erreibindikatzen ditugu, baita geure burua eta bata besteara zalantzan jartzeko gune modura ere, zalantzak, ahultasunak, erresistentziak edo kontraesanak aztertzeko eta geure burua birpentsatzeko, baita gizartetik iristen zaizkigun edota guk geuk zabaldu edo sortzen ditugun gezurrak aztertzeko ere. Berriz azpimarratu behar da ingurunearekiko bi noranzkoko bide baten beharraz, eta lokaletik globalerako, pertsona guztientzat askatzaileak izango diren jardunbideak agerian jarri eta partekatuz, curriculum tradizionalaren uztarririk gabe. Halaber, administrazioei eskatu behar zaie jardunbide horiek babes eta onar ditzatela, bai hasierako zein etengabeko prestakuntzan, bai irakasle-taldeentzako lehiaketa-oposizioetan. Sistemari ere jarri behar dizkiogu “gizarte-eraldaketarako hezkuntzako betaurrekoak”.

Elkartzen gaituen hori azpimarratzen dugu, eta agerian jartzen hezkuntza formalaren barruan bizirik egotea nahi dugun hori azaleratzeko behar etengabea. Baita ezabatu nahi duguna ere. Aurrea hartzeko ikasketa modura, kaltegarriak diren zenbait konstanteren inguruan erne egon beharra dago, aldeaz aurretik atzemateko, hala nola suizidio kapitalista, neoliberal eta likidoaren hizkera komertzial-kontsumista. Ez eta mila bider ez: ez dugu “hil arte kontsumitu” nahi.

SKT honetan aztertzen saiatzen ari garen ildo estrategikoarekin bat, jada antolatuta dauden sareen eta aliantzen balioa nabarmendu nahi dugu, instituzionaltasun zurrun baten beharrik gabe. Gure motibazioa da bilatzea eta partekatzea testuinguru bakoitzean pizten, adore ematen, berotzen eta bizitza ematen duten "txinpartak", "su txikiak", Galeanok esango lukeen bezala. Ongi funtzionatzen duten eta beste tresna batzuk sortzen ari diren formulak, eta balioztatuak direnak erabiltzen dituztenen eta dimentsionatzen dituztenen aldetik, jende gehiago erakarriz, kalera ateraz eta ezagutza partekatzeko sortuz. Ezagutza horiek ez dira nahitaez erreplikatu beharrekoak, baina bai beste begi eta eskuekin elkartzeko orduan adeitsuagoak izateko borondatea izatea, gizarte-ekintza eta lankidetzaren eremozionalki ulergarria izan dadin.

Sare hauetan behin eta berriz heldu zitzaion administrazio publikoen ekintzarekiko elkarrizketa, sinergia edo konfrontazioa. Oro har, administrazioa beharrezko laguntzaile zati bat izan, baina baita laguntzaile partzialtzat ere gehiegitan. Errazago ikusi ohi da hirugarren sektoreko beste erakundeekiko elkartasuna, edota herritarrekiko oro har. Ustea da botere publikoek, oro har, zerbitzurako izaera berreskuratu beharko luketela, baina ez saioetan ez ohar hauetan gai hori ez da askorik aztertu, tamalez, alde aurretik erantzunak jada ezagutzen dituelako irakurleak.

Azaldu zen beste gai bat izan zen diskurtso politikoa ez uzteko beharra (sare sozialak, (des)informazio-bide tradizionalak eta alternatiboak, nahiz eta askotan arreta handiagoa jartzen duten alderdi teknikoan edukian baino), zailtasunak eta hitz egiteko prest ez daudenak gorabehera, proaktiboki jardun ahal izateko guztien onuran. Aldi berean, eremu berriak ireki behar dira beste narrazio batzuk ere ordezkatuak eta eroso egon daitezen, tartean teknologiak egon gabe, kalea, plaza berreskuratuta, lehen aipatu dugun zentzuan. Zirkulazio-toki bat, toki bat beste batekin presaz lotzen duena, eta, askotan, modu ez-jasangarrian, baino zerbait gehiago izango den eremu publiko bat. Kale pasabideak izan beharrez, kale egongelak izatea, narrazioak sortzeko, kontrannarrazioak eta horien kontrakoak identifikatzeko.

Eremu diskurtsibo eta partekatu guztietan bezala, gure denbora izan genuen esperientziak eta horietatik ikasitakoa eta sortutako mugariak partekatzeko. Ekintzak barne-barnetik eta samurtasunez aurkeztu ziren, eta, noski, asmo inklusiboak, hainbat gairi buruz: irrati komunitarioa eta eskolakoa; gorrotozko diskurtsoak; Garapen Jasangarriko Helburuak; emakumeek eta mugimendu feministak egindako borroka heteropatriarkatua indargabetzeko; denbora libre; parte-hartzea eta kolektibo urratuak; dibertsitateak edo aldagaiak politikan eragiteko, eta, horretarako, berariazko kanpainak egitea. Beste eremu batzuetako sareen inguruan ere hitz egin zen: Sahara, hain gaizki tratatua, eta Afrikako beste toki batzuk; nazioarteko hezkuntza-sareak; ingurumenaren eta ekologiaren inguruko sareak; pobrezia kontrako borroka; intersektionalitateak...

## 4.2 Sorkuntza Kolektiboko Taldea



**Dinamizatzailea:** María Viadero Acha eta Lidia Ruiz Gómez<sup>1</sup>

**Kontalaria:** José Antonio Antón Valero eta Clara Ruíz Navarro<sup>2</sup>

**Laguntzailea:** Claudia Johanna Riaño Pulido<sup>3</sup>

Laneko hiru uneetarako aurreikusitako eskema:

1. Sarrera. Ardatzak zehaztu, metodologia eta geure burua aurkeztu. Jardunbide egokiak sareko gure lanean, aliantzak eta bestelako komunikazioa
2. Identifikatutako ikasketa eta elementu gakoetan sakondu.
3. Testuinguruko mehatxuak, eta horiei aurre egiteko proposamenak.

### Lehen unea **Jardunbide egokiak sareko lanean, aliantzetan eta komunikazioetan**

Dinamizatzaileen, kontalarien eta boluntarioen aurkezpena. Ardatzak zehaztuz:

**Sareak eta aliantzak.** “Nola egiten dugu?” galderatik abiatuta, planteatu dugu esperientzien sektorekako zatiketa gaingitzea, hezkuntza-estrategiak eraikitzeke zentzu eraldatzailean. Horretarako, horizontaltasun iraunkor eta elkarrizketatua planteatu dugu, berreraikitzailea...

**Bestelako komunikazioak** (zer zentzu ematen diogun kanporantz eta gure jardunbide propioetarantz). Ohartzen gara teknoesferan bizi garela, eta digitalarekin lotura duen guztiarekin, pandemia-testuingu batean. Narrazio berriak sortu nahi ditugu, eta sistemaren inposizio hegemonikoari eutsiko dion kontrakultura bat. Hala, geure buruari planteatu diogu komunikazioan nola gehitu analisi konplexuak, sentipentsatzekoak, dekolonialak...



**Metodologia:** asmoa da taldeari ideiak/gakoak/gogoetak sortzen laguntzea, eztabaidarako eta elkarren arteko lanerako gune bat sustatuz, parte-hartzaileen ezagutzetatik abiatuta. Parte hartzeko jarraibide orokorrak:

- 1 Mugarik Gabe.
- 2 Entrepobles.
- 3 Globalizazioa eta Garapena masterra, Hegoa.

- Gune honetaz disfrutatu sei ordu hauetan.
- Ezagutzak eraiki talde plurala garelako kontuan hartuta, bakoitzak dituen ezagutzak partekatuz.
- Ez da beharrezkoa akordio handiak lortzea, baizik eta puzzle bat osatzea gure bestelako esperientziekin. Zerk funtzionatu digun eta zerk ez jakinaraztea elkarri.
- Denon artean zaintzea denborak, espazioa, parte-hartzeak, entzutea...

Parte-hartzaileen aurkezpena eta zer espero duten jakinarazi: elkarri entzuteko, denon artean ikasteko, aliantzak osatzeko eta berriz elkartzeko gogoia da nagusi.

🎯 **Lan-proposamena:** Aurreko esperientzietatik abiatuta, gogoeta pertsonala egin. Lau taldetan lan egin, ikasbidea eskaintzen duten esperientziak partekatzeko eta elementuak identifikatzeko, arrakastatsuak zein ez. Gero, talde handian, talde txiki horietan agertutako indar-idea garrantzitsuenak partekatu.





Eztabaiden ondorioak:

## Sareak eta aliantzak

### 1. taldea

Errotik aldatu beharra daukagu, eta konfort-eremutik irten. Porrot egin, eta hutsegiteetatik ikasi behar dugu.

Barrutik kanporako aliantzak bilatu beharra.

Sareak eta aliantzak beharrezkoak dira, norabide berean elkarguneak aurkitzeko. Posible da aliantzak egitea gure artean, elkarguneak eta interes komunak bilatuta.

### 2. taldea

Sareko lanak interesak bateratzeko eta emozioak lantzeko tresnak izatea eskatzen du.

Sare etikoak sustatu behar ditugu. Militantziak zer eginkizun izan behar duen galdetuta, erantzuna izan da pertsonak ez geratzea lausotuta eta balioak beti presente egon beharra.

Sareko lanean, batzuetan, lehia sortzen da baliabideengatik, eta horren kontzientzia badago.

### 3. taldea

Sakabanaketa GGKEek dituzten eskaintzetan ikastetxeetan eta beste kultur-eremuetan. Ahaleginak, esperientziak eta baliabideak batu beharra, ikuspegi global eta koordinatu batetik, eta interes komunetan oinarrituta.

### 4. taldea

Sareko lana lehiari oinarrituta egiten bada (finantzaketa edo beste dela-eta) porrot egingo dugu. Konfiantzazko gunean sustatu behar dira, eta pertsona bakoitzaren ekarpena baliatu, aurrera egiteko modu bakarra den aldetik.

Aipatu da batzuetan errazagoa dela aliantzak egitea Hegoaldeko lurraldeetan, gure lurraldean baino. Kosta egiten zaigu tokiko beste GGKE gizarte-mugimendu batzuetara hurbiltzea.

Ezin da gutxietsi sare pertsonalen eta bestearekiko zuzeneko harremanaren balioa.

Batzuetan, sare bat osatzen duten gizarte-mugimenduen aniztasunak sarea porrotera eramán du; horren adibide bat Euskadiko Elikadura Subiranotasunaren Plataforma dugu. Ez zuen aurrera egin kolektiboen helburuak eta errealitateak oso desberdinak zirelako. Komenigarria al da sareak asko instituzionalizatzea? Horrek gatazkak eragozten ditu, ala areagotu?

Aipatu da oinarri soziala desagertzeko gero eta arrisku handiagoa dagoela. Ez dakigu nola iritsi gazteengana.

Kalitatezko gune demokratikoak, benetan parte hartu ahal izatekoak sortzeko beharra dagoela aipatu da. Batzuetan, erakundeetako eta elkarteetako zuzendaritzan ez dute oso ondo ulertzen auzi hori eta gai horiek. Elkarrizketarako, entzuteko eta halakoetarako trebeziak sustatu behar dira, beharrezkoak direlako hazteko.

Benetako borondatea behar da jendeari parte hartzera animatzeko. Hala, bada, ez dugu eztabaida kapitalizatu eta beti berek hitz egin behar.

Ohartu beharra dago parte-hartzea sustatzeak berekin dakarrela espazio publikoaren birpolitizazioa.

Mundu zatikatu eta "zarataz" bete batean, ez dugu lokalaren eta globalaren arteko lotura galdu behar. Jendeak sinetsi egin behar egiten duten horrek aurrera egiteko balio duela.

## Bestelako komunikazioak

### 1. taldea

Aliantzek komunikatzeko balio behar dute.

Ikasleek informazio eta esperientzia asko dute egunerokotasunean oinarrituta. Entzun egin behar ditugu. Ikuspuntu horiek benetan sartu beharra dago curriculumean, behar diren aldaketa metodologikoak alde batera utzi gabe. Erronka horri aurre egiteko, ezinbestekoa da irakasleak prestatzea ikuspegi psikopedagogikiko eta emozional batean oinarrituta.

Nola komunikatu planteatzeko orduan, garrantzitsua da mezu pizgarriak berreskuratzea.

Geure buruentzat komunikatzeko gurpil zorotik atera behar dugu. Desikasi, eta beste gizarte-sektore batzuetara egokitutako diskurtsoa sortu behar da.

Komunikazioa ez da epe laburrerako ulertu behar, baizik eta hazi bat balitz bezala, prozesuan erretuko dena.

### 3. taldea

Sarean lan egin eta komunikatzea erronka bat da.

Pertsona eta hezkuntzako erakunde eta eragile desberdinekin hitz egitearen alde egin behar dugu. Gazteekiko belaunaldiarteko komunikazioa eta elkar ulertzea falta da.

Aipatu da ez ditugula komunikazio-kanal berberak gazteek eta nagusiagoek. Ez ditugu sare sozial berberak erabiltzen, ezta hizkuntza bera ere.

Askotan, komunikazio-ekintzak planteatzen direnean, ez dira ondo ezagutzen ez ikastetxeak, ez errealitate soziokulturalak, ez testuingurua, dela ikasleena, dela herritarrena oro har.

## 4. taldea

Gizarte- eta informazio-errealitatea gorrotozko diskurtsoz josita dago. Narrazio berriak sustatu behar dira.

Badira esperientziak erakusten dutenak komunikabideekin lan ona egiteko aukera dagoela baliabide eta mezu argigarrietan ahalegin egokia eginez gero.

Ongi jokatu dugu pandemia-testuinguruan? Ikusi dugu joera handiagoa mundu teknologizaturako. Kontuan eduki behar dugu normaltasun berri honetan kostatzen ari zaigula aurrez aurrekorra, baina, horrek garrantzi handia du.

Komunikazioari eskaintzen dizkiogun ahaleginak berraztertu behar ditugu. Komunikazio instituzional gehiegi dago, eta gutxi gizarte-aldaketarekin lotutako proiektuetarako.

### Bigarren unea Identifikatutako ikasketa eta elementu elementu gakoetan sakondu

Gorputz-dinamika. Ikaskuntzak:

- Beldurrak sortzen zaizkigu sareak sortzeko eta besteengana hurbiltzeko orduan.
- Bakoitzak gure erritmoa daukagu aliantzak egiteko.
- Bat ongi sentitzen da besteekin elkartuta.
- Txikiak garela ematen du, baina handiak gara.
- Sareak daude sareen barruan.

🕒 **Lan-proposamena:** aurreko unean partekatutako gogoetak gaika berrantolatu, eztabaidetan sakontzeko. Lana bi unetan egin da, talde txikietan. Gero, bateratze-lana egin, eta ekarpen hauek jaso dira:

### Sareak eta aliantzak

#### Zertarako sareak

Nola zehazten ditugu sare bakoitzaren helburuak? Zer irizpideren arabera elkartzen gara? Norekin elkartzen gara?

- Garbi eduki behar ditugu helburu eta behar komunak, eragileen mapaketa on bat egin, gure zuzeneko ingurunea ezagutu eta elkarrekin zehaztu lan-plangintza estrategiko bat.
- Kontuan hartu behar da badirela talde ikusezin bihurtuak eta horiek gure sareetara biltzeko mekanismoak bilatu behar ditugula.

- Garrantzitsua da topaguneak erraztea et beste errealitate/erakunde batzuk ezagutzea esperientziak partekatzeke.
- Aliantzak eratzeak konfort-eremutik irtetea eskatzen du, dena ez dakigula onartzea, arriskuak hartzea eta, agian, zerbaitetan amore eman behar izatea.
- Planteatu behar dugu nola lan egin modu horizontalean eta partizipatiboan, modu iraunkorrean, kolaboratiboan eta ados jarrita, gatazkak gainditzeko.
- Hegemoniaren kontrako ikuspegia sendotu behar da, benetan lortu nahi duena gizarte-eraldaketa.

### Ikuspuntuak

Nola jarri hizketan pertsonak, lurraldeak eta borrokak? Nola artikulatu mugimendu lokalak eta nazioz gaindikoak? Zein ezagutzetan oinarrituta proposatzen ditugu sareak eta aliantzak?

- Beharrezkoa da sarearen barruan gure pribilegioak zalantzan jartzea, baita gure lan egiteko moduak eta harremanak ere gizarte-mugimenduen eta- erakundeen barruan, eta geure burua deskolonizatzea.
- Sareak emozionalak dira.
- Kontuan hartu behar da agian ni maila lokalean mugiarazten nauenak beste bat ere mugiaraz dezakeela beste lurralde batean; hala, bada, bateko eta besteko lurraldeetako borrokak lotzeko modua aurkitu behar dugu. Tokiko ekintza eta eguneroko arazoan erantzuna justizia globalarekin lotu.
- Interesgarria da aliantzak egitea komunikazioaren eta hezkuntzaren arloan (dela formala, ez-formala edo informala) eragina duten eragileekin.

### Zer eredu eraikitzen dugu sareen barruan?

Zer metodologia proposatzen ditugu? Nola eransten ditugu zainketak sarearen barnean? Nola kudeatzen dugu aniztasuna sarearen barnean? Nola sortzen eta mantentzen ditugu eremu demokratikoak?

- Garrantzitsua da geure burua prestatzea gatazken kudeaketan, kanpoko laguntza eskuratzea eta gune informalei denbora ematea.
- Kairosean (denbora, prozesu modura) lan egitearen alde gaude, etorkizunaren ikuspegia ekintza eraldatzailean, geldotasunean eta desazkundean oinarrituta.
- Eremu publiko, demokratiko eta partizipatibo bat eratzeko lan egin behar dugu, eta parte-hartzeari eta pentsamendu kritikoari begira hezi, metodo partizipatiboan bidez ahotsa emateko ahotsik ez dutenei.
- Gure jardueran koherente izan nahi dugu, eta, hala, gure eremuetan zainketak ezarri eta haiek despatriarkalizatu.

## Bestelako komunikazioak

### Norekin eta norentzat

- Hitza eman beste batzuei, eraldatzeko.
- Gure mezuek zenbait sektorentzat izan behar dute: ikasle, irakasle, nagusi, gazte, gizarte-kolektibo... Eta interes-talde bakoitzerako egokia den hizkuntza eta kanala erabili (askotan geure buruarentzat hitz egiten dugu).

### Zertarako

- Banaketa eta berreraikitze kulturalako gune kritiko eta alternatiboak sustatzeko. Eragina izateko eta mugiarazteko komunikatzen dugu. Kontuan izan behar dugu jardunbide eta dinamika eraldatzaileak bultzatzeko, aldaketaren eragileak eta subjektu politikoak inplikatzeko behar dela. Horrek eman dezake bidea eraldaketarako hezkuntza-prozesuak sortzeko, zeinek bizitzaren indibidualizazioa zalantzen jarriko duten eta agerian jarriko hezkuntza-eragile emantzipatzaileak.
- Komunikazio alternatiboak hautsi egin behar du boteretik eta “errealitate likidotik” datorren ezagutzaren monopolioa, ikus-entzunezkoen, komunikabideen eta sare sozialen alfabetatze kritiko baten bidez.
- Hartzaile izan ordez sortzaile izatea da kontua, ezagutza partekatua sustatzea, alderdi publikoaz jabetzea eta kulturaren eta multimedien libreen ekoizpenerako gune libreak gehitzea.

### Edukiak

Zer ezagutzatan oinarrituta? Zer ezagutza lehenesten ditugu? Zer narrazio berri sortzen ditugu? Zer tresna dauzkagu bestelako komunikazioetarako? Sentipentsalariak, emozionalak...?

- Modu pertsonalean, zuzenean konektatzeko komunikatzen gara, egunerokotasunena oinarrituta, bizi-errealitateak eta -esperientziak konektatuz. Mezu pizgarriak berreskuratu behar ditugu, beste errealitate, ikuspegi eta lurralde batzuetatik (ikuspegi interseksionala) datozen ahotsak bilduko dituztenak.
- Entzun egin behar dugu, komunikazio horizontala erabili, protagonistak kontuan hartuta.
- Komunikatzeaz gain, lagun egin.
- Beste narrazio eta ikuspegi batzuk bildu: belaunaldiartekoak eta interseksionalak. Bi noranzkoko komunikazioa gauzatu.

- Komunikatu gorroto-diskurtsoei aurre egiteko.
- Komeni da komunikabideekin, tradizionalak zein alternatiboak, egiten den lanean sakontzea.
- Barne-komunikazioei dagokienez, garrantzitsua da zainketak kontuan hartzea, antolaketa-egitura demokratikoak eratuz eta mekanismo baztertzailak identifikatuz.

## Hezkuntza eremu formalean

### Zer eduki eta ezagutza lehenesten ditugu? Zer tresna eta kanal erabiltzen ditugu?

- Benetako motibaziorako, funtsezkoa da inguruneko eta komunitateko beharren gainean lan egitea, gizartean benetan garrantzitsuak diren arazoaren gainean, errealitate soziopolitikoarekin lotuta, pentsarazi eta galderak egitera bultzatuko dutenak. Curriculumetako edukiek ez dute soilik eduki kontzeptualak bildu behar, baizik eta baita eduki baloratzailak eta hezkuntza-emozionala ere jaso behar dituzte. Hezkuntza-ikuspegi horrek Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuaren parte izan behar du. Horri dagokionez, ikastetxeetan egiten diren ekintzak puntualak izaten direnez, “espezialisten” esku uzteko ohitura izaten da sozialki garrantzitsuak diren gaiak lantzeko ikuspegia duen irakaskuntza.
- Aipatu da ez ditugula gazteek erabiltzen dituzten kanal berberak erabiltzen. Beharrezkoa da kontuan hartzea errealitate soziokulturala eta ikasgelakoa, eta gertuko kanalak eta hizkuntzak erabili komunikazioa benetan gerta dadin.
- Irakasleekin lan egin behar dugu, lan-talde eta proiektu egonkorrek sortzeko gehiegizko espezializazioaren aurrean (batez ere, bigarren hezkuntzan), zeinak departamentu didaktikoa konpartimentu estankotan bakartuta uzten duen, eta elkarlana eragozten.
- Parte-hartzea benetakoa izan dadin, ikasleei ahotsa eman behar zaie. Ikastetxeak demokratizatu behar dira, ikasleei eta, oro har, hezkuntza-komunitateari protagonismo handiagoa emanda.
- Aipatu da hezkuntza-sisteman aldaketa behar dela, emozioari eta ekintzari/konpromisoari leku eginez, eta behar dela, halaber, artikulazioa jardunbide sozialen curriculumean, ikuspegi feministan eta ekosozialean oinarrituta eta hezkuntza formalaren eta ez-formalaren arteko sare komunitarioak indartuta.

## Hirugarren unea Testuinguruaren mehatxuak eta horiei aurre egiteko proposamenak

- ⊙ **Lan-proposamena:** bakoitzak bere aldetik gogoeta egiteko denbora bat eman ondoren, aurrean ditugun testuinguru globaleko mehatxu eta elementuak identifikatzea planteatu da, eta aldaketarako proposamenak edota alternatiba eraldatzaileak bilatzea denon artean.

Testuinguruko mehatxuak, eta aldaketarako ekintza-proposamenak:

Testuinguruko mehatxuak	Aldaketarako ekintza-proposamenak
Protestaren kriminalizazioa	Konpromiso kolektiboa indartu, mobilizatu eta salatu, erakunde eta kolektibo guztientzako babes-sareak sortuz.
Eskuin-muturra indartzen ari da (gorroto-diskurtsoak, xenofobia, matxismoa). Beldurra, sinplifikazioa, komunikabideen lobby oso indartsua, desinformazioa, saturazioa.	Ziurgabetasun askatzaileak sortu. Eguneroko inguruneetan komunikazio hurbilagoz jardun. Akordioak lortu lerro gorri ideologikoen inguruan, eta diskurtsoak ez zuritu. Memoria historikoa berreskuratu.
Sistemaren eta naturaren mugak gaintu dira.	Desazkundera, politika publikoek bultzatua. Narrazio alternatiboak, pizgarriak eta hurbilekoak sortu. Ekonomia zirkularra, eta berriz ikasi modu lasaian eta atseginean bizitzen, hainbeste kontsumitu behar izan gabe eta planeta pikutara bidali gabe.
Klima-krisia.	Lurraldearen berriz konektatu eta berarekiko atxikimendua, erreferente lokalak bilatu.
Bizitzaren prekarizazioa (zainketen krisia).	Osasun mentala eta dibertsitate funtzionala bildu gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren proposamenean.
Gizartearen mobilizazio falta.	Zinema, arte plastikoak eta kultura baliatu. Ikaskuntza eta zerbitzuaren gaineko proiektu gehiago egin. Gizarte-eraldaketarako hezkuntza kritikoa.
Lankidetzaren deuseztapena (lankidetzarako politika publikoek atzera egin dute).	Harreman horizontala bultzatu lankidetzako eragile guztien artean (administrazioak eta gizarte zibileko erakundeak).

Testuinguruko mehatxuak	Aldaketarako ekintza-proposamenak
Hiriguneen masifikazioa eta landaguneen hustuketa.	Bizitza erdigunean ezarriko duten alternatiba jasangarriak aurrera eramateko aukera. Baserriko lana eta bizimodua balioetsi.
Sistemak bere egiten du gure diskurtsoa, eta hizkuntza usurpatu ( <i>greenwashing</i> ). Kapitalismoa gure hitzez jabetzen da (trantsizioa, 0 kilometroa, jasangarritasuna...).	Bizitza sostengatzen duten ondasun oinarritzkoak merkatutik aterarazi, eta komunitatera eraman.

### Zer espektatiba bete dira?

- Partekatzea.
- Ikastea, ezagutzea.
- Gizarte-eraldaketarako hezkuntzari buruzko eztabaidak jasotzea, gure lan- eta aktibismo-eremuetara eraman ahal izateko.
- Indarrak eta ilusioa biltzea.
- Eraikuntza optimista.
- Burbuilatik irtetea.
- Bidean asko garelara ikustea.
- Berriz biltzea.
- Aliantzak.
- Mugak irekitzea.
- Ilusioak berreraikitzea.
- Sareak sortzea.
- Ekintza sustatzeko ideiak jasotzea.







**Eta aurrerantzean, zer?**



## Eta aurrerantzean, zer?

Amaia del Río eta Iris Murillo<sup>1</sup>

Amaitzeko, artikulu honek Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren V. Biltzarreko espazioetan egin ziren gogoetetako batzuk uztartzen ditu, ildo estrategiko bakoitzak ezartzen duen proposamenetik birpentsatzeko helburuarekin.

2021eko azaroaren 18, 19 eta 20an Gasteizen egindako topaketa horren asmoa ez zen adostasunak lortzea, baizik eta erreallitera hurbiltzeko modu desberdinen eta gizarte-eraldaketaren interesarekin duen loturaren arteko eztabaidarako gune bat eskaintzea. Horrela, testu honek askotariko begiradak (adostuak eta aurkakoak) eta eztabaidak (batzuk adostasunera iristen direnak eta beste batzuk amaitu gabeak) biltzen ditu labur-labur.

Ondoren, Sorkuntza Kolektiboko Taldeetatik (aurrerantzean, SKT) ateratako ideia orokor batzuk bildu ditugu, eta gonbidatutako pentsalarien ekarpen batzuekin lotuta aurkeztuko ditugu.

Ekitaldi honetan parte hartzen duten pertsonak Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren kontzeptua desberdin ulertzen duten arren, hainbat elementu komun ezartzen dira. Alde batetik, hezkuntza berez ekintza politikoa dela aitortzearen garrantzia nabarmentzen da. Hortaz, ez dago hezkuntza neutrorik, ezta ezagutza objektiborik eta unibertsalizagarrikerik ere (ezta teknikoak eta/edo zientifikoak ere). Maria Paula Meneses-ek gogorarazi duenez, zientzia (gizarte eraldatzeko interesgarria izanik ere) munduko beste ezagutza-moduetako bat baino ez da. Egileak gogorarazi du jakintzen ekologia justizia kognitiboko proposamena dela, eta horren helburua dela ezagutza mota baten beste baten gaineko hierarkizazioari aurre egitea (akademikoa vs. soziala, zientifiko vs. tradizionala eta abar). Ildo horretan, proposamen honen printzipioaren oinarri da ezagutza oro partziala eta kokatua dela, nahiz eta unibertsala izateko anbizioa izan.

Idea horren harira, Lia Pinheirok gogorarazi du ezagutza eraikitzekeo prozesuan kontzeptu- eta pentsamendu-matrize ez-hegemonikoei (adibidez, *Abya Yalaren* milaka urteko filosofiei) eragiten dieten sailkapen-logika dikotomikoak (baliozko ezagutza versus baliogabea) dihardutelara. Horren ondorioz, adibidez, *sentipentsamendua* ez da onartzen ezagutza sortzeko batasun dialektikoaren proposamen gisa.

---

1 Hegoako Hezkuntza Taldea.

Hezkuntza-prozesuak ez dira botere-harremanekiko iragazgaitzak, ezta sistema hegemonikoekiko ere; horregatik, SKTek pribilegioak eta zapalkuntza anizkoitzeko sistema nola erreproduzitzen diren onartzearen garrantzia adierazten dute. Hezkuntza birpentsatzea (non gertatzen den, zer prozesu-motaren bidez gertatzen den, norke parte hartzen duten) funtsezkotzat jotzen da gizarte eralda dezaketen subjektu politikoak eraikiko dituen hezkuntzan aurrera egiteko.

Hezkuntzari jarduera-eremu guztietatik heltzen zaio; ulertzen da hezkuntza-prozesuak ez direla hezkuntza formalera mugatzen, baizik eta hezkuntza ez-formala eta informala ere hartzen dutela. Juan José Celoriok dioenez: “une eta gune orotan ikasten dugu”. SKTek berariaz hitz egin zuten, hitz egin ere, hezkuntza formalari buruz, eta arreta hezkuntza-komunitateak sortzeko premian jarri zuten. Hezkuntza-komunitatearen kontzeptua modu desberdinean interpretatzen da. Pertsona batzuek hezkuntza formalaren hedapen gisa ulertzen dute, gizarte-eragileak hezkuntza-sisteman parte hartzera gonbidatzen dituen, eta beste batzuek, berriz, Marta Pascualek esaterako, gizarte osoarekin lotura eta harmonia argian proposatzen dute hezkuntza-komunitate hori.

Nolanahi ere, testuinguruan kokatutako eta lurraldeari lotutako hezkuntzaren garrantzia nabarmentzen da, baita “curriculum” beste jakintza batzuekin, urrunekoekin eta antzinakoekin, “basoberritzeko” beharra ere.

Gizarte-mugimendu kontrahegemonikoek hezkuntza-prozesu emantzipatzaileei egindako ekarpena adostasun-gaia izan zen talde guztietan. Gizarte-mugimenduek, borroken, erresistentzien eta errebeldien subjektu protagonista diren aldetik, hezkuntza eraldatzailea egiten dute beren praxi politikitik abiatuta.

Azkenik, nabarmentzekoa da, Rosalba Icazak aurreratu bezala, “deskolonizazioa” kontzeptua era desberdinean ulertu eta aplikatzen duela subjektuen aniztasunak. *Abya Yalako* jatorrizko herrientzat autodeterminazioak eta autonomiak lurralde-gorputz-Lurraren defentsarako zentzu politiko-etikoa dute; Europan, berriz, lan egiten dugun kategoria, diziplina eta pedagogietan arraza-hierarkien erreprodukzioan dugun inplikazioa zalantzan jartzeko ahaleginean zentratzen da.

Hortik aurrera, Ildo Estrategikoetako lantaldeetan sortutako hausnarketak eta gonbidatutako pentsalarien planteamenduak uztartzen saiatu gara.

## Gorputzak eta lurraldeak

Lia Pinheirok gogora ekarri duenez, “Lurraldea/gorputza” kontzeptua *Abya Yalaren* gizarte-mugimendu emantzipatzaileetako batzuk osatzen dituzten emakume indigenen proposamena da. Nozio horrek aurrez aurre jartzen ditu paradigma kapitalista eta esplotaziozko kapitalismoaren politika biozida (emakumeen gorputzena eta naturarena), eta organikoki lotzen ditu gorputzaren defentsa eta lurraldeen eta erkideen defentsa.

SKTetan hainbat ikuspegitatik hurbildu ziren kontzeptu horretara, parte-hartzaileak parte diren errealitatearen arabera (inola ere ez emakume indigenena).

Ildo Estrategiko horretako bi taldeek agerian utzi zuten hezkuntza-prozesuak ez direla iragazgaitzak hegemonia-sistemarekiko (eta haien zapalkuntza/pribilegioko ardatz anitzekiko); horien bidez, gorputz normatiboak eta lurralde menderatzaileak zein diren atzematen eta naturalizatzen dugu. Logika bitar eta hierarkikoetatik abiatuta, gorputzak eta lurraldeak interpretatzen irakasten digute; iparraldea vs hegoaldea; hirikoa vs landa-eremukoa; maskulinoa vs femeninoa; heterosexuala vs aniztasuna, eta abar.

Analisi horretatik abiatuta, gorputzek eta lurraldeek zapalkuntza-sistema anitzak erakusten dituzte (kapitalista, heteropatriarkala, koloniala, biozidakoa eta abar), elkarri estuki lotuta. Eredu neoliberalak beren *statu quoa* mantentzeko ustiatu beharreko gorputz mendekotuen existentzian hezten gaitu, eta, halaber, natura haien erauzketa-erabilerarako erabilgarri duten baliabide infinitu gisa ulertzen irakasten digu. Sistema kapitalistak normalizatu egiten du bizitzen ustiapena eta merkatuaren zerbitzura jartzen ditu bizitza horiek (interes ekonomikoak nagusi dira beharrezan eta bizi-zikloen gainetik). Identitate hegemonikoak (zisheteronormatiboak) zeintzuk diren ikasten dugu, eta sistema arrazista eta koloniala barneratzen dugu (iragan kolonialean eta orainaldi neokolonialean oinarritutako arraza-hierarkiak normalizatuz).

Bi espazio horiek (gorputza eta lurraldea) askotan bereizi agertzen dira, haien arteko lotura eta harremana ikusezin bihurtuta. Horrela, hezkuntza-prozesuetan hautemandako arazoetako bat lurraldearekiko deskonexioa da, hain zuzen ere. Ildo horretan, eta hezkuntza formalaren arloan, Marta Pascualek aipatu du beharrezkoa dela eskolak lurralde bakoitzeko errealitatean eta arazoetan jardutea, eta hala, hezkuntza norabide bakarreko eta aurrez ezarritako ezagutza teorikoen transferentzia gisa ulertzea dakarren *erosotasun-eremua* gainditu behar du.

Talde batek gogora dakarkigu “gorputzak lurralde zehatzetan bizitzen ditugula” eta, beraz, kokatuta dauden gorputzetatik hitz egiten dugula. Sortzen eta erreproduzitzen ditugun ezagutzak testuinguruak eta gure ezaugarri den subjektibotasunak moldatuta daude; ezagutza horri “ezagutza kokatua” deitu zaio (Donna Haraway, 1991). Rosalba Icazak gorputza oroimen gisa ulertzearen garrantzia gogorarazten du, teologo feminista afro-diasporikoen arabera, gorputza denborazkotasun anitzen bitartekari gisa ezartzen duen kontzepzioa baita; alegia, “gorputza” kontzeptuak ez du barne hartzen gaur egun irudikatzen duena bakarrik, baizik eta bere aurretik dagoenarekin, inguratzen duen antzinakoarekin, Lurrarekin duen harremanetik irakurri behar da. Alde horretatik, egileak dio ezagutzak berariazko jatorri geo-historikoa eta korpo-politikoa duela.

Ideia horiek gure ezagutza baldintzatuta dagoela eta beti partziala dela onartzera daramate nahitaez. Hala ere, partzialtasun horrek —baliogabetzetik urrun— balioa ematen dio ezagutzaren neutraltasunik ezari, eta absentiak onartzen ditu

(ikusten, ulertzen edo kontzebitzen ez duguna); horrek beste jakintza batzuetan arakatzeko adinako irekitasuna ahalbidetzen du. Kontuan hartuta interpretazio nagusiaren paradigmatik jakintzak hierarkizatzen dituela, irekitasun hori funtsezkoa da jakintza-elkarrizketa horizontalerantz aurrera egiteko eta Maria Paula Menesesek aipatzen duen jakintza-ekologia utopikoa lortzeko.

SKTek adierazten dutenez, askotan, hezkuntza-prozesuak sistema hegemonikoa erreproduzitzen badute ere, haien eraldaketa-ahalmena ere nabarmentzen dute; erresistentziak eta disidentziak sortzeko gaitasuna, gizartean eta komunitatean sortzen eta mugitzen direnak. Hezkuntza eraldatzaileak aldarrikatzen duenez, lehenbailehen ulertu behar dugu gure bizitzak eta etorkizuna besteekin eta komunitatearekin (interdependentsia) lotuta daudela eta ekosistema baten (ekomendekotasuna) parte garela; horrela, gorputzaren eta lurraldearen arteko lotura agerian uzten du.

Subjektu politikoak, gorputzetik aztertuta, identitateen auzira bideratzen du eztabaida. Interseksionalitateak erakusten du horiek kategoria biosozial, kultural eta ekonomikoen eta abarren gainean eratzen direla, sistema hegemonikoak ezartzen dituen pribilegiozko/zapalkuntzako ardatzetan oinarrituta. Kategoria horiek (hezkuntzarako sarbidea, arrazializazioa, kapazitismoa, klase soziala, sexu- eta genero-identitatea, eta abar luze bat barne hartzen dituztenak) pertsonak atzematen dituzte, eta hala, pribilegioak “naturalizatzea” lortzen da. Beste era batera esanda, desberdintasuna “normala” balitz bezala ezartzea lortzen da. Horrela, zapalkuntzak erresistentziarako gune bihurtzen dira, arauak, “naturalizatua” eta hegemonikoa irakasteko eta horri aurre egiten ikasteko.

## Eraikuntza komunitarioa

Indibidualizazio-prozesu bat dago, eta horren bidez mundua ikusten, aztertzen eta eragiten ikasi dugu, gure interes partikularrean oinarrituta. Marta Pascualek salatu du guztion ongian pentsatzeari uko egiten dion kultura-eredua inposatu dela, eta horretarako, eskubideen kontzeptua bidegabe erabiltzen da eta kontzeptu hori kontsumo-zerbitzu eta -ondasun sofistikatuarekin lotzen da.

“Niaren filosofia” horren aurrean, ezinbestekoa da indibidualizazio-prozesua iraultzea, besteak beste, gizarte-, politika-, kultura- eta ekonomia-arloetatik abiatuta eta, guztion ongizatearen bila, nahi ditugun gizarteak (justiziari, jasangarritasunari eta aniztasunari dagokienez) eraikitzeak aukera emango diguten hezkuntza-estrategien bidez.

Komunitatean bizitzeak berez ez du esan nahi komunitate-ikuspegiaren arabera bizitzea, horrek berekin baitakar subjektuak kontzientzia hartzea eta parte-hartze aktiboa izatea parte den eta horrekin batera eraiki nahi duen komunitatearen barruan (kide izatearen sentimendua). Komunitatea eraikitzeak (kontzeptu gisa) komunitatea indartzera eta bizitza duinak eta zoriotsuak garatuko diren

ingurune bidezko, zuzen, jasagarri eta zainduetan oinarritutako gizarte-proiektu bat sortzera bideratutako prozesu bat hartzen du barne.

Taldeek komunitate-zentzu hori galdu egin dela adierazi zuten, batez ere gizarte aberastuetan, eta adierazi zuten, halaber, garrantzitsua dela komunitateari esanahi berria ematea; alegia, komunitatean bizitzea zer den eta horrek esan nahi duenaren inguruan besteak eta gure burua hezi beharra.

Komunitatearen nozioa ere eztabaidagai da SKTetan. Zalantzan jartzen da, batetik, zerk edo nortzuk osatzen duten komunitatea (adibidez, ingurumena komunitatearen berezko zati gisa ulertu behar ote den), eta, bestetik, Estatuaren eta erakundeen zeregina (zentralak izan beharko luketen ala ez). Azken alderdi horri dagokionez, iritzi kontrajarriak daude. Batzuek adierazten dute arlo instituzionala eta soziala hurbildu behar direla (hezkuntza-sisteman eragile hezitzaileen figura aldarrikatuz, adibidez), eta beste batzuen iritzi, horrek komunitate-arlokoaren instituzionalizazioa ekarriko luke. Azken ikuspegi horretatik, eraikuntza komunitarioko prozesuetan erakundeen zeregina subsidiarioa izan dadila eskatzen da.

Taldeen esanetan, eraikuntza komunitarioa gatazkak izango dituen prozesu gisa ulertu behar da, komunitatean ere botere-harremanak gerta baitaitezke. Aukera horri aurre egiteko, "hurbiltasuna landu eta distantziak kudeatu" beharra aipatzen da, komunitatearen parte direnekiko parte-hartze erreala (ez instrumentala), irekia, horizontala eta elkarrizketatua ahalbidetzen duten mekanismoen bidez. Puntu honetan ezinbestekoa da herritarrek parte hartzeko guneak sortzea eta arazoak kudeatzea ahalbidetuko duen gatazka-pedagogia batetik ikastea.

Eraikuntza komunitarioan parte hartzen duten subjektu politikoak nortzuk diren eta nola parte hartzen duten funtsezko gaia da. Mendekotutako subjektuek beren erreklamazioen buru izan behar dute, eta haien interesak eremu publikora eraman behar dituzte, haien zapalkuntzak agerian gera daitezzen eta horiek sorrarazten dituen jatorria iker dezaten.

Komunitate bateko arazoak identifikatzea, jasotzen duten kategorizazioa (lehentasunezkoak diren ala ez) eta arazo horiei aurre egiteko estrategiak errealitatea ulertzeko, aztertzeko eta haren gainean jarduteko hainbat moduk baldintzatzen dute; alegia, komunitate batean elkarrekin bizi diren planteamenduen eta ikuspegi aniztasunak. Alderdi horri dagokionez, adostasunak (gutxieneko akordioak, bederen) ahalbidetuko dituzten helburu komunak ezartzearen garrantzia adierazten dute.

Krisiak herri-ekimenak eta gizarte-mugimenduen ekimenak hedatzeko aukera bihurtzen dira. Herritarrak mobilizatzeko aukera ematen duten inflexio-uneak dira. Garrantzitsua da estrategiak diseinatzea krisialdian sortzen diren esperientziak denborak aurrera egin ahala lurrundu ez daitezzen. Horrela, funtsezkoa da ahalegin horiek sendotzea eta horiek baliagarriak izatea egitura-aldaketen eragile izateko.

Partaidetza-prozesuetako botere-harremanei heltzean, lidergoen botereari eta boterearen erotikak desikasteko beharrari erreparatzen zaie, dinamika bertikalei

eta aginte-dinamikei aurre egiteko. Era berean, pertsona guztien parte-hartzea bermatzeko erronka aipatzen da, baita pertsona horien testuinguruagatik, egoera partikularragatik edo egiturazko arazoengatik zailtasun handienak dituztenena ere. Erronka garrantzitsua da hori; izan ere, komunitate-eraikuntza herrikoa, bidezkoa eta askotarikoa izango da horizontaltasun- eta elkarriketa-baldintzetan gauzatzen bada.

Epe laburrera beste erronka batzuk ere antzeman ziren. Hezkuntza-interesaren ikuspegitik, hauek nabarmendu nahi ditugu: komunitate-izaeran (ber)heztzea, gizarte-justiziarri lotuta; prozesu komunitarioetan parte hartzearen aldeko interesa ezartzea ahalbidetuko duten komunikazio-estrategiak erabiltzea; indibidualismoari eta meritokraziari aurre egiteko *beste* pedagogia batzuk onartzea; parte-hartzearen inguruko ikaspena, izateko eta ezagutzeko estrategia gisa; kultura komunitarioa hedatzea, eta abar.

## Ikaskuntza aurre hartzailea

Ikasteko modu horretan, bizi daitezkeen etorkizunak irudikatzen dira; etorkizun utopiko desiratuen gainean imajinario kolektiboak eraikitzen dira, horizontea markatuko dutenak eta horizonte horietarako orainaldiko trantsizio-estrategiak sortzea erraztuko dutenak.

Nahi dugun etorkizunean pentsatzen dugunean, SKTetako baten arabera, batzuetan ikuspegi ezinezko eta inozoetatik, baina ikuspegi desiratuetatik pentsatzen dugu, eta, beraz, ikuspegi horiek beharrezkoak ditugu egungo errealitatea nola aldatu eta nahi dugun errealiterantz nola joan pentsatzeko ametsak proiektatzeko. Etorkizun utopikoak irudikatzea lehen urratsa da, ameskeriazkoa baina premiazkoa. Ariketa horrek pertsonen arteko eta pertsonen eta naturaren arteko etorkizuneko gizarte harmonikoago batekin lotzen gaitu. Errespetuan eta zaintzan oinarritutako harreman-moduak nagusi izango dituen geroa bultzatu, eta logika merkantilistak baztertzen ditu, oso lehiakorrek eta indibidualistak baitira.

Taldeetako batek honako hau gogorarazi du: “estrategia itxaropentsuagoak taldean irudikatzeaz ari gara, ziurgabetasun askatzailean hezteko”. Gaur egun, hiru erronka planteatzen dizkiguten etorkizuneko ziurgabetasunei aurre egin behar diegu. Lehenengoa, ekosistemak berak gizateriaren eraginez (antropozenoa) arriskuan dituen mundu baten krisiei eta erronkei aurre egiteko beldurrari neurria hartzea. Bigarrena, mugaketei neurria hartzea muga ekosozialak (naturakoak zein gizartekoak) ukatzen dituen kultura baten parte garenean. Hirugarrena, nahi dugun etorkizuna irudikatzea eta ziurgabetasunari konplexutasunetik heltzea. Azken puntu horretan, taldeek urruneko gertaerak irudikatze baliabide urriak nabarmendu dituzte (zaila egiten zaigu estereotipoetatik haratagoko geroak imajinatzea).

Sortzen ari garen arazo ekosozialei aurre egiteko beldurraren aitzinean (batez ere Ipar globaletik), ikuspegi kontserbadoreen etorkizuneko ikuspegi distopikoak



proposatzen dituzte, non kaosa nagusi izango den (nork bere burua salba dezala). Edo, halakorik ezean, planetaren arazoetarako irtenbideak (paralisi soziala) bilatzea “autoritateen”, zientziaren eta/edo teknologiaren esku uztera gonbidatzen duten ikuspegiak. Isabelle Stengers-ek estrategia horiei “infernuko alternatibak” deitzen die, eta salatzen du estrategia horiek politika desberdinak, gizatasun gabetzaileak eta bizitzarekiko aurkakoak justifikatzen dituzten aukera bitarrak dituztela (“laguntzak murrizten ez baditugu, sistema erori egingo da”, “mugak indartzen ez baditugu, inbaditu egingo gaituzte”). Hezkuntzak, ikaskuntza aurreratutik abiatuta, alternatibak sortzeko gai izan behar du, ikuspegi horiei kontrajarrita.

Etorkizuneko distopiko horiei aurre egiteko eta gure etorkizuneko utopikoak eraikitzekeo jardunean, beharrezkoa da begirada kritiko eta kokatua izatea, pentsatzeko eta jarduteko aukera emango digun “lurzorua” ezartzeko. Ikuspegi horrek ematen digu aukera etorkizun bizigarriak eraikitzekeo.

Errealitatearen azterketa kritiko hori egitean, ezin dugu ahaztu gure pribilegioak (berriz) pentsatzeak duen garrantzia, pribilegio horiek borrokatu nahi dugun sistema erreproduzitzen baitute. Berrikuspen horretatik abiatuta, etorkizun desiratu horietarantz joateko gure konpromisoak zehazten has gaitezke, zalantzan jarritz zeri uko egiteko prest gauden.

Infernuko alternatibaren “aterabiderik gabeko bide” horretatik irteteko, Stengers-ek “espekulazio-pentsamendua” proposatzen du; gaur egin daitekeena ikusten ikasi, egin daitekeen hori txikia bada ere, eta hori denboran luzatuz gero zer gertatuko litzatekeen irudikatu. Gaur egun posible diren eta bestelako bizimodu batzuetara bultzatzen duten ekimenetan pentsatzera gonbidatzen gaitu. Taldeek gogorarazi dute garrantzitsua dela sistemaren arrakalak eta horietatik sortzen diren emantzipazio-ekimenak aprobeztatzea. Gaur gero hainbat alternatiba martxan daude, eta, beraz, egokia da gaur gero egiten ari garenetik abiatzea (kultura-aldaketa, aniztasunaren onarpena, ekonomia komunitariorantzko ekintzak eta abar).

Kontakizunaren pedagogia baliabide interesgarria izan daiteke alternatiba horietara hurbiltzeko, baita beste errealitate batzuetara hurbiltzeko ere, haietatik ikasi eta aldaketari buruzko hausnarketa ahalbidetze aldera. Era berean, SKT taldeek adierazi dute garrantzitsua dela fantasiatik eta irudimenetik ikaskuntza aurreraturako proposamenak sustatzea hainbat espazio eta formatutan (arteak, zientzia, ikerketa eta abar barne), aldaketarako ahalmenak identifikatu ahal izateko.

Illo horretan, komunitateetan parte hartzeko espazioak izateko beharra identifikatzen da, nahi dugun etorkizuna birpentsatze aldera, kontuan hartuta, besteak beste, baztertuak izan eta ikusezin bihurtu diren jakintzak, eta “itxaropen arduratsu” batean hezkuntza-lan bat egin behar dela. Nabarmendu beharreko beste kontu bat utopiak pentsatzeak duen garrantzia da, ez soilik arlo publikotik, baita pribatutik ere (adibidez, familiaren eginkizuna eta konfigurazioa birpentsatzea).

Nahiz eta taldeek ez duten pentsamendua etorkizun izaeraz aztertzen, bai Maria Paula Menesesek, bai Rosalba Icazak egiten digute analisi hori. Ikuspegi dekolonialetik, bi egileek alde batera utzi ezin ditugun hausnarketak proposatzen

dituzte. Maria Paula Menesesek gogorarazi duenez, “aurreegin beharreko erronkarik handienetako bat da *kronos* modernoaren garapen deterministatik haratago joango den denbora baterako berraztertzea berrasmatea”. Izan ere, kosmobisio guztiek ez dute partekatzen iragana-oraina-etorkizuna ulertzeko modu lineal eta zatikatua. Pentsalariak “*kairosen* testuinguru” batera itzultzea proposatzen du, “non iragana, oraina eta geroa ez dauden bananduta, hots, elkarrekin existitzen dira”, errealitatearen ulermen askoz aberatsagoa ahalbidetzeko.

Rosalba Icazak, modernitateari egindako barne-kritikatik, gogorarazten du hezkuntza emantzipatzailea, berreraketa ontologiko-epistemiko-politiko-afektibo gisa ulertuta, ez dela segmenta daitekeen horizonte lineal bat (eta, horrela, geroa denbora desberdin gisa ulertu ahal izatea), baizik eta denbora eliptiko batean gertatzen dela; horretan, “iragana gure etorkizuna da”.

Egile horrek zalantzan jartzen du, orobat, “ziurgabetasun askatzaile”ren kontzeptua, eta ziurgabetasun hori modu desberdinetan bizi dela argudiatzen du; pribilegioetatik edo zapalkuntzetatik. Gogorarazten du ziurgabetasuna, desberdintasun kolonialaren aldean, galdu egin zela eta zauritua dela, eta, ikuspegi horretatik, bere iritziz deskolonizazioak berarekin dakar “geroko eta bizitzako horizonte kolonialak desikastea”.

## Sareak, aliantzak eta bestelako komunikazioak

Sareak eta aliantzak giltzarri dira hezkuntza-estrategia hezitzaileak eraikitzeko. “Sareak eta aliantzak” kontzeptuak askotariko esanahiak hartzen ditu, eta pertsona guztiek ez diote zentzu bera ematen. Pertsona eta erakunde askorentzat, sareez eta aliantzez hitz egiteak gizarte-mugimenduak eta horiek askotariko erakundeak eta kolektiboak tartean sartzeko duten gaitasuna dakartza gogora, batez ere. Hala ere, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren mugimenduaren barruan (gizarte-arloan jaio eta bertan mugitzen diren erakunde eta kolektiboak zein erakunde publikoa ordezkatzeko dutenak), irismena beste bat da. Batzuek eta besteek ematen dioten zentzua gorabehera, gizarte-mugimenduek hezteko duten ahalmena argi eta garbi dute aitortua eremu guztietan eta hala aitortzen diete biltzar honetan parte hartzen duten pertsona guztiek.

Marta Pascualek gogorarazi du gizarte-mugimenduek komunitate-muskulua indartzeko ahalmena dutela. Horrela, “aktibismoko eskolak” gisa definitzen ditu horien baitan sortzen diren sareak eta aliantzak; horietan, talde-antolaketako jardunak irakasten dira eta jakituria kolektiboa eraikitzen da.

Sareak eta aliantzak idealizatu beharrean, SKTek erronka batzuk identifikatzeko egiten duten lanaren konplexutasunean jartzen dute arreta. Erronka horiek hurrengo paragrafoan jaso ditugu.

Alde batetik, hainbat pertsona, erakunde eta kolektiboren artean lan egiteko sareak eta aliantzak aprobetxatzearen garrantzia antzematen da. Nahitaezkoa

da begirada sareetan eta aliantzetan dibertsifikatzea; izan ere, zenbaitetan, perspektiba eta tresna berberak "berrerabiltzen" dira, eta ondorioz, horien eragina murriztu eta horietan behin eta berriro eragiten da. Ildo horretan, ezinbestekotzat jotzen da *erosotasun-eremutik* irtetea, begiradak eta estrategiak dibertsifikatzea, eta huts egiteko beldurra galtzea, identifikatutako beste erronka bat arindu ahal izateko: herritarren parte-hartzea zabaltzea.

Bestalde, sareen eta aliantzen barruko aniztasuna aberastasun gisa ulertu behar da, baina baita erronka handi gisa ere. Askotan, horiek osatzen dituzten subjektuek (pertsonek, erakundeak, kolektiboak eta abar) helburu desberdinak dituzte; areago, testuinguru eta lurralde bereko arazoaren irakurketa desberdinak ere egiten dituzte. Gutxieneko akordioak lortu ahal izateko, nahitaezkozkat hartzen da helburuak argi izatea eta interes komunak eta horiek lortzeko moduak ezagutzea.

Sareek eta aliantzek guztiona den horren alde pentsatzeko eta lan egiteko aukera ematen dute, askotan, borrokarik partekatzen ez duten baina, ziurrenik, sustrai komunak dituzten arazoak konpontzen diharduten erakundearen arteko gutxieneko akordioaren bidez. Hainbat borroka-estrategia konbinatzea interesgarria izan daiteke, zapalkuntzen arteko elkarguneak identifikatzeko balio duen heinean. Lurralde berean lan egiten duten erakundearen eta taldeen aniztasuna adierazten duten erreklamazioei arreta jarritz gero, errealitatearen analisi konplexuago egin dezakegu, borroka elikatu eta eragina areagotu.

Idea horri jarraiki, Lia Pinheirok gogorarazten du mugimendu sozial emantzipatzaileek erakusten digutela, adibidez, landaren eta hiriaren arteko batasuna ezartzea posible dela; bideragarria dela agroekologia printzipio eta proiektu politiko gisa hartzea hirietan ere.

Horizontaltasunetik lan egin ahal izateko eta sare eta aliantza jasangarriak sortzeko, ezinbestekoa da botere-harremanei erantzutea, bai horien barruan, bai kanpoan. Botere-harremanak ez errepikatzen, barne-mailan beharrezkoa da modu parte-hartzaile, kolaboratibo eta jasangarrian lan egiteko formulak (bir) bilatzea; gatazkak gainditzea; eta premia-koaren eta epe luze-koaren arteko oreka bilatzea. Kanpo-mailan, baloratu behar da nortzuek ez duten parte hartzen eta zergatik; gure eragina zein den aztertu (nora ez garen iristen eta zergatik); eta aintzat hartu behar dugu beste borroka batzuekin bat egiteko aukera, baita beste sare eta aliantza batzuekin bat egiteko ere.

Hegemonikoari aurre egitea ez da sareen eta aliantzen kanpo-ekintza gisa ulertu behar, berezko zerbait gisa baizik. Erakundearen barnera islatu behar da; kontrahegemonikoak izango diren egiteko moduak berreskuratu edo asmatu behar ditugu. Ildo horretan, premia-ko zeregin batzuk aipatzen dira: gure pribilegioak zalantzan jarri; lan egiteko modu hierarkizatu eta *sentipentsatu* gabekoetatik ihes egin; zaintzak kontuan hartu; lidergo autoritarioen moduei aurre egin eta, oro har, espazioak despatriarkalizatu.

Sareko lanean lan patriarkala egiteko hainbat modu identifikatu dira, adibidez, baliabideen aldeko norgehiagokan eta borrokan, batez ere baliabide ekonomikoei dagokienez. SKTen iritziz, lan egiteko modu horrek prekaritatea eta porrota dakartza berarekin; hortaz, premiazkoa da guztion onerako ikuspegitik ahaleginak eta baliabideak bateratzeko mekanismoetan pentsatzea.

Hezkuntza-sistemarekiko Ildo Estrategiko horri heltzen diotenean, gizarte-arloaren eta arlo instituzionalaren<sup>2</sup> arteko aliantzak hobetu behar direla identifikatu dute, eta Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren zentzuak, logikek eta balioek sistema horretan zentralak izan beharko luketela.

Rosalba Icazak gogorarazi du deskolonizazio-eskaerak Estatuari zuzentzea (kasu honetan hezkuntza-eremuari) Estatu ongizatearen onuragarritzat hartzea dela. Hala ere, autorearen arabera, gaur egun behintzat, badira instituzio moderno/kolonialeetan lekurik ez duten jakintzak eta, beraz, instituzio horiek ez ditzakete ase.

Bestalde, Lia Pinheirok gogorarazi du gizarte-mugimenduek hezkuntza-prestakuntzarako guneak sortzearen garrantzia azpimarratzen dutela (Herri Hezkuntzaren proposamenaren ildotik), baita hausnarketa-ekintza-gogoeta prozesuak sortzearen garrantzia ere (hezkuntza kritikorako funtsezko printzipio pedagogikoa).

*Bestelako* komunikazio batzuen gaia jorratzean, kultura hegemonikoari aurre egiteko eta erresistentziatzko kontrakultura bat eraikitzeke gaitasunean ardaztu zen eztabaida.

Sare sozialen eta hedabideen potentziala ukatu gabe, “kalea berreskuratu” beharra nabarmendu zen. Hau da, bestelako narratiba batzuk ahalbidetzen dituzten espazioak berriro okupatu edo sortzea (kanal birtualetatik beti iritsiko ez diren narratibak, eta non entzun aurkituko ez dutenak). Herritarren parte-hartzea bultzatzeko beharra adierazi da, “espazio publikoa birpolitizatzeke”. Ildo horretan, SKTek parte-hartze eta pentsamendu kritikorako hezteko interesa azaldu dute, isildutako eta baztertutako ahotsentzat bozgorailu lana egingo duten metodologia aktiboak baliatuz.

*Bestelako* komunikazio hori lortzeko erronka batzuk identifikatu dira. Besteak beste, ilusiozko mezu bat sortzeko gai izatea eta normalean gure komunikazio-prozesuetan parte hartzen ez duten subjektuengana iristea.

Komunikazioaren kontzeptua gizartean era askotako zubiak sortzeko estrategiatzat hartzen da: belaunaldien arteko zubiak, hainbat eremuren artekoak (adibidez,

---

2 Arestian aipatu moduan, sareen eta itunen instituzionalizazioa eztabaidagai izan zen SKTetan.

akademikoaren eta sozialaren artekoak); askotariko interesak dituzten talde eta kolektiboen artekoak, eta abar. Kulturarteko itzulpena funtsezko elementua da hizkuntzen, komunikazio-kanalen eta eremu berezien arteko zubiak sortzeko.

Posizionamendu eta forma kontrahegemonikoetatik komunikatzea bereziki interesgarria da gorago aipatutako paragrafoetan aztertzen diren gizarte-aldaketarako sare eta aliantza horiek eraikitzeke eta mantentzeko. Eta horien baitan elkarriketa horizontalak sortzeko, baina baita gizartea mugiarazteko gai izango den ezagutza sortzeko eta zabaltzeko modu berriak bilatzeko ere.

Komunikazio alternatiboa estrategikoa da aliantzen eta sare emantzipatzaileen hezkuntza-lorratza zabaltzeko, adibidez: kultura- eta multimedia-ekoizpeneko espazio aske eta kontrahegemonikoen bidez; errealitatearen analisia bizitza-esperientziekin uztartzen duten komunikazio-moduen bidez; eta, azken batean, sistema kapitalistak, estraktibistak, heteropatriarkalak eta kolonialak ezartzen dituen diskurtsoei forman eta edukian aurre egingo dien komunikazioaren bidez. instala el sistema capitalista, extractivista, heteropatriarcal y colonial.

## Agurra

Biltzarreko espazio desberdinetatik ateratako ekarpenak baliotsuak dira gure hezkuntza-jarduna kolektiboki birpentsatzeko ariketa honetarako; hala ere, ikuspegi, jakintza eta sentipen anitzen bilduma direnez (ekitaldi honetan bildutako pertsonen aniztasunaren isla), ez dute hezkuntza emantzipatzailearen ibilbidea markatu nahi.

Nahiz eta gero eta argiago dugun zein ereduri egin nahi diogun aurre, eraiki nahi dugunari, nola eta norekin eraiki nahi dugunari buruz hitz egiten jarraitzen dugu oraindik ere. Horretarako hezkuntza berria behar dugu. **Gorputzak eta lurraldeak** aintzat hartuko dituen hezkuntza. **Komunitatetik** eta guztion onurako eraikiko den hezkuntza. Hezkuntza bat, zeinean **ikaskuntza aurre hartzaileak** kritikoki posizionatuko gaituen. **Sareen eta aliantzen hezkuntza eta kultura**, non beste mundu batzuk izateko, egoteko, komunikatzeko eta eraikitzeke modu anitzak sartuko diren.





